



EGĀN



1-6

1980

1-6

1981

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

S U M A R I O

	Pág.
LA MENNAIS, BIDE URRATZAILE: Yon Etxaide-Itharte...	5
OLERKIAK	27
IRAIZOZ'KO POLICARPO AITAREN HAMALAUKOAK: Fran- tzisko Ondarra	29
GIZONAK... BALAKI: Iratzeder	33
BELOKEN: Markue	34
BERTSO BERRIAK BILBOTIK JARRIAK: Jon Aurrek	36
LEHENAREN UR SAKONETAN: Luis Mari Mujika	38
I. Atari Kosmikoan	38
II. Agiña-ko Muinoan	46
III. Hegaka Gailurrean	50
IV. Erroen Indarrean	53
V. Basajaun-en Batzarkideak	59
VI. Borrokaren Gurpilean	63
VII. Zigorak ezin du	65
VIII. Askatasunaren Hildoan	68
IX. Azken Zatia	71
LAU HERIOTZARENTZAT KANTAK. Xose Sesto Lopez-en .	76
Alexandre Boveda	77
Luis Companys	78
Gernika	79
Federico García Lorca	80
KONTU KONTARI	
ATENTATUA: Xabier Kintana	83
OTXANDIOKO: Bitáño	90
TITIRITEROAK (Ipuia): J. Egigurentarra	93
LANAII: Jose Antonio Loidi Bizkarrondo	98
IDURREKO AMAREN SAKRISTAUUA (Ipuia): Arkotxa'tar Josu	117
BARANDIARAN JAUNA ETA GURE KULTURA: K. Mitxelena	123
ADABAKIAK	129
KALETAR LITERATURAZ EDO USTE OKERREN ZUZENKE- TAZ: Juan San Martin	
131	
AGUSTIN ANABITARTE, DONOSTIAR EUSKAL IDAZLE JA- TORRA: Juan San Martin	134
SALLABERRY - SOEGILE IL: A Irigaray	138
A. M. LABAYEN IDAZLEARI OMENALDIA: A. Irigaray ...	138
LABEGUERIE ZENAREN OROITZAPENA: A. Apat-Echebarne	139
BAPATEKO OHARRAK: Bitáño	141
EUSKARA ITZALI DAN TOKIETAKO LEKUKOAK: A. Irigaray	146
IPARRAGUIRRE, GIZATASUNAREN ALDETIK: A. Irigaray	149
ARXU IDAZLEAREN MENDEURRENA: Juan San Martin ...	153
KARMEN LARUMBE-REN DANTZARI-ELKARTEA: A. Irigaray	156
OLITEKO MUSIKA-ALDIK: A Irigaray	158
«SALETXE»: Jokín Otaegi	159
BIDASOTAR MINISTRO OSPETSUA: A. Apat-Echebarne ...	163
PAUL LAXALT, U.S.A.-KO PERTSONAYA: A. Irigaray	165
JUAN JOSE MOGELÉN MENDEURRENA: Juan San Martin	167
AKELARRA-REN IPUINA: A. Apat-Echebarne	169
ENCICLOPEDIA ILUSTRADA: A. Apat-Echebarne	170
LIBURUAK	171
ALEX AZKUE. Poemak: Juan San Martin	177
IOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOIA - Manual Devotionez- coa: Juan San Martin	178
LIBURU BERRIA - SEBERO ALTUBE ZENAREN BIZITZA: A. Irigaray	182
ARANZADI ELKARTEAREN ALDIZKARIA: A. Irigaray ...	184
EL ENIGMA DE LOS BERONES: A Irigaray	186
NAVARRA ECOLOGICA Y PAISAJISTICA: A Irigaray	187
ANTZERKIA	189
HENRIK IBSEN. ANDERE ETXEA (Et Dukkehjem): Jose Agirrek euskaratua	191

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excm. Diputación Foral de Guipúzcoa.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray y Luis Michelena.

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Imp. Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1982

EGĀN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Gulpúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXIX

Enero-Diciembre 1980-1981

tillon-ek girstino mugimendu berrizale honetaz eskaintzen dizki-
gun albiste ernagarriak, handik eta hemendik zenbait osagarri
erantsirik.

Mugimendu izpiritukoi eta idealzale honen buru eta gidari
La Mennais izan genuenez gero, gizon honen inguruan mamitu-
ko dugu gure kontakizuna. Beraz, aztarrika dezagun lehenengoz
katoliku liberalen bizigiroa, jokabidea eta borroka helburua, ba-
rruti txipi baina zaporetsu honen berri ematea denez gero geure
helburu apala.

Felicité Robert La Mennais (2), Bretaña-ko Saint-Malo hirian
jaio zen 1782-gn. urtean. Bost urte zituelarik galdu zizun ama,
eta zorigaitz honek, beharbada, franko eragin zion, bere izateaz
zeharo jabetu zèn samintasuna areago finka zedin.

Umetatik egoskorra eta Patxi- kontra izan omen zen eta bere
adineko gazteak ez bezalako gogoetak zerabiltzan ausnarka. Fran-
tziako Iraultza hotsandikoa bere gaztarorik samurrenean sortu
zen. Hautzarroan edoskitako materialismu giroak eta zenbait ira-
kurgai badaezpadakoek (Rousseau eta Voltaire, adibidez, bazka-
gai kuttunak baitzituen), fedea gal-arazi zioten. Hala guztiz ere,
Eliza Katolikua-ren magalera bihurtu zen berriro, eta hogeitabi
urtetan egin zuen bere lehenengo Jaunartzea.

1805-gn. urtean, Féli (hala esaten baitzioten ingurukoek) La
Mennais, Chénaie (hariztia edo artadia) deitzen zioten basetxe
batera joan zen, ez atseden beharrez bakarrik, zeren bakartasu-
nezko eta gogoetazko bizimodua bilatzen baitzuen ororen gai-
netik.

Hiru urte barru, bere irakurkizun eta ausnarkizunen lehen-
dabiziko frutua ematen du, hots: *Reflexions sur l'état de l'Eglise
en France pendant le XVIII siècle et sur la situation actuel*. Li-
buru hontan, bere gerokoan oinarri, inolaz ere, kristaugoari hots
egiten dio, Ebanjelioaren erakuspen tolesgabetara bihur dadin.

(2) Hauxe da jatorrizko deituraren iraztankera. Gero, Eliza Katoliku-
aren baitatik saihestu zenean, Aita Sainduari oldartu ondoren, Lamennais iraz-
ten hasi zen, herrikoia go eta lauago baitzeritzon tankera elkartu honi.

La Mennais-ek berak aitortzen digunez, apezgintzarako dei bereizirik somatu ez baldin bazuen ere (3), eliz-gizon izateko erabakia hartu zuen eta 1816-gn urtean eman zuen Parisen bere lehenbiziko meza. Jainkoak neke eta lorrak ematen baldin badizkio gizonari, hauek ito ez dezaten pozbide eta alaitasunak ere ematen dizkio. Apezaren bizimodu zorrotzean, esaterako, lehenengo meza eguna, egunik pozgarriena da, ezkonberrientzat eztei eguna antzo. Hona, bada, La Mennais-ek esaten diguna ospakizun hontaz: lehendabiziko meza eman zuenean, argi eta garbi aditu omen zuen barru-dei hauxe: «Neure gurutzea eraman dezazun deitu zaitut (dizut); baina, entzun ongi: gurutzea bakarrik». Egunoroko meza eman ondoren, berriz, maiz esan ohi zuen dohakabe bat zela. Zer ote zuen gizon hark bere barruan horrela samintzeko? Bokazinoz antzu apeztu zelako ari ote zitzaion hozka barne har hura? Dena den, bere mingostasun harra gero eta barneragotzen joan zitzaion.

1818-gn. urtean beste liburu bat argitara eman zuen: *Essai sur l'indifference en matière de religion*. Liburu honek katoliku jendea alde eta kontra berotu zuen, ez baitzen anartean hain gordin eta ausarki mintzatu inor katoliku barrutian.

Galikanuak, hots, Eliza, nolabait ere, Frantziako Errege agintearen morroitzako nahi zutèn katolikuak, etsai amorratu bilakatu zitzaizkion eta *Aphorismata* zeritzàn lan batean, hauen erlisino tankera sasiko iritzi zuen.

La Mennais-en inguruan bere ideietako jarraitzaileak biltzen hasi ziren. «Chênaie» basetxera lehendabiziko heldu zitzaiona Gerbet elederlari gorengoa izan zen, eta honen ondoren Lacordaire eta Montalembert hotsaundikoak (4).

(3) Lanson eta Tuffrau-ek areago diote: «Nahiz eta sakonki girstino izan, ez zuen apez izan gura, baina ordenazinoa eskatuz amaitu zuen, bere gogo-zuzendariaren eta anaiaren eraginpean, krisi sakon eta larriak igaro zituelarik bitartean» (Manual de Historia de la Literatura Francesa, Editorial Labor, S. A., Barcelona, 1956, 481 p.).

(4) «Lacordaire (Henri), fraide frantsesa, Recey-sur-Ource (Côte d'Or) dertizan hirian jaioa (1802-1861). Lehenik La Mennais-en adiskide eta *L'Avenir*-ko lankide izan zen. Aita Sainduaren gaitzespenaren ondorioz burua makurtu zuen. 1835-eko eta 1836-ko garizumak predikatu ondoren, dominiku jantziak hartu zituen eta ordena bir-ezarri zuen Frantzian. Era hontan jarraitu zuen predikatuz eta erakutsiz» (Petit Larousse).

«Montalembert-eko kontea (Charles Forbes), berri-emaille (publizista) eta politika gizon frantsesa, Londres-en jaioa (1810-1870), katolizismo liberalaren defentzaile» (Petit Larousse).

La Mennais, Chênaie-n bizi zelarik, goizeko bostetan jaikitzen zen eta berehala meza ematen zuen bere ikasleen aintzinean. Goiz guztia estudiantzen jarduten zen (zuen) eta halaber beronen ikasleak. Jakintza gai aunitz lantzen zuten, bakoitza bere grinei eta joerei jarraiki. Halaxe, hizkuntzak, matematikak, filosofia, teologia, edergintza —arteak, alegia—, historia, fisika, ekonomia eta abar. La Mennais-ek, estudiantzen eta lanean hamabost ordu egiten zituen egunean, eta laster gizon jakintsu egin zen zientziari eta edergintzari dagozkien gai askotan.

Hontan, 1830-gn. urteak Uztaileko Iraultza entzutetsua ekarri zuen. Charles X-gna., Louis XVI-garrenaren (Paris-en gillotinatua) eta Louis XVIII-garrenaren anaia, jausi zen bere agintaritzaren absolutistarekin, eta Louis Philippe, Orleanseko dukea, hots, Philippe Egalité-ren semea, igo zen erregetzara, liberal kutsu garbiko politika konstituzinozalea erakarriz berarekin. La Mennais-ek, Louis Philippe-ren gobernamentu liberalari esker, *L'Avenir* egunorokoa atera ahal izan zuen. Katolizismuaren eta Libertatearen kausa bat egitea hartu zuen helburutzat albistari honek, eta gudu oihu antzo «Jaungoikoa eta Libertatea» erabili zuen.

Lan luzea litzateke, nahiz-eta labur zurrean, *L'Avenir*-ek agintaratutako lanen berri ematea. Esan dezagun soilki, ideal baten sugarrak eraginik, lanik ugari agertu zuela Eliza eta Estatuaren (Legerriaren) bereizi beharraz, Eliza eta jakintzaz, Eliza eta gizarte auziaz, albistaritza libertateaz, herriaren hautatzeko eskubi-deaz eta abar.

Elizaren eta Legerriaren aginteak bereizi beharraz mintzatean, apezpikuak aukeratzeko eskubidearen murriztea (hots, erauztea, kentzea) edo urritzea Elizarentzat zeinen kaltegarri den aditzera ematen digu. Eliza, Errege absolutisten gobernamentuari gogoz menderatzearekin, eta are gehiago, gobernamentu tankera horren adiskide eta lankide egitearekin, galbidetan jarri zen; herri zehearen begirapena, uste ona, konfidantza eta maitetasuna galdu baitzuen, bai eta bere burua arriskatu ere, hau politika tankera baten adurrari (zoriari, zorteari) lotzean.

Morroitza honen truk Elizak Estatuagandik jasotzen duen diru laguntasunari «lohiez zikindutako ogia» esaten zion, zeren, apez eta apezpikuak diru hori berenganaturik, Legerriaren morroi eta ogipeko beldurti bilakatzen baitira, eta Ostia Saindua

bezain sakratua behar lukeen hitzaren libertatea saltzen baitute. Horra apezeti esan: «Begira Kristo, eta ikas txiroak izaten, libertatearen jabe izan zaitezten; oster, zuen buruak errespeta-razi itzazue, sendoak izan zaitezten». Areago: «Ez zituen igorri Jesus-ek Apostoluak bere hitza aldarrikatzera Kaisar-en diruraduradunari pagatzeko agindua emanik. Aitzitik, gurutzearekin igorri zituen eta, gure beharren neurrian, egunean eguneko ematen digun Jaungoikoagan konfidantza mugagabe bat jarririk. Zer behar du, izan ere, apezak, bere Jaungoikozko mandatua betetzeko? Ezpainak libro eta ogi pusketa bat».

«Eliza eta Legerriaren bereizkuntza berehalakoa eta erabatekoa eskatzen zuen —dio Gaston Castilla-k (5)—, kulto presu-postua bazterretsiz (6), (Elizari) «botatzen zaion ogi puska hori», «bere zapalkuntzaren titulua». Herrien liberakuntza aldarrikatzen zuen, beren aginpide berria ez baitzen izango —berak uste zuenez— zapaltzailea, Erregeena bezala, eta Elizaren adiskide bihurtuko zen. Biziberritze (7) programa bat egiten zuen bere, esku-zabalekoa baina mugatugabea (8). Nahiz eraberritze intelektual bat, nahiz jakintza edo zientzia katoliku baten etorrera goraiatzean, Erdi Garaiko pentsamenduaren handitasuna ez zuen ezagutzen. Amodioan oinarritutako adiskidego politiko baten etorrera iragartzean, gizaleen (9) eta nazinoen arteko zati-ketak deuseztuz, utopian erortzen zen. Pobrea eta langilea apezaren adiskide izango zirèn gizarte erakunde batean amets egitean. Ebanjelioaren tradizino jatorra jarraitzen zuen, baina ez zuen markatzen hori lortzeko biderik.

«Bestalde, askozaz ere zehatzagoa zen, berak «sei libertate funtsezkoak» esaten zituenak bir-eskatzen. Hauek, gauza bikainik bazuten beren baitan, baina neurri eta zentzu bereizgarri baten faltaz zilegikeria neurrigabe baten arriskuan jartzen ziren. Horratx berauek: konzientzia libertatea, erakuspide libertatea, albistaritza libertatea, elkartasun libertatea, hautapen edo

(5) Historia de os Papas, Tomo II, desde la reforma católica, hasta Leon XIII. Traducción del francés por Victorio Peral Domínguez, Pbro., Espasa-Calpe, S. A., Madrid, 1970. II-gn. Tomoa, 294 paia.

(6) Renunciar.

(7) Regeneración.

(8) Tekstuan: generoso pero difuso.

(9) Indnviduos. Gizale=giza-ale.

aukerabide libertatea, probintzien eta udalen libertatea deserdiratzearen (10) bidez. Azkenik, *Batasun Agiriaren* bitartez federakuntza (11) zabal batean biltzeko saioa herrialde guztietako katolikuak eta liberalak, areago emendatu (12) zuen Eliz-agintarien kezka. *L'Avenir*-en gogorkeriazko mintzabideak erregeza-leei buruz, aunitz irakurle galdu-arazi zizkion. Egunkariaren jabe egiten zuen elkargoak argitarapena moztea erabaki zuen 1831-ko hazilean (13) eta La Mennais-ek, Lacordaire-ek eta Montalembert-ek Erromara joatea erabaki zuten, Gergori XVI-garrenaren aintzinean beren buruak zuritzeko» (14).

Ducatillon-ek dioenez, *L'Avenir*-en ideiak aldi hartarako oso aurrerakoiak ziren eta oraindik orain haren esatereen ausardia txundigarri egiten omen da. Mintzaira doinua ere sutsu, zipokari (15) eta neurrigabea zen (16).

L'Avenir-en erakuspenen mamia, ordea, zinezkoa, jatorra eta girstino ubegi garbikoa zen. Ducatillon-ek ederki dioenez, Leo-

(10) Descentralización.

(11) Federación.

(12) Berretu (=aumentar).

(13) «*L'Avenir*», 1830-eko urriaren 16-an sortu zen; beraz, urtebeteko bizia izan zuen. Egunoroko albistaria zen.

(14) «*Historia de los Papas*», 294 p., Madrid, 1970 (Gaston Castilla).

(15) Provocador.

(16) «Oraindik orain —dio Ducatillon-ek— «*L'Avenir*»-en ideiek harri eta zur uzten bagaituzte beren ausardiagatik, orduan, ulertu ahal izateko gurearen prestaerarik ez zuen mundu hartan, beren berritasunagatik nabarmentzen ziren. Zera aditzera ematea alegia: 1789 eta 1830-eko iraultzak zinez kristaugoaren frutuak zirela eta Elizarentzat ongarri etsi (kontsideratu) behar zirela, belaunaldi hartako gizonentzat bitxikeriarik (paradojarik) eskandalugarrietakoa zen. Nabarmengarri da «*L'Avenir*»-en mugimenduak aurkitu zuen oposapena ia guztien partetik: kontrapostura uztaileko *goburuaren* partez, «*L'Avenir*»-ek gogor eraso baitzion honi, eta arrestuz, auziz eta kondenamenduz erantzun zion harek; kontrapostura *liberal soilen* partez, 1879-ko dotrinen jarraitzaile zuzenak baitziren, hots, enziklopedista antikatolikuen ondorengoak; hauek, «*Le Globe*» egunkariaren bidez, katoliku liberalak *sasiliberalizat* salatu zituzten. Azkenik, *mundu katolikuen* kontrapostura, hau Agintekera Zaharrari loturik egon baitzen nagusitasun handi batez, eta gorroto zuen mundu modernua, iraultzaren frututzakoa; are gehiago: «izurritzetat eta Satan-en sorkaritzat» zeukaten. Katoliku sail horren oposapena kupidagabea izan zen eta «*L'Avenir*»-en mintzaira gehiegizkeriaz baliatu zen, beronen lankideei erasotzeko» («*Dios y Libertad*», 208/209 paia, Ediciones Orden Cristiano, Buenos Aires, 1945).

ne XIII-garrenak, Santo Tomas Akinokoaren teologia erakuspe-
netan oinarriturik, gauza askotan arrazoi eman zion liberalismu
katolikuari (17). Adibidez, Eliza eta Legerriaren arteko har-ema-
netan, katolizismu liberalak aldarrikatzen zuen dotrinaren guna
onartu zuen. Ez zen mintzatu Leone XIII-garrena bereizte oso
batez, baina bai bi aginteak zeharo autonomoak behar dutela
izan beren alorretan eta Eliza ezin daitekeela gobernu tankera
baten mendeko edo esaneko izan. Aita Saindu handi honen pen-
tsamoldea dela-eta, katoliku absolutista asko bere etsai amorra-
tu bihurtu ziren, eta alderantziz, Leone XIII-garrenaren hitzek,
katoliku liberalei arnasa eta adore eman zien beren jokabidean
jarrai zezaten.

L'Avenir-en etsairik zitelenak katolikuak izan ziren, hauek
errege absolutisten politikari erabat loturik baitzeuden eta ezin,
inolaz ere, begi onez ikusi, Libertatea oihukatuz ez-ezik, 1789-ko
eta 1830-eko Iraultzak kristauesten zetozen katoliku berriok.

Katoliku erregezaleek, Ebanjelioaren erakuspideak hain gor-
din berritzen zituén egunkariaren dehadarrak ezin jasanik, Erro-
ma-ra salatu zuten *L'Avenir*-en jokabidea. Orduan, Erromako
epaiaren zain egoteke, La Mennais-ek berak jo zuen Aita Sain-
duarengana zuzen eske. Gergori XVI-garrenak, alabaina, «Mirari
Vos» izenez enziklika bat argitara eman zuen, *L'Avenir*-en joka-
bidea gaitzetsiz. La Mennais-ek burua makurtu zuen eta Ger-
gori XVI-garrenaren Aita Sainduzko agintaritza zuzen-etsirik,
bihotza minez erdibitu baldin bazitzaion ere, bere egunkari ku-
ttuna gehiago ez argitaratzea erabaki zuen. Beharrezkoa da baina
aditzera ematea, Aita Sainduak ez zuela gaitzetsi La Mennais-en

(17) Nola aesan daiteke «liberalismo» euskaraz? Ez *libertaltasun* eta ez
liberalkeria ez dira egokitzen *-ismo* atzizkiaren «*dotrina*» alierazpenera. Nor-
baitek —Bujanda euskal-irazolea izan zela uste dut—, «liberalкера» propo-
satu zuen, dotrina edo sistema bat adierazteko atzizkirik egokiena bezala.
Eta zinez «liberalкера» goxo zaio belarriari, baina beste dotrina adierazga-
rri ez da hain goxo. Esaterako: *laikukera* (=laicismo), *katolikukera/kato-
likera* (=catolicismo), *protestankera* (=protestantismo), *makiavelokera* (=ma-
quiavelismo), *zinikera* (=cinismo) eta abar. Alabaina, gogortasun hau, gure
belarriak usadio hontara egin gabe egoteak dakar. Beraz, ni ez nago Bujan-
daren kontra inolaz ere, alde baikik. Nahi nuke ordea, Euskaltzaindiak erabaki
bat hartzea puntu hontan, beste askotan bezala, irazleok beti duda-mudetan
egon ez gaitzen. Nola batuko dugu euskara, Euskaltzaindia pundurik gehien-
etan mintzatzen ez baldin bada forma baten edo bestearen alde?

albistariak aldarrikatzen zuen Libertate erakuspidea, Libertatearen izenean oihukatu gehiegizkeriak eta neurri gabekeriak baizik.

Gaston Castella-k honela dio: «*Erromako arazoak* (18) deritzan bere liburuan, Lamennais Aita Sainduaren erantzupen zain agertzen zaigu bi hilabetetan, Europako Gortetik gehienek estu hartzen zutelarik, errepublikazale periltso hau kondena zezan. Gaur eskurakor zaizkigun dokumentuen arabera, badirudi egia besterik dela. Gergori XVI-garrena ez zen —bere gibel-jaleek, **gaizki** esaleek alegia, hala badiote ere— aditzera eman duten izpiritu estua, zauli-ezina (19) eta gaizki informatua; baina, benetako Gobernu buruzagi bezala, bere informazio iturburua aditzera eman gabe gauzen berri jakiten zuen, eta lehendabiziko etorberriari ez zion agertuko ikasi zuena. *L'Avenir*-i buruzko azterpena honoko hauei leporatu zion: Aita Ventura-ri, teatearren (20) Aita Nagusiari, hauen anaietxean, komentuan alegia, bizi izan baitzen Lamennais; Lambruschini kardenaleari, Lunzio (21) zaharra Parisen; eta, Modena-ko Aita Baraldi-ri, Lamennaistar taldearen begikoa. Hirurak, funtsean, akort ziren aitortzen Lamennais-en buru-argitasuna eta are gehiago, buru-gailentasuna (22); begirunez hartzea haren minberakortasun espatsua (23); baina, ez zioten bere bidean arnasarik eman gura, zeren, haren dotrinak, bataz besteko, nahasten baitzuen euren begipean Elizaren eta gizartearen izaera.

L'Avenir-en hiru erredaktatzaileek oroitagiri zurigarri (24) bat aurkeztu zioten Aita Sainduari, aguro mintza zedila eskatuz: «Kadira Sainduaren isiltasunak —zioten— haren jarraitzaileen alimoen eror-aldia ekarriko baitu»; —hala ere, Lamennais pazientzia galtzen ari zen isiltasun hau dela-eta (dela bide), eta

(18) Aferak. Tekstuan: Asuntos de Roma.

(19) Inflexible.

(20) Teatinoen. Hiztegiak dio: «Teatino: (del obispo de Teate Juan Pedro Caraffa, fundador de esta orden, y después sumo pontífice con el nombre de Paulo IV). Dícese de los clérigos regulares de San Cayetano».

(21) Nuncio.

(22) Tekstuan: genio.

(23) Tekstuan: susceptibilidad recelosa.

(24) Memoria justificativa.

bere adiskideen sasi-posturak (25) eta Aita Sainduaren bulda-
txoak poloniatarren burumakurtzea gomendatuz, bere haserre-
aren neurriari gainez eragin zion. Erroma, 1832-ko Uztailaren 9-an
utzi zuen Montalembert-ekin, eta Munich-era jo zuen; hemen,
Lacordairekin elkartu zen. Aste batzuk geroago, Tolosako Artxa-
pezpikua buru zuen eliz-mandatalgo (26) frantses batek, Lamén-
nais-en hutsegite teologikoen lerrokada bat osatu zuen eta Aita
Sainduari eskatu konfirma zezala bere iritzia.

«1832-ko Agorrilaren 15-ean, «Mirari Vos» enziklikak, argu-
mentuok errepikatuz (27), liberalkera handikiro gaitzetsi zuen.
Munich-era heldu zen La Chênai-ko eskolako buruzagien esku-
etara, eta Lamennais-en aurreneko bihozkada menderatzekoa
izan zen; soil-soilki bere egunkaria aipatzen zen. Enziklika, *L'Ave-
nir*-en azaltzen zirèn errebindikapen zuzen guztien onirizle (28)
egiten zen, baina gaitzesten zuen «iritzi libertate oso eta eraba-
tekoa», «berotasun neurrigabea burujabetasun (29) ausarta ba-
ten alde» eta Printzeen zabarkeria edo arduragabetasuna «erli-
sinoa eta Jaungoikoarekiko pietatea» babesten. Hitz batean: «Le-
gerri laiko eta iraultzailearen» gaitzespen bat zen, egiazko eta
gezurrezko ideiak librokiki diskutitzea berez on dela defendatzen
dutenen kontrako eragina, baina ez anatemala bat gizarte moder-
nu guztiaren kontra, eta Metternich-ek alferrik deitoratu zuen
(30), enziklika, legezketasun lehenkien benetako sagarapen bat
(31) ez izana» (32).

Zorigaitzez, La Mennais laster damutu zen Aita Sainduari
erakutsitako menpetasunaz eta liburu berri bat argitaratu zuen
Paroles d'un croyant (Fededun baten hitzak) izena emanik. Li-
buru deitoragarri (33) hontan, La Mennais Erromako Eliza Kato-
likuari erabat oldartzen zaio eta, geroztik, *L'Avenir*-en buruza-
giak, katoliku izateari ez-zez, giristino izateari ere utzi zion.

-
- (25) Postura itxuratiak. Tekstuan: la reticencia.
 - (26) Comisión eclesiástica.
 - (27) Indarberrituz. Tekstuan: reiteraba.
 - (28) Tekstuan: se hacía intérprete.
 - (29) Tekstuan: independencia.
 - (30) Lamentó.
 - (31) Tekstuan: una consagración auténtica de los principios de la legi-
timidad.
 - (32) Historia de los Papas, 294/295 paia.
 - (33) Lamentable.

Liburu hau Gergori XVI-garrenak *Singulari vos* (34) enziklikan gaitzetsi zuen. Harez gero, La Mennais zeharo aldendu zen Eliza Katolikuaren babesetik, haren dogmak ukatu zituen eta apezgoari uko eginik, Parisen jarri zuen bere egoitza. Bide zuzenean hain lehiatsu jarraitu zioten bere ikasleek, bide okerrean (makurrean) ez zioten jarraitu nahi izan. Aitzitik, beren irakaslea Elizaren magalera berriro erakartzen saiatu ziren. Alferrikako lana izan zen, ordea. La Mennais-en bihotza gogortua eta setatua zegoen hartu zuen posturan eta bere azken asnase-raino ukatu zen Erromako Elizaren altzora bihurtzea. Ez zen aitortu heriotzeko orduan eta bere ilobian ez zuten gurutzerik ipini, hala izan baitzen «apez arnegatuaren» azken borondatea.

Gaston Castella-k honela dio arestian aipatutako liburuan (295 p.): «1834-gn. urtean «Fededun baten hitzak» argitaratu zuen, La Chênaie-n iratziriko gogapen, otoitz eta ikuspen saila, alegia. Erregeen kontrako irainak, otoitzari buruzko isurpen ukigarri (35) eta sarkorrekin nahasten ziren (zeren otoitzak) «bihotza arintzen baitu eta arima alegeratzen» Amodiari buruz honela dio: «Arima garbien hondoan egon ohi dena, intz tanto bat bezala lore baten kukuluan» (36). Arima urratu handi baten garraisia zen, bere burujabetasun harro eta hezigaitzean setatzen zelarik.

«Singulari vos» enziklikak «Fededun baten hitzak» gaitzetsi zuenean 1834-ko Ekainaren 25-ean, beronen egileak bazterturik zituen lizifrina eta dogma katolikuak eta sozialismo iraultzailean bazkideturik zegoen. Bere pentsamenduaren azken etapa, «Lehendabiziko gizarteaz eta bere legeez, edo erlisinoaz», 1848-an agertzen duena, badirudi —ongi informatutako historiogile baten neolojismoaren arabera— *demoteismo* tankera bat dela. «Katoliku sutsu zèn bitartean, egia arimen boto eskubide tankera batean oinarritzen baldin bazuen, iadanik herriaren hutsegin ezina ikusten zuen; gero, beragan, Zuzenbidea eta Eskubidea (37) ikusi zituen...» (Mourret). Ultramontanorik estuena izaten hasi zèn iskribatzaile gailenak, Aita Sainduarekin urratzen bu-

(34) Lanson-Tuffrau-ek «Singulari nos» dakar.

(35) Testuan: penetrantes efusiones.

(36) Ninikoan (=cáliz de la flor).

(37) La Justicia y el Derecho.

katuko zuen, eta demokraziaren eta sozialismoaren mistizismoak, haren gidatzaile izanen baitzen aurrerakoan, ernaraziko zuen bere herrialdean eta bestetan 1848-ko iraultza. Nazino Asanbladara aurkeztu zen eta Sena-ko eskualdeak aukeratu zuen. Bertan, mindurik eta lanari lotu gabe egon zen; berea bezalako izaera oso bat, tankera hontako idealista trataezin bat, nekez molda zitekeen politikaren errealitate aldakorretara. 1854-ko Otsailaren 27-an hil zen, apezaren laguntzari uko egin ondoren. Urrengo igandean Aita Gretry-k, Otoizlekuko bere predikuan, oihukatzen zuen: «Etsipenera jo behar al dugu arima gaiso honen salbakuntza dela-eta? Ez. Etsenplu handi hau ikasbide izan zedin, Jaungoikoak permetitu du haren azkenak itxaropen oro gal zezala. Baina arima hau gure herrialdeko sentimendu erlesinozkoa birpizten saiatu zen. Ez al dugu pentsatu behar gure begientzat ezkutuan dagoen damuren bat izango zela, eta errukia lortuko zuela?». Gristino itxaropenaren eta garaitatearen oihuak ziren.

«Tristea izan baldin bazen ere Lamennais Abatearen azkena, XIX-gn. mendeko mugimendu erlisinozkoari eman zion bultzada ikaragarritzkoa izan zen. Bere ikasleek ez zioten jarraitu hutsegitean eta *L'Univers*-en —1833an fundatua izan zen katolikeraren zurgaitz sendoa— Louis Veuillotek, *L'Avenir*-en tradizioak argi eta garbi aitortuz jarraituko zuen. Veuillot-ek ez zuen geroago dudarik egin baiezten, Vaticano I Konzilioa bide zela, inork ez zuela Lamennais-ek bezala lanik egin «Frantzia Aita Sainduaren hutseginezin dogma salbatzailera gidatzeko». Liburu honen mugari gainez eginen lioke, bere errebelgoaren (38) momenturaino jarraitu ziotenen birpizte izpiritual eta politikoa azaltzea. Lacordaire-en gonferentziak Pariseko Notre-Dame-n, Rohrbacher-en obra historikua, Dom Guéranger-en berrizte liturjikua, Ozanam-ek irazan (39) zituèn Jaun Done Bikendi Paulekoaren gonferentziak, Montalembert-en erakuspen libertatearen aldeko parlamentu kanpaina eta partidu katoliku baten sortaraztea izan ziren *L'Avenir*-en fundatzailearen berriztatze lanek emandako frutu ioriak» (40).

(38) Rebeldía.

(39) Fundar.

(40) Gaston Castella: Historia de los Papas, Tomo II, 296 p.

Ikus dezagun orain nola irizten dion G. Lanson eta P. Tuffrau-ren «Manuel illustré d'histoire de la littérature française» liburuak «Paroles d'un croyant» deritzon obrari: «Lamennais errotina, Rousseau eta Chateaubriand-en iturritik datorren erromantiku bat da. Nitrolles-eko baroiak zioen haren buru-gailentasuna (41) ekaitzaren semea zela. Félicité-Robert Lamennais (adiskidego laburpenez M. Féli) Saint-Malo-n jaio zen 1782-an eta La Chênaie-ko (42) oihanetan leziatua (43) izan zen, Dinandik hurbil. Nahiz eta giristino benetakoa izan, ez zuen apez izan gura, baina ordenazinoa eskatuz amaitu zuen bere izpiritu zuzendariaren eta anaiaren eraginpean eta krisi sakon eta larriak iragan ondoren. Katolizismo demokratiku baten ideia ausarta eta errotsua bururatu zitzaion: beretzat, lehenki liberal eta berdinzaleak ebanjelio izpirituaren ondoren azkenekoa eta beharrekoa baitziren; Aita Sainduak, hortaz, herriak arrastaka eramaten zituèn mugimenduaren buru jarri behar zuen eta erabat ezarri Ebanjelioaren erregetza Lurbiraren gainean. Baina Aita Sainduak ez zion jaramonik egin, eta Elizak gizarte modernua begi txarrez ikusiz jarraitu zuen, eta Lamennais-ek uste izan zuen, Aita Sainduak, Jaungoikoaren justizia bereiztasunik gabe denei leporatu beharrean, agintari mundukoi batek bezala obratzen zuela eta bere kausa erregetzari lotzen ziola. Zenbait aldiz deseskubidetua (44) izan ondoren, Lamennais La Chênai-ko (45) bere bakardadera erretiratu zen, eta han iskribatu zuen egun gutxitan *Paroles d'un croyant* (Fededun baten hitzak). Beronetan eragiten zien gizonen ez aurrerakoan usterik izateko Jaungoikoagan eta beren buruengan baizik (1833). *Singulari nos* (46) bulak gaitzetsi zuen liburu hura, «txipia lodiz, baina txit handia gaiztoz». Elizatik kanpo iadanik, Lamennais-ek demokraziaren aldeko borrokari jarraitu zion. 1848-an Parisek ahaldun (47) hautatu zuen. Baina, 1851-ko Legerri kolpeak urratu zituen bere indarrak, esperantzarik maitagarrienak zitzaizkionak errekarara-

(41) Genio.

(42) Gaztelaniazko itzulpenean: La Chesnaie (Barcelona, 1956, Edit. Labor).

(43) Edukatua.

(44) Eskugabetua (=desautorizado).

(45) Tekstuan: La Chesnaie.

(46) Gaston Castella-k (296 p.). *Singulari vos dio eta Ducatillon-ek* (Dios y Libertad), 464 p., *Singularis nos*.

(47) Diputadu.

tzean; 1854-an hil zen. Lamennais arima zintzo eta lehiatsua zen eta haren sukarrak eragin handia izan zuen bere garaikoetan, nagusienak barne, hala nola Vigny, Hugo eta George Sand.

«*Fededun baten hitzak* obra apokaliptiku bat da, dena Ebanjelioaren oroigarri duelarik: zatiketa bertsetetan (48), parabolaren erabiltzea eta hizkera xalo (49) eta zuzena. Arrazoin sakon bat zuen antzarpen horren zurigarri: Lamennais-ek demostratu gogo zuen Ebanjelioa dela demokraziaren iturri berbera; Ebanjelioaren mintzadoinu berbera erabiliz, egia handi hura sarkorragoa egitea espero zuen. Bere ustez, mintzadoinu harek, hain egosterrez izanik lagunabarrentzat, gehiago bihotz-ukituko zituen hauek. Ez zegoen oker hortan: herriak onartu zuen liburua berehalaxe. Beraren konposaketan ari ziren tipografoak «goralxtaturik eta sorgorturik» (50) senditzen zituzten beren buruak (Sainte-Beuve). *Fededun baten hitzak* gelditu zituen ateismoaren aurrerapenak errepublikatarren artean eta bai ahaltzuki lagundu ere, 1848-ko iraultzan bukaera aurkituko zuen mugimendu gizatiarra sortarazten» (51).

Amaitzeko, Louis Veillot-en lerro batzuk alda ditzagun, Ducatillon-en liburu berberatik aterarik: «Ezin dezakegu ahantzi, Feli La Mannais-ek erlisinoari zerbitzu txit handiak egin dizkiola. Bera jabetu zen lehengoz geuk gerizatzen ditugun ideiez, berak urratu zigun gu orain pasa nahian gabiltzan harratea, eta haren hutsuneak gaitzetsi behar baditugu ere, saia gakizkion ulertzen, bere alde erreza dezagun eta gaizki esanik ez diezaigun jaurtiki» (52).

(48) La división en versículos.

(49) Tekstuan: tono sencillo.

(50) Tekstuan: «exaltados y como transportados».

(51) Juan Petit-ek (Barcelonako Unibertsitateko irakasleak) honela itzultzen ditu gaztelaniara, Lanson-Tuffrau-ek egindako lerro definigarriok: «Lamennais es un gran poeta. Es pintor y profeta. Antes que Hugo, fue un asombroso visionario, un grandioso creador de símbolos, de formas ora prácticas, ora fantásticas que confieren a la idea abstracta que revisten una increíble fuerza de penetración. (Parábola VII, de los viajeros que se unen para apartar un peñasco que les cierra el camino; parábola XVII, de los pájaros; parábola II, visión apocalíptica de las revoluciones que emanciparán el mundo)». (Aipatu liburua, 483 p.).

(52) Dios y Libertad, La encíclica «Mirari vos», 468 p., Orden Cristiano, Buenos Aires, 1945.

Aitorkizun miresgarria hauxe, Louis Veuillot-ek egiten dio-
na, zeren, *L'Univers*-en zuzendaria —aldizkari hau bere ideien
agerlari zuelarik—, katoliku estuetakoa baitzen, berrizaleen kon-
trakoa, tradiziozale eta erregezale gogorra eta Elizak Errepu-
blikarekin onezkoak egiteko etsaia; eta hala ere, katolikutasun
liberalaren bandera altxatu zuen gizonaren handitasuna aitor-
tzen ez dizu lotsarik. Veuillot-ek gizontasun eta bihotz handi bat
darakus bere etsaitzakoari opa dizkion hitz hauen bitartez.

Ikus dezagun orain nola juzgaten dituen gure Artetxe-
k Louis Veuillot eta *L'Univers* beronen aldizkaria: «Denbora asko
zen Lavigerie (53) Kristoren Bikariaren zerbitzu bete-betean ze-
goela. Katoliku guztiek ez zezaketen, inolaz ere, horrelakorik
esan. Aldizkari katolikuek ematen zuten erakuspide, batez ere
L'Univers-ek, sortzez egunkari oso apala, baina oso entzutetsu
bihurtu zena Louis Veuillot-en zuzendaritzapean. Hau, katoliku
eta erregezale hertsia (54) zen, eztabaidazale sutsua, Voltaire-ren
tankeratsu. Albistalari (55) katoliku handiak, Eliza garitate ga-
beko suz zerbitzatzen zuen sarritan eta postura pertsonalak de-
fendatuz, Leone XIII-garrenak eta prelatuek zenbait aldiz deses-
kubidetu zutelarik.

«Veuillot —katolikeraren gudari—, Lavigerie-ren adiskide
zen eta honi asko lagundu zion bere zereginetan *L'Univers*-en
bitartez. Baionarrak, eskutitz mamiko batean, bere adiskide egi-
ten zen Rodez-ko apezpikuari, albistalariaren erretratu hau egi-
ten dio: «Veuillot, azkeneko aldiz Paris-en ikusi nuen. Bere filo-
sofiaren —ez noski Santo Tomasena— bi aksioma eskuratu ziz-
kidan. Lehenbizikoa hau da: zuhurtasuna kretinismoaren (kre-
tinokeraren) aurreneko seinalea da. Eta bigarrena: garitatea al-
bistari batentzan bertuterik gaitzesgarriena da. Veuillot-en *bou-
tade* (ateraldi burutsua) delakoak argitzen du haren garaiko
katoliku giroa. Egiaren garaipena zen behar-beharrekoa, gari-

(53) Lavigerie (Charles), frantses prelatua, Baiona-n jaioa (1825-1892), Sor-
talde Eskoletako Zuzendari eta Aita Zurien fundatzaile, Afrikako primatua.
Topaldi (toast, brindis) sonatu batean katolikuen Errepublikarekin adiskide-
tzea («ralliement») goraiatu zuen (1890). (Petit Larousse). Lavigerie, odolez
ez baldin bazen ere, sentimenduz euskalduna zen. Berak esan zuen: «Ni eus-
kalduna (basque) naiz, eta hala naizenez, setatsua behar denean» (José de
Arteche, Lavigerie, El Cardenal de Africa, 17 p., Icharopena, Zarauz, 1962).

(54) Intransijentea.

(55) Periodista.

tatea apurturik geldituko baldin bazen ere. Zalantzarik gabe, iskribatzailearen ausardiak, talentuak eta buru zorrotasunak, koldarturik zeudèn katolikuak sutu zituen; baina, ez da ahaztu behar ere, Veillot-ek adiskidetu ezinezko gorrotoak biztu zituela. Pentsamendu libroa, liberalismoa (liberalkera), eta zer esanik ez, katoliku liberalak, delako albistalari apartekoarentzat (56) deabru sormenak ziren. Bestalde, prest zegoen bere artikulua bipilengatik —sarritan benetako bitxi literarioak— egunkariaren publikapena noiz nahi moztua geldi zekion.

«Baina, Veillot-en aho-berokeriek (57) ez zuten mugarik. Parlamentarismua (parlamentakera) herejia kondenagarri bezala aurkeztaraino heldu zen. Bere etsaia, bere erasoen helburu kuttun, inolako bereizketarik egin gabe, mundu liberala zen, Montalembert eta Dupanloup (58) barne. Lacordaire-ek ere ondotox zekien eraso zakar hauen berri. Katoliku iritziaren eta apezgizonen parterik handiena *L'Univers*-ekin eta beronen kontra-ekintzarekin (59) zegoen. Alabaina, salbuespen bakanez kanpo, katolikuok, halako izpiritu antiliberal amorratuaz hartuak egonarren, liberalkera ekonomikoaren aldekoak ziren batere zalantzarik gabe.

«Pio IX-garrena egunkari honen aldekoa zen erabat. Veillot-ek sinetsi ezineko ahalmena izan zuen Aita Saindu honen ondoan. «Nere etsaiak berorrenak (zureak) dira», esan ohi zen Veillot-ek errepikatzen ziola Pio IX-garrenari. Baina, gauza bat da jakina: Aita Sainduak, beren konfidantzapean ezarritako gordailu (60) sakratuaren kontserbapenez kanpo, ez dute bahitzen (61) beren ondorengo pentsamendurik. Aita Saindu berri bat beti da ustekabe (62) bat. Aita Saindu berri batek norabide (63) pertsonal bat hartzen du bere ibilera zehatzean.

(56) Extraordinario periodista.

(57) Gehiegikeriak (exageraciones).

(58) «Dupanloup (Félix), prelatu frantsesa, Orleanseko apezpikua, Saint-Félix-en jaioa (Haute-Savoie) (1802-1878). Erakuspide libertatea defendatu zuen eta 1849-az geroztik katolikera liberalaren buruzagi izan zen» (Petit Larousse).

(59) Reaccionarismo.

(60) Tesoro, depósito de fruto, dinero (Azkué). Tekstuan: sagrado depósito.

(61) Prendar un objeto, hipotecar. Tekstuan: no hipotecan.

(62) Sorpresa.

(63) Tekstuan: dirección.

«Eta tankera hontan, *L'Univers*-eko taldeak hotz errezibitu zuen, etsaigoz ez esatearren, Leone XIII-garrena. Vuillot eta bere adiskideak ahazten ziren Aita Saindutzak, jarraipen bat izanarren, bide bereizi-bereziak daramazkiela. Aita Saindu berria bere aurrekoa ez bezelako kezkez betea zegoen, sozial arduraz alegia,aldi hartako katoliku gehienen baitatik landa zegoena, zorigaitzez, giristinokeraren egiazko izateaz zeharo kanpoko diren arazo bizantinoez erabat itsuturik.

«Joakin Pecci-k (64), Bruselasean luntzio zelarik, arretaz erreparratu zuen proletari lagunabarren egoera gozakaitza (65). Bere Aita Saindutzarako aukeratzea baino urtebete lehenago, Perusa-ko bere artxapezpiku kadiratik «beren probetxurako (aberasen eta ahaltasuen probetxurako, alegia) esplotatu nahirik pobreez eta ahulez egiten zèn abuso lotsagarria» kondenatu zuen. Halaber salatu zuen kementsuki lan-ordu gehiegizkoak eta baitipat «gizonaren indar fisikuen arrendatariak baliatzen diren lege gogorraz (bihotz gabeaz), gizon honen izateaz eta bizitzeko premiez ez-jakinarena eginaz. Pecci artxapezpikuak argiro aditzera ematen zuen errealitate izugarri hau katolikuak beti erostaka ari ziren krisi moral eta erlisinozkoaren kausa zela. Pecci-k, gizalege kontrako obreru trafikatzeari frenatuko zuen lege gintza bat eskatzen zuen eta kristaukeraren lehenkietara bihurtzea, hauek ezitzen baitute lanaren lege gogorra. Lehenki hauek bakarrik dira kapazak obreruari bere duintasuna bihurtzeko, eginbide (66) gogorra gizonaren libertatearekin adiskidetzuz. *Rerum Novarum* delakoa sumatzen da etorkizunean. Baina, hizkuntza hau ulertezina zen garai hartako katoliku askorentzat. Sozialista hitz ziztagarria aplikatuz tankera hontan pentsatzen zuten guztiei, ez zen gehiago prolemarik. Eta bitartean erlisino galtzea lagunabarretan aintzina zihoan kupida gabe» (67).

(64) Joakin Bikendi Pecci (1810-1903), Leone XIII-garrena izenez igo zen Aita Saindutzara (1878-1903). *Rerum Novarum* enziklika sonatua egin zuen (1891-garren urtean sozial gaiaz), besteren artean. Bertan proposatzen du obreru prolemaren askabidea Eliza Katolikuaren dotrinaren arabera.

(65) Beste moduz: arretaz ohartu zen proletari lagunabarren egoera atseginezean (gozakaitzean).

(66) Eginbehar, obligazio.

(67) José de Arteche: «Lavigerie», 193, 194, 195 paiak, Icharopena, Zarauz, 1963.

Veillot nor zen jakinda Artetxe-ren lerro zoragarri hauen bitartez, arestian aipatu ditugun haren hitzak La Mennais-i buruz indar berezi bat hartzen dute eta, pentsatzen dugu, *L'Univers*-en zuzendariak konprenditzen jakin izan baldin bazuen nolabait ere bere etsaia zena —Artetxe jaunak ongi esan digu liberal zelaian ez zuela etsairik bereizten—, nola ez ote konprendituko Jaungoiko gure jaunak Ebanjelioaren kausaren alde bere bizitza guztia sakrifikatu zuen gizona?

Ducatillon-ek esaten digu Leone XIII-garrenak «Rerum Novarum» enziklikan (1891-5-15), *L'Avenir*-ek 60 urte lehenago zabalduetako ideiak jaso zituela langileriari buruzko auzian, haren mintzaira gogoratzen zuelarik. «Aita Sainduak soluzino sozialista gaitzesten zuen jabetasun eskubidearen kontrakoa zelako eta giza-mailen arteko borroken eragile bezala. Langileei sindikatzeke eta beren interes profesionalak defendatzeko eskubidea aitortzen zien; Legerriari leporatzen zion (68) haien alde jarduteko eskubidea eta eginbidea (69). Aita Sainduta guztian, Leone XIII-garrenak bere jomuga prolema sozialetara irauli zuen, zeren, uste baitzuen errezago elkartuko zituela katolikuak ekin-tza sozial hortan *politika* alorrean baino, eta bidebatez saiatu zen joera liberal eta demokratikua berak (Leone XIII-garrenak) sustengatu zuenarekin adiskidetzen, *demokrazia giristinoari* egiazko zentzu bat emanaz» (70).

Leone XIII-garrena orduko katoliku gehienek errezeluz eta etsaigoz atotsi baldin bazuten bere ideia aurrerakoiagatik sozial gaietan, gaurko giristinoek zer esan dezakegu puntu hontan? Ene ustez, doi-doi jakin zuela betetzen bere aintzinekoez bete-zen jakin ez zuten hutsune ikaragarri hau. Orduko giristino giro nagusian aurrerakoi izan zitekeen, baina giristino maioria hura minoria bihurtzen ari da, kristaugo konzeptu berri bati ateak zabalduz. Ikustekoak gaude, beraz, geroko kristaukerak zer postura hartuko duen auzi hontan.

«Katolikera soziala» zeritzan mugimenduak —jarraitzen du Aita Ducatillon-ek-, katolizismo liberalaren ideiak jaso zituena alegia, honen tokia hartu zuen». Eta geroxe: «Jakinarazi genuen

(68) Tekstuan: reivindicaba para el Estado.

(69) Eginbearra, obligazioa.

(70) «Dios y Libertad», 218 p., aipatu edizinoan.

dotrina landu baten falta *L'Avenir*-ez geroztik. Katoliku sozialek, ostera, kezka handiago bat erakutsi zuten tankera hontako arazoez: beren arikizunari dotrina oinarri bat erasten jakin zioten. Gogora dezagun soil-soilki «Friburgo-ko Katoliku Sozial Estudio Batasuna»-ren eta Frantziako «Aste Sozial»-en dotrina argibidetzea, berauen inportantzia denentzat ezaguna baita. Lan handi bat egina izan zen, aunitz dotrina iskribatua gelditu zen. Guzti honek ondorio positiborik izan zuen, baina segurta al daiteke dotrina gorputz bat, gizartearen konzeptu orokor bat osatu zela, beronen zenbait ikuspegitan landua? Uste dut zaila dela halakorik sustengatzen, zeren adierazle (71) gehienek eksejeta gisa enziklikak komentatzeari eskaini zizkioten beren indarrak, eta beren aplikaziorik onenak aurkitzeari. Liferentzia handia dago teolojiako tratadu elaboratu baten eta tekstu sakratuen eksejesis soil baten artean.

«Dotrina sintesi baten bir-eraikintza, hitzaren zentzu osoan, ez zen egin orain hamar urte pasatuxeraino (1945-eko hitzak). Jacques Maritain-en obra izan zen. Beronen lerro nagusiak «*L'Avenir*»-etik datoz, erro tomista dute eta beronekin ikus dezakegu berritzen *mundu modernuaren* interpretazio saio bat, bai filosofiaren eta bai kristaugoaren aldetik. Beronen zabaltasunak, dotrina *gaurkotasunean* (72), «*L'Avenir*»-ena atzematen du. Arazo honen planteamenduko lerro nagusietan, dotrina sendotasun bat eta azalpen zorroztasun bat ikus daiteke J. Maritain-en partez, mugimendu haren eragileena baino askoz zehatzagoa. Filosofo hotsandikoak puntu honi buruzko pentsamendua zenbait obratan azaldu du: Esaterako, «*Religion et Culture*», «*Du régime temporel et de la liberté*», «*Humanisme integral*», «*Las droits de l'Homme et le droit naturel*», «*Christianisme et démocratie*» eta «*Principes d'une politique humaniste*» (Dios y Libertad, 218/219/220 paiak).

Aurreraxeago honela dio Ducatillon-ek: «Arreta handiz bereizi behar da Maritain-en pentsamoldea eta lehendabiziko katoliku liberalena. Liferentzia nabarmen bat ageri da aurrenetik. Maritain-en pentsamolde filosofikua askoz zorituagoa da, hobeto eraikia, «*L'Avenir*»-en erredaktatzaileena baino ekilibratuagoa,

(71) Tekstuan: expositores.

(72) Tekstuan: actualidad doctrinaria.

La Mennais barne. Hau, igarpen indar (73) eta botere lojiku aparteko baten jabe zen, baina bere su-jario neurrigabeak mugaz kanpora aterazten zuen, arrazoiaren eta fedearen arau zuzenak jo eta hautsiz. Gaineratu behar da La Mennais-ek ez zuela inolako prestaera filosofikorik izan. La Mennais-en dotrina erlisio-inezkoa eta filosofikoa elkar harturik, teolojiaren ikuspegitik, oso ahula zen. Aski da bere «Erlisino gaietan exolezaz saioa» gogoratzea, zeharo baztergarri dotrina katoliku sanuaren ikuspegitik aztertzen baldin bada. Hontaz dudarik gera ez zedin, Elizak gaitzetsia izan zen.

«Maritain-en pentsamendua berriz, nahiz eta bere iskribuak zenbait aldiz lirikaren alorrera grinatuak izan (*itxurazko* iluntasuna eta nahasketa sortuz batzutan), bere erroak dotrinarik garbienean egiten ditu, giristino ikuspegitik begiratur. Santo Tomas Akinokoan oinarritzen da baitipat, eta aurrerapen mardul bat nabari zaio azpimarkatu dugun joeraz: hura jausi zèn gehiegizkeriak eta nahasmenak ebitatuz bidenabar, gai berberak hitz zehaztasunez harrotzen ditu» (Aip. lib., 222/223 paiak).

Geroxeago: «La Mennais-ek demokraziaren adurra kristaukerarekin —hala denez— bat egiten zuen bitartean —guztihau esateraino: alegia, ez bakarrik demokrazia ez dela posible kristaukeraz kanpo, baizik eta hau ere ezin bizi izango zitekeela, bestalde, giro demokratiku batean izan ezik—, Maritainek kontu handia dauka ez kateatzen kristaukera gobernu forma zehatz bati. Kaiser-i dagokiona eta Jaungoikoari dagokiona bereizkuntza funtsezkoa gogoratzen du. Erlisinoa edozein lokera beharrekotik edo mundu lokarritik askatzen du. Herri bakoitzak bere gobernuakera hauta dezan libertatea defenditzen du, lege naturala eta jaungoikozkoa ez urratzekotan. Horrela, giristino bat bizi daiteke eta bere salbakuntza lortu edozein gobernuakera barruan» (Aip. lib. 223 p.).

«Maritain-ek —tankera batean, XIX-garren mendeko liberalekin baldin badago ere— ez deritza bere buruari «katoliku liberala». *Liberalakera baino haruntzago* dauka bere burua. Liberalen baiezkotatik (74) giristinoen munduko ekintza denboraz-

(73) Tekstuan: fuerza intuitiva.

(74) Afirmaciones.

koari (75) dagokion balioa bakarrik jasotzen du. *Libertatea* beti gure aintzinean dago, eta behin bitartean *liberalkera* erabat gaindutako (gainditutako) etapa historiku bat da, gure bizkarrean gelditu delarik (76). Ez da libertatea salbatzeko bide egokia. Izan ziren liberalkera giristinotu nahi izan zutenak; Maritain-ek, bestalde —inoiz baino leialago libertateari—, ez deritza bere buruari «liberal», «gizatiar» (77) baizik. Giristino gizatiar bat da» (Aip. lib., 224/225 pk.).

Buka dezagun saio hau Ducatillon-en hitz zarrastagarriok aldatuz: «Bitartean "Fededun baten hitzak" argitaratzen du, ikaragarritzko arrakasta (78) eduki zuen liburu iraultzailea (79). Errebelgoaren (80) apolojia da.

»Gergori XVI-garrenaren enziklika berri batek: "Singularis nos" delakoak, gaitzesten du obra eta zentzu komunaren dotrina arbuatzen (81).

»La Mennais asaldatzen (82) da kolpearen ondorioz eta errebelgoan gero eta gehiago amiltzen da. Naturaz gaineko orden oro ukatzen du eta halaber Jesukristo Gure Jauna, Eliza, garazia eta sakramentuak.

»Galdegarri da zerk eragin ote zion eroriko deitoragarri (83) hontara. Zuzen erantzuteko arimaren barnea ikusi beharko litzateke. Askok bere harrokeria salatu dute. Bere eskutitzetan, La Chênaie-ko erretiroetan, Antzarpenari buruzko gogapenetan (84), apaltasuna gomendatzen zuen sarri eta badirudi bere buruari gomendatzen ziola, bere baitan urguilua piztarazten zion errebelgoari erantzun nahian. Arrazoi handia zuen bere buruari

(75) Acción temporal.

(76) Edo: *liberalkera* gure bizkarrean gelditu den erabat gaindutako etapa historiku bat da.

(77) Humanista.

(78) Exito.

(79) Revolucionario.

(80) Rebeldía, insurrección.

(81) Despreciar, repudiar.

(82) Encabritarse, sublevarse.

(83) Defección lamentable.

(84) Reflexiones sobre la imitación.

honela esaten zionean: «Zuri eman al zaizu mandatu nere Eliza gobernatzeko? Zergatik ez diezu uzten eginkizun hori neure garaziz aukeratuei, haien zuzendari ene izpiritua ari baita?» Eta areago: «Zer da okerra? Maisurik aitortu nahi ez duen izpiritu hutsegingarri baten pentsamendua, eta bere buruari bakarrik obeditzen diona». Eta batez ere: «Jaungoikoa erretiratzen da eta bazterrean uzten du bere indarrez baliatu uste zuen zentzuga-bea, bere urgulupean abandonatuz. Orduan gertatzen dira harriturik eta gogo-urriturik uzten gaituzten eroriko ikaragarri horiek, ustekabeko eroriko horiek, jaungoikozko judizioen etsenplu laborrigarriak (85). Zorigaitzekoa norbere justizian bermatzen (86) dena; harenak egin baitu!» (87).

Anekdota bezala, aipa dezagun Ducatillon-ek kontatzen digun hauxe: «Lege-gizon ospatsu batek, Berryer deituraz, esaten zion «La Mennais-i: «Zuk menderatzen nauzu, baina beldur naiz zu ez ote zaituen ezerk menderatzen; egunen batean zu sektaburu izanen zara». «Ni sektaburu? —erantzun zion La Mennais-ek—, nik Elizaz arnegatu? (88). Sekula ez; lehenago hil». La Mennais-ek Elizaz arnegatu zuen, baina ez zen sektaburu izan» (89). La Mennais-ek Jaun done Petri-ren erorikoa gogorazten digu berehalakoan: «Naiz-eta denak zugatik behaztopatu (90), ni ez naiz behinere behaztopatuko». Jesus-ek esan zion: «Zinez esaten dizut bada nik, gau hontan bertan, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzula». Petri-k erantzun zion: «Zurekin hil behar badut ere, nik ez zaitut ukatuko» (Mateo). Baina gogorrena da, berak salatu zituèn harrokeriazko puntu berberetan jausi zela, alegia, nora zihoan jakinda amildu zela leizerik sakonenean.

Ducatillon-ek hitz mugidagarri hauen bidez kontatzen dizkigu La Mennais-en azken egunak: «Eritasuna, heriotza badatozkio. La Mennais-en iloba bat —aingeru zirudiena ontasunez eta hiltzear zegoenaren oso maitea—, honen oheburuan eseri zen.

(85) Terroríficos.

(86) Apoyarse.

(87) Aip. lib., 464/465 pk.

(88) Edo: nik Elizari uko egin?

(89) Aip. lib., 465 p.

(90) Eskandalizatu. Duvoisin-ek bere «Bible Saindua»n hitz hau darabil, «behaztopatu» alegia.

Ardurarik eta amodiorik handienaz zaindu zuen, eta lehiaren lehiatz, debozinoz eta bere buruaz ere gogoratzen ez zelarik, uste izan zuenean agurearen arima irabazirik zuela, honela galdetu zion egun batean malkoei eutsi ezinik: «Féli, nahi duzu apez bat?» La Mennais-ek erantzun zuen: «Ez». Ilobak ekin zion: «mesedez eskatzen dizut». Orduan ahots ozenagoz eta ezinegonez erantzun zuen: «Ez, ez, ez, bakean utz nazatela» (91). La Mennais, 1854-ko Otsailaren 27-an hil zen. Bere borondateari jarraituz hilobi komunean ehortzia izan zen eta ez zitzaion gurutzerik ezarri. Tristeza benetan! Hala ere esperantza bat gelditzen zaigu: Artetxe-k esan zidanez, hil aurretixe begiak malkoz busti omen zitzaizkion. Garaziak ikutu ote zuen bere bihotz gogortua? Jaungoikoari hala nahi dakiola.

(91) Aip. lib., 467 p.

IRAKOZKO FOLKLOKO AITAHYK
BARRALAKOIAK

OLERKIAK

IRAIZOZ'KO POLIKARPO AITAREN HAMALAUKOAK

FRANTZISKO ONDARRA

Iraizoz'ko Polikarpo Aita zenak, 1897-1980, asko idatzi zuen neurtitzetan, gehiena argitaratu gabe gelditu delarik. Bai alemanetik bai latinetik hanitz itzuli zuen hitz neurtuetan. Berak asmatuak hamalaukoak dira gehien bat, berrehun bat sonetu inguru, barianteak sartu gabe. Jakina denez, bere lan gehienak erlijioari buruzkoak dira; hala ere, badago besterik horietan, oso gutxi baldin bada ere.

Hemen bost hamalauko emango ditugu, horietako bakoitzean bere idazkera errespetatzen dugula. *Gure Herria* deituak lehenago beste izen hau zeukan: *Nausi arrotzen mendean*; laugarrena gaztelaniatik dago itzulia eta bostgarrena alemanetik.

JAUNDONE MIKEL AINGERUA

Aralar gainean gorarik zauzkagu,
aingeru-taldeen aitzindari Mikel:
gure Herri honen begirale tinel
mendi saindu hortan ernerik zaude zu.

Euskaldunok zupan uste handi dugu,
hersturetan zuri otsegiten: «Hel, hell!»
ta gure ustea ez da izan ustel,
behar-orduan zu heldu zatzaizkigu.

Orain ere zure beharretan gera,
eta Euskaldunok luguntz' eske gatoz
begi ta biotzak Aralar aldera.

Zuk, lehen bezala, entzun orain gogoz
gure dei hau: «Mikel, oi Mikel gurea,
zain zazu ta gorde Euskaldun jendea!»

GURE HERRIA

(Cfr. *Is 26, 12-13; 64, 5.8.9*)

Oi gure Herri hau zein dagoen zapal!
nagusi arrotzek gain hartu digute;
herria dariela hortxe dihardute
elkarri oihuka, oro aho-zabal:

«Aup, Euskal Herria soil dezagun ta gal,
suntsi bedi haren izena» darauste;
hainbat kristau on hil edo bota dute:
apez, gizon, mutil, andre, neskatx'argal.

Hoben egin dugu, Jauna, egia da,
zure legea maiz oinkatu baitugu,
zuzenez dagoku zure zigorrada.

Halere gu beti zureak gaituzu:
gu zure menpeko, zu gure Jaun bakar,
bertze nagusirik guk ez dugu behar.

PIPAZALE BATEN GOGOETA ONAK

Nere pipa erre-belarrez bete ta
pizturik ahoan hartu aldioro,
ekea pafaka egotziz gozoro,
nigan egiten dut hola gogoeta:

Pipan sartu dudan belar hau erre ta
hautsa, errautsa da bihurtzen osoro;
bai nere gorputz hau ere, hilezgero,
laster hauts-moltxo bat bertzerik deus ezta.

Baina belar honi, erretzen den arau,
badario goiti airez aire doan
intzentsu antzeko eke urrintsu bat.

Orobat ni baitan dagon arima hau,
gorputz-herstegitik atera ondoan,
iganen da noizbait hegaka zerurat.

NO ME MUEVE, MI DIOS PARA QUERERTE

Zure maitatzera ez nau erakartzen,
Jauna, zuk zeruan agindu sariak,
ta ez nau suleze ain beldurgarriak
zure samintzetik ere atzeratzen.

Zuk zerorrek nauzu, Jauna, ortaratzen:
zure gorputz iltzez zur ortan josiak,
orrenbat lotsa, min, zauriz estaliak,
zure erio gogor latzak nau beartzen.

Ots, zure maiteak narabil. Bai, nai-ta
zerurik ezpalitz, bazentzaket maita,
suleza ezpalitz, beldur nintzaizuke.

Zure maitateko ez neri deus eskain:
naiz uste dudana uste ezpanu, orain
nai dizudan bezain ongi nai nizuke.

MÜDE BIN ICH, GEH' ZUR RUH'

Unatua naiz, lotara noa,
ertxiko ditut begitxo biak:
zeruko Aita, zure begiak
begira beza gaur nere loa.

Ez gogoan ar, ene Jainkoa,
nik egun untan egin gaizkiak:
garbi ditzala diren guziak
zure odolak, Jesus gozoa.

Nere guraso, lagun ta askazi,
jendeak oro, bai txiki ta azi,
zure egalpean zuk, Jauna, jagon.

Biotz eriei eiezu pausu,
begi ezeak xuka itzazu:
kristau guzioi iguzu gau on!

GIZONAK... BALAKI

IRATZEDER

10 / 3 / 81

Gizonak ixiltzen balaki,
nasalki baluke naski
bere bizian olerki.

Gizonak sinesten balaki,
noiz-nahi lezake unki
Jauna berekin ibilki.

Gizonak maitatzen balaki,
gozoki lezake aurki
zoin den bizia olerki.

MARKUE

kantuz
eta
itxaropenez

B E L O K E N

e:
a.x., a.i.,
a.m.,
j., m., eta i-ri

1981 / 1 / 6.

hariztoi agurgarria
maitasunez zainduta
sarbidean

alxifre indartsu
gorazaleak
abatetxe barruan

euskal liburutegia
gure jakintzaz betia.

hilobi harri zaharrak
kanposantu berrian

haritzak
alxifreak
liburutegia
kanposantua

haritz basoa / alxifre otoizlariak / liburutegia / kanposantua

beloke
ipar euskalerra ertzean
lurralde bakartian
euskalmugan zaindari

beloke
jainkotiar gizonen bazterra
zeruzaleen otoizetxea

beloken hariztegi zahar itzalgarria
sustrai zaharren
euskarria

alxifre ugari
beloken otoizlari

agur
liburutegi aberatsari

agur
belokeko kanposantua
sinismenean joan direnen
atseden lekua

beloken lehen aldiz gaur goizian
zahartzaroko urte ateen atarian

bake haundiko egunian
larogei ta bat'eko erregengan

1981 / I / 6
beloken.

BERTSO BERRIAK

BILBOTIK JARRIAK

JON AURREK

Bilbon, 1981eko Apirilak 29.

1)

Esker oneko bertso berriak
hastera noa ematen
ohitura zaharra mundu berrian
inoiz ez dadila eten.
Irun aldera Udaberrian
Bilboko zulotik irten
oparo bezain egun ederrik
izango ote dut aurten?

2)

Nikolas eta Alzola biak
izen, izanean anai,
Gerra aurreko poemagintza
hizketarako nuen gai.
Muga gabarik aritu ginen
zuk hori nahi, nik ere bai,
nolako poza hartu nuen nik
atean zintudala zai.

3)

Giroa epel izan genuen
zer arratsalde laguna!
etxe ostean txorien kantuz
eguzki izpi laguna.
Hitz jarioan jo genituen
hurbila eta urruna
etorkizunaz zalantzan nola
erreka aldeko lurruna.

4)

Gaiso zinela entzuna nuen
hainbesterako ez arren
zurtz egin nuen, harritu nintzen
dana azal eta barren.
Ezin pentsatu gizon mardul bat
ikusi beharra erren
ez dizut beste desiorik nik
sendatu hainbat lasterren!

5)

Zuk ba dakizu Herri batekin
nola hartzen den partea
nortasunaren muinetaraino
helden delako artea.
Euskaldun begiz senti dezagun
gauetz dir-dir izatea,
Lege Zahar-Berri dinamikoez
egin gure gizartea,
erantzukizun haundia dugu.
ez dedin eten katea.

LEHENAREN UR SAKONETAN

LUIS MARI MUJICA

I

ATARI KOSMIKOAN

HERRIA kantatzera nator,
herriaren zain beltza desestaltzera,
herri gureari
abotsa ematera,
hitza ematera,
sentimena ematera,
irudimen ozena ematera.

Herriari eman ene mintzo beroa,
herriari eman
ene berba ozen-gozoa,
herriari eskaini
olermen zoroa,
nerekin loria dezan,
nerekin kanta dezan
(ohorezko kantua jasan),
nerekin miretsi, alajainan!

Bai, HERRI honi ene
hitzak,
hotsak,
hatsak
emanen dizkiot,

HERRI honi
ahoa,
begiak,
eskainiko dizkiot
eta HERRI umil hau
ez da gehiago
mutu
isil,
antzu,
elbarri izango...

Herri hontako HARRIAK
enekin suspertuko dira,
herri hontako haitzak
enekin gogor, hotz, sendo
aztatuko dira,
harrien begiak
bolkan iduri jauziko dira,
mendien hertzak
neskatxen diti gazte
bezain tente jarriko dira,
koartzo eta suharriaren setakeria
enekin altu bilakatuko da,
harrikatzen, hartzuri eta diamantearen begia
kanta goriaz altxako da,
suak irrikaz zigortuko du
zelai berdeen soina,
aihene zut-desesperatuak
harkaitzen ohean esnatuko dira...

Herri hontako URAK
enekin itsaso, zingira, hibai, putzu
sentituko dira,
itsasbelarren zaporeak
ur hotzetan lo berde eginen du,
gauaren izar gordin-banatuak
estankera nagi eroriko dira,
ibai ihesi-fingabeak
ene begira isuriko dira,

itsasoaren sexoa
oskarbiaren soroan atseginduko da,
eurien bizkar leun-otzana
(oro heze, oro luze, oro gazte dena)
emakumearen soina gisa banatuko da...

Herri hontako LURRAK

enekin maite
(emazte,
elkarte)
sentituko dira,
belarraren usain gizona
enegan oparagoa izanen da,
ibar eurizkoa
lur-emaztearen zuloaz aseko da,
likidozko isats bukagabeak
menditara bilduko dira,
ilunabar gori-astinduen grina
lur gozotan baretuko da
eta haragiaren haginkada
mirespen telurikoan emetuko da,
Euskal Herriak zainak igotzen
olermenez sentituko ditu,
lurra arto, gari eta aranetan
sabel lodi sumatuko da,
eguzkiak lurra
emazte gisa estaliko du,
lurraren hazia
ekintza bizitan egunabartuko da,
soroen oparia (almandra lodi iduri)
udazkenean irekiko da,
zain gizenak neska bilutsia gisa
sakanetan zabalduko dira,
lurrak bere antsia antsiago,
bere umotasuna umoago,
bere soina soinago
ene kantuaren labean sentituko du...

Herri hontako ORTZEA

enekin ortzeago sumatuko da,
oskorria urrezko sufrikarioz
enekin luze banatuko da,

harri preziatuaren errieta
enekin ortzetik jaitsiko da,
arratsaren izterrak
izarrezko luzaduraz zabalduko dira,
putzu barneko izar goriak
kanta berotan egosiko dira,
planeten lo zahar-nagibera
(eta musker lotien asperra)
ene antsian itoko da...

Herri hontako ZUHAITZAK
enekin kantu, salmu, irrintzi luze
arrats beroan bihurtuko dira,
ekaitzen zezenak lizar-adarrari
ez diote kalterik egingo,
atzaparraren gorrotoak fagoari
ez dio gaitzik itsasiko,
aizkorak eta igitagiak arteari
ez dio kexurik sortuko,
hamar mendetako neke aspertuak
ez dio Gernikako haritzari
ganora-ezarik erneko,
lizarraren begi eta soin berdea
izerdi geldia izanen da enekin,
elorriaren arantz-hortzak
arratsa dabilke astin eta astin,
sahatsaren adar-euria
zainetara makurtuko da,
aizkoraren herrak eta errietak
instanteari sufrea erantsiko dio,
zerraldo pilatuen taldea
pinu-hatsetan bilduko da,
eguerdiaren fosforo ernegatua
zumarraren soinean ematuko da,
gau urdinaren lo geldia
urkiaren itzalarekin ezkonduko da
eta HERRI hau
lizarraren, haritzaren, fagoaren anatomian
leun, gozo, ugari, emakume
sentituko da...

Bai, nik ene HERRIA
ahots handiz, hats zabalez
altxatuko dut,
kantatuko dut,
zailduko dut,
gauza ororen soina eta izateria
kantagai,
irudigai,
sinfonigai
itzuliko dut.
HARRIAK, URAK,
LURRAK, ORTZEAK, ZUHAITZAK
ene kantuan (euri iduri)
ibaietan banatuko dira,
AGIÑA-ko hazia
(sagarraren gozamenean)
ugalkor, gozo, mugagabe
herri honen soinean
betiro sentituko da...

MARI Anboto-n
orrazten zen baina lehen,
BASAJAUN oihanetako jaun
zen baino lehen,
ERREKAMARI ur berdeen ispiluan
begiratzen zen baino lehen,
SUGAARRA izar zipriztinez ortzean
luzatzen zen baino lehen
AGIÑA-ko muinoan
euskal gizona hats,
lur,
ur,
harri,
aire zen,
ene hitza
(ur harro, ur bero bailitza)
izatearen «izenean» zen.

Harriak gogordura eman zidan,
urak malgudura,
metalak haserrearen seta,
marmola porrokatuak errieta,

euskarak gauzen zentzua,
lurrak ene jatorria.
Izaki hoiekin zain beltzetara
—zahar-sakonetara—
iritsi nahi dut,
jatorriaren itur beltzetan
murgildu,
mailuen ahalegina
ene indarrez parekatu,
sugearen begi fosforikoan
ene «lehena» aztertu,
suharriaren bizkar gorian
ene «iturburuak» ukitu...

AGIÑA-n eurien, lizarren, fagoen,
garodien, itsasoen,
gauza ororen «hutsunea»
bete nahi dut,
hitzaren ezina gaindu nahi dut,
euskararen herdoila
gaztetu nahi dut,
begetalen itzal erotikoak
eta metalen lehia porrokatuak
aztertu nahi ditut.

EUSKAL HERRIAK kromletx-en, harrespilen «hutsa»
inguratzen du,
haitzuloetako hots «haserakoa»
heldzen du,
urjauzi eta sabel gizenen
makurdura biltzen du,
tregoharrien (dolmenen) zutidura
irimo mantentzen du,
Ekain-en, Ermitian, Altxerrin,
Lumetxan
euskara geometria itzultzen du,
Egiar-en, Eteneta-n, Oianleku-n
harria
aintzinan aitzurtzen du,
Santimamiñe-n, Baltzola-n, Marizulo-n
lehena orainean egiten du hiztun,
menhir-en soin zutian mendeak bihurtzen
gizon gaurkoen lagun...

Ah, harrien gogordurak biziko nau,
itsasoaren ederdura hotzak
egunabartuko nau,
basoaren topaketa bortitzak
populatuko nau,
astinketa basatitan basurdeak
jabetuko nau,
ilargiaren argi esneberak
gozo babestuko nau,
hienaren asmo gaiztoak
ausarta egingo nau,
basakatuaren begi beroak
sarkalde goritan itoko nau,
euskarazko hitza kromletx-aren
«hutsean» beteko da,
Oria, Bidasoa, Ibaizabal,
Arga, Irati
arruen bilutsean irauliko dira,
begiok, zentzunok (hitzok)
—aitzur setatiak irudi—
herriaren eguntsentian
sartuko dira,
dena su, asmo, grin, labe
geroaren mamian bihurtuko da,
eguzki gorria
mahats gorrien samindurar
nahastuko da,
eta soro-bideak,
eta horma-bazterrak,
eta harri-metalak
bero, sendo, harro
behin-betirako sentituko dira...

HERRI honen *huts* betea,
tartearen *hutsunea*,
isilaren *unea*
harriaren mintzo lehendikoaz,
aizkoraren hortz ludikoaz,
azkonaren ezten fingabekoaz
beteko da, populatuko da,
talde, *saldo*, *gizarte*
experimentatuko da,

neskaren bilustasuna bailitz
euskaldunak herria
gazte sentituko du
eta poetak bere asperen luzea,
bere kantu altua
sagarraren grinetan eskainiko du...
Bai, animaleak oro,
metaleak oro,
geografia oro (soro, eremu, baso)
anatomia oro (hortz, hagin, azkazal,
bular, sabel, atzapar),
soinua oro (txistu, xirula,
txalaparta, adar)
paleolitosko hatsetan
—sinfonia harroa bailitzan—
eskainiko dut etengabe.

HERRI hau, apurka, igotzen joanen da
bere iturrietara,
berretortzen joanen da
bere zain sakonetara,
berbiltzen joanen da
bere ur primitiboetara
eta euskararen zizelaz (aih, nola?)
landuko dut bere irudia...

II

AGIÑA-KO MUINOAN

Asmo genitalen zurrunbiloan
bizia ari zen lan da lan,
mendeak beren soina
jasotzen zihoazten,
eskuak, hatzak,
hortzak, hitzak
altxa ziren,
irudia zizelaren amorroaz
taiutu zen,
ideia sufrezko irritsean
eskultura bihurtu zen,
eta harrien eta metalen gaindik
asmoa *herri* egin zen,
irudimena *herri* egin zen,
hitzok *herri* egin ziren,
eza *izate* egin zen.

Ozpinaren sumina
erasoa izan zen,
ur distraituaren baldankeria
arrats nagi bihurtu zen,
harkaitzaren bizkar-lerroa
garrainsi itzuli zen,
gauaren ilundura
begiotara leihoratu zen,
soro sentsual-gutzizkoak
poeta umil hau AGIÑA-ra igota
harri, arbel, hartzuri,
koartzo, burdin setati
bat-batean egin zen.

AGIÑA, AGIÑA, AGIÑA
Euskal Herriaren erpin,
AGIÑA, AGIÑA, AGIÑA
aintzinate goenaren giltz...

Kromletx-en hesi biribilean
ilargia zahar sentitu zen,
eguzkipean artasoroen sorbalda
leun sumatu zen,
odolak lehoiaren zainetan
harrokeriaz dardaratu ziren,
burdin bihurrien desesperazioa
amildegian lehertu zen,
zelai zelaitzuen zelaidura
luze, heze, etengabe sentitu zen,
linea hori-opaloen ihesdura
erreka hotzean orraztu zen,
Aia-ko Haitzetan Basajaun-ek
besoek etzan zituen,
hartzaren zango astunak
pisua aztatu zuen,
hazi basatien errebolta
temati berjaiki zen,
Artikutza-ko ur geldien loa
hontzaren uluaz nahastu zen,
soro serio-aspertien nagia
Arga-ren zumetan galdu zen...

Pixkana eta apurka
neolitosaren hondarrean
harrespilen bizkarra Egiar-en
zutitu zen,
harriaren biribildura oroimen
Oianleku-n gertatu zen,
menhir-aren arrokeria zutidura
Eteneta-n itzuli zen,
eta AGIÑA-ko muinoan herria
hazitzen,
gorpuzten,
mamitzen etorri zen.
Harriak *harri* izaten,
burdinak *gogor* izaten,

gauak itzal izaten,
«hutsak» bete izaten,
bai, AGIÑA-n ikasi zuten,
herriaren irudia eta eitea
muinoburuan biribildu zen,
harriaren eta burdinaren oinazea
han osatu zen,
gauzen hertz serioa
han azkendu zen,
«lehen» eta «orain» une bat
an bihurtu ziren,
gure herria historiaren begitara
AGIÑA-n igo zen,
herri hau *herri*
AGIÑA-ko harritan sentitu zen...

Gaur AGIÑA-n nago,
Irutxulegi, Gaztaro, Izo,
Errenaga, Domiko
tarteko ditudalarik,
sekulu eta mendeen asperra
gailen edonondik,
muino honen bizkarrean
«lehenetan» itoa ni,
hemen arrano eta basurdeen
anai naiz,
Basajaun eta jentillen
ahaideko naiz,
AGIÑA-n ukabilen bultzada
eta zezenen eraso,
sapelatsen ziztu hegalduna
eta odol bizkorren mozioa
osoro hurbiletik,
AGIÑA-n konkordua iraultza
eta haginaren ahalegina,
arrano harroen taldea
eta asmo gaitzen tontorra
osoro gertutik,
bai, galburuaren urretasun bildua
eta arrubioen gorrotoa,
sugegorrien susmo nabarra
eta zakilen goldeaketa

AGIÑA-n urreagoa, gorrotoagoa,
susmoagoa,
goldeagoa.

MARI eta BASAJAUN,
AKERBELTZ eta ZEZENGORRI,
MIKELATS eta TARTALO,
IELTXU eta ERREKAMARI
AGIÑA-n batzarkide dira,
SUGAAR izar goriak isatsaz
astintzen ibili da,
GALTZAGORRIk arratsaren kristalak
pitzatzen jardun du,
MARI-k ilargi zurbila
gauaren gatilura bota du,
BASAJAUN-ek aizkorak
arbolpetan jarri ditu,
ERREKAMARI-k arratsaren antsia
uren asperraz nahasi du.

AGIÑA-n amorroa larrean,
herri-borroka larrean,
semeen lehia larrean,
sekuluen oihartzuna
URTZIREN sekretupean,
azkazalen errieta
horma-buruen soinean,
muinoko haitzetan
kutxiloen zigorra bizkortu da,
burdinen setakeria ereagotu da,
«hutsunean» zeroa bete da,
lerroen luzadura luzatu da.
AGIÑA-n Euskal Herriak
zain beltz-sakonak desestali ditu,
«lehenaren» azkazalez jardun du,
azido gaitzen orgasmoak
zuloetan estali ditu,
eremuen luzapena ortzean itzali du,
harriak oro, aztarnak oro
iturri, sorburu, hastapen
bihurtu ditu...

III

HEGAKA GAILURREAN

Euskalduna, zatoz enekin,
zatoz AGIÑA-ko gailurrera,
zatoz muinora berjaiotzera,
zatoz harrien bizkarra berrukitzera,
zatoz arranoaren harrokeria ikustera,
zatoz lurraren sabela aztatzera,
zatoz, zatoz,
gauzei,
izakiei,
urei,
harkaitzei
izena ematera.

AGIÑA-n harriak izena hartu du,
urak izena hartu du,
lurrak izena hartu du,
ortzeak *euskal* izena hartu du,
AGIÑA-n euskarak
harrespilen bilgunean
(dolmenen huskunean)
gorputza hartu du,
eta zainak pozdun sentitu dira,
eta aizkorak gogor sentitu dira,
AGIÑA-n hasera desestali da,
AGIÑA-n iturburutara etorri gara,
AGIÑA-n erro zaharretara berrigo gara,
AGIÑA-n «lehena» berkausi,
berjaso, berbildu dugu...

AGIÑA (euskararen zizelean)

Euskal Herriarentzat:

•Arranoaren begi zalua, basakatuaren herra,
ibaiaren geometria, sugedorriaren sua,
atzaparren lehia, harkaitzaren gogordura,
mailuen setakeria, esne egosiaren puztura,
zain gozoen bozkarioa, burdinaren eraso,
kate beltzen ernedura, metalen inbasioa,
kantu goituen gailurra, sabel odolduen sumindura,
zezenen adar harroa, piztien gorroto bildua,
ilargi zurbilen hotza, beso galanten geografia,
lehoi gosetuen amorrazioa, putre zikinen algara,
bele beltzen farra, sapelatzen atzaparra,
kopa altuen olatua, kitar makurren soinua,
zume etzanen intziria, arto berdeen usaina,
atzaparren klimatx gaiztoa, ozeanoaren fingabea,
ukabilen hitz tentea, euskararen eskultura,
ileadatsen ihesdura, odol gaiztoen jarioa,
hazi beroen sabela, metale astinduen hizketa,
dinosaurioen asperra, ezpain gosezkoen grina,
horma itxien altura, bazter umilen muga,
otoitz garbien mordoa, sinfoni borobilen saldoa,
harri amilduen zorabioa, igitagien hortz zuria,
aparraren sabel zaratatsua, irrintziaren labana,
gari gozoen urrea, alga etzanen berdea,
bolkan haserreen gorakoa, zezen-hazien borroka,
irudi luzeen orgasmoa, ekintza gaitzen esperma,
arrats tragikoen herioa, dolu bilduen agonia,
tigre zapalduen amorroa, bihotz zigortuen asperena,
sagar gizenen pozkida, fago gizenen adarrarte,
neskatxa ukigabeen sabelpea, emagalduen begi itsaskorra,
arnas begetalen makila, kresalaren hats gazia,
urjauzien zigorra, lubizien beraldikoa,
urpe beltzen hotza, hotz urpetuen beltza,
gaztain-orrien usain beroa, garoen haztura berdea,
laranjaren zuku lodia, muxikaren izerdi gorria,
limoiaren mami horia, lerro sepaloen ihesia,
haitz pitzatuen kexua, euskal kaskezurren lehia,
hondartzaren egarri ixila, xirlaren amets hondarbera,
suharrien seta latza, zilarraren distira isuria,
sabel okituen oparotasuna, ditien uhin makurbera,
mahats mingotsen piloa, ozpin astinduen ernegua,

gau alargunaren beltza, egunabarraren esperantza,
aizkoraren hortz galanta, lizarraren umiltasuna,
trumoiaren zarata, mendi-isladaren zehatza,
kromletx-en bilgune hertsia, zutarrien harrotasuna,
ortze goituen gordindura, lur beltzaren erraia...»

Bai, bai, AGIÑA
hau guztia eta bestea,
AGIÑA-n izenak izena,
AGIÑAN lehenak oraina,
AGIÑA-n irudimenak orgia
Poeta umil, gixajo honek
arkitetura guztiak bildu ditu,
zain guztiak desestali ditu,
AGIÑA-n harriaren sorbaldak ukitu du,
lurraren dardara kantatu du.

Ene Euskal Herri,
igo, igo zaitetz «ur lehenengoetara»,
igo zaitetz «erro aspaldikoetara»
eta euskararen lotsa puskatu,
eta ingudeen biraoa pilatu,
eta arranoen hegoak zabaldu,
eta arrazaren «aintzin gosea»k asetu...

Hemen harria harri da,
hemen lurra lurra da,
hemen hitza hitza da,
hemen izana Euskal Herri da...

IV

ERROEN INDARREAN

Erroen ur beltzetatik
azal bortitzetara etorri naiz,
enborraren geografia banatua utziz
adarretara iritsi naiz,
eta garoak errekaldeko sakana gisa
arrazoin telurikoz
oraina populatu dut,
asunen suminean
eta kristal zartatuen kexuan
ene iturriak sentitu ditut...

AGIÑA-tik jaitsi naiz,
kondairaren karriketan ibili naiz,
zirkunstantzien kaleetan galdu naiz,
eta aldiaren *unean*
mugapen oro,
zabaldura oro,
bilgune oro,
aitzeki oro
orogai eta kantagai
ene errotan egin dut,
URA ur dela ohar dadin,
LURRA lur dela kontura dadin,
HARRIA harri dela baitaratu dadin...

1) LURRA

Lurraren sabela sakona da,
beltza da, beroa da,
Mairulegorreta-n, Udalatx-en, Irukutzeta-n
lurrak urrezko gordailu,

haitzuloen sekretuan
lurrak oharmen,
lurra ibar, muino, mendi,
soro ta errekaldeen oinetan,
«terra genitrix» galanta
semeetan banatua,
gizonaren jaiotza eta ustelkia
lurraren erraietan,
(gizona lurretik,
gizona lurrera),
gizonaren haragia
lurpean ugaltzen,
gizonaren simaurra
lurretik
mila loretan altxatzen,
gizonaren odol ustela
(sagar, gaztain, mahats,
aran eta arto)
lurretik jaikitzen,
lurraren hazitan lehertzen...

2) URA

Arga-ko idibegietan
euskal arrazak asperra,
Zadorra-ko sahots makurretan
arratsak ametsa,
Itsasgorrieta-ko uretan
eguzkiak zauria,
eskuok, begiok, grinok
ur sakonetan
murgiltzen dira,
gizona uretan
garbitzen, itotzen,
berjaiotzen da,
uhinen alturan mozkortzen da,
inularraren kristal gorriak
Urumea-ko soinetan
puskatzen dira,

eurijasen bataioan
odol basatiak suspertzen dira,
ihintzaren ezpainetan
lorea
farraz irekitzen da...

3) HARRIA

Aizkorri-ko haitz gorrietan
harriak hizketa bizkor,
mailu kosmikoeak
landu dute euskal harria,
harrietan eskulotu da
herri honen gogoa,
harrian zizeldu
euskara eta Euskal Herria
(aizkorak, aitzurrak, aiztoak
haitzezko mamia,
harrizko erasotan
euskarak samina),
«hutsaren» soina
harriz hesitu da,
«hutsaren» gunea
harriz zizeldu da,
Egiar-en eta Eteneta-n
zutunik harria
harri gogor,
kozkor,
zigor
agonikoa,
asmoaren antsitan jaso.

4) ORTZA

ORTZEAN URTZI,
ortze gatiluan
eguzkia kixkaliz,

SUGAARRAK goi-bide
izarrak isatsez astinkari,
argizagien distirak
arrats gorian zintzilik,
URTZIREN gogoa
gizonak ezin hertsu,
txingarrezko ileadatsa
gau-bizkarrera da isuri...

5) EGUZKIA

Eguzkiaren ezpata
lurraren bizkarrera,
eguzkiaren labean
galburua bozkario,
mahats helduen beroak
gizendurazko jario,
eguzkiaren zigorra
arrubioaren pozoinak,
euskal soro ta eremuak
mila tormentu,
lurraren sabela
zorionez da nekatu,
goldearen zakila
lur beroan sartu,
zuku lodi, zuku gorriak
mertxikaren fruitu,
udazkenaren loa
mahatsez nahastu,
sagarraren mamia
poz gizenetan bildu...

Lehen zarpil eta epel zena
orain su da eta labe,
orain txingar da eta oinaze,
orain uzta da eta aran dolore,
haziak (haurrak bailiran)
altxa dira
algara hautsitan,

«eguzkiloreek» zoria dute
ezarri atetan,
aizkoraren hortzak begia
sortaldeko argitan.

6) ILARGIA

Ilargi amandrearen gonapean
barakuiluak asperra,
ilargiaren argipetan
itsasoak altura,
ilargiaren eraginetan
emakumeak odolbehera...

Kanpusantuko hilak
ilargipean asperti,
errai gizenek
ilargi zurian aitzaki,
basoan otso zuriak
ilargia dabiltz kolpari,
harriaren lo hotzak
gau-argiaren hesi,
(sugearen maltzurkeria
nork du, nork desestali?)
tigre zartatuaren saltoa
arrasbeheran kezkatu,
Zugarramurdi-ko sorgin-orgiak
badu bere zuzi,
hontzaren begi nekatua
ilargia begirari...

Bai, bai, orain laurden, gero erdi,
ilargia fagadian
gaztanbera iduri,
akerrak Petralanda-n
sorginen atzetik...

7) OSTOTSA

Aizkoaren hortza ateburuan
ortzera begirari,
ortzearen amorroak
ostospean jai handi,
«ortziri», «osti», «ihuzturi»
goiko azalpen-mirari,
eguntsentiaren loa
trumoiak dardarazi,
altzairuak eta txingarrak
zartatzen errukigabeki,
sehaska urkatuen garraisia
ilunabarretan larri,
URTZIAK bizilekua
AGIÑA-tik hurbil,
Aizkorri-ko arranoak
arraultzeak zintzilik,
aih, aih, Aia-ko Haitzetan
ostotsoa noizpait da itzali...

8) HAITZULOAK

Barnetik sakonera bide luze,
luzetik laburrera bestainbeste,
lurrak aitzuloan
miragarritzko sabelpe,
Ekain-en, Altxerri-n, Santimamiñe-n
euskal gizonak
«hutsaren» geometri,
zaldia eta bisonta,
hartza eta oreina,
lehoia eta otsoa
harridurazko marrazki,
ederraren soina zer den
koba-gizonak badaki,
abstraktuaren lerroak
azterna nagusi,
euskalduna aitz-elizetan
eman zaio ederrari...

V

BASAJAUN-EN BATZARKIDEAK

Herriaren izanak
«izena» gorena,
herriaren joana
batzarretan banatu da,
berdearen leuna
eta urdinaren hotza,
gorriaren beroa
eta zuriaren otzana
lamien sekretuan
poetak ikasia...

BASAJAUN-ek zainetan
metalen erauntsia,
erraldoiaren zuzterrak
harroaldi irakina,
arrats aserretan
suak biraoa,
hienakumeak jan dio
amari sabela,
harkaitzen lerroetan
basoak zaildura,
suharrien suminean
egunak oinazea,
azkonarraren hortza
arta-zuzterren labana,
burdin zutiek
ibilbide harroa,
zeroaren itzaletan
berbiltzen gogoa...

TARTALO-k Muskiako koban

luzea zangoa,
Lauztierreka-ko beleek
zikina mintzoa,
zezen atormentatuek
adarretan seta,
karkaitzak eta mendiak
erraldoiaren jostailu
(TARTALO, esan, kopetean
harria nork jarri dizu?),
kristal hautsien kexua
ibar ixilak mingailu...

Baltzola-n eta Krutzeberri-n

SUGAARRAK ahotsa,
isatsaz astintzen ditu
izarren dardaizoak,
sutegiaren oinazea
ezin da itzali
(gizonak norako den
agian al daki?),
galderaren labea
ezin da itzali,
hodei gaiztoen gaindik
gogoak ez ateri...

Murumendi-tik Aizkorri-ra

MARI-k bide gorria,
suzko gurdian gaua
txinpartez jarri da,
Otsabio-n zekorra
urretan irudi,
MARI-ren ileadatsa
ortzean isuri
(Agauntzako errekak
izarrez diraki),
atzapar okerrak jiraka
hormen aldetatik,
MARI, zuk daramazu
herriaren gurdia
gerora lilurari...

Itsasgorrieta-ko putzutan
eguzkia murgil,
oskorriren odoletan
ERENTSUGEA zurbil,
Itze-ko fagadian
abarrak izuz dabiltz,
Aralar-ko zuloetan
ardien zelatari,
egunak gau larriarekin
egiten lokarri,
alferrik da, ERENTSUGEAK
indarra gehiegi,
sugearen begi berotan
gorroto ugari...

GAUEKO dabil hariztian
argiak itzaliz,
idi asperraren loa
zangotara da jaitsi,
haltzak bide zihurra
ibaiaren ondotik
(atzaparren batzarrean
nor dabil hizketari?),
INGUMA-k lepo albotan
ipintzen igitagi,
ah, izu gehiegi dario
lizarraren dardarari ...

Akerlanda-n, Akesolo-n, Aketegi-n
AKERBELTZA dantzari,
euskal gogoaren hildoak
aintzinean urduri,
ilargipean AKERBELTZAK
orgiaren larri
(hamar sorgin beltz
afarian zerbitzari),
izterpean irritsak
orotazko opari,
ah, ilargipean grina
algaraz da jaiki!

Haragiaren zurrunbilan
asmoak mila jauzi,
ez eska burubiderik
mozkortu denari,
Petralanda-n Arratiak
gau zabarren baldankeri,
sufrearen eraso
suarekin nahasi,
akerraren esanetara
SORGINAK umilki,
Akerlanda-n ikusi dira
aker-sorginak laztankari...

Kopa gozoan uhinak
asmoa harrokeriz,
burdinaren gogordura
artoak bigunarazi,
LAMIEN ileak errekan
ametsezko antsi,
artzainaren amodioa
ondotik usmakari,
haltza ta lizarra ibaian
amorez ditut kausi.

VI

BORROKAREN GURPILEAN

Borrokaren soina
asfaltuan luzatu da,
ekinaren bizkarra
ingudean makurtu da,
herriak gogo, desgogo,
ganora, desganora,
ekintza, desekintza,
gizonaren mamia
meloï ustel gisa zartatu da,
ene herriaren zainak suntsitu
nahi dituzte bidegabeki.
Euskal Herriaren borroka
Eneko Aritzak, Elkano-k,
Santa Krutz-ek, Arana-k,
Zumalakarregi-k,
Orreagan eta Arrasate-n
euskaldunak borrokari,
lau bizarren ikaretan
Abedaño-k irrintzi,
milaka azkazal batzarrean
bila etsaiaren gerri,
AGIÑA-ko hatsak egonean
ezin, ezin du etsi,
Amaiur-en eta Noain-en
gaztelarra zigorkari,
erdaldunak tranpaz
gure etxearen nagusi,
ardo mozkorren afarian
erneguek setakeri,
bost mendetako lotsa
Nafarroak barnetik,

(nork urperatu ditu itsas-aingurak
arrats morearen antsiz?)
aizkora krudelak dira
asmoetara jaiki,
igitegi gaitzak irauliz
inularraren lepoari,
mailuak gogorrak dira,
euskal kaskoak, ordea,
gogorrangoak oraindik,
Orokieta-n eta Bergara-n
txapelak isur gorriz
(aih, odolaren zipriztina
hain ugaria ez balitz!),
Gernika-n ere sugeak
miztoa txit gori,
horra herriaren izterrak,
besoa ta kaskoa
etzanda lurretik,
gizonen hatsa (aih, aih, aih)
sufreaz da nahasi,
polboraren algaran
goputz hautsiak zati,
itsaspeko alga berdoxtak
lotsa handi du senti,
egunabarrak gure etxean
ilunabarrez goizetik,
lepoaren maldan
aizkorak setakeri,
hemen bakea zer den
haur ezezak ez daki...

VII

ZIGORRAK EZIN DU

Ene herriari irain
askoek egin diote,
herri hau seme askoek
saldu dute,
(burdinak arragoan
ernegua zutik!)
Euskal Herriak
zigorpean, ezinean,
egurpean
«izaten» du ikasi...

Lerin-go konteak
Bereterretxe-ri iruzur,
aih, Bereterretxe-ren atorretatik
odoletan dozena hirur,
Ezpeldoi mendian ilargiak
hotzikara eta beldur,
odol gaztearen isladan
Margarita-k malur,
atzapar iraulien muinoa
herio-gurdiz astun,
gari gozoen lo gizena,
aih, aih, eten da makur...

Gaztela-ko Fernando-k
gezurrezko botere,
Nafarroako garisoroak
hori ordez more,
etsaiak euskaldunetan
beraldiko udate,
nafarren egia apurtu dute,

txikitu, desitxuratu,
Euskal Herri osoak
uztarpean desohore,
geometri beltzak jarduten
lerro apalen jabe,
Noain-en eta Barbatain-en
ilargi hotzak dolore,
amildegiek bazkari
euskaldunen seme,
azkazalaren seta latzak
ezarri du kate,
gure herria goizetik
etzanda eta eri,
karlisten txapeletara
izu-lotsa gorri
(Espartero-ren gezurrak,
ah, nola gaitun itsasi),
estetako herra gaiztoa
bihotzean jostari,
lizarrak makur,
urkiak ahul,
haritzek malur
(aih, izotz gogor dena
balitza noizpait ur!),
zuhaitzak udazkenean
more erorien lagun,
Iparragirre-ren kitarra
dolua isur ta isur...

Zekor gazte-isila
engainuz dute hilarazi,
Molaren begi zikinak
hienaren maltzurkeri,
herriaren lotsa izutia
lau bizarretatik,
AGINA-n erditutako herria
Iruñea-n, Urbasa-n, Durango-n,
Gernika-n txit zauri,
minbiziak lana egin du,
haragian orratza jarri,
odolbildearen muinoa
zergatik hain handi,

herria gerratean hautsi da,
ur gaitzetan egosi,
piztiaren hagin zuriak
sufrearekin nahasi
(liska berdezko gorakoak
nekatzen baleki!),
Franco-ren zangopetan
gordeta txinaurri,
xor-xor txinaurriak zangoa
zulatzen azpitik,
hala ere, hala ere mailuak
hezurak ezin hautsi,
arratsaren tren isilak
askatasuneruntz
abiitzen dira hasi,
nahiz katetan egon,
nahiz burdinetan eror,
nahiz zorigaitza etor,
herri hau ez da makur,
herriak ez du etsi...

Noizpatean AGIÑA-ko hatsa
berbiztuko da,
noizpatean otso beltza
aihuriz joanen da,
noizpatean sustrai harroak
zutituko dira,
noizpatean azidoaren hortzak
amore emanen du,
herri honek herri eusten
ahalegin gaitz egingen du...

VIII

ASKATASUNAREN HILDOAN

Etorri zen haize freskoa
oihartzun berritan oretua,
etorri zen geroaren hatsa
zuhaitz gaztetan igurtzia,
etorri zen eguratsa
promes berritan pilotua,
bidetatik, hildotatik
heroek goraka zegiten,
galtzada nabar-harrizkoan
zaldi askatzailea
arrapaladan zetorren,
uhinetan txirla umilak
askatasuna zekarren,
kresalaren gatza
abesti gozoz nahastu zen,
esperantzaren soin luzea
izarretaraino igo zen,
hauts nekatuen etsipena
esperma basati gertatu zen,
gauaren susmo ilunbera
egunabarrez gaztetu zen,
otsoak kolpatutako ilargia
eguerdiko eguzki itzuli zen,
zigorraren monotonia
gure iraultzan irentsi zen,
ene herriak askatasuna, aih, aih,
hurbiltzen sentitu zuen...

Eneko Aritza-ren belaunek
etzuten lurra ezagutzen,
Eneko-ren uhel-abarkak
etsaien zilbor-kordez,
euskaldunaren pazientziak
zeroan adierazpen,
eremuen nagi horiak
etsipena ez onartzen,
zigorpean hauts latzak
basurdeen bultzapen,
euskararen kalenturaz,
ai, etsaiak beldurtzen,
Andia-n eta Urbasa-n arrano beltzak
hegada harro egiten...

Zumalakarregi-ren zangopean
liberala makurtu zen,
euskal soro berdeen mentura
gorriz jantzi zen,
etsaiaren promes zuriak
guretzat birao ozen,
«beltzaren» orpo etzana
bailitza limoi ustel,
behin, herriak libre izateko
asmo gaitza hartu zuen,
mailupean euskal lepoa
burdin hotz gertatu zen...

Santa Krutz-ek errezoa
zigorte egin zuen,
herra, agonia, garrotoa
otoitzaren estalpez,
izu zaharra ausardiaz
mendan ezkontzen,
fagoetan,
haritzetan,
gaztainetan
sotanaren itzala
askatasun promesa zen,
madarikazioaren madarikazioak
asmo txit goren,
ah, basurdea makurtzeko
basoan etsairik etzen...

Abando-ko txapel harroa
tente da jarri,
Arana-ren eskabideak
protesta larri,
herriak herri jarraitzeko
asmoa nagusi,
ikurrinaren maindorean biltzen
euskaldunen setakeri.
Nahiz-eta etsaiak Euskal Herria
uztarritan jarri,
nahiz-eta otsoak hortzez
gure hariak etenarazi,
nahiz-eta azeriak gezurrez
gure oinak itsasi,
euskaldunaren semeak
eginen du irrintzi,
gure beso eta bularrak
metalen bortxakeri,
borrokan dabiltz hortik
Etxebarrieta eta Txiki
(ah, argia, eraso, harria,
burdina, amorroa ta suharri),
zaldiaren zangopean
hondarra errukarri,
alferrik dabiltz odol gaitzak
zapaltzen gure herri,
alferrik gatz suminduak
ernegatzen gure asti,
idiaren lepo makurra
zezen baita itzali,
ingudearen bizkarrak
mailua baitu jaitsiazi.

Ez, ez, dagoeneko
hesiak ez dira hesi,
kateak ez dira kate,
lokarriak ez lokarri,
euskal suharriak, karaitzak, mugerrak
erreboltaren gogorkeriz,
AGIÑA-ko pizti etzana
jarri da gaur zutik,
ah, etsaiaren biriketean
zenbat, zenbat izularri...!

IX

AZKEN ZATIA

Ur sakon-beltzak
zurrunbiloan zoro,
ur hotzen sabelean
naturaren hatsa harro,
ura dabil tira, joka, salta, xurga,
kanta, zarta, bultza,
herriaren geroan gizona
nolabaitean murgildu,
suharriaren igurtzian
naturak baietz esan du,
borrokaren harunztik
bizitzak jauzi altu,
errautsaren doluak
egunabarrez argitu,
basurdearen ekina
eta gatzaren haserrea
gure asmoetan apurtu
(ah, otsakumeak otso-amari
sabela zergatik hozkatu),
bitxiloraren odola
galtsoeroan dut begiztatu,
geroaren argia
joanean bilatu...

AGIÑA-ra berretorri naiz,
AGIÑA-ra berritzuli,
AGIÑA-ko monolitoan
(zeroaren seriedade kosmikoan)
oraina ta joana uztartu,
aldia tormentuz inguratu,
eta suharriaren soin beroan,

eta fagoaren hezeduran
eta hartzuriaren soin hotzean
eta harrespilen hutsunean
izaten jarraitzeko,
borrokan jarraitzeko
zina egin du,
zuhaitzarekin zuhaitz,
urarekin ur,
lurrarekin lur,
ortzearekin ortze
dardaratan sentitu,
herriaren sustraietan
murgiltzen segitu,
izanari «izena» ematen jarraitu...

AGIÑA-ko muinoan
eremuen bakardadearen haruntz
superbizitzen jarraitu,
lehendikoaren hatsa
goza eta aztertu,
altzairu gogorrak,
burdin kaskailuak,
granito setatiak
zeroaren altzoan hertsitu.
Egun batez eskuok
kare egosia gisa zarta daitezela,
begiok
almandrazko pozez altxa daitezela,
soin-atalok
buztinaren malgutasunez antola daitezela,
zain beroen adoreaz
lurra bildu dadila,
eta «lehenaren» dimentsio berrian,
eta basakatuen begi-desperazioan,
eta suaren soin gori-hozkatuan,
eta hondartzaren samin horian
gogordura eta bigundura,
ilundura eta argidura,
lasaidura eta larridura,
pozdura eta samindura
lagun mamin bihurtu daitezela...

Bai, ikatz gorria eta mugerrarria,
arroka hotza eta zur beroa,
uholdearen zigorra
eta ene bertsoen geometria,
azidoen joko latza
eta emakumeen bigundura,
ozpinen sumindura
eta ingudeen setakeria,
barrabil zapalduen oinazea
eta bularren bozkariora,
sufre horien orgia
eta zezenen ahalegina,
gartzelen lokarria
eta metalen izugarria,
txingarren gerri errea
eta ene herria
(eta, eta, eta, eta...)
AGIÑA-n hazia, bultzatua,
banatua, luzatua,
bortxatua senti dadila.

Ibilbide luzea eginda gero
miresten eta maitatzen eta kontenplatzen
eta harriduraz betetzen ikasi dut,
bai-eta artoen kantu berdea entzuten,
bai-eta fosforoaren gorrotoa pilatzen,
bai-eta naturaren umildadea estimatzen
(eta umotua, gizendua, «leheneratua»
sentitu naiz,
oro pozetan, oro bozkariotan
esne egosi-lodia bezala),
eta herri nekatu honek
gozatzeko,
arnasteko,
harritzeko
«denbora» hartu du,
zahardadean pentsatzeko
astia eskuratu du.
AGIÑA-ko tregoharrian harri berriak
berrazten dira hasi,
zuzter ihar-ezpaltsuak
bergaztetzen hasi,

gauza ororen bidetik
proto-izanera iritsi,
zutarriaren gerriari
estuki atxiki.

Gaur, nahiz Euskal Herria
makurtuta egon,
nahiz Euskal Herria
borrokaz nekatuta egon
hazi berrien astinduran
altxa egin behar da,
esne zuriaren farra gisa
jeiki egin behar da,
gaua eta eguna,
goiznabarra eta inularra
poema berean nahasi,
eta arrantzaleak legatzaren zilarra gisa,
eta harginak harlandua gisa,
eta hermentariak burdina gisa
dena lan, sormen
bihurtu behar da,
eta Oteizak nola zeroa
eta Aita Donostia-k nola xirula
poetak
haitzen soinean (leloen irakinean)
Herria eskulpitu behar du...

Bai, AGIÑA-ra berrigota,
AGIÑA-ra berritzulita
aintzin-suak erre naute,
ni gau, egun, lur, ur,
harri, haitz, mendi
(«lehenaren ikara»)
sentitu naiz,
plazer ez-amestuetara
iritsi naiz,
ederduraren jokoan sartu naiz,
piztien begi-kalenturan
indartsu usmatu naiz,
kantuetan desestali naiz,
sustraiak agerian
jarri ditut,

izadiaren aintzin-urak
ukitu ditut,
hitza non jaio zen
jakin dut,
izanak lehen «izena» non zuen
berri izan dut,
euskararen hastapen zutiak
aztatu ditut...

Euskal Herri,
AGIÑA-ko muinoan
eremu, zelai, salmo, kantu,
ibar, luzapen, mirespen, tormentu
sentitu zara,
eta gure arratsari
esperantza jarriaz
eta gauari eguna jarriaz
«lehendikoa», «betikoa», «aldigabekoa»
orainaren soinean
behin betikoz experimentatu zara!!

LAU HERIOTZARENTZAT KANTAK

XOSE SESTO LOPEZ-en

Cantigas pra quatro mortes
Otsalarrek euskaratua

Bizitzaren berunez
heriotzaren berunez
zekien
eta itxaropen sendoa
galdu gabe
beti irriparrez
anai baino gehiago zen
nere lagun
Darío Alvarez Blázquez
oroituz.

Sinestedunen taldeko guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten, bere gauzak bereak zituenik, guztia guztiena zuten. Ez zen behartsurik haien artean; izan ere, lurra edo etxeak zituztenek saldu egiten zituzten, eta haien saria eka- rri eta Apostoluen oinetan ipintzen zuten, eta handik ematen zitzaion bakoitzari behar zuena.

(Actus Apostolorum, IV, 32, 34, 35)

ALEXANDRE BOVEDA

Pontevedra beretan neskatxa maitemindua
Begiak ispilu
azken agurraren auhenez
aberri hiletaz ari
Caeira-ko Alba gain hartan
Alexander zutik dago
pinu pondaliar (1) baten gurutz aurrean

laukia ezta
museo batean eskegitzeko
hitzaldi ofizialez eta galego himnoz
edozein momentutan

hazaro soila besterik ezta
gero izango da
ikaragarrizko dunbots alaia
milakak eta milakak eta milakak
igitai biziena
garaitze emankorren
ebate kanturako

(1) Eduardo Pondal-en (1835-1917) *Queixumes dos pinos* poesi lana adie- razi nahi du.

Zuen artean ginenean, han esaten genizuen, lanik egin nahi ez duenak, ez dezala jan.

(Epistola B. Pauli Apostoli ad Thessalonicenses secunda, III 10)

LLUIS COMPANYS

Oinutsik lurraren gainean
edo lurraren barruan zuhaitz bat bezala
zuhaitz bat bere sustraiekin
goian zerua
eta xoriak eta habiak eta frutuak
zuhaitza beti zuhaitz
amaren lurra bizitza denez
eta heriotz denez baita hori ere berpizten da

heurena da hilketa
zuretzat bizibidea
zuhaitz izatea besterik ez eta zutoia
edo gapirioa eta atea edo leihoa

hori da zur landua
etxegintzarako
Kataluña.

Zapaldua atera zazu zapaltzailearen erpetatik, eta ez beldurrik izan zuzentasunez jokatzear.

(Ecclesiasticus, IV, 9)

GERNIKA

Sabai eta kanpandegia
aintzinako katedrala aintzinako herri batentzat
leze emasabel
gorengoa argituz
besoa tente
bihotza airera eta xoriengana zabalik
harrizko zuhaitza eta hostoa
denboren abotsa
lur hontatik zeru garbira

miru eraileak
beren su hiltzailea utzi zuten zure magaletan

baina orainik zure sustriaiak
Euskadiko mila zuhaitzetan loratzen dira
Gernika.

Zuzentasunaren alde borroka egin zazu hil zorian sufrituz
bertan bizia galdu behar baduzu ere, eta zure orde z Jainkoa
borrokatuko da zure etsaien aurka.

(Ecclesiasticus, IV, 33)

FEDERICO GARCIA LORCA

Ardo gorritan murgildu bezala
ardo epel batean
erditzez jaioberritu edo hil ninduten
ez dakit
zerbait estrainatzen da nigan
egunsentian edo arratsean aurkitzen naiz
zerbait epelek inguratua
nere amaren ditiburuko esnez
zerbait epelek itotzen nau
edo nere odol ixuria besterik ez da
zerbait epel
zerbait epel

Federiko izenez bataiatzen naute
edo Abel izenez lurperatzen
ez dakit

sehaska kanta batek urrumatzen nau
begiak hertsitzen zaizkit
loguraz naiz.

MENTALITA

KABER KONTANA

KONTU KONTARI

ATENTATUA

XABIER KINTANA

Dena egun gris hartan hasi zen. Orduantxe mamitu, hobeki esan, arazoa lehenagotik baitzeturren. Ez da erraza, nolana ere, hasiera zehazki mugatzea. Egunaren jaiotzea bera ere holaxe izaten da eta ilunari argitasuna pittinka jarraitzen zaio, beltzetik urdinera ia konturatzeke iraganez. Orain bezala.

Eguraldiaren tristurak beti hunkitu nau eta horregatik haren arauera piztu edo moteldu izan naiz luzaro, nahiz eta orain horrek jadanik bat ere garrantzirik izan ez.

Arratsa zen oraino, aurreko askoren antzekorik. Donostian, Aurrezki Kutxaren batek antolaturik, maiz izaten dira horrelako hitzaldiak, gutxienez dotzena pare bat lagun biltzeko meritua dutenak. Horien existentzia eguneroko prentsari esker betidanik izan dut baina egia esan, ez naiz haietara ia sekula joan.

Gaiagatik, noski, orduan ongi kargutu ez banintzen ere. Sartu eta gero, hala ere, nolabaiteko erreparatxoia etorri zitzaidan, inork ikusiko ote ninduen beldurrez. Luis Bengoa izan ezik ez nuen han ezagunik bat ere aurkitu. Ez nukeen inoiz pentsatuko hura ere... baina, jakina, gauza berbera esan zezakeen berak nigatik.

Hizlariari tradizional xamarra eritzi nion. Ohizko topikoak berraipatu zituen: dena prozesu patologiko baten ondorioa izaten zela, hots, gaixotasun psikikoa.

Gero tipo klasikoetara pasatu zen. Guztietan konstante bera ageri zen beraren ustez. Ingurugiroaren kontrako errebeldia, gizarteari —orokorki edo partikularki— uko egin nahia, bere egoe-

raren erruduna sentieraztea nonbait. Hala eta guztiz ere, asperasper eginik aretotik irteteko nengoenean interesatu zitzaidan zerbait entzun nion, eta horrexegatik bukatu arte bertan gelditu. Posibilitate bat, besterik ez, berak, Angel Ortega Pachecok, teori mailan bederen, ontzat ematen zuena: bere senean egonik, aitzingibel guztiak ondo ikusi ondoren eta egiten duenaren kontzientzia argiaz pauso hori egitera ausartzen denarena.

Ez zioten galderarik asko egin. Zerbaitengatik horixe ere, dudarik gabe.

Gogoratzen dudaneon, irteeran euria ari zela oroitzen naiz eta haizea hotz zetorrela hondartzaldetik. Tanketa batzu zeuden Santa Katalinako zubi ondoan eta polizia nazional berri — orduan berriak ziren bederen— horietako batzu. Tabakorik gabe gelditua nintzen eta orduagatik kafetegi batetan sartu beharra izan nuen erosteko. Ilundurik zegoen dena. Orain bezala. Trankil, izugarri trankil sentitzen nintzen baina izpiritua, batera, neugandik kanpoan neukala nabaritzen nuen, aldamenean bailebilkidan. Neska-mutil bi ene ondolik korrika, footing egiten. Iheska beraiek ere, beren barruen beldurrez, osokeriagandik eskapan, agian.

Dena neukan eta hainbeste urteren buruan hura guztia lorzeagatik ibilitako bidea, atzo bertan amaitua, hutsa, garrantzi gabe, alferrekoa iruditzen zitzaidan, orain zaidan bezala. Andre ijito batek behin eskua irakurri zidan. Barre egin nion, limosna ematen ziotenei bentura txarrik ezin eskain diezaiokeela esanez. Ez zitzaiokeen gustatuko, baina orain, harez gerokoak hotzean pentsaturik, arrazoi haundia zuela aitortu behar dut.

Kezkatzen ninduten examinak pasatu nituen. Behar nuen lanpostua eman zidaten gero eta maite nuen neskarekin ezkondu nintzen azkenean. Hiru haurrak ongi sanorik jaio zitzaizkigun —neskatorik ez izatearen pena izan nuen orduan, baina orain berdin zela dakusat garbi— eta ene bizibidea beti gorantz joan da. Bekaizkeria sortu ere egin da ene inguruan. Diruagatik, emazteagatik, osasunagatik, karguagatik, umoreagatik... Egia da, bai, eta ongiegi baieza dezaket orain hori, luzeagoa izaten dela beti hauzoaren behiaren erroa. Ez dut uste, horregatik, inoiz gehiegi harrotu naizenik.

Gorago beti. Horixe izan da, inkontzienteki beharbada, ene entengabeko helburua. Horrela ibiliz gero noraino hel daitekeen

asmatzea ez da erraza izaten. Besteek ez dakit baina nik neuk noraino horren lekuan harez gero zertarako jarria nuela pentsatzen dut.

Pentsatu, hori ere bai. Ene gaitz maiteena, irudimenaren gaixo liluragarria. Ideiak izan, eta gero praktikara eraman, neure inguruko mundu txikia neure erara moldatu eta neure sormena beterazi. Eta horretan ere oso aurrera heldu naizela ezin uka. Baina zertarako, berriz ere. Txaloak, zorionak izan ditut, bai, eta orduan ez ninduten gogobetetzen, orain ere ez nauten bezala, haien oihartzuna amaitzean berriz entzuteko beste zerbaiti hasiera eman behar bainion. Horrela beti, etengabeki.

Kuriosoena zera da, ez dudala inorenganako gorroto berezirik inoiz izan. Ez nauela ezerk bereziki mindu. Zentzazio orokorra izan da, zertan funtsatzen zen ezin mugatuz. Oro har. Ba zen, noski, pertsona eta egoera konkreturik ere, baina banan aztertuz gero, argiro nekusan orduan ere guztiak txikikeriak, ñimiñokeria hutsak zirela, hala ere.

Erabakia astiro bilbatu nuen. Ideia, berez, lehen unetik garbi izan nuen eta hasieran buru-ariketa gisa erabili banuen ere, pixkanaka, gero eta indar haundiagoz agertzen zitzaidan. Mozart-en musika falta dut. Seguraski Marian-ek aginduko du biharko, gustatzen zaidala ederki daki eta. Originalgia ere ez. Egunkaria irakurtzea aski izaten da hemen horretarako. Ia-ia egunean bat. Gutxienezko irudimena edukiz gero... eta ni ez naiz izan, ene zoritxarrerako, beharbada, txikitan buruan kolpe harturako horietako bat.

Kontua astiro ibiltzea zen, presarik gabe, susmorik inork har ez zezan. Testamentua aspaldian —gure adiskide Antton istripuz hain supituki hil zenetik— egina nuen. Segurantzazko poliza bat egin nuen, ahalik eta diskretuenik.

Marianek ez dizkit inoiz gutunak zabaltzen eta zuhurtasunezko ohitura horrez baliatzea izan nuen. Hala ere, Bankuko helbidera ere bidali nituen batzu, bertan lasaiago jasotzeko. Boli-grafo berriak erosi behar izan nituen horrexetarako, erabili ondoan Urumeara jaurtikitzeko. Ezkerraz idaztea, bestalde, ez da hain erraza. Konturatuko dira, baina hori anonimo guztietan egiten bide da eta ez dagoke hor zer ateratik. Guztiak bulegoko armairuan gordeak ditut, Bankukoek erraz aurkitzeko moduan.

Erabakia, berez ez da ikaragarria izaten. Problema, besteak dira: emaztea, umeak, etxeokak, lagunak. Ez dut nahi izan nigatik haietako inork sufritzerik. Bestela errazago zatekeen dena. Tristeza da baina, norberaren eginen ondorioak inork pairatu beharra.

Suizidioaz, nik uste, bi modutara pentsatzen da eskuharki. Lehenbizikoa bizitzan abstraktuki eta gugandik urrun dagoen posibilitate gisa. Hau, gehienetan, Urlia edo Sandiaren heriotzea horrela gertatu dela jakitean egiten dugu eta guk, burua hiltzekotan, geure azken finari halako zentzu soziala emango geniokeela esaten dugu. Batzuk —zoro xamarrek— ez dakit nongo banku, etxe edo klub dinamitaz puskatuko luketela esan ohi dute. Beste batzuk, ETArek ekintzez liluraturik edo, koartel edo komisaldegiren bat birrintzea nahiago lukete, eta bietan Samson-en antzera, horko edo hango filisteoak garbituz hiltzea pentsatu.

Bigarren modua, ordea, egiazko suizidarena da, eta beronek ez dakusa buruhiltzean posibilitate urrunik. Bere berea duen aukera pribatua du, zerbait pertsonal eta, horrexegatik, barrukoa, intimitatean ospatzekoa.

Niri ez zitzaidan egoki iruditzen, hortaz, ene suizidioan inor partaide izatea, ez eta etsairik haundienak ere. Gorrotoaren sentimendua erabat baztertua izaten da une horietan. Neure buruari eskaini nahi nion bakea bera opa nien besteei ere.

Ba dira, noski, Angel Ortega Pacheco psikiatrak esandako tipo patologikoak ere, buruhiltzea, norbaiti min emateko, mendekuzko ekintza gisa planteatzen dutenak, baina horien kasua ez da normala. Ez dira horiek buruhiltzaile libreak, profesionaltasuna falta zaie, zertsu egiten duten ongi ez dakiten gaixoak izanik.

Buruhiltzaile zentzudunak gauzak bestela egiten ditu. Bere heriotzea nolabait istripuz edo berezkoa izan delako itxuraz esaltzen saiatzen da, maisulan estrategikoa eginez.

Hori dela eta, nik neuk atentatuaz maskaratu nahi izan dut neurea. Tristeza dateke, noski, neure gorpu hila horrela topatu beharra, baina lurperatu eta gero, lasaigarri gerta daiteke batera. Egia ere ba da burua nonbaiteko leizera bota nezakeela, beharbada inork sekula topatuko ez nindukeen tokira, edo eta itsasora, baina kasu horietan ez zuketean ahaide-adiskideek sui-

zidioaren pentsamendua inoiz erabat kenduko burutik eta posibilitate horren itzal beltza beti zebilkiekeen inguruka. Atentatuaz, ordea, dudarik txikiena ere ez.

Ohorezko da, bestalde, nire moduko pertsona batentzat horrelako heriotzea. Politikan, egia esan, ez naiz inoiz nabariegia izan. Botua, egia, boterean dagoen alderdiari eman diot beti —eta berek ba dakite gainera— baina beren kandidaturarako nire izena Donostiako zerrendan ipintzeko eskatu zidatenean, arazoa bi aldiz pentsatu behar izan nuen, azkenean, ozta-ozta, zerrendako azkena jartzea onhartuz.

Atentatuaren ondoan, aldiz, alderdiagatiko heroi eta martiritzat edukiko naute eta hortik ez zaie ene etxekoei bat ere kalte ekonomikorik etorriko. Alderdiak, bestak beste, aski indarra dauka oraindik Bankuan Marian eta umeei inoiz ezer falta dakien, eta horrek lasaitu egiten nau. Agian, batek jakin, kaleren bat jarriko. Alderdiak, besteak beste, aski indarra dauka oraindik Bankuan Marian eta umeei inoiz ezer falta dakien, eta horrek lasaitu egiten nau. Agian, batek jakin, kaleren bat jarriko didate hirian. Ba liteke, bai. Hori ez da bat ere zaila, bestalde, orain edonori eta edozeri kaleak ipintzen hasi baitira memeloki. Niretzat ere batxo egon daiteke nonbait.

Ikastolan alde batekoak eta besteak gupida izango dira Iñigo, Aitor eta Asier-ek. Bertan segituko dut. Ez, Marianek ez ditu ikastolatik aterako horregatik. Beragatik sartu genituen gainera. Alderdiak, bestalde, ez luke honez gero ateratzea begi one-giz ikusiko.

Alde horretatik gauzak ondo utzi ditudala uste dut. Nolako bakea neurea; ikusi ez arren, nigana heltzen den itsasoko uhinen zaratots etengabea bezalakoa.

Neure buruari, hiltzeko mehatxuz, etxera eta bulegora bidali nizkion anonimo guztiak ongi heldu zitzaizkidan. Talde ezagun baten izena jarri nien, berririk asmatzen aritzea arriskugarri baitzatekeen eta, bestalde, akusatuek ezingo dute inola ere ekintza-ren gezurtagiririk publikoki azaldu.

Dena ongi zetorren, hasieran planeatu bezain ondo, puntuz puntu, xehetasun guztiez. Eguneroko monotonia aspergarria laster galduko nuen betiko, zentzugabeko bizitza goranahi honetatik iheska.

Eta orduantxe, gutxien espero nuenean, eskutitz madarikatu horiek. Talde berberak eginak ziren, baina oraingoan benetakoak, egiazko mehatxudunak. Ezin hura hasieran sinets. Kasualitate haundiegia zen, izan. Mila pentsu erabili nuen buruan. Gustu txarreko bromaren bat ere gerta zitekeen. Bezeroren baten mendeku latza beharbada. Kreditua ukatu nion gizontxo haren aurpegia ez zitzaidan begikoegi iruditua behintzat. Baina ez, zigilua eta guzti zetozen eskutitz haiek eta broma huts baterako ez du inork horrenbeste ardurarik hartzen bere gainean. Etsi behar izan nuen azkenik.

Arazo xelebrea zen, benetan. Burua hiltzea lehenengoz pentsatu nuenean, urteroko bisita egin nion medikuari. Bularrean halako mintxoia sentitzen nuen eta sakoneko gaitz txarren bat aurki ziezadakeelako esperantza ezkutua nerabilen gogoan. Minbizia edo. Alferrik. Gutxiago erretzeko esan zidan, baina apartekorik ez. Ezer aurkitu balit, ordea, hura nire barruko gaixoa zatekeen, nolabait neuk sortua eta hargatik hiltzeak ez nindukeen hainbeste kezkatuko. Baina terroristen mehatxu horiek bestelakoak ziren. Osorik bestelakoak.

Buruaren jabe naizen aldetik eskubidea dut neure bizia amaiera emateko, baina neugan askatasunaren jarioa den heriotze hori, besteren eskuetan, asasinatzea besterik ez litzateke, eta nik ez nuen nahi niri inork bizia kentzerik. Nik bai, hura egin nezakeen, baina nahi nuenean eta nahiago nuen moduan, ez bestela.

Egun latzak izan dira harez gerokoak eta gogoan ditut oraino. Egunero aldatzen nuen bidea. Batzutan automobiler joaten nintzen, beste batzutan oinez, edo eta taxiz eta autobusez ere bai. Kale ezberdinetatik gainera, jenderik ez zebileneko tokiak saihestuz. Etxetik irteteko orduak ere aldatu izan ditut maiz, eta Bankutik atzeko atetik, garbitasuneko andreek darabiltenetik kaleratu noizbehinka. Marianek zerbait susmatu bide du baina ene atxakiek, itxuraz behintzat, bera engainatzea lortu dute.

Etxetik irten aurretik leihotik behera begiratu izan dut aste osoan eta eskailerak oinez jaitsi, igongailua erabili gabe, atarian inor ba ote zegoen ondoenik ikusteko. Kaleetan zehar ibiltzean sarritan atzera eta inguruetara so egin dut eta zentzugabeko beldur batek hala eskaturik, arinegi, korrika ia, abiatu. Bulegoan bertan ere ez nengoen guztiz lasai. Bisita guztien identifikazioa zehazki konprobarazteraino heldu izan naiz inoiz, pentsa daitezkeen susmoak sorteraiz.

Beldur izan naiz, bai. Bizpahiru aldiz, ene bila atzetik zetozelakoan, semaforoak gorritz pasa eta ihesari eman diot aste hauetan, desesperatuki. Irudimena izan bide da guztia, edo, beharbada ez. Orain ez du horrek inolako garrantzirik ordea.

Gaur, iluntzean, Antiguarantz nentorreanean, automobil batek segitzen zidala konturatu eta Igeldora desbideratu naiz. Euria eta nolabaiteko lainoa zen baina hala eta guztiz ere segur, oso segur nengoen. Haiek ziren.

Beren automobilaren argi horiek mozolo erraldoi baten tankera ematen zidaten. Ni sagua, gauean haren erpeetatik iheska, ezkutatzeko zulo baten bila. Ez dut beste irtenbiderik izan; garbi ikusi dut. Ez nuen harmarik eta ni baino gehiago ziratekeen. Aurrea hartu behar nien bada. Arinka, laino artean, Igeldo gaina pasa ondoan, eskuineranzko bideska batetan behera eramanez dut autoa eta langara heltzean bazterrean utzi. Beren automobilaren hotsa eta argiak nabaritu ditut, gero eta hurbilago.

Ondorengo tximistaren abiadaz gertatu da. Saltoka, belar, sasi eta ote bustien gainetik abiatu naiz. Zapata bat galdu dut nonbait eta alanbrada madarikatu batek urratu mingarriak hanka bietan egin ere bai. Beraiek ere ene atzetik. Zerbait esan didate, gelditzeko edo, baina nik kasurik ez. Ziztuka bala batzu pasatu zaizkit ondotik, baina ez dut uste batek ere, hankako mina gora behera, jo nauenik. Ez da erraza izan, iluntasunean, bisutsaren zirriborroan, tiroka asmatzea, eta horri esker salbatu naiz.

Instante batzu geroago, labarretik behera salto egin dudanean, neure gorputza airean zehar joaten sentitzean jokoan garaile nintzela ikusi dut pozik. Mementu zoragarria benetan.

Beheko haitzen kontra kolpe bat, bat bakarrik hartu dut, segundu batzu geroago. Buruko min izugarria jarraitu zaio baina hori lehen izan da. Orain, begiak zabalik, gora begira natza. Geldi, odolaren hoztasuna nabaritzen, kontzientziaren etengabeko jario ixilean, agian barrezka. Eta ez pentsa, egon, pozik nago, honez gero ez baitut nahi izan nahi.

OTXANDIOKO OKARANAK

BITAÑO

1979, Haritzetan.

1981, Irunen.

Otxandioko alkate zaharra eta bertako abadea, beti ibiltzen omen ziren umore onean biek alkarren artean, baina zirikalari amorratu ere bai, noiz behinka eta sarritan.

Behin batean, ziri ederra bota omen zion alkateari abadeak pulpitutik domekako sermoean, eta benetan mindu omen zen alkate agurgarri hura.

—Abade demoniñu demontrea! Hori ere ba aal dugu? Horrelakoak entzun behar, eta pulpitutik gainera...

Eta sudur puntan nabaritu omen zuen azkurea, erle batek eztenkatu balio bezala.

Eta gogoetan gogoetari, bere baitan esan omen zuen: «Itxaron ezak pixka bat, hau ez duk honela geldituko-ta. Ikusiko duk, ikusiko duk, datorren domekan...

Otxandioko okaranik ederrenak, alkate zaharraren baratzekoak omen ziren, eta hain zuzen ere, okaran urtea omen zen urte hura, eta heldu helduak omen zeuden egun haietan...

Eta esan omen zion alkateak andreari:

—Bihar goizean, otartxo bete okaran eraman iezaiozu abadeari, helduen helduenetatik onenik onenak.

Eta pozik eraman omen zion andreak otartxo betea, mezatarakoan eta bide batez.

Asko estimatu omen zuen abadeak opari ugaria. Eta jan eta jan bazkarian, kontixu gehienak jan omen zituen, gehiago ezinik, ok egin arte. Okaranzale jatun ona Otxandioko abade hura!

Baina arratsaldean elizbirara joan beharra zeukan, eta bazkalondoko lokuluxkan zegoela, orroaka hasi omen zitzaion urdaila, eta beherakoak abiatu, okaranen ondorioz.

Elizara joateko ordua, baina urdailetik ondoezak harturik zebilen, joan etorri hara eta hona eta komunera, eta luzarorako omen zeukan gixajoak.

Abaderik gabe ez egoela elizinguruko prozesiorik, eta bakoitza bere etxera joan zen jendea, abadearen berri gauza garbirik jakin gabe. Gauza larririk ez zela, baina etxetik ezin zuela irten, esan zuen osagileak, eta besterik ez.

Alkate zaharrak bakarrik zeukan sekretua, eta isilik gorde zuen bere baitan, malizia haundiz.

Baina sekretu guztiak ez dira betirako izaten, eta egun gutxi barru jakin omen zen alkatearen ziria, eta Otxandion eta inguruetan ere laster jakin omen zen gertatua herriko pertsoneri bien artean.

Santamañetan baino barre gehiago egin omen zuten orduan otxandiarrak.

Eta ordutik omen dator lehenagoko esaera zaharra: «Elizinguruko prozesiorik nahi ez denean, Otxandioko alkatearen okaranak jatea baino gauza hoberik ez dagoela» eta «Prozesiorik gura ez baduk, joan Otxandiora okaran bila».

TITIRITEROAK

(Ipuia)

J. EGIGURENTARRA

—Aspaldi esan zian gure amak, titiriteroak buhame mesprezatuak zirela; ez zutela bizimodu normalik eta herririk gehienatan gaizki ikusiak eta arbuiatuak izaten zirela —esan zion titiritero batek besteari.

—Baj! Atsoen esanak dituk horiek. Bakoitza, den bezalakoa duk eta nolakoa jaiotzeaz ez zegok hautapenik —ihardetsi zion besteak—. Gainera, titiritero guziok ez gaitik berdinak. Batzu mundurik mundu, inongo erresuma jakin batera lotzeke, harat-hunat ibiltzen dituk, atsedenek gabe. Baina guk badiagu herrialde jakin bat, inguru ezagun bat, gure mintzairak mugatzen duena eta horren barruan mugitzen gaituk, hizkirimiriak ontzeko gure hizkuntza tresna dugunez gero. Horregatik, heltzen garen tokian heltzen garela, nork ongietorria eman ez zaiguk falta, badiagu adiskiderik eta aurpegi ezagunak non-nahi mintzaira berdineko erresuma hontan, haurren pozkarri eta adinekoen kontsolagarri.

—Behar bada hori duk gure kaltegarri.

Hi beti zalantzaz eta kontentagaitz. Har zak patxadaz bizi-modua eta behinoraezkero jarrai dezagun gure ekintza, plazamutil jaio ginenez, jendearen entretenigarri. Gizonen artean poza eta alaitasuna zabaltzea duk gure eginkizuna, naturalezak doain hori eman zigunez.

—Ba, gure amaren ustez, Jainkoak emana diagu berezko doain hori.

—Dena dela, bete dezagun gure egitekoa. Mundu hontan, zerbait bete ahal izatea ez duk guti.

Egia esan, titiriteroak leku guzietan ez zuten aurkitzen harrera berdina. Ilunarreta aldean ibili zirenean ez zuten fama onik. Garaiak ere bestelakoak ziren eta. Ilunarretan biztanle guziak ziren elizkoiak eta titiriteroetatik guti batzu beste ez ziren joaten elizkizunetara. Hoietako bat konfesatzera joan zenean eta apezak bere bizitzak galde, alperrik ziren haren eginkizunak hitzez azaltzea eta apez zaharrak ulertuko bazuen, titiriteroak bere pantomimaren bidez agertu behar izan zuen. Han bertan, zain zegoen jendearen aurrean, konfesonario ondoan, ankaz gora jarri zen titiriteroa. Han ziren emakumezkoak, gizona besoen gainean buruzbehera eta ankak gora zituela ikusteaz, bildurtu ziren eta guziak ihesari eman zioten, apez zaharra erdi txoraturik holako penitentziak jartzen hasia zelako ustean; denak etxera joan ziren, galtzak jaztera. Garai hartako ortodosiaz emakumezko guziak gonekin ibiltzen bai ziren. Ilunarretako autubatzaileen artean laster zabaldu zen berria, titiriteroak ez zutela gizalegerik behar bezala betetzen, bat edo beste elizara joanarren. Gainera, joaten zirenek hartzen zituzten penitentziak leku, agiri agirian zegoen pekatuaren eremuetan zebiltzala. Denak ez ziren uste berekoak, baina titiriteroenganako mesfidantza indartuz joan zen. Haurrak izan ezik, gainerakoan, anitz mesprezu, arbuio eta aurpegi ilunak nonnahi ilunarretan. Titririteroak beren agergaitzat erabiltzen zuten ikurñoa, h formaduna, askorentzat susmagarria zen; zalantzazkoa. Horrek bere atzetik izango omen zuen zerbait. Batzuentzat, h hori, jirafaren irudia besterik ez zen, zirkoan ibili ziren garaian erabilitako abere haien oroitzapenez; beste batzuentzat, h, titiriteroak komediak egiteko erabiltzen zuten aulkiaren irudia, besterik ez. Baina, Ilunarretako zurrumurru susmagarriak ez ziren baretzen. Titririteroak buruzagiagana ere jo zuten. Honek, erantzunez, lehenbizi programe-tatik hizkirimiriak kentzea eskatu zien. Baina titiriteroak ondo zekiten hizkirimiri gabe jaialdi tristeak izango zirela; gatzozpin-durik gabe jendea aspertu eta nazkatu besterik ez.

—Inor alaitzeko giroak gutitu bazaizkigute, goazeman beste leku batera.

Bakeagatik, handik aldetzea erabaki zuten. Eta, erabagita-koaren arabera, Ilunarretan San Eladio festak ospatzeko ziren garaian Argiategirako bidea hartu zuten.

Argiategi. Haiek ziren egunak eta haiek gauak. Ezkondutako urtea eta xerria hildako astea omen dira onenak. Ba, halakoak ziren Argiategiko gau eta egunak. Baina, ez omen da zorionik betiko iraupena duenik, ezta ere arrosarik arantzarik gabe. Argiategik ere ezagutu zituen bere aldakuntzak. Bi talde nagusitan banatzen zen herria: Kontuztaldea eta Zarataldea, eta bien arteko orekan aski ongi konpontzen ziren titiriteroak. Beren ustez, mundu hontan inork bete ezakean eginkizunik onena betetzen zuten: jendea dibertitu, barre eraginez. Herri baten osasunaren alde, zer gauza hoberik? Baina, talde bien zatiketa gogorra heldu zen, borroka eta auzi latzen ondorean. Titrireroak larri, burutzen zenaren menpekotasunean erortzeko arriskuagatik. Hala gertatu ere. Eztabaidak, auziak, azpijanak, borrokak igaro ondorean Zarataldekoek jabetu ziren Argiategiko agintaritzaz. Herriak batzarrak, buruzagiek asanbladak, aldakuntza hemen eta aldakuntza han. Azken erabakiak, lege. Pertsona bakoitzari bere ezaugarria eskatzen hasi ziren, ez dakite nolako ikurño baten izenean. Hori zen iraultzaile berrien ezaugarria. Titrireroak beren h ikurñoa ez zuten aski. Erdipurdizko anarko, librepenstazaille, liberal edo antzerako motarik ere ez zuten onartzen. Batasunaren izenean denak sakrifikatu behar ziren. Baina ez galde zer batasun, herriaren izenean mintzatzen zirenei. Libertatea, anaitasuna, elkartasuna..., gerorako itxaropenean gorde behar zen. Titrireroak, herritarren artean bat eginik edo nahasturik bazebiltzan ere, definitu beharra zuten, eta definitzen ez baziren, beste gabe, *de facto*, definituak zeuden. Buruzagitzak esango zuen, ezer esatekorik bazegoen. Arautegi hertsia jarri ziren, hontarako eta hartarako. Eta, titiriteroendako arauak ere bai. Zeruko argiaren arabera ezin ziren ibili eta ilunean argiz ikusteko elektrika indarraren argia behar. Joera hortatik, elektrika kontsumoa gehitu beharrezkoa iduritzen zitzairen eta kontsumo gehitzeak nuklear indarraren beharra ekarriko zuela eta hori ezinezko bihurtzeko zerbait asmatu beharra zuten. Titrireroak, zer esanik ere ez, ekologistak ziren praktikan; Argiategiko Zarataldea ere bai beren teoriak eta hitzez. Gainera, hori ongi frogatua zuten ekologista ikurñotzat arraultza frijituaren irudia hartu zutenetik eta ekologia prolemak aztertzeko bilera nagusi bat eratu ere bai, jazzi jaialdiz eta gaupasaz bukatzeko. Gehienek jan-edanezko doainak erakutsiz igaro zuten eguna eta gaua, oihu zarataz, Zarataldearen ohorez. Orduan oharu ziren titiriteroak Argiategiko ihauteriak noiznahi ospatzen zirela. Handik egun gutira, Argiategiko dendariak estu ta larri ibili ziren hiri-

nagusietara ez ezik herririk tipienetara ere punta estudun orraziak eskatuz, zituzten eskariak bete ahal izateko. Jaialdiaren ondotik herri guzia bete bai zen zorritz. Askoren ustez titiriteroak ziren errudun, zeren ez bai zuten behar bezalako garbitasunik, eta denboraz kontuak eskatu behar zitzaizkien, ia arauak behar bezala betetzen zituzten edo arautegi hertsia goa ezarritz. Zurrumurru horiek entzunaz, titiriteroak buruzagiengana jo zuten berekiko arazoak aurkeztuz eta aurrerantzerako bideak hobetzeko, eta, arren, argirik ez ukatzeko onespena eskatu zuten. Otoi, zerurik gabeko argia onartzen zutela, garai hauetan egunezko jaialdiak urri gelditzen zirenez; baina, argia beharrezko zutenez, argi artifiziala elektrika bidez. Lehengo arauaz gainera, kondizioetarik bat izan zen argiarena eta amor eman zuten. Baina, zeruko argia behin eta berriz aipatzen zenez, zerurik ez aipa eta ez ikus, jarri zieten kondizio nagusitatz; zeruak beste gabe susmo txarrak ekartzen zituenez. Horregatik, aurrerantzean, buruzbehera ibili beharko ziren titiritero guziak. Hura, titiriteroen larritasuna, buruzbehera luzaroan, odolez burua kolpatzeko bildurrez. Arren, uzteko buruzgora ibiltzen ere. Buruzagiak batzarturik erabaki zuten, buruzgora, zerura begira, noizbehinka egoteko eskubidea zutela, baina lepotik soka batekin zintzilik. Hala ere, titiriteroak, beren buruak urkatzeko bildurrez ziren. Une labur batzutan egin zituzten frogak, baina ezin iraun eta utzi egin behar, itoko ez baziren. Gertakariok horrela ziren artean, Argiategin ez zen autobatzaile beharrik titiriteroen jokaeraz susmo txarrak zabaltzeko; goitik behera zetozen aginduak, eta poliki poliki giro ilunak ingurutzen zituen bazterrak, titiriteroentzako geroago eta giro txarragoa. Zerbait egin nahi zuten eritzi okerren kontra, baina dena alperrikako bihurtu zen. Ez du axolarik Argiategiko guziak uste berekoak ziren ala ez, zeren Argiategiko usteak teletipaturik zetozen gizaki bakoitzak pentsaketan denborarik gal ez zedin. Hala ere, titiriteroak bertan bizi nahi, azken ugarte babesa aurkitzeko asmoz. Aspaldi, arrazoi horrek eroan bai zituen Argiategira. Baina, bereziki, haurren atsegingarri zirelako eta, baita ere, zentzudun gizonen artean umorea eralgitzen zutelako. Hala ta guzi ere, kezka larriak jabetu ziren titiriteroengan. Batzartu ziren eta jaialdien egitarauak aldatzeko eskaera egitea pentsatu zuten: komediak egin eta hizkirimiriak kontatu beharrean, kitarra jo eta kantatu. Enbaxada honekin jo zuten hirugarren mailako buruzagi ordezkioagana, honek goragokoak jakitun ipintzeko. Argiategikoek oso ondo zaintzen bai zituzten jerarkiaren gradoak, asanbladaz hautatutakoeren artean. Buruzagi ordezkarietako haren lehen galdea:

—Zer kitarra eta zer kanta?

—Kitarraz baladak eta agintariori ongi iduritzen bazaizue, kanten orde z abestiak —titiriteroak ihardespenez.

—Ez diat ulertzen; baina, ha bestea guk erabakiko diagu; kitarra, orde, norena, zuena ala gurea?

—Gure kitarraz, baladak.

—Guk geuk dizkiagu kitarrak eta balak.

—Balak ez, baladak —erantzun zion titiriteroetako batek.

—Beno, ez neregana etorri titiritero hitz-jokoz irripar eragin nahirik. Gure kitarrak afinatzeko zuek ez duzute barrabilarik eta balasoz geuk jakingo diagu zer egin. Ekologiaren alde-rako garbitasunak egin beharrez gaudenez. Guk esanak balio dik eta kito! Gurekin konforme ez dena, utikan!

Ordezkararen hitzak entzun ondorean, aurpegi zurbilez irten ziren handik titiriteroak. Aurrerantzean, berentzat, egun larriak zetozela ohartzen ziren. Argiategin ez zuten bizitzerik. Titiriteroak berekiko: «Ilunarretan eta Argiategin, inozente eguna urte oroz irauten duena denez, ez diagu ezer egiterik.» Abuztuaren 2a zen, aingeruen eguna, beren tresna guziak gurdira bildu eta aldetzeko prestakuntzak egin zituztena. Biharamun egunsentiz, bidez bide abiatu ziren. Bai; bide zahar batetik, noraezean, buhametasunik gorrienean. Izozturik zeuden bideak eta giro hotza nonahitik. Bidean, aurrez aurre, eskale bizar gorri bat aurkitu zuten, eta titiriteroetatik bide gidari egiten zuenak galdetu zion:

—Jauna; bide honek, nora garamaz?

—Linbora.

LANA!!

JOSE ANTONIO LOIDI BIZKARRONDO

IRAKURLEARI OHAR BAT

Nere ama zenak oso gogoko zituen ipuiak.

Baina (gero ikusi dudanez, beste askok bezala), ohitura xeble bat zuen: ipui bakoitzean, nor zen ona eta nor zer gaiztoa, ezkondu ote ziren ala ez, hiltzen ote zuten ala ez... hau da, ipuia nola demontre bukatzen zen, aldez-aurretik jakin nahian... azkeneko orriak irakurtzen zituela lehendabizi.

Hau dela-ta, hemen dihoakizu, irakurle, «azkeneko orririk ez duen, azkengabeko» ipui hau.

ZURE GOGOKO TXIMISTAN HASIAZ, BUKA DEZAKEZU NAHI DUZUNEAN, ONIK-ONENEAN, EDO-TA, BIRA-BIRAKA, SEKULA-SEKULOTAN...

.....flxflx
flx
flxflx
flxflx
flx
flxflx
flx
flx
flxflx
flx

flxflxxxxxtttt!!!!... berri batek, ho-
dei beltz eta beldurgarriak, argi-gorri dirdiraz jarri zituela ikusi
zuenean, isilik geratu zen. Baina, unetxo bat izan zen.

—Ez nator zurekin bat —zion berriz. Eta, berehala, urrutiko
trumoi burrunba luze bat entzun zen. Oraindik bazuten ordu-
bete osoa egonean egoteko (egote hura egiazko egotea bazen),
lanerako dei madarikatu hura entzun baino lehen.

Deia... Bai!: dei madarikatua gehientzat dei hura! Eltze
zahar bati «klan-klan-klan»!, burdin-puska baten bidez atera-
tzen zuten klankatekoa; haruntz-honaka zebilen artalde bateko
ardi-bulunbalariak galdutako zintzarri herdoildu baten kulun-
kuna; Irun-go jaietan norbaitek galdutako xilibitu zahar baten
zitzua; artesitutako alboka zaharrago baten «tuua...»; soinua
(deia!) atera zezakeen edozerrezko edozerren soinua... Bai! Inork
ez zekien solfeorik; inork ez zuen dei haren doinuaren axolarik;
inork ez zekien «mi», «do» ala «fa» zenik, baina, guzoi sartzen
zitzaien hezur-mamietaraino, dei madarikatu hura. Lanerako
deia! Lana! Lana berriz! Lana beti!... Bost axola guzoi albokaren
karranka eta eltzearen ipurdia, xilibituaren zuloak eta zintzarri
haren herdoila... Lana!...

Euria aspaldi hasia zen. Gogotik gero!... Andere aberats ba-
tek bere kolkoan erakusminez beteta, harropuzkeriz daraman
koillare baten txirlarriak ziruditen hango euri-tantak; edota, han,
Donostian bertan, elizkoi batek baino gehiagok, behatz-artean,
orduantxe bertan, zerabilzkien errosario baten aleak; edota, Bia-
fra-ko ume gosetsu baten amaren gatzik gabeko malkoak... Eu-
ria, euri-zaparra bihurtu zen; erasoaldi gogorra; eten gabeko
euri-jasa...

Zerua eta, zeruaz gainera, han zeuden guzien barrunbeak, iluntzen zihoazen, eta bazirudien ilunabarra zela, oraindik eguerdia izan-arren...

—Badator orain ere ederra! —zion batek.

Eta berriz, ekaitza gainean zeukatela, tximist berri baten bidez, hantxen, behin-behingo eta nolana egingako egurrezko txabola zarpail hartan gerizpetuta zeudenen aurpegiak ikus ahal izan ziren. Langileak ziren (bakoitza berean!), eta han, txabola haren ondoan, etxe eder eta bikain bat jasotzen ari zirenetakoak gehienak. Etxe hura, jakina, ez zen han zeuden,

Antxoka «Atzapar-luze»

Beñat «Baltzain»

Domiku «Dotorea»

Errondo «Eltxo»

Fermin «Frailea»

Gaston «Gaixoa», edo

Hurtun «Herbalia»-k

jabetzeko asmatua. Jasotzen ari ziren etxe hura, Igeldo-ko mendimazelan, Donostia osoa aurrez-aurre zeukala, apainduraz eta kirkileriz betea, arranditsu eta aberatsa zen; erosi nahi zutenentzat, behar ez bazuten ere, legeak eskaintzen zituen eta ez zituen «benefizio» guzietara babestua; neska pinpirin hark esaten zuen bezala, «derniers» guziaz hornitua; aberastasunez eta atseginez gainezka bizi direnentzat, super-bizi-toki izateko eratako; super-saritutako eginkizun (langintza ote?) ilun eta nola-halako baten bulegoa jartzeko aukera-aukerakoa; aitor ezin zitekeen elkar-biltoke izkutu bat izateko egoki eta aproposa; gaur eguneko «homo consumens» tuntun honen, tuntun ihestoki berdingabea...

—Aterpe on bat izanez gero, bost axola neri zaparrak...
—hasi zen bat. Eta... «flxflx

flx...flx

flx

flx

flx.....flx.....flxttt.....», tximist

bihurri batek isilarazi zuen. Gehienak, nork daki nork, eta nork daki nolako maitasunez eratutako, beren eguerdiko janari eskasa, bukatutzat zeukaten, oraindik ere bat-edo-batek ogi puskaren bat

izan-arren, eta hark edo honek, ez dakit nolako, mamirik gabeko, hezur puska bati, hozka eta karraska, edota, bi eskuetako hamar behatzei (zituenak behintzat!), zurga eta zurga, eta milizka eta milizka, jarraitzen bazuten ere.

Eta hontan, besteak ez bezalako tximist ikaragarri batek, ondo itxi ezin zen atetik eta, argia ez ezik, ura ere aski erraz sartzen zen zirritu guzien barrena, dena argitu zuen. Guziok isililik geratu ziren umetxo hartan, baina, norbait, «bat!», «bi!», «hiru!», «lau!», hasi zen beretzat, «bost!», «sei!», eta... «bun-bulun-bulun-bun... bun... bun... bulun-bun... bun!!!...», mendiz-mendi, burrunbaka eta jauzika, izuti bat baino gehiagoen bihotzak pilpilka, eta leiho bat baino gehiagoko kristalak, dardararen dardaraz, txikimila-puska eginda utzi zituen trumoi ikaragarri bat entzun zen.

—Urruti erori duk hori! —erabaki zuen Domiku-k, ausart eta haundi-ustez. Domiku sub-kapataz hoietako bat zen, eta «sub» guziak bezala, gehienetan, bere gainetik zegoenak egiten ez zekiena, egiten zuena. Han bilduta zeuden langileen buru zen arazoetan, nahiz eta beste har-emanetan, berak ere ondo asko zekien bezala, bat baino gehiago, bera baino trebeago izan.

—Tximist hori emendik bi kilometrora erori duk —osotu eta finkatu zuen Domiku-k, sendo-sendo, lehen esana.

—Eta hik, nola dakik hori —galdetu zion batek. Eta, trumoi mendiz-mendi bezala, elkarri ekinaz:

«ez diat ba jakingo!»

«Jainko al haiz ba hi?»

«tuntun galanta hi!»

«ez al nauk, bat, bi, hiru, kontatzen sumatu?»

«eta horrekin, zer?» «zer?...»

«ez al dakik argiaren abiada?» «to!!!...»

«zer to eta zer demonio!...»

«argiaren abiada, alajaina!!!...»

«baina, hik ez al dakik argia...» «argia?...»

«baina... tira, tira!, utzi nazak bakean!»

«lehen ere, hi gabe, ba-diat naiko buruhauste-ta!...»

«hik?, guk bai! Hire agindupean egon behar beti!...»

«to!!!...» «izorrai!»... Eta, zegoen tokian, zementu-zaku baten ondoan, erdi etzanda jarri zen, lo alditxo bat egiteko asmo onean.

—Jateko zerbait geratu al zaizue? —galdetu zuen Hurtun-ekin batera, txabolaren sarreran «PROIVIDO PASO A PERSONAS AGENAS A OBRA» jarri-arren, besteen ondora aterpetu berria zen, Gaston-ek, bere aldetik. Hoek biok ez ziren hango langile, baina, hor-hemenka zebiltzala, beren etengabeko ibiliaren ibilian, txabola hura izan zen bat-bateko euri-zaparraren aterpe. Eta, zirritu eta guzi, jauregi bat baino hobea. Beste bostak ez. Beste bostak (zorionez ala zoritxarrez), ez ziran txabola hartan arrotz.

—Har ezazue... —entzun zen biko bat. Eta, «flxflxflxxxxttt...», beste tximist baten argira, guziok ikus ahal izan zuten, Domiku-k geratzen zitzaion ogi puskaren erdia eskaintzen ziela eta, ez dakigu zer asmoz, baina, janean guzien atzetik zihoan Fermin-ek, bere kaxola eta eskuetan zeukan guzia ematen ziela.

Bestetan baino denbora guttiago behar izan zuen trumoiaren «bun-bulun-bulun-bun... bun!...» hark, itzali eta ia ito zituen besteen eskerronak... Eta isilaldia berriz ere. Gizonen isilaldia esan nahi dut. Kanpoan ez: kanpoan, trumoez gainera, aize-marruma eta euri-tanpa isildu gabe...

—Eta?... Zertan ari zarete hemen? —galdetu zuen berriro Gaston-ek eman ziotena jan ondoren, bazkaltiar on bat bezala, hizketa eta solasa zaindu eta bizitu nahian.

—Zer? Ez al duk ikusten ala? —sudurretara bota zion Antxoka-k. Eta «trumoi» berriz ere, ahoz-ahoz buruz-buru:

«etxe bat motel!...» «nik uste nuen...»
«zer uste huen?...» «hemen udako opor-aldietan ginela ala?»
 «gizona!...» «tira, tira!...»
 «baina ni...»
«ez hemen adarra jotzen hasi...» «barka, gizon!...»
 «zer demonio!...»

Ez zen, egia esan, diplomaziko jaun dotoreen joera Antxokarena.

—Eta, denok ari al zarete hemen? —ausartu zen bere aldetik Hurtun.

—Beharko!... Jo!!... —ebaki zion berriz Antxoka-k. Eta, Fermin-i zeharka begira, biraoka hasi ez hasi, geratu zen. «Fermin

fraile» ez zen fraile izengoitiz bakarrik: egiazko frailea zen. Eta besteak ondo asko jakin.

Fermin, bere lagunak baino eskoladun eta ikasiagoa zela jakiteak ematen zion harrokeria menperatu nahian agian edo, bere asmoen helburu osoaren agiria, behar bezala eman nahian edo, argi eske edo, nik ez dakit zergatik, begiak itxi eta, unetxo batean, horrela egon zen.

Beharko?... —hasi zen. Antxoka-ri begira:

Hi Antxoka... hik... lan, zergatik egiten duk lan? —bota zion.

—Nik?... Eta «flxflx

flxflxflx

flxflxflx.....flx

flx

flxflx

flx

flxflxxxxxtttt!!...», eta beste tximist baten argitasunaren bidez, beste guziak, Fermin gaixoak «merezi» zuen erantzunaren zai, adi-adi, zeudela ikusi zuenean:

—Esaten dute, bazela Jainko bat... —hasi zen astiro-astiro, guziok ondo entzun zezaten haundikeriz gainezka. Eta, berriz ere, trumoiaren mendirik-mendiriko burrunbaren oiartzun, inork ezer esan gabe, buruz-buru, adimenez-adimen, baten eta besteen burutapenak, zuka eta hika, jo eta tira, batetik bestera:

«hik dioken hori Jainko bahuen, orain ere baduk...»

«esaten dute, bazela...»

«eta beti izango duk...»

«esaten dute...»

«horrela ez balitz, nola Jainko izan?...»

«esan, esaten dute...»

«Jainko bat hilezkorra duk...»

«esan ere...»

«ez aldakor»

«nik...»

«hik...»

Euri-jasa goian-behean, eraso, zaparra, tximisten argia begi zabaletan eta trumoiaren burrunba belarriak gogortzen... Ez zuen, inolaz ere, atertzeko itxurarik.

—Esaten dute, bai! —jarrai zen— bazela Jainko bat. Eta... «hire izerdiaren izerdiz irabaziko duk ogia» esan omen zuen behin delako Jainko hark. Entzuten duzue?... Geroztik lana? Beharko egin!!... Madarikazioa!... Nik, lehen, gazte nintzela, banuen buru eta esku hoekin, lapurretarako hala-holako erraztasuna. Eta, diruz, nonbait-han, poliki-poliki, ibiltzen nintzen... Baina, orain, bai! orain!!, lapurretarako gauza ez naizenean... lana...? beharko egin!! Horregatik esan diot honi arestian hau bera: beharko egin!...

—Horregatik?... Besterik gabe?...

—Jan egin behar dut, ez? —hasi zen oihuka— Jana eskuratzeke dirua behar dut, ez? Ba... beharrezko diru hori, lehen bezala, eskuratzerik ez badut; metralleta bat hartu eta banku bat lapurtzeko ausardirik ez badut; inoren ondasunen oinordeko ez banaiz; eta, inongo anttonpeilok, ni naizena naizelako ezer emango didan itxaropenik ez badut... ez dut pikotxa, pala, zementu-zaku edo adreilu pilo bat hartu eta, nahi-ta-ez, aurrera jo besterik. Eta nik... ahal den gutxiena eginda ere, zaku eta adreilu hoekin, jo eta tira, egin dezakedan guziari, lana... entzuten duzue?, l-a-n-a, deitzen diot nik. Hori!... Lana!!... Horregatik egiten dut nik lan: noizbaiteko madarikazio batengatik.

Eta, honen jardunaldiaren oiartzun, urrutiko (eta, itxuraz, tximistik gabeko) trumoi luze eta burrunbalari baten hotsa entzun zen. Eta, txabola barruan, lehen bezala, inork ezer esan gabe, baten eta besteen burutapenak, punpa eta punpa, buruz-buru:

«non entzun ote zuen madarikazio hori?...»

«sermoien batean edo...»

«eta, orain, joaten ez eta...»

«ondo egiten dik!» «ankarik ere ez dik sartzen...»

«gingo nikek horren atzetik edo...»

«noren atzetik?»

«Fermin honen atzetik edo...» «bai zera!...»

«ziur!...» «zertarako?» «auskalo!...»

«bide ona hartu nahian edo...»

«jo eta burua txikitzeke asmotan edo...»

«gure zokotik argi horrek!...» «ba, ba!...»

«ezetz?...» «isil hadi!...»

—Min ematen didak —hasi zen Fermin sendoki baina bihozti.

—Eta neri zer? —hitza ebaki zion besteak zorrotz. Eta, biok isilaraziz, «flxflxflxflxxxxxttt...» eta «bun-bulun-bulun... bun-bulun-bun!!!...» burrunba ikaragarri bat, beren buru gainean, ia bat batean, ikusi eta entzun ziren. Eta denok, kikilduta, isil-isilik geratu ziren denboratxo batean.

—Hori duk uste-izpirik ere ez izatea!... Ilusio gehiago izan behar dek bizitzarako, gizona!... —hasi zen Beñat handik pixka batera. Ez al duk nahikoa bizitzak berez zekarkeen nekearekin, hik, hire grina txar hori dela bide, oraindik okerragoa, bihurriagoa eta zatarragoa egiteko?

—Eta hiri?... Ilusioa ematen al dik hiri honela lanean jarduteak? —galdetu zion bere aldetik Antxoka-k saminki. Eta, begierdiz begira, ekin zion ziplaka berriz:

—Eta hik?... Esan!... Zergatik edo zertarako lan egiten duk ba hik?... Gogo beroz jarduten haiz-eta, ikusten dugunez... kapataza aurrean denean...

—Ni behartsua naiz... Ez duzue ikusi besterik... —hasi zen hau, guziori begira, Antxoka-ren azkeneko hitz zorrotzak alde batera utziaz—. Baina... aberatsa izateko ilusioa dut. Aberastasunak zoriona dakarrela entzun izan dut. Eta, nik, zorionsua izan nahi dut: aberatsa... Horregatik lan egiten dut. Lan eginaz dirua irabaziko dut. Bost axola neri lan bat edo bestea izan. Irabazia izanez gero, denak zaizkit berdin. Zenbat eta lan gehiago, hobe... Dirua aurreratzen ari naiz poliki-poliki eta, egunen batean, zerbaitean, nere kontura lanean hasiko naiz. Eta orduan, dirua gehiago eta azkarrago irabaziko dut. Gero eta gehiago, gero eta azkarrago... Hau, aldapa behera elur pelota bat botatzea bezala omen da... Haurra izatez utzi nuen, ontzia puskatu zitzaion esneketari ameslari haren ipui hartan sinisteko... Diruak dirua dakar... Orain jasotzen ari garen etxe honen jabea bezala, dirudun bat nahi nuke izan...

—Eta... gero? —ebaki zion norbaitek.

—Gero?... Orain bezala, obra hoetako batera joango naiz. Baina ez oinez eta gaurko pardel kaskar honekin, baizik eta automobilik garestienez eta eltze onetik jan ondoren. Eta, ez orain bezala lanera, baizik eta emakume poz-lagun eder batekin... edo... nahi dudan guziekin, ederki asko bizitzeko, apartamenturik onena erostera. Eta, ez orain bezala, leher egitera, baizik eta...

—Eta, orduan? —ebaki zion lehengo berak.

—Orduan?... Poztu!!... Bizitza, oso-osorik, bizi!!... Motza dela diote, baina... zabala da!... Diruz josia, nahi dudan guzia euki! Horil!... Aberatsa izatea ez omen da on, baina, ona denak, nola arraio aberats izan?... Esaten dute zoriontsuak izango generala gero, hil eta gero alegia, orain behartsu geranok, baina nik... nik nahiago dut aurrez-aurretik kobratu... Lan egin dezatela, nik orain egiten dudan bezala, behartsuek! Hor konpon guziak!... Eta, zuek ere... hor konpon!!

Eta, bere jardunaldiaren izenpe gisa (baiztuz ala ezeztuz?), ez dakit nondik norako «flxflx

flxflx

flx

flx

flx

flxflx

flxflxxxxxttt!!!...» berri baten zirrimarrak argitu zuen dena.

—Esango nikek hi, Antxoka baino urrikgarriagoa haizela —hasi zen Fermin—. Hik, gizendu eta gozamenez ase besterik ez duk nahi. Abereak ere ez ditek horrenbeste goserik izaten...

—Baina, ez al duzue dirua pilatu beste ilusiorik? —hasi zen bere aldetik Domiku—. Ez al duzue beste helbururik? Ez al du inork zuen beharrik? Ez al dago inor zuen zai? Ez al dizue inork ezer eskatzen? Ez al zaituzte inork ezertara behartzen?...

—Hi, kapataza haizenez gero, eta hain zentzudun haizenez gero... hik ederki asko jakingo duk noski, zergatik lan egiten deken... —axut egin zion Antxoka-k «zentzudun» hitza geldiro-geldiro esaten ziola.

—Nik emaztea diat... «flxflxflxxxxxttt!!!...», seme-alabak ere bai... «flxflxflxxxxxttttt!!!...», berak ogia nahi... «flxflxflxxxxxtttt!!!...», eta ogia eraman behar nik, ni bai nauk, gaur-gaurkoz, nere etxean etxeko-jaun... Eta, «flx

flx

flx

flxxxxxttttt!!!...» behin eta berriz, bat bestearen atzetik, bazirudien bere etxeko guzien aurpegiak eta, baita bere premi eta beharraldi guzien argazkilari

baten «flasa» ari zela jo eta ke. —Ogia ez ezik, jana ez ezik, jan-
tziak, oinetakoak, etxeko tresnak, sendagaiak... hainbeste gau-
za... Eta nik?... Ez al diat hoiek denak eskuratzen ahalegindu
behar?... Eta, nola demontre eskuratuko dizkiat irabazi gabe?...
Eta, nola irabazi lanik egin gabe?... Esan!... Nola?... Horretxe-
gatik lan egiten diat nik... Ez al dek hau bidezko?...

—Bidezko?... Ez zekiat, baina, beharrezkoa bai behintzat!...
—ebaki zion purrustaka Antxoka-k, etzanda zegoen bezala, beste
aldera eginaz. Ez zuen beste ezer jakin nahi. Berak ederki asko
zekien lanaren madarikazioa. Domiku?... Ba, ba!!... Bera beza-
lako, lanik egin gabe dirua irabazten ez zekien, beste gizagai-
xo bat!...

—Bidezkoa bai, baina ez bide bakarra... —entzun zen han
zoko batean, erdi-isilean, txutxumutxuan esana, baina, trumoi
zalapart haren isilune batean, beste trumoi bat baino argiago
entzun zena. Errando zen, zarata hartan bere hitzak entzungo
ez ziralakoan, zerbait esatera ausartu zena.

—Zer esan nahi duk? —galdetu zion Fermin-ek akulatuz. Eta,
lotsatuta geratu zen bestea. Oso larri. Ez zekien zer esan. Baina,
bazirudien, garai-oneko «flxflxflxflxxxxtttt!!!!...» berri batek eta,
bat-bateko «bun-bulun-bulun...

bulun-bun...

bun!...» zaratatsu

hark, jarraitzeko indarra eman ziotela.

—Esaten nuen... —asi zen lotsati eta bere kapataza hase-
rretuko ote zen beldurrez, bati eta besteari begira—. Esaten
nuen Domiku-ren arrazoibideak ez direla behin-betikoak eta era-
batekoak...

—Zergatik?... —ebaki zion honek gogor, bere agintaritzak
gainez egiten ziola.

—Beste gauza askotaz ahaztu zarelako...

Eta, elkar-lehia ezberdin bat hasi zen:

«maitasunaz ahaztu zara»
 «nik maitatzen bazekiat gero!...»
 «talentuaz ahaztu zara»
 «zertaz?...»
 «talentuaz»
 «zer talentu?»
 «eman zizkizunaz» «neri?...» «nork?...»
 «zure zorra ahaztu duzu» «nik?...» «bai, zuk!»
 «zer ari haiz! nik ez zioat inori ezer zor...»
 «duzun guzia...» «isil hadi!...»
 «zuk...» «hik...» «nik...» «ba, ba!!!...»

Behin eta berriz, menpeko eta manatzaile, zuka eta hika, Errondo-k ahoa ireki orduko, ebakitzen zion besteak. Baina, gero eta ahulagoak ziren Domiku-ren erantzunak. Azkenean, bere menpekoaren ausardia ikusirik, aho-zabalik geratu zen. Ez zen aski «ba, ba!!!...» esatea, eta gutxiago oraindik, bere aurretik aldegin arazteko, «to!, igo ezak zementu zaku hori teilatu gailurre-ra» esateko garaia.

—Jarrai!... —esan zion, edo... zirika egin zion Fermin-ek, sor eta lor, bere aldetik. Ez zion sekula hitz banaka batzuek besterik entzun. Errondo-k, agintzen ziotena betetzen zuen. Lanean gaur, lanean bihar, lanean hurrengoan... Hori!: lan egiten zuen; besterik ez. Baina, orduantxe, Fermin-ek, berehala sumatu zuen Errondo-k bazuela zerbait esateko. Honek, bere lagunen begirada zorrotzengandik ihes egin nahian, buru-bizkar-gainetik, bere txamar zaharra hartu zuen. Eta, Fermin-en begiraldi barrenkor baina goxoak eragiten ziola:

—Maitasunaz ahaztu zara... —hasi zen, lehengo hariari jarraituz—. Zure etxekoei ogia eraman behar diezula esan duzu; ogia, jantziak, oinetakoak... hori dena materia hutsa da. Eta... maitasuna? Ez al diezu maitasunik eraman behar?... Jaso zenituen talentuaz ahaztu zara. Zu indartsu zara. Sarri, gu denon kapataza izango zara. Gauza asko dakizkizu. Gauza asko egin ditzakezu. Beste askok egiten ez dakizkigun gauzak... Baliatzen al zara talentu hoietaz?... Eta zure zorraz ahaztu zara. Nork eman zizkizun talentu hoiek?... Ez al duzu ordaintzekorik?... Nik ez dut familiarik, baina, zuk zure etxekoei eramaten diozun hori guzia, nik nornahiri eman diezaioket... Eta horrezaz gai-

nera... maitasuna ere bai... Nik ez nuen talentu bat besterik jaso. Nik harria lantzen dakit: besterik ez. Baina... harria lantzen gurtu dezaket... harria lantzen ordain dezaket... bateko ehun Jainkoari... Horregatik lan egiten dut nik... Bai... horregatik...

Eta, izututa bezala, han zeuden guzioi begira, isil-isilik geratu zen.

—Ume bat bezala mintzitzen haiz... —zion norbaitek han nonbait.

—Nik ere ahal banu!... —erantzun zion beste batek ondoan. Eta isilune luze batek jarrai zuen. Bazirudien, Errondo-k ziona guziok entzun zezaten, trumoiak ere isil-isilik geratu zirela. Gaston, «gosaltiar» haietako bat izan zen hitz egitera ausartu zena.

—Eta zuk? —galdetu zion Fermin-i—. Danok eman dute beren arrazoiak, baina zuk..., zuk ez duzu oraindik zergatik edo zertarako lan egiten duzun esan...

Hau, begiak dizdiz, Errondo-ren ahotik entzun zituenak entzunda, oraindik sor eta lor zegoen, eta bat-bateko galdera hark, kikildurik utzi zuen. Bazirudien ez zekiela zer erantzun, baina, guziok izozturik (eta ia jo eta kiskaildurik!) utzi zituen «flxflx.....flx

flx

flx

flxflx

flxflxflxflx

flxflx

flx

flxflxflx

flx

flxflx

flxflxflx

flxflxflxxxxxxx

xxxxxxxxtttttt!!!!.....» berri batek eta, tarterik gabe entzun zen bat-bateko trumoi izugarri hark eman zioten bere ideiak pixkabat eratzeko astia.

—Bai zaila dela orain, zure galderari erantzuna ematea!... Errondo-k hitz egin ez balu... neroni ere berdintsu jardungo nintzake... baina... orain... —hasi zen, baina, berehala isilik geratu zen berriz. Besteak, begira-begira, arretaz entzuten zioten. Izan ere, bere lankide haiek, egiazko apaiza zela jakinik, aspaldida-

nik, apaiz hark zer ote zekarren esku-artean jakin-nahian, irrikitzen zeuden.

Nik lana, Errondo-k hain argi eta garbi esan dizuen horretxegatik egiten dut, edo... hobeto esan, uste nuen egiten nuela. Baina... ez dakit. Ez dakit zer esan orain. Errondo-ren sentimenduak egiazkoak dira. Hortaz ziur nago... Errondo-k, berak esan dizuen horretxegatik egiten du lana, baina, lana... «horrela» egiten du; berak egiten duen bezala. Esan nahi dut, berak «horrela»... besterik gabe... lan egiten duela. Eta ez du bere lanaren helburua kaxkartu edo lainotu dezakeen beste zerik. Hortara... lanera esan nahi dut, bultzatzen dion arrazoiaz jabe da, baina... ez da harrotzen horregatik. Errondo-k, gizadi guzta maite du lanean ari dela... Errondo-rentzat, lana, maitasun hutsa da... Errondo-k... —Eta, berriz ere kokatua, zalantzan hasi zen. Korapilatu egiten zen hizketan. Ez zekien nola jarrai.

—Osasuna, jakinduria —hasi zen berriz— aberastasuna, agintea, bizitza hontan garaile izateko indarra eta, zenbaiteraino liluratzen eta menderatzen gaituzten beste hainbeste gauza, gizonen artean oso ezberdin banatuak aurkitzen ditugu; baina, sinismena, itxaropen eta maitasunen ahalmenaz, denok izan gintezke jabe... Eta Errondo-ri... Errondo-ri, egiaz maitatzen dakien guztoi bezala, gehiago betetzen dio «emateak», «hartzeak» baino...

—Baina nik... —jarrai zuen txabola barruko putzuzuloetara begira, kanpoan trumoioren burrunba isiltzen ere ez zen bitartean—. Nik, lehen, zergatik lan egiten nuen uste banuen ere... orain... ez dakit zer sumatzen dudan... ez dakit horrela den ala ez, baina... badirudi, badela nigan, nere eginkizun guzia kaxkartzen eta alferrik galeratzen duen «zerbait»... Ohi-ez-bezalako zerbait egiten ari ote naizen usteak ematen didan harrokeria ote?... Nik nahi dudan bezain azkar utzi dezaket lan astun eta neke hau, eta beste arinago bat hartu. Baina, hau bereizi nuen. Eta nere gogozko hautapen honek, sortarazi zezakeen nere barruan harropuzkeri eta lelo-gosea... «Hau bai gizan itzala!...» esan dezakezue, «begira nola lan egiten duen!», «eta, zertan!»... Baina... gizonen aurrean izan dezakedan harrokeri hontaz gain, beldur naiz nigan sortu ez ote den beste era bateko harrokeri okerrago bat: nik egiten dudan guzia, «neronek nahi dudalako» egiten dudala alegia... Eta... nere egite bikain hau eta nere eskuetako babak eta maskurrak Jainkoari ikusaraziz, harro-harro,

esan: «hoek!... hoek!... zugatik sortu zaizkit!!... agindu zenidan ordainaren zai nago! emadazu orain, merezi dudan saria...» Baina... Errando-k, aldez beste, Jainkoak nahi duena, hori huts-hutsik, egin egiten du. Eta... «horrela» egin ere; xoilki, apalki, maiteki... Ni, nere haundikeri hontan, Jainko aurrean ordain baten eskale, eta zuen aurrean, neronek «nahi dudan» bezala agertuko ote naizen beldur naiz. Errando, egiaz, «den» bezala agertzen da... Berak, talentu bat bakarra jaso zuela dio, eta... badaki zaintzen, badaki baliarazten... baina nik... nik... behar-bada... talentu gehiago jaso nituen... eta... eta...

—Eskerrik asko Errando!... —bukatu zuen eta, bere ondoan eserita, zegoen bezala zegoela, eskua estutu zion. Ez zekien nola jarrai.

—Zuk apika, gehiegi jaso zenituen... —erantzun zion honek txutxumutxuan—. Hori da zure zama...

Eta behin eta berriz, tximistak jo eta ke, gelditu gabe, bat oso hurbil eta bestea urrutixeago, baina beti inguruan, erortzen ziren bitartean, isilaldi luze bat izan zen. Ez zirudien inoiz atertu behar zuenik: euria goian-behean, suilka, isurka, zurrutaka, ari zen. Eta ura, zirritu guzien barrena, guzien gain zetorren...

Lanerako dei madarikatu hark, ziztu edo klank egin arte, bazuten oraindik minutu batzuek, lo-kuluskatxo bat egiteko, baina, egun hartan, ez zirudien inork lo egiteko gogo haundirik zeukanik...

—Eta zuek?... Zer?... —galdetu zuen norbaitek azkenean, bi «bazkaltiarrei», beren bi «mahai-lagunei»—. Zuek lanik egin gabe bizi al zarete ala?...

—Ederki eman ere!... Lanik egin gabe alafede!!... —erantzun zion zirtoka Gaston-ek. Eta, beste zirikaldien beharrik gabe, jarrai zuen sutsu—. Orain urte batzuek arte, zuek bezala, ez nuen lan egin besterik egiten. Ez naiz gogoratzen, horren gisara, madarikazio bat bezala hartzen nuen, edota, beste haren antzera, etorkizun on baten ametsetan, edo nola... Baina ziur nago ez nuela nere gogoz egiten... Baina... hau gertatu zitzaidanez gero...

Eta, ukondotik moztutako eskuineko besoa erakutsi zien, eta, bi behatz izan nahian, bi garitxek osatzen zuten ezkerreko «eskua»...

—Eta orain...? Ez al duk ezertan egiten? —galdetu zion batek.

Zertan eta nola?... Nik ez diat sekula ezer jakin... Irakur-
tzen ere ez zekiat-eta... Zikin-biltoki hartan aurkitu nuen petar-
do-zahar madarikatu hurall!...

—Baina izango duk bizi-sarien bat edo, erretiroren bat edo...

—Erretiroa?... Zerena...? Ba!... Ikusten ez duk «hau» —eta,
berriz, bere beso-erdiak erakutsi zien— «hau» ez dela izan «la-
nean» egina?... Nik, peoi bezala, irabazten nuenari laguntzeko,
zikin-zuloetan, oilar baten gisa, aztarka eta aztarka, zerbaiten
bila ibiltzea, «lan egitea» ez balitzakek bezala!...

—Eta orain? —galde egin zioten batek baino gehiagok.

—Orain?... Zuek esan!... —hasi zen danori begira, isil-antze-
tik gogorrera—. Eskean ibiltzen naiz, apal-apal, umil-umil... Bai-
na, biraoak eta arraioak botatzen ditut, aberats eta behartsuen
aurka; zuri eta beltzen aurka; zeru eta lurren aurka!!... Ez dut
nere burua jo eta akabatzen, hiltzeak beldur ematen didalako!...
Ez diot inori lepazurra txikitzen, nola egin ez dakidalako!... Ez
dut otoitzik egiten, ahaztu zitzaidalako!... Dena zait gorrotaga-
rri!!... Baita zuek ere!!!...

Oihuka, beste trumoi baten burrunba antzean, tximistaren
eta trumoiaren elkarkizuna ezagutzen ez zuenak, uste izan zeza-
keen, tximista bera ere, bere ahotik irtengo zela.

Zer esan ez zekitelako batzuek, eta ur lohitsuaren egonaren ego-
nean garbitzen dela zekitelako besteak, denok isilik geratu zi-
ren. Gaston-ek, bere aldetik, arnasa hartu eta, lehen baino gel-
diago, kopetilun eta amorruez betea, bere zorigaitz eta mixeri
guzia agertu zien.

—Arestian zuei ere, eman dizkidazuen ogi-puska hoienga-
tik... eskerrak eman dizkizuet... Esker hoiek, nere ezpainak eman
dizkizue... eta hori, hortara ohituak daudelako. Baina... honela
nion nerekiko: «ustelduko bahintz!, hi!, haizena haizela, oraintxe
bertan, ni baino gehiago haizela-ta, harro-harro eginda, habilen
hi! ustelduko bahintz!!...». Gogaikarri zarete neretzat... nahiz eta
zuen beharra izan. Eta, batez ere, horretxengatik: behar zaituz-
tedalako!... Beharra beti!... Beharraren amorrua beti!... Ezin
kendu ditut hitz hoiek burutik!... Eta ez dut hortarako ahaleginik
egin nahi ere. Zertarako...? Baina, ez dizuet barkamenik eska-
tzen. Orain bertan ere, zuen ogia jan ondoren, poztu egingo nin-
zateke-ta, neronek sufritzen dudana bezala, zuek ere sufritzen

ikusiko bazintuztet... Tximist hoetako batek erreta ikus nahi zintuzteket. Eta, behatz deitu ezin daitezken garitx hoen azpian, nahi nuke nik izan, munduko agintari haundienak daukaten botoi hori... munduko bonba guziak leher araziaz, betiko dena txikitu eta porrakatzeko, ezer geldu ez dedin!... Ezer ez!!... Inor ere ez!!... Ezta ni ere!! Ezta Jainkoa ere!!... Ezta!!... —Eta, Gaston-i ebakitako behatz bihur eta kizkurtu batzuen irudia izan nahi izan zuen, ordurarte ez bezelako «flxflx

flx

flx

flx

flxflxflx

flx

flxflx

flxflx

flx

flxflxxxxttt!!!.....» ikaragarri batek, zeru

beltz hura zirrimarratu zuen. Gaston, gizagaixoak, bere ezinean, lujo hori ere, ezin euki zezakeen...

Denok txundituta geratu ziren Gaston-ek esanak entzunda. Eta, tximist hark, bere trumoi hotsik ez balu bezala, berak hasi ziren isilean, barru-barrunbaka:

«nere eskuak lan egin egin behar ditek, baina... osoak dituk!»

«neri?... ba, ba!!...»

«zertan jarri ote nikek hau lanean?...»

«hor konpon!...» «bakoitzak berea... bere gain!»

«hau?, zoriotsu duk hau!»

«lur jota zeoken bezala, bide bakarra dik: goruntz!»

«zorion aldera!»

«beharbada... zerbaitean egingo likek...»

«ez dik Jainkoaren arrastorik ere ikusi nahi...»

«hortaz... sinistek dik!!»

«errukarri!»

«izorrai!...»

«eta gu?...»

«eta hi?...»

«eta ni?...»

Eta, tximist bat bestearen atzetik: bihotz makal baten elektrokardiograma; galdu-irabazien mokodun grafika; zeruan zuztututako zuhaitz zoro baten adarrak; notario punttalakurlo baten eten gabeko zirrimarra; hamahiru sorgin hegalariren ildoak; infernuko mila deabruen buztanak; bat eta besteen biraoen txinpartak... Non erortzen ziren jakiterik ere!... «Bat» esan orduko, han zen bestea. Kontatu beharrik ere ez zen. Ekaitza gainean eta... bakoitzaren barruan...

—Nik uste, nere berri ere jakin nahi izango duzuela... —hasi zen, geldi-geldi, Hurtun, aldamenean zeuzkan makuluak bereganatuz.

—Nahi baduk... —bide eman zion batek.

Orduantxe, zerbaiten bila edo, zerbait agintzera edo, zerbait zuzentzera edo, zerbait aldatzera edo, zerbait atertera (hoek ere lan!), beren nagusia —jasotzen ari ziren etxe haren jabea, alegia—, azaldu zen atean. Bi edo hiru ohartu ziren hontaz, baina nagusiak, isiltzeko eta zeuden tokian gelditzeko keinua egin zien.

—Nik ez dut lanik egiten —jarrai zuen ezertaz ohartu ez zen Urtun-ek—. Ez dut inoiz ere egin. Ez dakit lan egitea zer den. Baina... ez bekaizkeririk izan. Txiki-txikitandik elbarritua... hemen nabil nere gorputz zarpail hau eraman ezinik. Baina... zer? Nik ere, biziarekin batera, honek esan dizuen bezala, talentu batzuek jaso nituen. Nere talentuak... hoek izan ziren: oinazea, behar-aldia, babes-gabetza, nekea, gosea... eta berriz ere, oinazea, nekea... behin eta berriz... Zuek lan egin egiten duzue; ni, nahi-ta-ez, eten gabeko opor-aldi luze batean bizi naiz... Nere neke eta oinazearen aldaketa bilatzen... hortantxe dut nik, nere eginkizunik atseginena. Zuek izan, zerbaiten itxaropena, baduzue mundu hontan; ni, nere etsimena eramaten naiz trebe... Xilibitua jotzen bezala, arian-arian, joaten da bat aurrera trebetasun hontan ere... Ez zait zilegi amets egitea: familia bat sortu, emazte bat maite, seme-alabak laztandu, lagunekin atsegindu, zeregin batean arazotu... Eta, honela daramat nere bitzta egun bat eta bestean... Nola goretsi dezaket nik ezer eta inor, ditudan talentu eskas hoen fruitua eskainguz ez bada?... Zuek, zeren lana dela bide, etxe bat egiten ari zarete. Bestelakorik!... Daitekeen onena izanda ere, zertarako baliatzen den, auskalo zer izango den... Nik ez ditut, zuek bezala, lanari ekinaz, nere eskuak maskurrez beteak, baina, nere esku dardaritsu hoek ikus-

ten ditudanean, nere makuluak egiten dizkidaten babak ikusten ditut. Eta... hain zuzen ere, maskur eta baba hoen balioa, ez dago bere aunditasunean edo gogortasunean, baizik eta, egin arazi dizkiguten zeregin hoietan jarri dugun maitasunean... Gu-zioi entzun dizuet. Ezberdinak zarete zeren lanerako. Eta beste-lako izango lirateke beste mila gizon: nork aberriarengatik lan, nork gizarte-hauziengatik; nork euskararengatik, nork neska eder batengatik; nork beretzat, nork besteentzat... Beharbada, izan naiteke ni zuek baino iritz-emaile hobea... Eta zuengan, denetik ikusi dut: gorroto bizitik maitasuneraino...

Txabolaren lurra urez betetzen ari zen. Eta tximistak, lureko putzu-zulo haietan ikus zitezkeen dizdizka. Haietako bat, txabola milikatuz, erori berria zen. Sutua zegoen inguru guzia. Izuak hartuta, ilea lastuta, barrabilak kuxkurtuta, bihotzak tupaka, beldur eta larri, denok pilatuta... Erre usaia nabaritzen zen, ozono usaia, aker usaia, beldur usaia, gorroto usaia, deabru usaia... Aizea, zirritu guzien barrena ziztuka; trumoiak burrunba eta burrunbaka; txabolako oholak, zerbait igarriz, kirrinka eta zirrinka...

Etxe izatera iristen ez zen txabola hark ez zuen bere atezubian, tximistak ekar zezaketen aidegaxtoen aurka ekiteko, gora begira jarritako aizkorarik. Ezta inongo igitairik ere. Atean ez zegoen urritz edo elorri arbastarik; ezta erramu egunean bedein-katutako ereintz edo sahats adarrez egindako gurutzerik. Inork ez zeraman bere sakelean, elorri arantzarik, ez erramu historik, ez lizar baten adarrik, ez eguzkilorerik. Inork ez zekien eskua luzatu eta han urrutira aidegaxtoa uxatzen... Aidegaxto gaiztoaren eskuetan zeuden...

—Nere oinaze hoek norbaiti on egiten diotela dakidalako —jarrai zuen, poliki-poliki. Hurtun-ek— maitagarri dira neretzat. Nere gaitzaldi hontan aurkitu dut nik nere «lana», eta... zoriontsu naiz... Nik, egunero, esnatzen naizenean, bi bide dauzkat aukeratzeko: zoriontsu izan ala zoritxar. Eta nik, lehenengo bidea hartzen dut: hori da guzia... Nik, nere oinazearen neurririk gabeko indarra, barrutu dut; bere eraginkortasuna; bere barneko muin eta esanahia... Baina, jakina, honek ez du esan nahi, egunero eskatzen ez dudarik osasuna... baina, osasun horrek orain dudan bake hau deusezteko gauza balitz, ez dedila etor... Bake

hau betikoa izango da egunen batean, eta... nik... edo, obeto esan... gu guziok... «F

L

XF

XXXXXTTTT!!!!!»

(«a!» esateko denborarik izan ote zuten?... Askorentzat nahikoa!...)

Eta...

Eta, egun batzuek geroago (edota, mila urte geroago apika), ohol erre batzuek, bihurritutako burdin-puskak, txikimilapuska egindako ontzitxo baten apurrak, nagusiaren urrezko hortz baten puskatxo bat, eta karegutako hezur hausi bat, istori baten kondar bezala geratu ziren nolabait antolatutako toki berean, txabola «berri», baina, jaiotzez txabola zahar eta zarpail batek (lehengo su eta lur, aize eta ur!), bere aterpea eskaintzen zien langile batzuei. Han zeuden beste Antxoka eta beste Beñat, beste Domiku eta beste Errondo, beste Fermin, beste Gaston eta beste Hurtun... Bakoitzak bere pikotxa; bakoitzak bere pala. Eta, han, beren ondoan, nahiko zemento eta nahiko adreilu pila. Eta, bakoitzak beregan, beren talentuak eta bere bihotza, nahi zutena eta ahal zutena egin zezaten... Eta guzian artean banatua ere bai (hartua?, emana?, jasoa?, lapurtua?...), zorientasuna eta zoritxarra; gorrotoa eta maitasuna; itxaropena eta etsimena; samintasuna, kezka eta bakea... bizia!!!

Goizeko lana bukatu eta, euritik iheska, txabola hartan gerizpetu ondoren, bazkaria hasi berria zuten. Hasi eta buka.

—Esango nitek ba baietz!... —zion batek.

—Baietz?... Ez nator zurekin bat. Hori ez da horrela... —eta, berehala, jo eta «flx

flxflxflx

flxflx

flx

flxflx

flxflxflxflxxxxxtttt!!!!...»

(lehendabiziko orrian jarraitzen du)

IDURREKO AMAREN SAKRISTAU (Ipuia)

ARKOTXA tar JOSU

Itsasoaren burrunba ikaragarriak. Galdona bailara guztia gau osoan lo egin gabe, erne eduki zuen. Hasi Mutrikuko zingiratik, eta Saturrarango ondartzaraino, kardaldea olatu aparrez egun guztian zuri-zuri egon zen, baina ekaitza, benetako ekaitza, ez ohitua urtearen garai hartan, ilunabarrean hasi zen. Itsas-maldako harkaitz artetik gora irteten zuten olatu indartsuaren dunboitzak, beldurgarriak ziren. Gainera, hodeiak, hibaika euria hustu zuten, eta errekek gainezkaturik, uholez, bide, zelai eta ibarrak urpetu zituzten.

Idurre, Andonaegitarren oinetxe zaharra, itsas-maldatik hurbilen zegoena zen, eta bertako biztanleak, gauerdian, zarata izugarri bat entzun zuten, eta ondoren haize txistu zorrotzen artean, ulua hilkitzu zarraiztaleak. Ezbehar gogorra susmatu zuten, eta egunsentiarte otoitzean gau luzea igaro.

Andonaegitarrak, gizaldi bat aurretik, amu arrantza utzi, eta inguruetakoa haritz eta pagoekin, itsasontzi eta zulak egiteko Idurren bizitzea erabagi zutenetik, entzuten halako ekaitzik eza-gutu. baina entzutea bazuten beren gurasoei, itsasikara urte asko aurretik gertatu zela, eta Euskalerriko izpazterra, dena aldatu zela.

Goizaldean, ekaitza baretu zen, eta Idurrekoak, itsas-malda gainetik, zer ikusiko beldurrez izpazterra azterkatu zuten. Harrituta geratu ziren, Saturrarango ondartzan ia ondarrrik etzegoen, leizarren azpian, lehen ikusten etziren harkaitzak zeuden, eta Txori-etxe azpian...

—Aita! —Kosmetxok deihadar egin zuen—. Aita! begira Txori-etxe pera. —Begiratu zuten eta bart denak susmatu zutena, han zegoen, haizozalezko itsasontzi baten erdikada harkaitz artean sartuta. Ikuskizunak bihotza kiskurtzen zuen—. Aita! —Kosmetxok berriz dei egin zuen—. Han, hartzulo aurreko ondarrean gizon baten gorputza dago. —Bai, mutilak egia zion, ondar gainean, ohol zabal bateri helduta, gizon baten gorputza zegoen. Honez gero hilda dago, baina bada ez bada joan gaitzezen. Bide txinurretik, txirrist eta laprast hartzulo ondora jetxi ziren eta gizonarengana hurreratu. Sabelaz gora jarri zuten, eta bihotz gainean belarria jarriaz entzunkatu.

—Bizirik dago! —Martinek oiuh egin zuen.

—Azkar ibili gaitzezen, ia oholarekin batera jasotzen dugun.

—Kosmetxo, zoaz izeko Marixarengana eta esan zer gertatzen dan.

Kosta zitzaaien, baina etxe barreneko zelaira jaso zuten eta gero gurdi batean etxeratu zuten.

Marixa Idurreko, bizi ziren lau belaunaldietako zaharrena zen. Maitetsu eta maitatua, bere bizitz guztian lagunurkoari on eginaz igaro zuen. Sendabelar eta osagarri askoren berri zekien, eta itsas galdua bere esku utzi zuten. Berak egindako miritza batekin bizkar eta bularra igurtzi zizkion, eta estalki lodi batekin estaldu zuen. Marixa, aurki batean jarri eta otoitzean hasi zen: «Jauna, nik nere ahalmen txiroa jarri dut, orain dena Zure esku dago, dena. Zure borondatea egin bedi». Une batzuetara, Marixak estalkia jaso eta kordegabeari begirada bat egin zion. «Eskerrak Jauna, eskerrak —zion Marixak goruntz begiak jasoaz—. Nere otoitza entzun duzu, eskerrak».

Beste une batean begiratu zion, eta... Marixa bihotz zarratzada batean gelako ormararte atzerazka joan zen.

—Jesus, Maria eta Jose! Baina nola liteke hainbeste urteren buruan?

Bere adimena pizkanaka, pizkanaka, hogeitamabost urte atzeratu zen. Agata Deunaren egunerarte, bailarako zaindarien eguna. Hauzateroa guztia, ohitura zarrari jarraituaz, Meza Nagusia entzuteko Zaindariaren elizan batu zen. Aurreko besaulki nagusian jarrita, Arbelaitz tar Paulo, Elorretako Jauna

zegoen. Marixa «Goikua», elizako serora arduratsuak, Elorretako Jaunaren keinuari men-eginaz, urrezko argi ontziak piztu zituen. Eliza, bete-betea eta dizdiratsua zegoen. Hirugarren meza txilinarekin batera, Aita Jose Benito Astigarribia altarera igo zen, urte guztian Santa Katalina Lekaimetxeko lekaimeak, ardura haundiz zaintzen zituzten elizkizun jantzi ederrak soinean zituela, eta Meza aurreko otoitzak esaten hasi zen. Apaizarekin batera, eliztarren artean bultzadaka igarazpidea eginaz, Yagoba, Idurreko seme nagusia altarera igo zen. Nolako ikara Marixaren bihotzak nabaitu zuen, eta nolako ikara orain ere gogoratzean nabaitzen zuen. «Gizonak errez malmuzten dire, baino Jaungoikoa ez —hasi zen esaten—. Nik Andonaegi tar Yagoba, Idurreko seme nagusiak, hau Arbelaitz tar Paulo, Elorreta etxeko Jauna, Jaungoikoaren aurrean, eta zu bere ministrari zeranen aurrean, salatzen dut, bere gurasoak. Arantzazuko Amaren aurrean. Ahalde Nagusien, lehengo borroka, hauzi eta irainak betiko ahaztutzeko egin zuten zina hautsi duela, zeren nere arreba Mirenek, dere erraietan daraman haurra, Arbelaitz tar Martin, Elorretako seme nagusiarena du, eta gizon honek, bere semeari ez dio utzi nahi, bere emaztegai, nere arrebaren bidez, nere sendiari egin dion irain sakona ordaintzen. Zure aurrean, Astigarrabiako Aita Jose Benito, eta gure Zaindariaren aurrean, zin egiten dut, behar den neurrian, nere sendiaren zintasuna ez bada iraingaintzen, nere burua zuzentzaile egiten detala. Nere sendiaren izen ona garestia da, eta bere salneurrian ordainduko da». Altaretik jetxi zen eta irtetzeko etzuen bultzadak egin beharrik izan, igarapidea egin zioten.

Aita Jose Benito Astigarribiako, Domingotarren Lekaide Buru Nagusia, Erreginaren aitorlea, hitz gabe eta zorabiatuta geratu zen. Bere begirakuneak eta bere senide haundizki Arbelaitzenak elkar jo zuten. Hau, arpegi margularekin belauniko zegoen. Eliza naiz eta arren betea egon, etzuen inork txistik egin. Bihotz hunkigarria une hura. Azkenez ospatzaileak jarraitu zuen, baina ondorengo ibil deuna eta erromeria galdu ziren. Marixa Idurrekok, bere begirakun xamurra Santa martiriari zuzenduaz belauniko jarraitu zuen. Negar malkoak, bere begietatik ihes egin nahi zuten, baina hura, bere lobaren errua azterkatzea izango zen eta etzuen nahi. Bere lobak egia esan zuen, une ez on eta ez beharreko tokian esan bazuen ere. Jeiki eta duintasun haundiarekin etxerako bidea hartu zuen. Bere jokabidearekin eliztarrak oraindik gehiago harritu ziren, lobaren

jokabidea onhartu zuela aditzera eman zuen. Anai arteko borroak berrituko ote ziren? Ahaide Nagusien aipatu zen, eta hain zuzen ere, sendi biak ziren Ahaide Nagusietakoak, elkarren aurka gogor erasotakoak. Hausiko ote zuten zina?

Orma ikusezin batek Idurre inguratu zuen. Elorretako Jaunaren beldur zirenak, Idurrekoekin harremanak ebaki zituzten. Gaixoak etziren lehen bezela Idurreko Marixarengana joaten. Beti bihotz onez denak hartu zituen eta sendatu, baina... Elorretako Jaunaren eragipena haundia zen, eta jauntxu hura bere egipenetan burgaitz, zipotza.

Andonaegitarrak, indarrezko hutsuneari duintasunez erantzuten zioten, baina Yagoba, bultzagei eta beroak, bere ezintasuna eraman ezinik, etxetik alde egin zuen, eta nora inork etzekien. Aurrez, Mutrikun ospatu zen Gipuzkoako Batzar Nagusiaren aurrean, bere zina berritu zuen.

Halere benetako hilgaia Idurren bazegoen, Miren, xamur eta gozoa. Hilzoriarte maite zuen Elorretako Martin eta bere artean leiza sakondu egin zuten. Gajoa!

Hilabete gerora, beste gertaera negargarri batek bailara guttia bihotz-ukitu zuen, Elorretako seme bakar, nagusiak, bere aitarekin eztabaida gogor bat eduki ondoren, Saturrarango harkaitz haunditik bere burua itsasora jaurtiz galdu zuen.

Elorretako Jaunarentzat nahigabea birritan haundia izan zen. Seme gabe geratu zen, eta honek gainera, bere osaba Aita Jose Benito Astigarrabiakoaren aurrean Mirenengandik jaioko zen aurraren aitatasuna ezagutu zuen idazkiz, eta bere ontasunaren eskubideak haren alde utzi zituen.

Bere izena loitua ikusten zuen Elorretako Jaunak. Bere ondorengoa sasikumea izango zen eta Idurreko odolarekin nahastua. Bere beitasuna pare gabea iduritzen zitzaion.

Lehenaz gainera, sendi bien adiskiditasunezko ahalbideak galdu ziren. Nahigabearen nahigabez, Miren, zoratuta hil zen, eta berarekin batean bere erraietako semea.

Gogorapen haiekin, Marixaren begi xamurretatik, arpegi xamurrera malko gaziak joan ziren.

—Izeko Marixa —ohetik ahots ahularekin Yagobak marmaratu zuen.

—Ixo, geldi —izeba zaharrak erantzun zion, bekokian laztan bero bat emanaz.

Yagobak ezin asmatu zuen nola ohol gainera igo eta iraun zuen. Ohola bestekaldetik Gaztelako itsas-ontziak, aurrekaldean eramaten zuten Zeruko Amaren irudia zen, eta bere besoetako Haur Jaungoikoa, Euskalerriko beste irudiak ez bezela, beste besoan zeraman. Yagobak, etxepeko gela batean irudia jarri nahi izan zuen, eta oraindik orain fededunak hantxen gurtzen dute. Itsasoko Ama Euskalerrian bera bakarrik da, itsasotik etorri bai-zen Idurrera.

Idurreko semearen itzulpen mirarizkoa, ahoz aho, inguruetan zabaldu zen. Bere izugarritzko gertaldiak eta ekaitzen galdu zuen ontasunketa neurri gabeak, entzule guztiak ikaritzen zituen.

Itsas-gizon, zori-salearen itzulpenarekin, bailaran kondatzen hasi ziren gauza harrigarriak.

Agerraldi alegizkoak ikusten zituzten, batzuetan gizon beltz haundiak, besteetan deseintzen ziren mamuak, abar eta abar. Izeko Marixak berak ere agerpen bat ikusi zuen, eta bere esanetara, Yagobak, zizpadun izkilua hartu eta mendira atera zen. Bereala elkar aurkitu ziren, Pagoa!! Nagusi!! Besarkada bero batean hestutu ziren.

Zu zinan beraz agerpen eta mamua.

Iskutamena argitua geratu zen. Ekaitzaren egunetik bertatik, altxonarren kutxa berekin zuela, han inguruan ibili zen Idurreko Yagobaren morroi zintzoa.

Idurreko Yagobaren morroi beltza eta bere kutzako ontasunak ikustera, zenbatu ezin ahala gende joan zen. Lehenengo aldiz gizon beltz bai ikusten zuten, eta aho zabal berari begira egon. Pagoak berak ere, hain leku eta gizon ezberdinak aurkitu zitun euskaldunak, horregatik ibili zen Galdona inguruetan aursartu ezinaz inorengana hurreratzen.

Pagoa benetan ona zen eta laister etxeko denak maitatu zuten. Izeko Marixak batez ere maite zuen, bere ustetan, Pagoak bere loba Zeruko Amaren irudiaren gainean ipini zuen salbatzearren. Belar-sendagintzan, Pagoaren jakitasunarekin bere jakintasuna aberastu zuen.

Urte bete aldera, Pagoa indartsua zen eta euskal kiroletan iaioa egin zen, baita txapelketak irabazi ere. Idurreko «Beltza», entzute haundikoa egin zen. Bere eskabidez, ekaitzetik Yagoba salbatu zuen Zeruko Amaren arduraduna nahi zuen izan eta, horregatik ipui honi Idurreko Amaren Sakristaua izena jarri diot.

Zituela larogeitamabost urte inguru, Maiatzaren bostean, bere Amatzoren oinetan hil zen.

Pagoa hil zen, baina Idurreko Ama oraindik bizi da, ikusi nahi duenak, Galdonako kanpin ondoan, eskubira, itsas aldera, Idurren aurkituko du, antxen dago.

BARANDIARAN JAUNA ETA GURE KULTURA

K. MITXELENA

Duela aspaldixko —1979an, azaroak 4, egia aitortu behar baldin bada— Eusko-Ikaskuntza zahar kalera-berriak omenaldi ederra eratu zuen Oñatin bere buruzagi hautatuaren ohoretan. Jaialdi hartan izan ziren, ezinbestean bezala, zenbait hitzaldi ere: Julio Caro Barrojarena, Jesus Altunarena eta neronena. Han esanak agertu ez direnez, ez zait desegokiegi iruditu, oker agian, hangoak honera aldatzea. Hori baino gehiago ere merezi du noski don Joxe Migelek, baina ez nuke honen itzal zabalpean neure burua gorde nahi. Han nionak ez du inolazko izkutu sakonik argitara atera, baina zuzen-zuzenean dagozkigun zenbait kultur gaiez dudan iritzia azaltzeko balio du, ezpairik gabe. Beharrik nahiz damurik, ordukoak ager ditzaket oraingoei iruzur egin gabe.

Zertan hasiko naiz ni ere neure aldetik Jose Migel Barandiaran jaunaren laudorioak errepikatzen? Ez da hori noski horrela gertatzen merezi onez merezi ez duelako horrelakorik, baina, eta beti erakutsi digun gogogiroa hartzen dut lekuko, ez lioke inolaz ere eder iritziko besteak elkarren lehian nor goragoka aritzeari. Nagokion, bada, beregandik ikasi dugun (edo ikasi behar genukeen) hizkera soil-zehatzari, bere lanek gure kultur-

arloan izan duten ondorio eta eraginaz mintzatu behar dudanez gero. Hori baitut agindua.

Azken aldi honetan, azken mende eta urteetan, jakitez (asmoz ez dakit) egin ditugun aurrerapenak hartzen baditut ahotan ez diot inori deus irakatsiko: zaharrak izango ditugu berri. Eta, bada ezpada ere, zeharka bezala isuriko dut aipatu berri dudana «gu» hori ez dela gizajende osoaren deitura eta estalkia baizik, ez hango nahiz hemengo gizakumearena. Diodan, beraz, labur-beharrez, bi sailetan gertatu direla direlako aurrerapen horiek, aski nabari denez. Hor daude, batetik, natur-zientziak, matematika oraingoz ixilpean gelditzen delarik, eta besteri legokioke, niri baino areago, hor barrena egin diren erraldoi urratsak azaltzea.

Jakina da, gainera, ez direla giza- eta gizarte-zientziak (oraindik esan behar ote genuke?) besteek iritsi duten mailaraino heldu. Bada, nolana ere, sail horretaz arduratzen den beste jakite bat, aldi iraganaz jakin ditzakegunak, kondairakoak eta kondaira-aurrekoak, zientzi-bidez bildu eta lantzen dituenak. Alferrikako eztabaidetan sartu gabe, aski genuke hemen esatea egiazko jakite eta jakiunde dela azterketa horiek direla medio lortzen dena, ez irudipen huts, susmo murriz edo uste erdi-ustel bakarrik. Lekukorik nahi badugu, nahikoa eta gehiegi da inguruetara begiak zabaltzea. Nonnahi aurkituko baititugu gizonak, gero eta usuago eta ugariago, desestali eta agirian utzi dituen mendeak, eskualdeak, jendeak, kulturak, lurpetik nahiz lur-gaitetik atereak eta idokiak.

Onerako ala gaitzerako izan den, ez nuke nik esango. Aldi joanen nolabaiteko berbizte horrek neurri meharragoak ditu, behar bada, natur-zientzien eremua mugatzen dutenak baino eta, harrigarriro hazi bazaigu ere, hurbil du agian, natur-zientziak baino hurbilago noski, goi-aldetik eta noraezean hertsatzen duen asintota moduko lerroa. Dena den, bistan ere da, alderantziz, ez direla sail horretako aurrerakuntzak besteak, natur-zientzieta-koak, bezain arriskuz beteak; are gehiago, ez direla gero ere izango. Ez dira izango, bestela esan, inork (historiaren izkutu hondarrei antzeman dielakoan) ez baditu gertatuak eta ezagunak gertakizun eta etorkizun diren ezezagunen ispilu argi gisa hartzen. Horrelakorik balitz gure artean, eta bada horrelakorik, komeni litzaiguke harako itsumutil bihurtu zen itsuarenaz oroitzea. Bere burua amildegian behera amildu nahi duenik baldin

bada gure artean, eta badirudi badela, ez diot nik eragozpenik ipiniko. Gogor egingo nioke, ordea, ahal dudan bezainbeste, gure Herria bere buruarekin batean amildu beharrean ari baldin balitz.

Ongi baino hobeki dakigu nondik nora ibilia dugun don Jose Migel, baita, beharrik eta zorionean, nondik nora dabilkigun orain ere. Gizakumeari eta gizarteari dagozten jakintzak landu ditu batipat, gure herritasunaren oinarri delarik antzinadanik datorkigun ondarea, itxuragaiztotua ez bada ere itxuraldatua berderen gureganaino heldu dena, aztertuz, bai egungo egunekoa, bai arestikoa, bai aspaldidanikakoa. Metaturik daude elkarren gainka, mendez mende eta gizaldiz gizaldi, lehenaren hondakin zaharkituak eta oraintsu arte berriaren berriz erantsi ez zaizkienak. Berri direino berri, zahar bihurtuko baitira aurki, zaharrek nolazpait ere berri irauten dutelarik.

Beste bideetan barrena ibili bada ere, ez ditu Barandiaranek, haatik, bertan-behera utzi natur-zientziak. Halabeharrez, dudarik gabe, eta hitz hori bitara hartu beharrekoa dugu hemen: 'ezinbestean' eta 'damurik' esan nahi du batera. Ongi ikasia zuen, eta ongi irakatsi digu, histori-aurrekoetan diharduena ezin dabilkeela, zenbaitek gogoko duen gisan, natura eta kulturaren arteko bitartea zabaltzen; giza-kondaira lurraren kondairari, eta batez ere lur-azalarenari, itsatsirik ageri baitzaigu. Ikerlan horietan sartu dena galdurik dago gizona eta gizartea beren soil-ean, itxuratu duten inguruneaz aparte, ezagutu nahi baldin baditu.

Bereizkerietan hasiz gero, bada beste arriskurik are larriagorik. Izan ere, kultura, inoizko «gogo-lantze» haren eragile eta ondorioa, ez zaigu sekula soil eta bakar agertzen. Kultura berezietan mamitua aurkitzen dugu kultura, berorren mintzabide eta adierazpide den hizkuntza ezin desberdinago diren hizkuntzetan gatzatua topatzen dugun moduan. Eta ezin-gaindituzkoa dirudien ñabardura horren ñabarra ez da atxakia txarra izaten nor bere sukalde-zokoan, nor bere «oroigarri zaharrei maitez begira» gelditzeko.

Horrelako pentsabideak hartuz gero, badirudi ez dugula beti, han bezain hemen, giza-lan den kultura bere luze-labur betean hartu beharrik, haren bakarkako agerpen edo itxura berezi bat aztertzeko egokiera eskuetan dugunez gero. Are gehiago, esan beharrik ez, kultur-forma berezi horiek gureak direnean, ez bes-

terenak. Hona, bada, tentazioa: geldi gaitzen etxean, aitzur dezagun geure baratzatxo, harako hark egin nahi zuen antzera, eta horrela, inora jo gabe, bake ederrean biziko gara bertan.

Gutziz dabil, ordea, engainaturik horiek edo horrelatsuko usteak gogoan kokatzen dituen. Ez dugu inoiz gurerik ezagutuko besterenik ezagutzen ez badugu, hura den denean konprentitzeko besteak ulertzetik bakarrik izango baitugu laguntza. Gurea bera ere, ongi begiratzen badugu eta ez baditugu ametsak egiazat hartzen, aski nahasia izan da beti —ez zenbaiten iritziz agiri den bezain bakuna— eta aski nahasia da orain, inoiz nahasirik izan badugu.

Barandiaranek, behinik-behin, ez zuen tupustarri horretan estropoz egin. Hor dituzue, diodanaren lekuko, bere aspaldiko bilan, besterik ez aipatzeagatik: *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales*, Gasteiz 1925, eta «Breve historia del hombre primitivo» (eskaintzen duena baino gehiago ematen duen lana), *Anuario de Eusko-Folklore* 11 (1931). Tituluok argi eta garbi aditzera ematen dutenez, eginahalean saiatu zitzaigun, gainera, zekienaren berri besteri ematen: ikasle hurkoei lehenbizi, eta urrutikoei gero, inprenta zela medio.

Irakatsi hauen muina honelaxe bilduko nuke nik. Jorratu dituen sailetan, beste edozein jakintzatan bezalatsu, teoriak, metodoek, azterbideek edonon eta edonorako balio dute gehienbat edo, orobat dena, ez dute inon eta inorako balio: berdin dira, beraz, judu zein jentilentzat, euskaldun zein erdaldunentzat. Eta horien funtsaz jabetzen ez denak ez du atarramentu onik aterako, ez herrian eta ez atzerrian.

Badakit, nabari da eta, gero eta uzkurrago agertu zaigula don Jose Migel teoria kontuan, gero eta lotuago dato-bilketari. Ezin duda egin daiteke biltze-lana dela gurean presakakoena, orain zenbait urteren barruan biltzen ez dena betiko gal daitekeelako. Argitasun huts horiek, ordea, mamiaren pare, teoriaren hezurak behar dituzte zutik egongo badira. Teoriak, noski, iragankorrak dira, ez dute bere hartan irauten. Baina izen hori merezi duen edozein teoriak esan dezake bere buruaz besteak esan zuena: *Non omnis moriar*. Hilko naiz, baina ez naiz osoro suntsituko, geroagokoetan neure aztarna utzi gabe. Mila aldiz frogatua den egia hau, Comte-k ere ontzat har zezakeena, Barandiaranek ondoan (zorionez) duen segizio ugariari gogorazi

nahi nioke, aspaldixe argitara emanak saihets ez ditzaten berriagoen sigidan dabiltzalarik.

Aspaldi batean, eta egia esan ez dira hain aspaldiko arazoak, baziren Iparragirrerena gaitzesten zutenak. Izan ere,

Eman da zabal zazu

Munduan frutua

eskatzen zionean Gernikako haritzari, gehiegizko eskuzabaltasuna, benetako axolagabekeria, eskatzen omen zigun Euskal herriko seme-alabei. Bai baitzirudien, etxekoez ahazturik (ongi gobernatuak bagenitu bezala), ondasun eskasak erbestean barreiatzea eta sakabanatzea agintzen zigula.

Baina, hona kontua: ba ote da holakoen ikerlanean inork bere nahiz besteren dei dezakeenik? Azken-buruan, nik ezetz uste dut. Kultur alorrean zerbait sortzen duen herriak beretzat eta besterentzat sortzen du eta, orobat, besterentzat sortzen ez duenak ez du beretzat ere sortzen. Eta ezinbestean, besteri eman nahi eza dela medio, besteren mirabe eta mendeko bihurtuko da bai sail hortan eta bai bestetan. Hitz garratz bezain sonatuek diotenez, «aizkora arbolen errora ezarria da; beraz, fruitu onik egiten ez duen arbola guzia ebakia izango da eta surtara ego-tzia».

Gerta daiteke gaia, ikergaia, lekuan lekukoa izatea, euskal lurrean euskal lurkekoa, beraz, hala nola historian, hizkuntza-kontuetan, etnologian, geografian eta are geologian bertan. Oker jokatu genuke, halaz guztiz, lekuko gai hori lekuko ikuspegi meharrez tratatuko bagendu, eta ez *sub quadam aeternitatis seu uniuersalitatis specie*, non eta noiznahikoa balitz bezalaxe, Barandiaranek beti erakutsi digun bidean gabiltzala.

Ez dut, ordea, ukatuko etxekoekin diharduten jakite horiek badezaketela gurean beste baliorik izan. Bistan da, aitzitik, gure kulturak (ikasiak, ez herri-kulturak) eta jakiteak duten maila eskasean, abiapuntu ederra eskaintzen digutela direlako sailok, hortik aurrera gero eta gorago eta zabalago jo dezagun, herrikoetarik arrotzetara, etxetik kanpora. Eta inork balio ez garela horrenbestez geunden eremutik mugitu, ez dugula inolazko zubi-rik jaso natur-zientzietara, honako erantzun hau aski eta gehiegi genuke: lehengo eta oraingo gizarteari dagozkion jakintzak ezin-

hautsizko lokarriz lotuak daude natur-zientziei. Horixe gertatzen da, behintzat, edozein herritan, kapitalista nahiz sozialistatan; zenbat eta gorago batzuek, orduan eta gorago dabiltzala besteak ere. Nik bederen ez dut ezagutzen batean urri eta bestean aberats eta aldarantziz agertzen den estaturik. Ez lehengorik ez oraingorik.

Barandiaranen aitzindari eta lagunak, aski ezagunak denak, ez ditut hemen aipatuko huts egingo bainuke zein ere lerro osoa ematen saia naitekeen. Nork nahi ezagutzen ditu ondorengoak, hemen bilduak eta hor barrena sakabanatuak. Haiek, bildurik, Eusko-Ikaskuntza sortu zuten, sortu eta aurrera eraman behar zen bidetik. Bide-galtzerik gabe segitzea, gure Herriaren onerako, zor diegu haiei, itzali zirenei, eta batez ere argizari bizi dugun Barandiaran jaunari.

KALITAR LITERATURAZ
EDO USTE OKERREN ZUZENKETAZ

MIAN SAN MARTIN

ADABAKIAK

KALETAR LITERATURAZ EDO USTE OKERREN ZUZENKETAZ

JUAN SAN MARTIN

Euskal literaturaz arduratu garen euskaldunok inork esan beharrik ez dugu gure hizkuntza zaharrak ez duela literatura aberatsik eta ditugun ajeak ez dugula inork erakutsi beharrik. Baina literatura hain aberatsa ez izatetik hirugarren mundukotzat jotea beste gauza bat da, eta euskararik ez dakitenek kultura gabekotzat epaitzen ari zaizkigu. Ulertzen ez dutena era hortara epaitze hori heurak jakingo dute zergatik, baina ez gurearen maitasunez, noski.

Egia esan, horrek ez nau gehiegi larritzen, edo ez behintzat gure arteko uste okerren haina. Zoritxarrez, euskarazko eskolarik ezaz, ez dugu izan gure literaturaren zabalkunderako aukera gehiegirik (baterez ez esatearren). Eta hor-hemen zabalduak diren zenbait liburutan maizegi erabili da gure literatura nekazari mundukoa den ustea, edo kaletar literaturarik ezarena. Askok gure egunotan opa duten literatura «urbanoa».

Egia esan, kaletar gizartea aldakorragoa da eta bere abiadan egunean egungoa erabiltzea eskatzen du, hein batean, gaurkotasuna. Eta, hontan, aitortu beharrezkoa iduritzen zaigu, egunean egungo beharretara moldatzea kostatzen zaiola euskarari. Baina ez ordea lehendik kaletar edo urbano literaturarik ez duelako.

Euskal literaturaren lehen izpi idatziak Erdi-aroaren bukarakoak ditugu: Oinaz eta ganboar guduenak, Alos-torrekkoa, Mondragoko kantak eta abar, eta Euskal Herriaren beste muturrean Bereterretxan khantoria. Hoiek inondik ere ez dute baserritar edo «rural» antzik. Edozein gizarte arazotan jartzekoak dira.

Izan ere, Erdi-aro bukaeran hasi eta Pizkundearen zehar, Gipuzkoan behinik-behin, hiriak baserriak baino jendetza gehiago dute. Itsas-gizonak, ola-gizonak, artesanoak beren gremioz eta merkataria, nekazariak eta artzainak baino biztanle gehiago osatzen zuten. Zer esanik ere ez guziak euskaldun zirela, zerren 1982an oraindik, Pierre Loti-k Zumarraga bisitatzean, Papagayo edo loritoak ere euskaraz mintzatzen omen ziren.

Garai hartako Mondragoe (Arrasate ondoan sortutako hiri hura), Tolosa eta Donostiakin batean probintziako hiririk handiena zen 1448ko erreketara arte, eta bertako kantak kaletartzat har genezake.

Etxeparek euskarazko lehen liburua inprimatzean (1545), edonorentzat argitaratu zuen. Leizarragak Biblearen lehen itzulpen hura (1571), Europako Pizkundearekin bateratsu, edonorentzat idatzi bazuen ere, jakin-zale edo kultur gizonei gehiago begiratu, nosko, eta protestante mugimenduak populua izan zuen etsairik handiena. Axularren *Gero* (1643) eta Sarako eskolaren inguruan sortu zen erlijio literatura bera ere, edozein motatako euskaldunekin pentsatu bazen ere, kultur gizonei begiratu zezarren.

1677an nork behar zuen itsasoko nabegazioari buruzko liburua, era berean Luberrira (Terranova) joateko gida-liburutzat balioko zuena? Martin Hoyarabalek frantsesez idatzia eta Piarres D'Etxeberrikeri zerbait gehiturik itzulia.

Ifar Euskal Herrian XVII. mendean indartsu zetozen literatura, urrengo mendean Utrecht-eko tratatuaren ondorenez behertako zena, erlijio joerazkoa izan zen gehien bat, baina ez nekazaritzarena.

Besteak beste Oihenarten poemak ez ziren laborari mailakoak.

Hego Euskalerrian, Larramendiren eraginez mugitu zen bertako literaturagintza eta XVIII. mendeko antzerkigileak, Munibe eta Barrutia, hiritarrak ziren. Mogekek, *Peru Abarka*-n, enziklopedia gisa agertu zuena, bertako basarritarra hobeto mintzatzen bada ere, orduko bizierak jasotzen ditu Markiña inguruan. Iztueta-aren bilketak non sartu?

Bilintx kaletarraren olerkiak Curros Euriqúez-ek maite bazituen eta Etxahun Barkoxekoarenak Chamisso-k, zer esan genezake? Non kokatu hoiek?

Baina, erromantikoetan sartzen garelarik, behar bada hor aurkitu genezake gakoa. Xenpelarrek Iparragirre desafiatu zue-
nean kantatutako bertsoak adieraziko digunez, Xenpelarrek bere
burua baserritar eskolako egiten zuen, honek bere bertsoarako
legeak zituela agertuz. Bai, Iparragirrek bazuen,

*Eskola ona eta musika,
bertsolaria gaiñera.*

Besteak ere zerbait izango ziren horrela hornituko balira,
baina baserritar eskolak bere legeak eta bere erak zituen, non-
bait edo zalantza gabe, Iparragirrek betetzen ez zituenak. Hone-
gatik, ez harritu beste honako hau esan bazion:

*Atoz gure kalera
baserritar legera,
musika hoiek utzita:
Errenderian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita.*

Xenpelarrentzat, Iparragirren hornidura horiek baserritar gi-
rotik apartekoak ziren.

Gero, erromantikoak barna ikus genezake M. Hiribarren-en
poema Orixe-nagandik oso desberdina zela, kaletarragoa. Jose
Manterolak sortu zuen *Euskal Erria* aldizkaria barna eta naiz
Donostian M. Soroagandik sortu zen antzerki mugimendua ez
direla kaletarrak baizik.

Erromantikoen azkenaldera, baserriak Arkadia baten miti-
fikazioa hartzen du, gure ohitura zaharren gorde-leku. Ahozko
literatura biltzean, hala beharrez, aberatsagoak edo emankorra-
goak izan dira nekazari gizartekoak, gizarte zaharragoak hala
dakarrenez. Baina, argi geldi bedi, horrek ez duela bestea
ukatzen.

Orotariko literatura dugu. Lehenak geroan iraungo badu,
orain oraingoa bete beharra dugu. Guk gaur egun eskaintzen
duguna baliozkoa ote? Orain da gure ordua eta bete dezagun
tokatzen zaigun arloa. Gizaldi bakoitzak berea bete beharra du.
Hemen eta non-nahi, literaturagintzak ez du beste zentzurik.

AGUSTIN ANABITARTE, DONOSTIAR EUSKAL IDAZLE JATORRA

JUAN SAN MARTIN

1981eko ekainaren lauean hil zitzaigun Donostian Agustin Anabitarte Irazu euskal idazle jatorra. Hiri berean sortua zen 1891ko azaroaren 20an. Aspaldi idazteari utzia zegoen baina garai batean egin zituen lanak gogoangarriak ditugu.

Argia-ren sortzaileetariko bat zen eta aldizkari honez gainera *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*, *Gipuzkoarra* eta *Euskera* aldizkarietan idatzi zuen, inoiz «Anabi» izenordez. Baina, idazle bezala, liburuak izan ziren bere emaitzarik ederrena.

Erdaraz idatzi zuen liburu bakarra *Patrones y capitanes de yate* deritzana da, 1958an argitaratua eta geroztik beste zenbait argitalpen izan dituena. Baina, beste zenbait liburutan utziko ziregun sorketazko lana, euskara jatorrez idatzia eta kaletar giroz gainera. Merezki du beren berri ematea.

Lehen lehenik *Neska-mutileri dirua aurreratzen erakusteko* liburuxka bat atera zuen Aurrezki Kutxaren eskariz, 1923.urtean. Gero, *Aintziñako Olinpiar Jolasak* 1925ean, urte bete geroago Euskal Esnalea elkartearen *Itzaldiak* sailean berriz argitaratuko zena. beren eskariz eman zuen hitzaldi bat bai zen Olinpiadak zer ziren agertuaz. Baina lan mamitsuagoak horien ondorean etorriko ziren.

Euskaltzaindiak «Schuchardt Saria» eratu zuen literatura bizkortzeko asmotan. Bi urtez izan zen eta bietan Agustin Anabitartek eraman zuen saria, 1929an eta 1932an.

Usauri, eleberri eraz egindako irakurgaia da, 1930ean *Euskera* aldizkarian zatika argitaratu zen lehenik eta liburu apartean gero. Itsas-giroko liburua, donostiar era jatorrean idatzia, euskara errezean, esaldiz aberats, hizkirimiri ugariz, ironiarik ez zaio falta. Bere idazkera, jolaskorrean eta bizkortasunean badu Pia Barojaren idazkera taxura, bere umorea hain mina izan gabe. Atseginez irakurtzekoa da eta inoiz ez dut ulertu gure artean zergatik ez duen izan begirapen hobe eta ospe handiagoa. Guk euskarazko lanak arretaz hartu ez ditugulako ote? Estilo aldetik behintzat, oraingo donostiar gazteak —nolabaiteko euskaraz ari direnek— badute A. Anabitartegandik zer ikasirik. Eta bertako ikastolak nekez aurkituko dute irakurgai hoberik.

Donostia deritzana ordea, egileak ber-berak zion bezala «*Usauri*-ren anai laztana» da. Baina donostiarrentzat unkgarriagoa. *Usauri*, itsas bidariaz harat-hunat mugitzen denez eta *Donostia* hiri barneko gora-beheraz, bertako giroz ihardungo bait da. Liburu hau ere, lehen lehenik Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian zatika argitaratu zen eta gero liburu berezian. Nik daukadan alea egileak berak Donostiako Eusko Pizkunde zertan elkarteari esku-eskribuz eskainia da eta elkarte horren sigiluz dago. Nonbait, gerratean ebatsi zutenek erretzea baino nahiago izan zuten sos batzuk trukean saltzea eta mesede ederra egin zuten, liburu zaharren dendaren bidez oso merke nere eskuetara etorri bai zen, euskarazko liburuz kasik inor arduratzen ez zen garaian.

Bestelako mesederik ekarri zidan bertako irakurgai atseginak. Donostiako ohiturak ederki jasoak ditu. Donostiarrek bertako gaiez liburuak aisa argitaratzen zaleak dira, baina ez dakit oraindik zelan ez diren arduratu lan horren birargitaratzeaz. Hor jasotzen bai dira bertako ohitura jator asko, ber-bertako hizkuntzaz idatzirik. Kale izenez ere bada bertan zerrenda ezaugarriarik. Amara berriko euskaltzale horiek liburu hau ezagutu balute ez ziren hain zakarki bezain arin sartuko beren ustezko iritziak emanaz, era jatorra liburu hontan bilatu beharrean.

Bestetan «jaiak» badira jatorrak, Donostian «festak» izango dira garbizalerik borrokatuenarentzat ere. Festaz eta ospaketaz ere bada zer jaso Anabitarteren irakurgai hontan: Santomasak,

Ihauteri (ordukoentzat «Iote» edo «Asteleniote» bere Zapanzar-
tekin, estropadak, zezen-suzko:

O! zezen pizkor txingar jario,
zenbat kontu zure merio!

Eta, bertan tokian-tokiz zer ohi zen: Plaza Berriko giroa, kaia
bere arrantzale eta arraidunen kresal usainez, Irutxuloko joan-
etorriak, Bretxako merkataritza bertako txarlatan feriantekin,
eta abar eta abar. Historiak ere badu bere tokia, eta hitzaldi ba-
ten oinarritz bale-arrantzaren berri anitz bada IX. kapituluan.
Horiekin batean, beste gora-behera asko donostiar batek bere
herriaren maitasunez idatziak. Donostian Donosti. *Momo* jainko-
kiakin esan dezagun:

Hartu jende maitiak
Donostiakoak
Oroipen aitormenak
Bihotz gurekoak.

Gainerako euskal idazle guzietan bezala, hutsarte luze bat
idekiko zuen gerrate zital harek Anabitartegan, eta gutien uste
genuen garaian agertuko zitzaigun berriz, isila hautsiz, *Poli* zeri-
tzan eleberriarekin. Egia esan, nik neuk, hau izan nuen Anabi-
tarteren lanetarik lehenen ezagutu nuena, 1958an. Bertako idaz-
kera erraz eta polita ezagutzeaz arduratu bai nintzen *Usauri* eta
Donostia arretaz irakurtzera.

Poli (1958), Kuliska sortan argitaratu zen, mutil umezurtz
baten ibileretan oinarritzen da eleberri hau. Umezurtz horrek,
bere bizi-lekua, edo hobeto esan, gorde-lekua, Urgull mendiko
gaztelu zaharraren toki batean du eta Donostiako parte zaharre-
ko bazter guziak miakatzen dituana da, janari bila edo bere bihu-
rrikerietan.

Harrera ona izan zuen eleberri honek. Ez dakit horregatik
izango zen, baina urrengo urtean Euskaltzaindikoek beren ur-
gazle izendatu zuten.

Azkenik, *Aprika-ko basamortuan* (1961), Itxaropena Argital-
dariak Kuliska sorta berean argitaratua. Bidaiazko liburua da,
1954aren hasieran Afrikako Ifarraldetik egin zuen jira kontatzen

du bertan, liburuaren azkenean ibilera hartako argazkiak agertuz. Marsella-tik Aljer-era jo zuen eta handik Busaada, Briska, Tugurt, Uargla, Gardaia, El Golea, Timimun eta Adrar zehar ibili zen. Han bizitua eta han ikusia kontatzen ditu. Egia esan, holako literaturarik ez da maiz erabili euskaraz eta honek beste gabe baliatzen du bere lana.

Behar bada, liburuaren hitzaurrean erakusten digu egileak bere urduritasuna edo ibiltari gogo: «Nik lurralde guztietarako gogoia izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria. Itsas-tarrenaganako naia ere bai. Izan ere, oriek ikusten dituzten erri ta bazterrak!» Holako gogoz, holako ikuspegiz burutu zituen Agustin Anabitartek euskarazko literatura lanak.

Orain, azken bidaia hontan, har dezala betiko atsedena, baina donostiarrek bere obra ezagutzeko arreta.

SALLABERRY - SOEGILE IL (1)

A. IRIGARAY

Berant jakin dugu berri mingarri hau; eta lekurik ezdugulakotz, xoilik erranen dugu eskualdongoaren zutabe nagusienetako bat zela Etienne SALLABERRY, Heleta - Baxe-Nafarroako semea. Bayonako VILLA-PIA Eskolategiko Filosofia irakaslea, EUSKO IKASKUNTZAREN Batzordeko laguna, halaber beste Tal-detako eta Euskalzaindikoa ere.

Bereziki 30 edo urtez, HERRIA astekariaren idazle jarraikia, bai euskaraz (Soegile izen ordez): internazionale-gaiak nausikiro azalduak; bai frantsesez POINTES SECHES izenburupean, Euskalerriko pertsonayen berri edo euskaldungoaren gertakari nagusienak, komentario zorrotz eta zehatzekin.

Euskalzale eta euskara edazaile beroa orozgaiñetik, adimen eta jakinduri aundikoa, euskaldunen arteko bakea sustatuz beti, eta bortxakerien aitzikoa. Europazale eta Franziaiko eskualdekatzearen defendazaile suharra. Ikusmolde zabaleko kristaua.

Dolumin bizienak bere ahaide eta lankide adiskideeri ere. Nekez bateko da euskal Letretan utzi daukun uts eta zilo aundia.

* * *

A. M. LABAYEN IDAZLEARI OMENALDIA

Garagarrillaren (Ekainaren) 20-ean Tolosan izan dira, Biltzarrara, Maai ingurua, Labayen-en *Domenjon de ANDIA* komedia jokatzu *Leidor* Teatroan. Omenaldi merezitua izan du Euskalzainena den gure adiskideak, bere bizitza osoan ekin diolako euskera idazteari Aldizkarietan (Komediak ere) errez eta sakonki. Iru biltzar horietan Labayen-en antzerkiak Zubicaray bizkaitar komediagilea mintzatu da, bai eta Lecuona eta Eugenio Arocena, antzerki berriari buruz.

Euskal komediataz, Yon Echaide, I. Beguiristain eta Labayen bera ere, besten artean mintzatu dira. Beste ederra izan da, jende aunitz bildurik eta DOMENYON komedia jokatu dutenak —Eusral Iztunde, Intxisu, Tolosa eta Urnieta-ko antzeslariak ziran—. Goresmenak bihotzez lankide ospetsuari.

(1) Berri hauek denak 1981-ko udazkenean agertu ordez, gutaz kanpoko trabangatik, 4-5 ilabete beranduago agertuko, damurik.

LABEGUERIE ZENAREN OROITZAPENA

A. APAT-ECHEBARNE

Yada urtea baino geixago itzali zitzaikun, euskalzale eredu a eta gure adiskide mina izan zena.

Norbaitek haren iduria belztu naiez errandakoak ezeztatze-ko ere (antusteria aise geiago xuritu beharra duen arren), lerro hauek bihotzetik dedikatzen diotegu, Cambo-ko auzapez ospetsua izan zenari.

Sendakina, Eskualzaleen Biltzarreko buruzagia, Euskalzaina, senadorea, eta euskal eragille aundiari.

Hil-meza, 1980 gn. urteko Uztailaren azken egun hartan, go- renetik emana izan zen; oroitzea merezi du; 4.000 yende baino geiyago ba omen ziren etorriak, elizan ezin kokatuz. Doluaren buru LABEGUERIE andere alarguna, Mixelen aitatama eta ahai- deak. Kargudun aunitz, Chaban-Delmas, Bernard Marie, Petit, Kontseilari jenerala eta alkate zernai; mediku asko, jendarme burua, euskalzale eta euskalzain andana...

Meza euskaraz parte aundiena, illaren ordenuaren eskape- nez; erriko musikarien bandera kutxa ondoan, gerlari oyena, eta bai euskaldunena ere. Mattin, Esponda, Xanpun eta Alkatek ber- tsu sentikorrak, kantatu zituzten. Larroque erretorak euskaraz eta erdaraz esan du predikuan kanboarren izigarriko pena. Meza ondoan, Mixel ITZAINA, Errikoetxeko idazkariak, euskaraz erran du agur sentikor bat eta *berdin* erdaraz. Goy Petit-ek, ilaren zu- zentasuna aipatuz, zerbitzu egiteko leya, fede azkarra, sorterria- ren aldeko berotasuna..., *bainan* bereziki bake aundi baten griña zuena.

Dirassar-ek zion euskalzale suharrenetarik zela: «Lan aundia egin du alor hortan, baino haatik, lan sakona egiten duenari, oraino geyago galdeiten zaki; horra zergatik Labeguerie maitea, batzuek ez zitaken aski euskalzale... *hau egin balu, hola jokatu baledi*; aise da bazterretik mintzatzea... *balitzeneko errota hori gaitza dugu euskaldunen artean*.»

Bere kantu batzu ezagunak dira zazpi probenzietan —*Bakearen urtxoa - Nafarroa*— eta beste. Azken bizpiru urte hauetan asko sayatu da —*Carta*— (Charte) autonomia apur bat erdies-teko-tan, bilkurak egin arazi, bai Parisen ere mintzatu klarki euskaldunek dituzten eskubideen alde, bereziki euskararen alde... (eta oraino deus ezin erdietsi, gutaz trufatzen balira bezala...). Zorigaitzez zentzu guti dute Pariseko jaun antuste batzuek, dio Dirassarrek. Jendetasunaz zuen arrangura aundia...; leylala bere adiskideekin eta berdin bestekin ere. Xehea zen eta xehen adis-kide eta lagunzalea, Labeguerie.»

Bere itzalak bazituela? denek bezala, soizu. Baina Labegue-rie bezalako, Euskalerrriaren zerbitzari asko bagenitu, etzen ain eroria eta erraustua izanen gure Erri maitea.

BAPATEKO OHARRAK

BITAÑO

Irun: La Salle-enean.

1981. udaberrian.

BAPATEKO OHARRAK

- 1) *Zenobia Camprubi Auritzen.*
- 2) *Mañariarra Dodgson!?*
- 3) *Kitarra bi: (Pako eta Joxe-Mari).*
- 4) *Behobiko Hilerrisaindura, «Pegogaña»-ren oroimenez ibilalditxo.*

1. *Zenobia Camprubi Auritzen.*

1981 urtea. Martxoak, hemezortzi. Martindozeneako Oñajau-regian. Don Joseri ikustaldia. (Oñako Baroiak, Don Josek, larogei ta hamalau urte bete ditu egun hauetan). Argi du burua, bere gogorapenak-eta kondatzeko.

Urteak dira Burgeteko pasadizuak kondatzen hasi zitzaidala. Burgetekoa da gaurko ohar hau ere:

Ezkondu berria Don Jose. Burgeteko ostatu berrian dago, familiarekin. Anitz lagun daude estatuan. Zenobia Camprubi eta bere ama, beste batzuren artean. Ateraldi barregarriak egiten

ditu sendagile batek. Neurritik kanpora ere ausartzen da noiz behin, eta altxa egiten da orduan Zenobiaren ama eta kanpora irteten jantokitik.

Argazkigailu berri on bat du Don Josek. Erretratu batzuk egiteko, eskatzen dio Zenobiak. Eskatu bezala egiten ditu Don Josek (Zenobia eta Zenobiaren ama, biek ondoan). Ostatuko gela bat antolatu zuten argazkiak errebelatzeko. Ez ditu gordetzen orain argazki haiek Don Josek.

Gero Nobel Saria irabaziko zuen Juan Ramón Jiménez olerkari ospetsuak Zenobiarekin ezkontzea nahi zuen, baina ihes egin zuen bere amarekin, eta Auritzen gordelekutu biak, ama alabak. Ipar-Amerikan zegoen Juan Ramón, eta eskutitzak bidaltzen zituen Auritzera. Hormakontra ibiltzen zen buruaz orduan Camprubi anderea: Ez zitzaion atsegin Juan Ramón bere alabarekin ezkontzeko.

Gutun bat hartu zuen gerotara Don Joseren arrebak: «*Atzo ezkondu nintzen Boston-en*», ez zuen esaten norekin; baina arrebaren lagun batek ere hartu zuen beste gutun bat, eta Juan Ramónekin ezkondu zela.

Madriren aurkitu zuen behin Zenobia Don Josek. Kalean. Hormak ondo koltxaturiko gela bat antolatu zutela, Juan Ramónek baketan eta lasaitasunez lana egin zezan, kanpoko zaratarik entzun gabe. Puskatu egiten omen zuen gauez, egunez egiten zuena. Eta bizi egin behar... Denda bat jarri omen zuen Zenobiak. Espainiako oroigarriak-eta saltzeko. Enbaxadetan saltzen zituen batez ere oroigarriak, eta horrela bizi izan ziren urte zail haietan.

Ondore onak ezagutu zituzten gero, garaipen haundiak bizitzan zehar eta azkeneraino.

2. Mañariarra Dodgson!?

Mañariko idazleari buruz idatzi nituen ohar batzuk *Vida Vasca* deitu Aldizkarian. «*Kirikiño*» eta beste euskal idazle batzuen jaioterria da Mañari. Erdaraz ere idatzi dute herri hone-tako batzuk. Euskaraz idatzi zuen Kapanaga abadeak (Kapanaga

gako Martin Otsoa, XVII.mendekoa). Euskaraz jarri zuen Ripaldaren Kristau Dotrina, eta 1656.urtean argitara eman Bilbon, Azpiroren moldiztegian. Portugalen egin zuen Dodgson euskalariak bigarren argitaraldia (Vizeu, 1893).

Vida Vasca aldizkariaren zuzendariak berak egiten zituen argazkiak. Argazkipeko oharak ere berak asmatu eta jartzen zituen. Baina, arraioa!, bere kontura «gehitzen» ere noiz bein bazekien egilearen textua, argazkiarekiko zerikusia ematearren.

Ez zuen ondo irakurri edo ulertu nire textua, eta argazki horietako baten azpian Mañariko semetzat jarri zuen Dodgson ingeles euskalari ospetsua!

Aldizkariaren ugazabari esan nion zer gertatzen zen (ugazaba ezagutzen bait nuen, eta zuzendaria ez). Ez haserretzeko mesedez, eskatu zidan. Baietz nik, ondo zegoela, baina besterik gabe horrela ezin zela gelditu huts egitea, eta zuzenketa egin behar zela.

Bazituen xeblekeriak «*Ragon*»-ek, luze idazteko adina, eta hau bat.

Urteak joan dira ordutik... Haundia egin zidan benetan...

3. *Kitarra bi: (Pako eta Joxe-Mari).*

Gazte gaztetatik dugu kitarrajotzaile Pako. Gaztetatik darama bihotzean kitarra jotzeko zaletasuna Cadiztar mutil honek. Herritar adiskideak ditut Pakoren andrearen etxeakoak. Bat egin dugu aurten denok «*Etxe-Zuria*»-n. Umetxo bat izan dute gazteok. Kantu bat egin diot jaioberrittoari, Xuberoako doinu batez abesteko.

Euskal doinuak ere ikasi behar dituzu, Pako. Zerbait behintzat bai, besterik ezean.

«Baina Andaluziarra naiz ni; hango musika daramat barrubarnetan gazte gazterik, umetarik.»

Bai, eta horrela jarraitu ere jarraitu behar duzu; zure herriartasuna ez duzu saldu ta galdu behar. Baina kontutan eta ez ahaztu, euskaldunen odola ere badaramala zure alaba jaioberririak. Ez ahaztu hori ere, Pako.

Iparragirrerri buruz hitz egin dugu. Luze mintzatu gara Iparragirrerri buruz. Joxe-Mari eta bere kitarra... Bere kitarra eta Gernikako Arbolia... Gernikan gordetzen den kitarra...

Begi adi eta erne entzun dit Pakok.

Euskaldunen Haritzaren ondoan gordetzen da Joxe-Mariren kitarratxo ospetsua...

Gernikara irten du gaur bertan Pakok, Joxe-Mariren kitarra agurtzera, Gernikara.

Kitarra bi: Pako eta Joxe-Mari. Pako eta Joxe-Mari: Herri bi, kultura bi, gizon bi, kitarra bi. Gernikara irten du Pakok gaur, andrea lagun, Jose-Mari Iparragirrerren kitarra zahartxoa agurtzera.

Gero arte, Pako. Esango didazu.

4. *Behobiko Hilerrisaindura, «Pagogaña»-ren oroimenez ibilalditxoa.*

Larunbata; Apiril-jorrrailak hamaika. 1981.

«Pagogaña», Don Juan Thalamas Labandibarren oroimenez Behobiko kanposaindura joateko asmoa nuen, eta gaur arratsaldean egin dut joan etorria. Urdinilun eguna. Anakatik Behobirako xangaia hartu dut, lauretakoa, Loidiren botikategi aurrean. Badaezbada ere, guardasola hartu, euritako eta eskumakila gisa.

Oinez astiro astiro, Behobiko zubitik hilerrisanduraino. Motozale zaratalariak, bizikletak, kamioi eta beribil asko. Asko eta arin-arin. Ni bakarrik oinez, dordoka zahar baten antzera. Hirulau minutuko abiadura laster bat gazte batentzako, baina ordu erdi luzea niretzako.

Atseginez gogoratzen dut kanposaindu txiki, bakarti eta polit hau. Hogei urte gutxienez izanen dira bertan nintzela Irundik Larraun mendira oinez, ahantzezin ibilaldi batean: Denborak eta sasoiak!

Goialdeko alxifretegia eta zuhaitz tantaia ez dituzte kendu. Hodeiertz ingurune unkiagarria, isiltasun zolibizi-naretasunean.

Erdialdeko lekutxoan dago burnizko gurutze zaharra ere, harri-landu-maila gainean, oholesi hostorrituz inguraturik.

Aintzinako edertasun liraina ez du galdu bidasoar bazter honek.

Erromantiku grabatuirudi on bat marrazteko gai egokia. Barojak, Regoyosek, Salis Beraungoak... lan ederrak eginen zituzten bazterralde hau eredutzat harturik, baina haien denboretan ez dakit edertua ote zegoen hilentzako toki hau.

Otoitz bat Labandibartarren harrizko hilobi itzalgarrian, «Pagogaña» gogoan. Don Juanen ama izan zen Labandibartarra, eta amagurasoaren ondoan hilobiratzea izan da bere borondate mina.

Sasoidun gizon heldu bi euskaraz mintzatzen inguruan, eta agurtu egin gara.

Haize bolada dator, eta eurizarratua.

Guardasolpean baita irakurri Orixe: «Alde ditzagun begi ôk / beltz ontatik / argitara, Ianko garbi. / Ene begi ta gogoa / ta gorputza, / zuri so, gel bitez argi. / Urrun itzazu zureak; / begirozu / xahutu duzun aur oni. / Ez ater begiratzetik; / eman, aldiz, / indar ene begieri. / Begiz begi, gogoz gogo / gauden bi ôk; / naukazu maitatzen beti. / Atsedean zak ontan, gogo; / isil, beha, / ta Iaunagan ago tinki». (Barne-Muinetan, I: 32.orr.)

Bidasoa hegala, Martzial Deunaren elizatzkoa mendi gainean, aurrez aurre. Eta Pagogaña, Aiako-Harriak..., zeruertzeko ikuspegi.

Sarri egiten zituen ibilaldiak Hendaia ta Behobia zehar Unamunok. (Bere Ipuiak eta Paucker-en saioa irakurtzen nabil egun hauetan). Hemen hurrean agurtuko zuen Isidoro Fagoagak Don Migel, Bera-Bidasoatik bixikeletan etorri eta ezagutu zuenean.

Berriro Irunera xangaian, Etxeandiaren enparantzaraino. Sartuirten bat Beraunera. Lolita Salis da Beraungo etxeakoanderea, «Luis de Uranzu»-ren alarguna eta «Pagogaña»-ren ahaidea. Beraunera etortzen ziren gonbidau egunetan Don Juanen aitongurasoak.

EUSKARA ITZALI DAN TOKIETAKO LEKUKOAK

A. IRICARAY

«*Esfuerzo bélico de Navarra en el XVI*», izenburuko liburua argitaratu du erdaraz. ARCHIVO-ko buruzagiak; euskal lekukotasun asko dituen. XVII-XVIII mendetan, dakigun bezala, euskaraz mintzo ziren Estellan, Iruñean eta egoalderagoko errietan ere. Hortaz landa, Nafarroak aizutasuna galdu zuen denborako izkribuetan irakurtzen ditugu, bere eskubideak gordetzen alegindu zirala erregearen okerkerien aurka.

Liburuak 447 orrialde ditu, aurten publikatia; ondotik dokumentuen fotokopiak azaltzen ditu Idoatek, moderno izkietan aldatu gabe; Paleografia ezdakitenendako eragozpen aundia. Ikusten aal dira - Aita sainduaren - Bulda «*Pastor ille caelestis*» - Iruñeko iriaren *amor-ematea*, Fernando V.-gn. erregearen alde onartutako *erabakia* berbera; garai hartako erronkariar batzuen *eriotzako* kastigua.

Nafarrek, aizutasuna galdu ondotik, erabe zuten *Albuquerque* miserregearen aldera, beren esku zuten Foruak defendituz... «los navarros están muy sentidos y fatigados y se quexan «mucho del áspero tratamiento que les hace dicho Virrey, pues ha puesto *lengua y nota* (mala nota) en la confianza y fidelidad del, siendo tan aficionados súbditos y fieles Vasallos de V.M.»

«Enrique IV de Francia y III de Navarra andaba preocupado por la seguridad de su Reino, sin tener que pensar en los montañeses navarros adictos a la causa agramontesa...» dio Idoatek,

baino euskaldunak (*ez xoilik montañesak*), geyenak beaumontesak zirala badakigu, Iparretik Erribera-raiño; eta agramontesak, geyenak berriz, erdaldunak. (Tudelatik egoaldeko mugaraiño)...

Nafarrak, alderdi batekoak edo bestekoak, berdintsu ziran erdaldunen aurka; Puente la Reina (Gares) tarrak kexu ziran, dio Archiberoak, tropak beti ostatatu behar zituztelako... «se alojaban en la Villa desde que vinieron los españoles a Navarra, según decía uno de los testigos»... Este detalle, dio Idoatek, nos revela cómo los españoles seguían siendo extranjeros para los putesinos, lo mismo que para el resto de los navarros.

Carlos V-gn. agintean... «La otra parcialidad es de beaumontes y éstos son afectos a los castellanos; el Jefe es el Condestable Conde de Lerín», sin embargo «universalmente, kopiatzen du Idoatek, todos los de este Reino tienen odio a los españoles y desean su rey natural, que es el señor de Albret (Labrit)».

En 1517 el Veedor general Malpaso daba a contrata la construcción de garitos y aposentos... «no se pudo encontrar en Navarra ningún cantero que quisiera trabajar a destajo, según lo había ordenado el Cardenal Cisneros... Las últimas obras las llevaron a cabo en agosto del 1521, el maestro mayor Pedro de Muruzábal; otros canteros son Pedro de *Plasencia*, Domingo de Apalagasti, y Juan de Arrese, estos dos últimos de Asteasu (Guipúzcoa).

Tudelan, 1583 urteko Corte-batzarretan lege bat onartu zen, Baxenafartarrerri, nafartasuna ukatzen ziona, eta hauek goraki protestatu zuten, Fernando V.-gn.ari eta Carlos V.-ri menpetasuna zinegin ziotela. Geroago nafartasun hori salatu zuten Oiherart eta Vizcay historiaegilek... Baxenafarrekoek esku zutela Castillako ofiziotarako. Carlos V.-k 1530-ean alde bat utzi zuen Baxenafarroa, gaitz izaten zaiolako lurralde hori defenditzea.

Vizcay horren liburuak dio... «Derecho e naturaleza que los naturales de la «Merindad de *San Juan Pie del Puerto* tienen en los Reinos de Castilla»... bere izenburuan.

Idoatek azaltzen du, «Micheto de Guembe, de *Vidaurre* en Val de Guesalaz... delakoaren Ordenuan» (año 1479)... el Notario Pere de Salinas le dio a entender en Vascuence y en Romanz».

Autoreak aipatzen du nunbaiteko Errefraua... *Azquenean conta...* eta makur itzultzen du... *Al final la cuenta...*; bere itzulpen zehatza dalarik... *El final es lo que cuenta...* Izkribu hau ze goen SARAITZU Valleko armarrri zaharrean.

Martin CRUZATEk Katedraleko Txantrearen Azalpenan Carlos V. Emperadoreari diotso «...porque la gente Vascongada, que es la mayor parte y la que mayor necesidad padece de buen pastor de todo aquel reino»... Idoatek, Goñi Gaztambidek bezala, euskal-dun ta anticastellano berdin zirala uste dute, konturatu gabe... beaumontesak bere kontrarioak baiño euskaldun-ago zirala»...

Sanzernin Parroquian 1645-an kantari bat autatzeko (Corista) zeuden; Arrechea (Aezkoa-Iriberrri-ko erretorea) eta Xemeniz (Mendabiakoa)-en artean; hau izan zen autatua, baiña lekuko batzuek diote... «la lengua Vascongada es la natural y materna de esta ciudad y su Montaña, y la accidental y advenediza es la lengua castellana»... Idoate Romancearen alde agertzen da, baiña Arregui horrek diona egia utsa da. Los 4 Vicarios de las Parroquias pamplonesas eran Vascongados..., lo mismo que sus coadjutores.

El caballero de Santiago, Miguel Iturbide delakoak dio Tafallaraiño, Pirineotan, Cuencan eta Iruñean..., no tienen otra lengua. Nik publikatu izan dut Tafailan euskera, geyena erabiltzen zela, eta Estellan ere berdin; bieleketa ordea, bilinguismoa, edatuko zela ogei kilometro egoalde-rago, beste errietan ikusi dugun bezala. Blas FAGOAGA Irakasle zenak idatzi du *Vascongados* deitzen zirala garai hartan, erdararik ez zekitenak; hala da askoen iritzea.

A. Moretek dio kofesatzen ziranak euskaraz, 12-tik xoil bat izanzen zela; baiña ezdu balio lekukotasun horrek erdaraz kofesatzen direnetan ere euskaldun aunitz daude.

IPARRAGUIRRE, GIZATASUNAREN ALDETIK

A. IRICARAY

Gure euskaldun aundi hartaz mintzatzeko, ezta errez alderdi eroso autatzea, askok idatzi dutelako bere biziaz, ibili zituen bidayetaz eta bere kantaz.

Bainan haren gizatasuna askotan illunpean bezala gelditzen da, uts egiten du; alderdi hori, ordea, bere bizitzaren zatia da eta ez ttikia.

Iparraguirre-ren ospea eta indarra, bere begibizietan eta bere abotsan zeuden; orai esaten den *karisma* delako aundi baten yabea zen eta horren bidez, ez xoil bereganatzen, sustatzen eta asaldatzen baizik *ere zituela* Libertatearen alde, urbiltzen zitzaizkion oro.

Hori gertatzen zitzayon orduan, Franzian, Italian eta bai Espainian ere; eta orai bertan bilkura batean edo euskaldunen oturuntza baten ondotik, bere kanta unkigarria *Guernicako arbola* norbait asi orduko kantatzen, berehala xutitzen da, alderdi orotako jendea eta barreneko sendimendu beroaz jabetuz, oro kantari; eta hau gertatzen da berdin Maulen nola Algortan, berdin Garazin edo Goyerrin, berdin Baztanen, Gasteizen edo Lizarran. Fenomeno hau, *Guernicako arbola* kantarekin xoilik agitzen da, eta ez batere, gaiñerako beste euskal himnoekin; ereserki himno honek bateratzen ditu alderdi guzietako euskaldunak, Iparraldean eta Egoaldean.

Gamazada deitu nafar inarrosaldi hartan, yada duela laurogei ta amar urte altxatua Gamazo ministroaren kontra, geyen kantatu zen soñua *Guernica-ko Arbola* izan zen, ez bakarrik Iruñean eta euskaldunen artean, baizik Erriberan ere, Etayok eta Zubiri-Manezaundik kondatu duten bezala.

Bere gizatasunaren alderdi nabari bat erakusten duena da, Bernardo Bengoechea - Txindurrik kondatzen duen pasadizo hau 1955 urtean:

«Zapatuetan juan oi ziren Ermutik Durangora erretxin-giñak, errexinezko kandelatxuak saltzera, astoetan euren trastiak artu ta; jakinez ta bide batez Iparraguirrek eta Zubiak (Zubiriak ?) jarri zituela euren maletak ta tramankuluak astoen gainan, urten ziran goizaldian lagunekin Durango aldera.»

«Zelan dagon Ermuan asi eta Durangoruntz bost kilometroko aldats gora aundi bat, ezin eutzen ba yarraitu gure gizonek erretxingiñeri ta larri xamar joiatzan (Nere amak esate eban Iparraguirre zala bizar zuriekin gizon zakar bat), arnasa puskat artu ta itzeindei eiri: «Gazte ta amandreak, igarten ba deutzazue ara gorago dagon bueltarako, gizonentzat ser dan bizimodurik onena, emongo deutzuet pezeta laurleko bana danori.»

«Gure erretxingiñok buruauste andixa artu eben, baña dembora artan lau errialekoak asko balixo eban lez, erantzun eutzen; Bizi modu onena zala, matrimonio santua ondo eruan, Jaungoikoak aginduten daban lez, umiak ondo azi, diru pixka bat aurreratu ta gero zeruan aulkitxoak artuteko bidea egin.»

«Iparraguirrek esan eutzen; «ez diotzazu igarri; ta ara gorako bueltarako igarten badeutzazu, biña pezeta (orduan biña pezeta, ez gutxiago bere, ez zituan irabaziko, eukezan erretxin danak saldu ta be); batu ziran atzen baten an bastartxuan gure amona zarrak; aren buruaustea andixa zan, ez zekien zer esan be, ba len esan eutzen euren eretxira, berriz be erantzun eutzen. «Ez diotzazu igarri (berriro be esan eutzen Iparraguirrek), ta an goragoko bueltian neronek esango dizutet, eta ala diño; «gizonarentzat bizi modurik onena au da; goizian karnaseruakin armoz, eguerdian apaizarekin bazkaldu; karramateru-arekin afaldu ta gero neskatxo gazte batekin lo egin.»

«Gure zarrok bildurtu ta geratu ziran itz orrek entzutian; baita oindiñok aldatza egoan ta, an gorengo bueltan barriro be, geratu ta esan eutzen auxe bertsua:

*Ai! Joxe Mari maitiaren petxuaren gaxoa,
Aldapa onetantxe neskatxa gaztearekin
Ez baldin ba nijoake,
Bertan geratu bearko nuke.»*

Nere ama Juana Mari Izaguirre zan, eta esan oi eban berak amatzortzi urte inguru zituela orduan.

(Bernardo Bengoechea - Txindurri - 1955.)

P.S.—Iparraguirre etorri zan Amerikatik 1877 (sic) urtean Urrillaren 20-an eta ill zan 1881-an jorraillaren 6-an; or bitartean izango zen ipuiñ au. A. Arrillagaren «Iparraguirre» liburuan arkitzen dira aipatu pasadizo hauek.

* * *

Bere gizatasunaren alderdi hori ere baiesten du Alonso Abaituak kondatzen duen gertakari honek... Markes de la Roquejaquelin-ek gomendatuz Iparraguirrek lezionaek artzen zituen Parisen *Caroline Duprez* kantari ospetsuaren gandik (Urretxuerra gizon ederra omen zen)... «y después de oírle cantar «*Guitarra zarcho bat*», se entusiasmó prometiéndole ayudarle gratuitamente. La asiduidad en el trato hace que la admiración se trueque en el más dulce amor (pues la Duprez deseaba hacer del basco un cantante de ópera), con el resultado de un vástago que fue prohijado por Iparraguirre».

Hunek kondatu zuen beste aldi batez, norbait arritzen zala haren alaitasunaz, eta urretxuarrak erantzun... «¡qué quiere usted! De joven leí a un filósofo que decía, la alegría engendra bondad; sólo los tiranos son graves y formales».

Bere yitea nehurtzeko ere ongi eldu da, laster asko egin zuen aldakuntza. Don Carlosen soldadoetan mutiko bat zalarik asi zuen arren, azkenean beti pakearen alde kantatu zuen eta gerla gaitzets, bertsu famatu honetan argi aski agertu zuen bezala Buenos Aires-etako *Teatro Colon*-en:

Zoaz D. Carlos zazpigarrena
urrun bai gure lurretik
Ez duzu utzi guretzat pena
eta tristura besterik;
Doluz, negarrez, ama gaxoak
Ai! ezin kontsolaturik,
Ez degu nai ez geyago ikusi
Zori gaiztoko gerrarik.

ARXU IDAZLEAREN MENDEURRENA

JUAN SAN MARTIN

Nor zen Arxu bere mendeurreneko omenaldia Euskaltzaindiak Zuberoan hain handikiro ospatzeko?

Zuberoaren izateak berak ere zerbait bultzatuko zuen omenaldia, baina ez Arxu zenak hortarako merezimendurik ez zuelako. Euskaldunok min dugu Zuberoan. Gure herrietarik baztertuena, hustuena, ikusten bai dugu galzorian. Berez hain ttipi garenontzat mingarri bait da bere zati bat galzorian ikustea. Eta, ah, nolako zatia! Herri literaturaz aberats eta jakintza mailan ere ez urri. Langilerik izan du historian zehar eta hauetarik bat zen Jean Batiste Arxu. Horregatik, euskaltzaleak beti izanen gara zordun.

Arxu, Altzürükun sortu zen 1811. urteko irailaren 11.ean eta 1881eko ekainaren 9an hil zen La Réole (Gironde) hirian.

La Réole-n igaro zuen bere bizitzako parterik gehiena. Mailsua zen eta anitz urtez eskoletako ikerle eta arduradun izan zitzaigun. Baina inoiz ez zen ahaztu bere sorterriaz eta lanik franko egin zuen bere alde, euskaraz idatziz eta euskarazko zenbait lan frantzesera itzuliz ezagutarazteko. Honegatik zion Martin Hiribarrenek bere poema liburuan:

*Eskaldunen lorea, Arxu Xuberoko
Luma eta bihotzez lehena lerroko.*

1847. urtean Bernat Etxepareren liburua frantzesera itzulia eman zuen, eta, ondotik, urte berean, Oihenartek bildu zituen Atsotitzak eta Gaztaroa, Francisque-Michel-ek Parisen argitaratuko zituenak.

Handik urte betera, 1848an, La Réole-n, La Fontaineren alegiak argitaratuko zituen ber berak euskaratuak: *La Fontaineren Aleghia-berheziak, neurthitez frantzesetik uskara itzuliak*, zu-

berotar jator eta apain batean idatziak. Euskal haurrek eskolan irakurtzeko egin zituen. Eta hau izango zen bere euskarazko lanetatik garrantzizkoena. Baina, ez bakarra, noski. Bera Errepublikak zalea zen nonbait eta urte berean argitaratu zuen *Kantu patriotikak*, Marsellesa euskaratua eta beste.

1852an ordea, *Uskara eta Frantzes Gramatika, uskalherrietako haurrentzat* egina. Bi hizkuntzatan idatzia.

Euskalarien artean oso ezaguna da L. L. Bonaparte printzeak zer nolako eragozpenak izan zituen Intxauspe kalonjearen alde-tik Biblea itzultzean. Honek ez bai zuen nahi oharririk gabeko Bible zatirik argitaratzerik, eta zuberotarrezko itzulpenetarako hautatu zuenez, bere langintza etenda ikusi zuen printzeak. Antoine d'Abbadie izan zuen printzeak harremanetarako laguntzailerik onena eta berriz ere bedonengana jo beharrean aurkitu zen. D'Abbadie-ren eskariz egin zituen Arxuk itzulpen batzuk eta L. L. Bonapartek gogoko izan zituen. 1859. urtea zen. Beraz, *arestian aipatu* ditudan lanak ordurako eginak zituen Arxuk eta printzea nortasundun lumarekin aurkitu zen. Eta hara gure errepublikanoa nola sartu zen printzearekin harreman hertsietan. Bizitzaren paradojak. Eta, 1861ean eskatu zizkion zenbait itzulpen eta hara nola agurtu zuen Arxuk printzearen eskaria:

Lucien Napoleo
Printze Uxkara dakienari

Printze jakintsu, pare gabia
Zureganat, ni, Rhut-en libria,
Ziberuako zaia jauntsirik
Huillantzen nuzu, ahalketurik.

Botz nundukezu, sotto bat egin
Nahi bazineit. - Lehen hunki-jin
Egin zeiola Booz handiak
Rhut gaixuari, dio ixtoriak.

Ber hunki-jina ukhen baleza
Ziberutarrak, haren bihotza
Iratzar laite Jaun Luzienek
Gor'altatzeko laidoriuen.

L. L. Bonapartek Antoine d'Abbadieri eskerrak ematean, itzul-
tzaile ona aurkitu ziolako, Intxausperen urrengo zuberotar idaz-
lerik hoberentzat jo zuen, ordurako Xaho hila zenez. Hor era-
kusten digu Xaho euskal idazle ona zela nonbait, baina gaur egun
ez dakigu holakorik, zeren Xaho zenak ez bai zizkigun utzi fran-
zes idatzitako lanak baizik.

Printzeak, ordea, Bible itzulpenetatik ikusten denez, kontuan
izan zuen zalantzazko fededun zen Arxu bezelako bati zer eska-
tu. Baina, Arxuk Bonaparterentzat itzuli zituen lanak ez ziren
bere garaian argitaratuak izan. Napoleon III.aren diru laguntza
aitu zitzaionean, Luiz Luzianok lanak bertan behera utzi behar
izan zituenez. Haregatik, urteak igaroko ziren lanok argitaratu
arte. 1888an, Baionan, Bible-Elkartekoek argitaratu zituzten *Ru-
then libria*, *Salomounen kantiken kantika*, eta *Jonasen libria*.

Iraganak iragan, Altzürükuk eta Zuberoak ezagutu dute be-
ren seme leiala nor zen. Bereziki, sortu berri den Su Azia deri-
tzan elkarteari esker, Arxu zenaren omenaldia antolatzen lagun-
du zutelako eta «Zuberoaren beharrak, euskararen zaintzeko»
zer ziren erakutsi zigutelako.

Gu, berriz ere han izango gara holako aukerarik denean.
Zuberoak merezi du.

KARMEN LARUMBE-REN DANTZARI-ELKARTEA

A. IRIGARAY

NAFAR BATEN BALLE TALDEA

Karmen LARUMBE, euskal jatorrikoa denak abiarazi zuen orai 8 urte BALLE Talde hau BRUSELESEN: 8 dantzari gain gaiñetik ikasiek osatzen dute Taldea; Cecile *Charles*, Veronique *HOTTON*, Anne Van *HOLDER*, *Pellaton*, *Ribeiro-Torres*; Karmen LARUMBE buruzagia eta Leendakaria Normando *TORRES*. Karmen gaztetxodanik Argentinan bizitu zen, eta han MISIONES errialdeko BALLETA ematen ari zelarik topo egin zuen bi pianista belgakin; hauek, loriatuak, Belgica aldera joanarazi zuten LARUMBE eta Bruseleko *Théâtre de la MONNAIE* delakoan dantza-ikaste sakonagoak egin arazi.

Gero, Pariseko Centre *POMPIDOU* delakoan agertu izan da, eta Arles-en; gero abiatu dira Madrilen eta Euskalerrrian, arrakasta aundia bilduz; agertu gogo dute Florenzian, Brasilen eta Suizan. Oliten berriki eman duten Dantzaldia iru zatitan bereixten zen; lehena *Guernica* izenekoa —Picassoren kuadroan itxuratu—. Asmatu zuen hori New-Orleans-eko *Philharmonique - Orchestra* eta Pittsburgh-eko profesore batek Karmen Larumberi irakatsi.

Hunek, dantza bezala eman zuen Bruseleko Unibersitate *Librean*; «zezena zauritu» artuz leit-motif bezala eta *ilak ere berpizturik*... SARASATE nafar musikariaren euskal soinu agitz eder batez, aurreku dantza bat ateratzen dute.

Bigarren zatiak *BUENOS AIRES hora cero* izenekoak, hango soñu eta dantzak itxuratzen. Irugarren zatia ESTUDIO deitzen da. Dantzari guztiak bere ofizioaren jabe dira eta Parisen eta Bruselasean dantza *Expresionista horiek* biziki laudatuak izan dira. Atsegin aundiz ditugu azaltzen LARUMBE andere euskaldun Taldearen arrakesta aundiak.



NAFARROAKO KONDAIRA LABUR BAT

Iruñeko Aurreztu Kutxak (Caja de Ahorros) bi Historia-liburu argi eta iduriez ornituak duela denbora bat bnatu ditu, bat euskerazkoa eta erderazkoa bestea. 60 orrialdetan, ele laburrez (koloretako iduriekin) arri-arotik asten da (Neolitikoa), Erromakoen denborako borrokak segituz xeheki. Bereziki, Ibañetako euskal arbasoen gandik, -778- urtean Karloman Imperatore-aren armada aundi harek yasan izan zuen galtzepe izigarria.

Gero, ENEKO ARIZTA (Arizeta) Nafarroa-ko lehen erregea eta bestek, agertzen dira; bereziki Sancho *GARZEIZ* (Garcés), Sancho IV, *jakintsua*, bere euskara, *lingua navarrorum*-deitu zuena, Alfonso *Guduzalea* (Batallador), *Sancho VII Bizkorra* (el Fuerte), Araba eta Gipuzkoa ostu zioten errege *indartsua*, bera Mororin amuruserietan edo... (?) zebillen bitartean.

Charles II-Evreux, frantzesek —«le mauvais»— deitua; baina Erresumaren Hacienda (Cámara de Comptos) zuhur apailatu zuena; eta *Pedro el Cruel* delakoarekin izan zituen autsi-mautsietan, bi euskal probintziak aldioro erreklamatzten zituen. Gero, Fernando —*el católico*— delakoaren Nafarroako borrokak—. XIX gn. mendeko LAU gudualdiak (Karlistenak) eta horien ondorioz *euskeraren eta Foruen* galtze deitoragarriak.

Euskerazko liburua oso-ar, ongi dago, nahiz idazkera erre-zago eta argixagoa eman zitaken. Pertsonayen iduriak ezin arte-zago pintatuak, R. RAMOS-ek. Bi Liburu argi eta laburrek, utsu-ne larrri bat betez, ongi aundia egin dezakete nafarren artean bereziki.

OLITEKO MUSIKA-ALDIAK

A. I.

MUSIKA-ALDIAK. Agorraren 1-tik 30 gn. egunartio, PRINCIPE de VIANA INSTITUTO-ak erri hortan *Festivales* deitu Musika-aldi hauek apailatu ditu: 1-egunean, gaueko 10-tan KOSICE-Txekoslovaquia-ko Filarmonikak, *Orfeón Pamplonés* delakoarekin emango dute *Requiem de Verdi*, Elena Woods-sopranorekin.

2-gn. egunean *Kosice-ko* Orkesta berak *Beethoven-en* 9.^a Sinfonia. 8-gn. egunean Paris-ko *Ballet Compagnie Russillo* delakoak. *Consagración de la Primavera* (Stravinsky), Koreografia Joseph Russillo. GAMES —*Liszt* eta *Beethoven-en* Obrak— 9gn.ean, tenore berean, Ballet berak azalduko du *Gluck-en* ORFEO. 14-gn.ean KAI WINDING QUARTET-en YAZZ-emanaldia; BATERIA-Llacer. 15-16-gn.etan, LUCNICA-ko *Ballet-FOLKLORE Nacional*; Solistak Oravkova-Kotlarik.

22-gn.ean ZILINA-ko Ganbara-Orkesta eta Bratislava-ko Korala. Holasek, buruzagi. 29-30 egunean, *Dibak-Bach-en* Obrak eta Mozart-en *Misa de la Coronación* delakoa.

NURIA ESPERT Teatro taldeak EURIPIDES-en MEDEA Tragedia bota du.

* * *

K. ECHENAGUSIA-REN ANTOLOGIA BERRI BAT

Berriki agertu da —IPARRALDE-ko *Euskal idazleak* izenburuarekin Antologia xarmagarri bat, idazle ospetsu horrek osatua. 237 orrialdeko liburu aberatsa; bere euskara eder eta naturala, denak aise irakurriko eta autore horietan ongi ikasiko euskara, yostaketan bezala. Banderizoen Kanta zaharretik asten da; zati ederrenak dudarik gabe; orduko *Berterretxe*, *Atarratzeko*, *Maitia nun zira*, *Agota*, kantore horien sena eta bihotzondoa nekez arkituko modernoetan.

Berdin erran dezakegu aldi hartako, *Dechepare*, *Etxeberri biak*. *Oihenart*, *Axular* eta *Elissanburu-taz*; merezi duen bezala, balio du irakurtzea.

A. I.

«SALETXE»

JOKIN OTAEGI

Han zegoen gizona, kutxatxo apaina zizelatzan, atera nahi zuen irudia alabak irudikatutako koaderno batetik jasoz. Bapatean, gizon sentibera eta ñabardurazale baten aurrean zaudela somatzen duzu. Ederraren sena duenaren aurrean, alegia.

Martin Ugarte Azurmendi, «Saletxe», 1916.eko otsailak 14 Le-gazpiko Teileriaten jaio zen. Gaztaroa artzantzan eraman zuen. Gero, Teileriar-teko «Saletxe» baserrian nekazal lanetara, eta az-ken berrogei urteotan baserriko lanak eta PESA lantegi handi-koak bildu ditu. Duela gutxi, lantegitik atsedena hartua du.

Experientzi aberatsa beraz. Eta «Saletxe» artzain, baserritar eta langile izanik ogibidez, barruko deiaz idazle da, artista da.

Bere txiki garaitan bazen nonbait Brinkolan apaiz bat ume ta gaztetxoak egunero gutxienez ordubeteko irakurtze eta idazte lanetara bultzatzen zituena. Eta hara non, gure Martinek hura jaso. Eta bertan iraun.

«Salatxek» lehengo mundua dakargu batez ere gogora. Joa-naren lainopean galtzen ari zaiguna: hitzak, ohiturak, lanak eta beharrak. Nahiz olerki eran nahiz hitz lauz idazten du. Aita Onaindiak Zornotzan eratzen dituen sariketetan behin eta be-rriz saritua izan da. Hala ere, orain arte ezer gutxi dauka publi-katurik.

Atsegin zaio «Saletxeri» poesia. Bere olerki lanak 200 foliotik gora harrapatzen dute:

«Aizkorri. Artzain poema». 1962an Larrean saritua. Poema luzea.

«Belaun giroen olerki ixilla». 1964an saritua.

«Itxas-poema». 1970ean saritua.

«Bizitzaren borroka; gazte-giroko 16 kantu». 1975ean saritua.

«Lana kantu-gai» 1977an saritua.

«Eguberri irudiak».

«Osterongoko olerkiak».

Nola idazten du «Saletxek»? «Esku-langille apala» izenburu duen olerkitik, hara emen lehenengo ahapaldia:

*«Esku azalak lodi eta latz arpegi zimur xurtua,
egunan buru ordu luzetan izerdi bitsez urtua.*

Lanaren nekez

t'abegi otzez

damakik bizitz mindua.

Arrazoi barik gallen artuta begi birekin zaitua.

Ugaritasun geiegin ordez

irabazpide neurtua,

burruka gogor menderagaitza, bizi bearrak sortua;

jaio intzandik diraun artean lanak gain-azpi artua...

Ogi zati bat etxera naiez

abil langille zaildua...!»

«Saletxek» liburu bat du argitaratua: «ON EGIÑAREN OBA-RIA». Itxaropenak «Kuliska Sorta» barnean 75. zenbakiz. Izenburuaren azpian hau dakar: «*Arriantxo sasi-medikuaren bizi-moldez, nobela tajura tolestua (1821-1909)*». Hitz lauz, jakina. Eta argi dago, nobela honen pertsonaia historikoa da, «Arriantxo», Beasaingo Arriaran (hemendik «Arriantxo») jaio eta Legazpiko Zabaleta baserrira ezkondu zenaren semea. «Arriantxo» honen oroitzapena bereziki bizirik gelditu zen Legazpi inguruan, batez ere bere sasi-mediku ibilerengatik.

Liburu honen balioa zertan datza?

— Garai hartan oso ezaguna izan zen norbaiten aztarnak jasotzean. Gure artean horrelako lanik gutxiegi egiten da.

— Orduko ohiturak, bidea, ibilerak onderongoei ematean: ikazkin lanak, meategikoak, baserriko gora beherak, sasi-meditzako ibilera bitxiak...

— Josten duen hizkuntzaren balioan. Eta hemen hiru puntu aipatu nahi ditut bereziki:

1. Aditz trinkoaren erabilera. Laguntzaileaz beste, ondoko hauen adizkiak jaso ditut. Gehiago ere izango dira noski: eduki, egon, egokitu, ekarri, eman, eragin, eraman, eritzi, eroan, etorri, ibili, iraun, iruditu, jakin, jardun, joan...

2. Hitz bikoteen aberastasuna. Erdialdeko lau ataletan dakartzan agirikoenak bilduz, hara hemen zerrenda bat: alboz-albo, aldian-aldiri, aiko-maiko, arin-arin, aurrez-aurre, autu-mautu, bakar-bakarrik, basoz-baso, bat-batean, batik-bat, batekoz-beste, bat-bateko, bat-besteekana, bat-banaka, bakar-bakarrik, bana-binaka, bana-banaka, barra-barra, ber-bertara, ber-berak, begi-begiraino, bixkor-bixkor, doi-doi, erdi-purdi, erdiz-erdi, gar-gar, gainik-gain, goi-beheak, goiz-goizetik, goiz-goizetiko, gora-behera, gora-beherako, guzti-guztia, ibil-zebilen, igo-jaitsian, itxu-itxuan, izpi-mizpiak, jira-bihurka, jira-biraka, jira-biran, jira-biraz, lehenik-lehen, moko-mokoan, mordo-mordo, nola-hala, noiz-beinka, noizetik-noizera, nola-hala, non-nora, onez-on, orpoz-orpo, oso-soa, osta-osta, sasoi-sasoiko, txitxi-potxo, txitxi-potxoki, tarte-marteka, tarte-martekako, txuri-beltz, zena-zela, zerren-arren, zertan-hartan, hari-harian, hara-hona, hor-hemen...

3. «Saletxeren» sentiberatasun eta hitz joskera poetikoa. Gaurko nobelak beste era batetara eraiki beharko du bere giro poetikoa eta ederra. Behar bada. Baina «Saletxerekin» gaude, eta hara «Saletxek» nola josten dituen hitzak eta sentipenak:

«Etzuten goiz-giro argia. Gaztelazeak sortaldera bilduez zaroen laino matasa lodiak galerazten bai zioten aitu bide zen illargi laurdenkiari, eta moltso bakoitzaren egaletan margo gorrixtaz uztai meea baino etzen nabari, edo-ta, iñoiz-bein, izarren aldaerak uzten zituzten ixuski antzo, txingar zirrarak goi zabal-dian...»

«Agure begi gorria ere mai ertzean exeria zegoen. Ixillik eta bildurti gisa. Ez zirudien arek atsoa bezin tzirtzil, itzerdi baka-
rrik ere etzuen zinzurretik atera. Jan bearrekoak jan ondoren,
azkazel bete ke-orri pipa gilborrean sartu ta sutu zuenean, su-
pazterrean kako eginaz aldian-aldian illintiei aize emanaz ke-
moltsoka irentsi ta bota, eten gabeko eztul legorren aize larriz
okotza dardari jartzen ziolarik».

Bizpairu ohar, amaitzeko:

• Ta bata: Idazle eta hiztun onak ekinean sortzen dira. Gi-
roa. bultzada, taldea behar du bai batak eta bai besteak. Euskal-
duntze eta Alfabetatze lanak non du gora aldeko muga?

• Bigarren: «Saletxe» ulerkaitza? Ala gure euskara erabat
eroria? Batuaren aurka itxu-itxuan dabilen gutarteko zenbaitek
hobe luke «Saletxe» bat batean ulertzeko lain euskara baleki.
Eta alde gabiltzanok, Martin eta antzekoen joskera harrapatzea
beharko dugu azkenbatez helburu. Aitortuz hala ere, «Saletxe-
ren» lanean badela zalantza bat baino gehiago.

• Hirugarrenez: «Saletxek» lantegitik ondo merezitako atse-
dena hartua du. Badakit idazte lanari gogor ekin diola. Jarrai
dezala denon onerako.

BIDASOTAR MINISTRO OSPETSUA

A. APAT-ECHEBARNE

Leku hontarat ekartzen dugu Jerónimo UZTARIZ doneztebearra. Hau izan zen euskal ministroen artean ospetsuena. Bere bizi geyena Flandes eta atzerrian pasatu zuen. Donezteben, 1670-an sortua, gazterik Flandesera pasatu zen Armadan sarturik 10 urteetako; geroago Sizilian egon zen 6 urtez, hango gobernariaren idazkari bezala. Madrilen *Secretario de Indias* izendatua izan zen, eta hor *Goieneche* bere erritarrarekin ar-emanetan sartu.

Baina bere osperik aundiena, *Theórica y práctica del Comercio y Marina*, bere liburuarekin irabazi zuen; arrotzen artean edatua eta Espainian persegitua izana. Bere semea ere *Secretario de Estado* izanak, argitaratu zuen liburua arrakesta aundia bilduz aldi huntan.

Frantzes, italiano eta ingles edizioneak izan zituen. Ingles ekonomi-lari jakitun HAMILTON-ek kritika zorrotz bat azaldu zuen. *The mercantilism of Gerónimo de UZTARIZ, a reexamination*. Oraindik gaur egunean Ullastres Ministro izanak publikatu izan du erdaraz Madrilen (1948).

VOLTAIRE famatuak ere erran zuen doneztebearraz bere *ESSAI sur les mœurs et l'esprit des nations* liburuan... «*Le célèbre USTARIS, homme d'Etat qui écrivait en 1723 pour le bien de son Pays*». Ez ditugu hemen epaituko euskaldun Ministroaren Merkatalgo-teoriak; sar arazi nai zituen COLBERT ministroaren ideiak, merkatuak edatuaz eta —*primeras materias*— merkatueketan bilakatuz. Orduzgeroztik Ekonomiako legeak zuzentasun aundirik gabe Ekonomia politikan sartu dira, Erresumako kutzak untzurrez bete naiez.

Ogei urtez European barrena ibili zen eta bere liburuan kon-
datzen du Holandan eta Ingoterran ikusi zuena, bereziki hango
merkatalgo aurreratua; Franziako COLBERT argi hura zeukan
gogoko. Liburuan Espainiako zergaen politika, gogor kritikatu
du; eta Townsend britanikoak eta COXE-k (*L'Espagne sous les
rois de la maison de Bourbon* delakoan) aunitz laudatu zuten
gure bidasotarra.

Uztariz-tar hauek, Vertiz, Mexicon, Cadiz-en kokatuak zeu-
denak, Jauregui Chile-ko miserregea eta beste nafar asko PEÑA-
FLORIDA-ren BASCONGADA Elkarteko Partalierrak ziran, ho-
rien kultur egitaten aldekoak; Juan Bautista *Goizueta*, Compañía
de CARACAS ospetsuaren buruzagia izan zen, *Iturriria*, Erratzu-
ko semea, artezkari nagusia eta *Gaston de IRIARTE*, erratzuarra
ere, COMPAÑIA bereko gidari iruak.

Azken hunek Erratzun eraiko zuen bi dorretako IRIARTEA
jauregia; Gaston beronek Iruritako ETXEBERRIA jauregia ere,
bai eta Uztariztarrek *Erreparatze*-koa; iruak tankera-itxura be-
rekoak dira. Gaston de IRIARTE hau ARMADA de Indias dela-
ko agintari izan zen eta mende huntan, politikan sartua ikusia
izan da, liberal alderdian.

XVIII gn. mendean eta geroago ere, lau Probinziak elkarren
artean bilduago zeuden, euskara ere lauetan aise edatuago ze-
goen, ESPOZ y MINA-k bere MEMORIAS liburuan dion bezala, In-
dependencia edo frantzeste gudualdiari buruz... «Los guipuzcoa-
nos, vizcaínos y alaveses, que en el interés de derechos y naciona-
lidad, siempre han marchado unidos con los navarros, no podían
en esta guerra dejar de adoptar el mismo partido que éstos»
(Karlista gudualdian gauza bera gertatu zen. ESPOZ Y MINA
euskalduna zen, ez euskalzalea).

Felipe IV gn. mendean Erresumaren aferak yudu-portugese-
keramaten; Felipe V. gn. enean berriz Goyeneche, Muzquiz baz-
tandarrenetan; XVI gn. ean, Idiakez eta beste giputz izan ziren
Carlos V eta Felipe II erregen Ministro eta idazkari. Orduko da
farregin-garri kobla hura... «Carlos V.-ren baratzan / Akerrak
ezpatadantzan».

PAUL LAXALT, U.S.A.-KO PERTSONAYA

A. IRIGARAY

Nehurriz gaiñeko REAGAN-en garaipen garbia erdiesten ge-
yen lagundu dutenen artean, Paul LAXALT daukagu (garbiago
Latsalde); NEVADA Estaduan sortua eta euskaldunen semea. ZI-
BERO etorkikoa, aita etama ziberotar jatorren (Artzainen) se-
mea; REAGAN autespen borobilen garaile denak, bere lagunzale
mamien artean, urbilenetarik bat LAXALT gure erritarra dugu.

Lehenago ere bigarren gobernadore tokia irabazi zuen bota-
zietan NEVADA Estaduan; agintari esperienziak beraz badau-
ka Laxaltek. Hunen anaya Robert hemen ezagutu ginuen, Doni-
bane Garazin egon zelako bakanzetan eta berak emanik (Idazle
baita) irakurri izan dugu Sweet promised land dalako liburua,
euskaldun artzainen peripeziak kondatzen dituen.

Gure erritar Paul LAXALTen kondizione preziatu bat era-
kutsi izan omen du, bigarren gobernari bezala agindu duenean
NEVADAn; beure Partidokoak eztuela beinere beste partidoetarik
obetsi-preferitu, zuzenaren eta justiziaren arabera baizik; alder-
dien diferenziarik batere egin gabe. Hola goratu izan du U.S.A.-n
agintari euskaldun baten izen ona eta zuhurtasuna. Beste mundu
huntako euskaldun agintariak ere, halaxe nai genituzke hemen,
eguna nahasi hauetan.

* * *

BELLAS-ARTES MUSEKO ERAKUSKETA AUNDIA

Joan den illabete batez Bilbaoko Museo horretan ideki da, Euskalerrri-ko Pintore-artisten Erakusketa sonatu bat, orai ehun urtetik oraindanoakoak besarkatzen dituen. 19 Siletan berezia dago Erakusketa hori; guk xoilik nagusienak aipatuko ditugu. Joan den mendeko *Naturalismo* aldikoan, Xavier CIGA nafar artista. 98-gn urte sonatukoak; Ricardo BAROJA, Gustavo de MAEZTU eta Zuloaga.

Impresionismo tankeran, besten artean sartzen dira, Dario de REGOYOS famatua, Jose SALIS irundarra, Pablo URANGA, eta Jose M. UCELAY busturiarra zena. *Manierismo* Tankeran sartzen dira Jose ARRUE, ZUBIAURRE anayak eta Cabanas-Oteiza. *Post-impresionismo* Tankeran ikus daitezke Erakusketa huntan Jesus BASSIANO nafarra, Bienabe ARTIA bidasotarra, Juan de Echebarria, Tellaeché eta Ascensio MARTIARENA.

Kubismo deitzen dute Programan, bainan ene iduriko Aurelio ARTETA, Gaspar MONTES-ITURRIOZ-ek ezdute kubismoren itxurarik, *naturalismoa* baizik.

A. I.

JUAN JOSE MOGELEN MENDEURRENA

JUAN SAN MARTIN

Juan Jose Mogel eta Elgezabalen mendeurrenaren ospaketa hautatu zuen Euskaltzaindiak dialektologiazko lehen ikastaroak egiteko. Eta, izatekotan ere, non hobeto Bizkai-Gipuzkoako euskalkien muga eta Juan Jose Mogelen sorterri den Deban baino?

Justo Garatek *La época de P. Astarloa y J. A. Mogel* deritzan liburuan, Juan Joserren jaioterrria non zen argi utzi bazuen ere, gure artean erabaki ahal direnak ere eztabaidatzeko joera dugunez, zenbaitek zalantzan jarri izan dute mundura etorri zen herria. Honegatik, L. Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan zalantza horren berri ematen digu. Baina, agerriak diotenez, gaur egun ez dugu zalantzan jartzerik, Juan José Deban jaio zen 1781eko apirilaren 26an.

Bere aita, aitona bezala, medikua zen eta zenbait herritan bete zuen bere profesioa. Beraz, Deban egin zituen urteetakoa dugu Juan Jose idazlearen sorrera.

Juan Jose, *Peru Abarka* liburu ospetsua idatzi zuen Juan Antonioaren iloba zen eta Bizentaren neba. Bizenta ordean, urte bete gazteagoa, Azkoitin sortua zen.

Neba-arrebok idazle ziren; euskal idazle ziren aldetik osabaren irakaskintzetatik ikasiak. Bizentak Esoporen alegiak euskaratu zituen eta *Ipui onak* izenburuz argitaratu (1804); horrez gainera zenbait Gabon kanta ere idatzi zituen. Baina, gaurko hontan Juan Joserren berriak soilki emango ditugu.

Bere osaba bezala, apaiz egin zen eta arbasoen Markina-Xemeinen eman zituen urterik gehienak, 1811. urtetik 1849ko uztailaren 20an hil arte.

Goi-mailako ikasketak, apaiz egin ondoren noski, Oñatiko Unibertsitatean osatu zituen. Osabaren antzera, jakintzaz aberats zen eta ondasunez pobre. Euskaltzale suharra zen. Antza denez, sermoi asko idatzi zituen euskaraz apaiz gazteagoei emateko. hauek sermoilaritzara zaletzeko, eta horregatik bere lanik gehientsuena barreiatu gelditu zen, inprimaturik gabe. Inprimaturakoen artean hiru liburu ezagutzen ditugu. Hauetatik bat bere izen gabe eta beste bat hil geroztik argitaratua. Hiru liburuko Markina inguruko bizkaieraz idatziak daude.

Lehenengoa, *Baserritar nekezaleentzako eskolia*, Bilbon 1816an argitaratua eta geroztik beste zenbait argitaraldi izan zituen. Liburu hau, Gregorio Arruek gipuzkeraz ipini zuen eta Tolosan argitaratu 1878an. Guraso baten nekazari bizitza adierazten du, eleberri gisara idatzia. Aita bat eredu dela seme-alabekin elkarriketan jarriz. Garaiko semea zen eta gainera apaiza, beraz, gaurko pentsaeratik aski urruti aurkitzen badugu ere, orduko pentsa-molde eta biziera ezagutzeko irakurgai garrantzitsua deritzagu.

Bigarren liburua, *Egunoroko lan on eta erreguak* (1820), hau ere zenbait aldiz argitaratua, predikuz ari da bertan, eta lehen liburuko euskara aberatsa badu ere, bigarrenean oraindik aberatsagoa du. Hizkuntza joriaz gainera, esaldiz ondo hornitua eta hitzez ta aditez ugaria. Frai Bartolomereren lanekin batean bizkaierazko literaturan goren mailetan jartzekoa dugu.

Hirugarrena, *Maiatz-illerako berba-aldiak* (1885) urte bete lehenago gipuzkeraz argitaratua izan zen, Tolosan bertan. Maiaztzean eguneroko hitzaldigintzarako gertatua da, eta euskarazko idazkera bera jarraitzen du.

Juan Jose, euskaltzale borrokatuaz gainera foruzalea zen eta Karlisten gerratean Bizkaiko diputatu edo piel izendatua izan zen. Honegatik, gerra bukatzean deserritua izan zen.

Osaba hil geroztik *Peru Abarka*-ren esku-ekribua berak gordetzen zuen eta bere eskuz joan zen Aita Untzueta frantziskotarra. Honek, Zarautzko komentuan utzi zuen eta han gordetzen da oraindik. Amanuenseak kopiaturik zenbait esku-ekribu badira, baina 1881eko lehen argitalpena Zarautzotik egina da.

Osabaren irakaspen ona nabarmen agertzen da ilobagan eta bere euskarak ez dio zorrik, lehen irakatsia eta bidea markatzearena baizik.

AKELARRA-REN IPUIÑA

A. APAT-ECHEBARNE

Zugarramurdin bada leize bat, lau ateka dituena... Hor bada esaera bat, horko leizean bizi zirala lamiñak. Emen ere, esaunden arabera lamiña bat erdiko zegoela, auzoko LEKUBERRI baserriko etxekoandreari dei egin omen zion emagintzarako. Santimamiñeko jentillak bezala. Aurra jaio ondoren, lamiñak urrezko kiloa eta ardatza eman omen ziotzan saritzat emaginari, esanaz etxerakoan etzezala gibelerat begiratu. Emagiña irten omen zan eta bidean zijoala, arrabots aundiak gibelean entzuten; eta bere etxera iritxi zelarik, zango bat sartzean, bestea sartu gabe begiratu atzealdera; bere gauzen erdiak kendu omen ziozkaten!

Esaera bada Akelarre-zelaian sorgiñak beren dantzak eta billerak erabiltzen zituztela, eta leizean berriz debruak, akerraren idurian agertu eta sorgiñei gaiztakeriak irakasten.

Urtean bein —erriko jaien 4 gn. egunean, Dagonilla-18—, Sorginen lezean Zugarramurdiko zaarrak biltzen dira. Goizean iltzen dituzte leize ortan aari bat edo bi, eta bertan suegin ta erre. Eguerdian biltzen dira an zaarrak eta euren artean banatzen aragi errea eta jaten ogitardoakin. Gero elkarri eskuak eman ta, lerro luzean joaten dira erriko apezetxearen aurrera. An elkarrekin dantza egin eta ondoren erriko enparantzara juan eta bertan sokadantza atera ta animatzen da jai.

Horko esaundak dionez, arpe ontan ETSIAK Eskola omen zuan eta AXULAR or eskolatua omen.

* * *

ENCICLOPEDIA ILUSTRADA

623 orrialdeko Enziklopedia argitaratu du *Auñemendiko* Buruzagiak (*Enc. ilustrada del P. Vasco*). Bertan azaltzen ditu Euskalerriko gertakari sonatuenak, Erromako ondamendiaren ondotik (V-gn. mendea) 800 gn. urteraino. Autore zaaren dokumentuen fotoak sartzen ditu Estornesek latinez eta gaztelaniaz; (zenbait, euskal autoreek publikatuak lehenago; *Campion*, *Lacarra*, *Carok...*) bai eta *Astronomo*, *Eginhardt*, *Hidatius*, *Isidoro de Sevilla*, *Rodrigo Ximen. de Radak*, etc.

Chanson de Roland edatu zen mende bat geroago, sarrazenoak pintatuz garaile bezala, euskaldunak ixilduz. Karloman joan omen zen Zaragozara, mahometanoek deiturik, baiña gero *Wali-ak* ez alde agertu, eta Karloman aserre itzuli, hango buruzagi *Suleiman-el-Arabi* bahituz. Beraz, bidaya hori bi gisetara kondatzen da eta autoreak dion... «*el asunto está claro*»... illun gelditzen da gure ustez. Iruñia konkistatzen du Karlomanek, horko sarrazenoen aurka (eta euskaldunak?...) Iruñeko arresiak desegiten du Iparraldera itzultzean... eta gero Ibañetan Karlosen Armadan gibelaldea desegiten dute eta xahutzen horko euskaldunek. Berri hauek ezagunak dira.

A. APAT-ECHEBARNE

ALEX. AZNAR

LIBURUAK

ALEX AZKUE. Poemak

Lur editoriala. Ustela saila.

Inprimaketa: Itxaropena, S. A. - Zarautz.

Zabalkundea: Hordago. Donostia, 1981.

(19,5 x 11 zm., 74 orr.)

Txoko hertsu batean arnasa hartzen jarraitzen baldin badugu, denborarekin arnasa beraren aire pozoitua irentsiatzeko beharra dugu. Horregatik, haize berritzea nahitaezkoa dugu bizia iraunarazteko. Haregatik, literaturak, berrikuntzak behar baditu, honen barnean poesiaren alorrak eten gabeko joraketak gidaturik eman beharrezkoak ditu berari dagozkion urratsak. Zer esanik ere ez liburu batek, edozein liburuk, irakurgarria behar duela izan.

Laugarren apalean

artozko usoak,

irria janaz okina,

poema osatu du herbesteko zerri batek.

Amodioa latza da, askan etzanik, iloben aurrean,

ohea erre dioten ijituarentzat.

Gurdi zaharretan zenbat ilundura

ezkutatu ohi den kandelen atzean!

eta ipuiak haizeak eramaten ditu

suaren inguruan,

ijitoen ohe nigartira.

Holako zati batek eragiten duen zirrara aski da liburu baten mamian dastatzen hasteko.

Hala ere, batzuontzat hori ere ezta aski. Une bateko itxurak ez dute liburu oso bat betetzen. Baina beste munduko mezurik ere ez zaie eskatu behar liburueri. Egileak berak ere beti ez du betetzen gogozkoena. Poesian bestelakorik ere bada.

Euskarazko poesiak hurbildik jarraitzea guztatzen zait. Haueri buruzko aburuak ere maizago eman behar nituzke, eta emango nituzke nere buruagan jartzen ditudan bi eragozpene-gatik ez balitz. Batetik etzait gogoko inor mintzerik eta bestetik gazte berriek dakarten mezua behar bezala ez ulertzeko arris-kuagatik.

Poesia berez da beste edozein jenero baino aldakorragoa eta belaunaldi bakoitzak berekin dakar era berria. Inoiz, bat baino gehiago ere bai. Poesiak, artea den aldetik, eztu mugarik; sor- ketara begira egon beharra du beti. Era berrituz, naiz gaiez edo naiz formaz.

Azken boladan argitaratu diren liburuetatik, hots handiz, izen asko erabili dira; baina, egia esan, gehienak eskuetatik erori zaiz- kit. Behar bada, bata bestearen ondorean hobetuak, elkarren ekarmenez onduak, baina berezitasunik guti eta aspergarriak Hala iduri zaizkit, eta poesia berriaz ari naiz, saritutakoetarik zenbait zaku berean sartuaz. Aitorpen honekin gehien sentitzen duena ni neu naiz, jenero hau hain atsegingarri zaidanez.

Azalpen hau beharrezko iduritu zait gaur nakarren liburu berriaren eritzia ematen hasi aurretik.

Zorionez, gehiengoan topiko aspergarri eta erabiliak gasta- ztera datozenetatik nabarmenak dira Alex Azkueren *Poemak*.

Poeta gazte berriaren liburuak *Poemak* du izenburutzat, Us- tela sailak oraintsu argitaratua da Koldo Izagirreraren sarrerazko hitzekin. Hitz laburrak eta interesgarriak, integrista xamarra iduritu bazait ere. Integrismoak ez baitu ez adinik, ez kolorerik, baina bai desesperantzaren trajikotasuna. Gure herriaren tipi- tasunean, ordua bai dugu konturatzeko talde batzuen presupues- toetan ezinezkoa dela herri osoaren etorkizuna hipotekatzea. Zen- tzuzkoa baita indarrak neurtzea ere. Hala ere, ongi dio: kultur galera, irabazpenik eza dela.

Bestalde, esan beharra dago, gure literaturan ez dagoela mando hilik. Izatekotan ere, gizarteak berez izaten dituen gora-beherak eta krisi aldiak baizik. Gehiago edo gutiago, gizarte egoeraren aldaketak berez dakarten sorketarako krisiak. Behar bada, berrikuntza baten aurrez aurre gaudelako. Baina arbaso-egandiko ardatz nagusiak bere biran inguratzen gaitu. Honen agiria, Alex Azkueren poemagintza bera dugu. Lehenago alorrek landu ez balira, orain ez genuen holako agerpenik.

*Gizabanakak ezkerraldera begiratzean
elurtez nabarra ikusten du,
eskubialdera begiratzean,
uda udazken bihurtzen zaio,
erdialdera begiratzean,
dena zuri ikusten du
eta ni,
itsutua nago.*

Alexi esango nioke, ez izutzeko bakardadeaz. Bere egunoroko lagun bakarrak esaten dionean: askatasuna ere berriz aurkitu behar duela, lurpean edo lurgainean, ez dezala ikus dena zuri edo dena beltz. Bizitza berak arrosa kolorerik ere badu eta bere nektarra xurgatuz ezti itzul daiteke.

Mundu bakarti honetan, bakartasunaren lagun izaten bukatuko duela somatzen du Alex Azkuek. Eta, fenomeno hori poetak bere baitan duena da. Ez izan kezkarik, poetarentzat ez baita bakardadea bezalako lagunik. Alexek, maite dituen poeteri begiratzea besterik ez du. Guziak aurkitu ziren bakardadean. Humanistarik handienak izanarren, herriak eta gizonak beste inork ez haina maitatuarren, bakardadera kondenatuak daude egiazko poetak, berengan mezu berririk baldin badute. Ez dio inporta mezuaren eragina norainokoa den; poetaren emaitza neurkaitza denez. Nabarmenena eta garrantzitsuena, tipi naiz handi, emaitza soila denez.

Alex Azkueren *Poemak* deritzan liburu hontan, hizkuntzazko irudi berriak datoz, erarik txanbelinenean oso ongi ekarriak. Harrigarria da, poesiak beharrezko duen hizkuntzazko azal hori, gazte berri batek, hain ongi eramatea. Gure poesiaren iturririk

gardenetatik jaso duen doaian bat dela esango nuke. Erabiltzen dituen zenbait klixetatik nabari da irakurria dena.

Hamalagarren orrialdean errefrau gisako esaldiak eta hamazortzigarrenean bere eskubideaz jabetza ausart eramana da. Egun triste batez Gotzoni eskainiak, 27. orrialdetik 38. era doazenak, bereziki azken laukikoak, liburuko onenetakoak dira.

Gure herriko poeta guziek bezala sufritzen du Alexek. Herriaren, tipiaren garez, gure herrienganako maitasuna dutenek, sufritu beharra dute.

*Gure hartza sakona dugu, luzea,
kolore dotorez jantzi zuten unibertsoaren urteburuan,
gu, aldiz, hezetasunez jantzi gaitu.
lur emankor bihurtu gintuen lege zaharren aurrean,
haurrek kikak haziak dauzkatenean,
hondamendia dator gugana,
lur lehor eta antzu bihurtuko gaitu,
lurra asekaitez eginen da,
gure hatsek jabeak galduko dituzte.*

Zu hutsa zatzaizkigu.

Berrogeta seigarren orrialdekoa irakurtzeaz, askok egin genezake poetarekin burua bat eta itsu gaudela aitortu. Baina, humanismoaren goimailak hartzen ditu berrogeta hamabigarrenean.

Ez dut uste Alex Baltasar Gracián-en *El Criticón*-eko «Crisis» aldiak irakurri dituenik, baina honek bezain ongi ikasi du erdi etsipendurik dagoenaren humanismo suharra kontraesanen bidez agertzen.

Zentzugabekoaren eraz, absurduzko literatur mota ere ongi erabiltzen daki, 55. orrialdetik aurrera, baina bereziki 63.etik 67.era.

Poemak deritzan liburu hau, bestalde, marrazki adierazko-
rez ongi jantzia dator. Ez dakit nork eginak diren dibujook, baina ez nintzake harrituko poeta berarenak balira, zeren hain egoki bai datoz liburuaren orrialdeetan poesiari itsatsiz.

Ez dakit nor denik ere Alex Azkue. Ezezaguna zait, poematik aparte. Liburuan agertzen duen gogoia eta bere izenak soilik ezagutzen ditut. Eta ez dut madarikatzerik —hitz jokoetan erriko banaiz ere— berak azken gutunean izenik ez dakien ezezaguna madarikatzen duen bezala, ez. Besterik esango nuke, poesia gardena maite duten euskaldunek irakur dezaten bere liburu hau. Eta, egileari gomendiorik ematekotan, jarrai dezala etsipenik onartu gabe, bere egoskortasun eta kemenak, zentzurik onenean, irauten duen artean itxaropen barri bat pizten delako euskaldunon Parnasoan. Krisia eta larrimina berriz, berezkoak ditu poeta sortzaileak, eta bere oinazea kulturaren osasungarri izaten da.

*Mundua katea da,
katearen anaia hertsia.
Altzairuak oldartzea alferrik da
lurra jango bagaitu.
Eta lurra nor jango duen
arbasoek lekiteke;
arbasoek damnatu gaituzte
eta gu bekatarien seme alabak besterik ez gara,
ez dugu asekortasuna ezagutzen,
goseak ez gaitu asetzen,
eta ahoak ez zaizkigu itxitzen.*

*Gure asaben urratsak azkarragoak balira
gu ez ginateteke.*

JUAN SAN MARTIN

IOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA

MANUAL DEVOTIONEZCOA

(Lehen zatia). Edizio kritikoa.

Patxi Altunak paratua.

Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia.

Ediciones Mensajero. 16,5 x 24 zm.,

Bilbo, 1981.

Berriki argitaratua da Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoa*-ren edizio kritikoa, Patxi Altunak paratua eta Euskararen lekukoak sailean argitaratua.

Duela bi urte sortu zuen Euskaltzaindiak Euskararen leku-koak deritzan saila, idazle zaharren edizio kritikoak argitaratzeko eta oraingo hau sail hortako hirugarren alea da. Lehena Joakin Lizarraga Elkanokoaren *Katexima*-z Joan Apezetxeak gertatua izan zen eta bigarrena Patxi Altuna berak Bernard Etxepareren poema liburuaz. Orain, hirugarrena, Etxeberriren liburuetarik baten erdia osatzen duena.

Hizkuntzaren aldetik, idazle zaharren artean, baliteke Etxeberri Ziburukoa onenetako bat izatea. Gainera, orduan ere baziren euskararen alde erdaraz idazten zutenek eta honegatik goraiatu zuen Klaberia apezak, gure Garibai eta Etxabez bur-latuz, «Ezen zirenaz geroztik eskaldunak hek biak, eskaraz behar zituzten egin bere historiak».

Etxeberriren lan guzietarik ez zaizkigu hiru liburu baizik gelditzen: *Manual devotioezkoa* (1627), *Noelak* (1631) eta *Elizara erabiltzeko liburu*a (1636).

Altuna euskaltzainak hitzaurrean dion bezala, oso gauza gutxi dakigu haren bizitzaz, antzineko euskal idazlerik gehienenez bezalaxe. Pabeko jesuiten ikastetxean estudiatu zuen. Oihenartek bezala, Unibertsitatean ere ikasia zen, Dotore izatera irixteraino.

Axular eta Gillentena izan ziren apezpikuarentzat *Manual debotionezkoa*-ren esaminatzaile, eta Gillentenak sarreran jartzen dizkion hitzetatik dakigu egileak anai medikua zuela. Hirigoytiren hitzetatik orde, harrigarria baderitzagu ere, teologiaz arduratu eta euskarazko bertsogintzaz aritzea ez ezik, itsasontzigin-tzaz ere arduratzen zela ohartuko gara:

*Zor handian daude zuri gure itsastariak
egin dizkiezularik esku antzez ontziak.*

Patxi Altunak bigarren argitalpena erabili du traskrizioetarako, 1669an argitaratua. Hitzaurre luze baten ematen ditu egilearen eta obraren xehetasunak lehenik eta mintzairazko bereizkuntzak gero. Ondorean, orriz orri, testu jatorra bere grafia zaharrez ezker aldean eta oraingo grafiaz eskubian; orrialdeen azpikaldean lerroz lerro zenbakituz jartzen ditu oharrak.

Joanes Etxeberriz ematen dituen berririk gehienak Oihenartegandik hartuak dira, bereziki oraintsura arte ezagutzen ez genuen *L'Art Poétique Basque* (1665ean idatzia eta P. Lafittek 1967an argitaratua) deritzan liburuxkatik. Izan ere, liburu hau bertsoz idatzia dago, egileak irakurtzaileari egiten dizkion abisuzko hitzetan jartzen duenez:

*Giristinoa, eman diat eskarazko bersutan
katholiko manuala neure asti ordutan,
ikhusirik, nola bainaiz iaiatzez eskalduna,
gure nazioa dela koplamaite duena.
Hartarokotz iakiara diat bersuz ezarri
lasterrago ikhas eta maizago aipagarri.*

«Gure nazioa» ere lasai erabiltzen du Etxeberrik, orain zenbait ministro eta J. Marias-entzat hala ez bada ere. Baina latinezko «natio»tik hartua bada eta lurralde batean sortutakoentzat erabili, zer arraio du ikustekorik filosofotxo batek. Hitzari erabilerak ematen dio zentzua eta sorleku bakoitzari zor zaio bere errespetua. Ia lau menderen buruan berriz ere errepikatu beharrean gaude, ez dakienak jakin dezan:

*Erregeak behar ditu defendatu jendeak,
hizkuntza batekoak hain ungi nola berzeak.*

Edizio kritiko honen 55. orrialdean irakur dezakegunez.

Baina, jakiterik komeni ez zaienen leloa utz dezagun, zeren gaitz txarra bai da bista ona duenaren ikusi ezina; eta jarrai dezaioagun Euskararen lekukoak saileko hirugarren aleari.

Oihenartek Etxeberriren poesiagintzari buruz esanak xehe-tasunez eta aburu onez aztertzen ditu Altunak liburuaren 9. orrialdetik. Hark eman zion balioa baino handiagoa ematen dio edizio hau paratu duenak eta arrazoiz esango digu: «Handia neurritz, handia balioz eta edukiz».

Manualaren lehen zatia bakarrik dator. Nahiko genuke guziasatu arte jarraituko balu. Hala espero dugu. Ez baita Etxeberriren lana lehen kolpean uste bezain lehorra. «*Kathechima*, du gaia; lehenaren bigarrenak, gizonaren azken finak (herioa, iuiamendua eta abar) kantatzen ditu. Horrenbestez irudi dakiok inori Etxeberriren liburua ezin aspergarriagoa datekeela, baina hala pentsaturik huts itzala egingo luke. Ez da inola ere tratadu antzu, lehorra; ez da ere egien eta sinesgaien azalpen elkor, aspergarria. Poesia dario zenbait aldetarik, batez ere lehen zatiaren bigarren parteari».

Laffiteren eritziz, «Eskualdunen bihotzetan ez luke sekulan hil behar».

Zer esanik ere ez horien hizkuntza eta literaturan erabiltzeko era ezagutu beharrezkoak direla eta edizio kritiko hauek on handia egingo diote gure hizkuntzari.

Etxeberri Ziburukoak Iainkoa bera hika tratatzen du. Beraz, ohitura hori ere noizbait galdu zen.

Behar bada, liburuko entretenigarriena, besteak beste, Aingeru eta Deabruaren arteko galde-ihardespentak dira, irudimenez beterik agertzen direlako. Inpernuko bazterrak eta bertako zigortze edo penak eta purgatorioko errenkurak adieraztean ezta laburrago gelditzen. Erliziozko literaturaren historiarako baliagarria izango da, baina gaur egun hizkuntzaren alderdiak gehiago ikutzen gaitu. Izan ere, filologia arrazoiak ekarri du aburuzko oharrez argitaratze hau.

Hala ere, berriz diot, garai haietako pentsaerak ezagutzeko oso interesgarria zaigu.

Oharrak, hiztegi eta gramatikazkoak, testu guzira haina badira. Bertan, pazientzia eta zehaztasuna, jakitateaz gainera, ongi erakusten dizkigu P. Altunak. Bijoazkio gure zorionak.

JUAN SAN MARTIN

LIBURU BERRIA

SEBERO ALTUBE ZENAREN BIZITZA

Biografia bat argitaratu da, Velez de Mendizabal aramaixorren eskutikakoa. Seber ALTUBE, euskalari jakituna eta euskalzaina izan zen, nahiz oraiko gaztek gutti ezagun.

Horrengatik dio autoreak, linguista haren erregelak eta idazkiak ikastea, lan baita-ezpadakoa da. Euskera-jakindurian, dozena guttien artean lehen lerroan dagoelarik Altube, are geyago.

Arrasaten sortu zen 1879 urtean eta Gerniken il 1963 gn. ean. Euskalariaz gaiñera, musikalaria eta idazlea izan zen, bai frantzesez ere, filosofia ukitzen duen liburuan bezala (*La fonction de la douleur*).

Bere lan askoren artean, ERDERISMOS, LA VIDA DEL EUSKERA, DE SINTAXIS EUSKERICA, EUSKEL ITZ BARRIXAK (hau izan zen Gernikako EUSKO IKASKUNTZAN esandako Itzaldia), CAMPION jaunaren omenez, MARI-JESIAK (Gernikako kantak), eta Notas sobre el, IXENDEGUI euzkotarra, de S. Arana, aipatuko ditugu.

SOCIEDAD Guipuzcoana de EDICIONES delakoaren, *Bascongada de A. del País* elkartean publikatu da Liburu hori 1979 urtean.

162 orrialdetan berri aunitz dakarra eta foto asko ere. Gernikako ERES-BATZA eta ABES-BATZA (Banda eta Orfeona)ren fundazailea eta Buruzagia izan zen, hala nola ELAI-ALAI dan-

tzari Taldearena, Segundo Olaeta adiskide izan zenarekin batean. Gernikako Alkatea izan zen eta gerla denboran Paben egondu, han ere lanean euskeraren inguruan. Gure jakintsuaren aurtzaroa dohakabea izan zen, bere aita gizon yite gogorrekoa izan zelako seme-alaba guztiendako.

Euskera jatorra eta errikoyaren aldekoa ere zen; Azkueri eskatu zion erderatiko itz zahar IZTEGI-an sar ditzala, hala nola Teknikako-ak greko eta latinetik, baiña AZKUEK etzion onartu. Urquijok kontatu zidan Euskalzaindian euskaldun bakarra zela, arrotz linguista jakitunak estudiantzen zituena; Vinson, Schuchardt, Hovelacque, Meillet. Irakurtzea merezi duen liburua.

A. IRIGARAY

ARANZADI ELKARTEAREN ALDIZKARIA

1980-urteko MUNIBE Aldizkaria agertu zen, eta bere lan interesgarrien artean hauek azalduko ditugu, guretako agian nagusienak. *Bibliografía de Jesús ELOSEGUI*, por Koro Mariezcurrena. Hainbeste liburu eta lanen artean, 65 baino gehiago, rezensioak aipatu gabe, xoilik dozaen erdi baten berri emango dugu... *Indice de los últimos Tomos (1930-1936) de la R.I.E.V. «Catálogo dolménico del P. Vasco»*, 7 nuevos dólmenes en Navarra, Juan Ignacio de Iztueta. Presondegiko egonaldiak, *Indice de EUSKO JAKINTZA*. B.S.B. de Amigos del País. ARAIZ-balleko Ipuñak, eta beste aunitz.

MUNIBeri jarraituz, *Estación megalítica de ADIKO-SOROA (NAVARRA)*, J. Miguel Larrañaga. *Pierre CHAVANEAU en Bergara*, Manuel LABORDE. La cárcel de Tolosa, Juan GARMENDIA, eta bereziki... *Euskalerriko leen gizakien eta Ireluen (Intxi-suen) bizilekeri buruz ikasgai eta esaundak*. BARANDIARAN Jose Miguel. Nahiz publikatu izanak, bariante hauek azalduko hemen. *LEZETXIKI-Kobaundi* hauek dira, *Mondragoi-Garagartza*, *Bostate mendi alboan dauden* bi Arpe. Hemen bizi izan dira *MUSTIER*-aroko gizakiak eta bai Lamiñak ere, omen.

Garagartzan diotenez... Horko motil gazte batek Kobaundin zear zijoala, leize atekan neskatilla eder bat ikusi omen zuan eta berarekin itzegin eta beragaz itsutu; baita biak ezkon itza (fedea) elkarri eman ere, baiñan leenik neskatxaren adina motillak asmatzekotan. Motillak auzoko andre zaar bati geldetu, ea Kobaundiko neskatilla ederrak zer adin ote zuan.

Andra ori, Kobaundi aldera juan, eta an, arpe aurrean, atekari atzealdea emanaz, makurtu eta, bere anka bien artetik bu-rua atzeruntz atera ta, arpeari begira jarri. Badator ango nes-

katxa eta, aurrean alako ikusgarria arkitzean, arriturik dio: «Nere biziko eun ta bost urte auetan ez det olakorik ikusi». Andrea bereala itzuli omen zan Korrionera eta motillari esan Kobaundin entzun zuana. Orduan neskatillaren adina azaltzen dio motillak berari, ustez eta ala eskontzen al zirala.

Baiñan motillaren amak dio semeari: «Begira leenik nolako oiñak dituen arpeko neskatilla orrek». Arpera juan eta motillak ikusten dizkio oiñak neskatxari eta gero amari dio: «Kobaundiko neskatxaren oiñak aatearenak bezalakoak dira»... Orduan amak: «Ori ezdek gizakia, lamiña baiño; orrekin ezin ezkontzen al aiz...» Motillari barruna arront belundu omen zitzaion eta gaixotu; baita laster ill ere. Arpeko lamiña KORRIONera gaubela egitera jexti omen zaneta, intxaurraren azaletik atera zuan maindire batekin bere maitearen oiña estali.

Illa elizkizunera eta ehortzera zeramakiela, lamiñak ere lagundu omen zion Garagartzako elizateraño. Andik bere arpera gero, negar eta negar.

A. I.

EL ENIGMA DE LOS BERONES

Agertu da Errioja-ko autore baten azken liburua —*El enigma de los Berones*—. Lehenago ere Alfredo GIL del RIOk argitaratu izan ditu beste liburu oso intresdunak, hala nola, *Historia y antiguas Leyendas* de la RIOJA, *Ecos de la RIOJA*, bereziki *La Rioja desde sus albores* eta *La RIOJA Corte de Reyes*. Horietan azaltzen ditu autoreak noiz-nundik sortu zen ERRIOJA (nik uste *Rioia zela* izen zaharra, ez *RIOXA*, Desojo erria, *Desoio* izan zen bezala); *El enigma...* liburu huntan berean daukagu... *el Alcalde de Oiacastro* iru aldiz idatzia.

Seguraski, «*Berones*» horiek Vascones direlakoen adar bat bezala bide ziren, zelta-kin nahasirik. Nafarroako Erresumarekin loturak izan zituen mende batez baino geyagotan, Garzia de Najera, nafar erregearen denboran (honek zeukan zaldi bat preziatua, OTSABURU izenekoa).

Gero, liburu hortan ikusten ditugu Santiagorako Bidea (El camino de Santiago) gertakariak, San Millan de la COGOLLA, bere marfil ederrekin.

Garzia de Najera erregeaz gaiñera, aipatzen dira, Sancho ABARKA eta Sancho Andia. Autoreak azpimarratzen ditu «Berones eta «Vascones» arteko loturak; hayen euskal etorkia. Hori dena Historia-n aldetik; etnografian aldetik oraindik geyago, lehenago ere hemen aipatu izan dudan bezala. Erriojako errien, tokien eta jendeen euskal izenak eremu guztian zabalduak daude, bereziki bere Iparraldean.

Linguistica de la antigua BERONIA kapituloan irakurtzen da Historiaz dakiguna, Haron, Ezcaray eta Oia-castro-n dokumentuz, Legez agindu zutela XII gn. mendean, OIACASTRO-koek euskaraz azaltzen aal zutela beren auzietako arrazoiak, Merino MORIAL-ek agindu nai zuenaren aurka.

Zenbait Croquis linguistico-tan utsen bat nabari daike (pag. 67), *galaicos*, nik uste *galos* behar duela, baiñan oro har liburu ikasgarria. 200 orrialdetan kapitulo hauek sartzen dira. Berones, Sus ciudades, Etimologías, Lingüística de Beronia, Brujería, Magia, Creencias y Leyendas, Arqueología, Ducado de Cantabria.

A. IRIGARAY

NAVARRA ECOLOGICA Y PAISAJISTICA

Izen huntako Liburu aberats bat argitaratu dute Elosegui, REDON, Perez OLLOk eta... Nafarroko Aurreztu-diru Kutzak lagundurik bizidunen foto ederrak dakartzi liburuak, hala nola toki ikusgarrienak, txori, arrain, landare, abere-piztien bizitokien edadurak eta zehetasunak; sinonimiak ere, beuren artean euskarazkoek utsegin gabe. Oraikotz ongi etorri xoilik erranen diotegu egilleeri, bai eta dibujalari artistari; baina agitz ornitua denez geroztik eta bestela ere, azalpen zehatzago bat merezi du.

A. I.

ANTZERKIA

HENRIK IBSEN

ANDERE ETXEA

(Et Dukkehjem)

JOSE AGIRREK euskaratua

I'KO EKITALDIA

AURRENEKO AGERRALDIA

Nora, Elena ta mutil bat. Gero Helmer

Zapia irikitzean txiliña entzuten da atzean. Elena, bakarrik trasteak txukuntzen ari zan ta eskubiko atea irikitzea azkar dijoa. Ordun sartzen da Nora, kaleko jantziz pakete batzuek eskuetan dituela. Ondoren mutil bat datorkio eguberri-zugaitz ta saski batekin. Norak, aopean kantari, eskubiko mai gañean uzten ditu paketeak. Mutillak Elenari ematen dizkio zugaitz ta saskia.

NORA.—Gorde zazu ondo eguberri-zugaitz ori, Elena. Aurrak ez dezatela ikusi, txukundu ta apaindu arte. (*Mutillari.*) Zenbat eman bear dizut?

MUTIL.—Bost txakur aundi. (*Iru pezta.*)

NORA.—(*Tori korona bat.*) Tori duro bat.

Mutilla agur egin ta dijoa. Norak atea ixten du. Beti ere irriparez sonbrerua ta abrigua erazten ditu. Gero patrikaratik xorroka bat almendra ateratzen du ta bi edo iru janez, atzeko ezkerreko atera dijoa anka-punttetan ta belarria entzuten jarririk.

—Ah! lan-gelan dago. (*Aopear kantari berriz ere eskubiko maira dijoa.*)

HELMER.—Nere larratxoria al da kantari?

NORA.—(*Paketeak irikiz.*) Bai.

HELMER.—Nere katagorria al dabil aruntz ta orruntz?

NORA.—Bai.

HELMER.—Aspaldi etorri al zan nere katagorria?

NORA.—Irixtea egin det. (*Goxoen-xorroa gorde ta ezpañak garbituz.*) Ator onera Torwaldo. Begira ze erosi ditudan!

HELMER.—Etzaidazu nere jardunaren aria eten. (*Geroxeago atea iriki ta pluma eskuan alde-guztietara begira.*) Erosi? Au dana erosi al dezu? Berriz ere billatu al du gure umiak dirua gatzzeko era?

NORA.—Baña Torwaldo! Aurten eskua zabalxego ibilli nezake. Lenbiziko eguberriak, exkaxian ia zurrian ibili bearrik gabe.

HELMER.—Bai... baña ez genezake dirua firri-farra bota ere...

NORA.—Pitin bat Torwaldo pitin bat. Ez? Orain jornal aundia jasoko dezun ontan... ta dirua asko irabazi, dirua erruz...

HELMER.—Bai, urte-berriak, baña iru illabete joango dira lenengo xoxa jasotzeko.

NORA.—Ba... baña orregatik ze ajola dio. Bitartean ordaintzekotan eskatu norbaiti!

HELMER.—Nora! (*Inguratzen zaio Norari ta berriketan belarrik eltzen dio.*) Zu beti kaxkariña. Egizu kontu milla duro eskatzen dituala gero ordaintzekotan, ta zuk eguberri-jai onetan gastatu baña ni urte-zar arratsaldean tella batek burutik bera jo ta...

NORA.—(*Eskuaz aua ixten dio.*) Ixo, ixo, ixo..., etzazu olakorik aitatu ere!

- HELMER.—Baña egizu kontu alaxe gertatzen dala! Ta orduan zer?
- NORA.—Ara, ori gertatuko ba-litz berdin-berdin lidake zorrak izan edo ez izan...
- HELMER.—Bai ta gero artzekotan dirua emandako aiek?
- NORA.—Ba, zertako arduratu aietzaz. Arrotzak dira.
- HELMER.—Ai, Nora, Nora, ondo emakumea zera. Benetan ari naiz. Badakizu gai ortan ze iritzi ditudan. Iñori zorrik ez, ordaintzekorik ta emanbearrik ez. Hipotekaturik edo zorpean bizi diran etxean iñoren mende ta morroi daude beti ta alako itzal otza nabaitzen da. Orain arte gogor egin diegu zorrei ta burua tente darabilkigu ta falta zaizkigun egun apur auegatik alaxe jarrai bear degu.
- NORA.—(*Tximinira inguratuz.*) Ondo da, ondo da, zuk nai dezun bezela, Torwaldo.
- HELMER.—(*Atzetik dijoakiola.*) Bueno, bueno. Larratxoriak ez du ibilli bear egoak txintxillik... Ara orain berriz katagorriak muturra okertze al du? (*kartera atereaz*) Nora, zer daukatala emen?
- NORA.—Dirua! (*Bizkor jiratur.*)
- HELMER.—Tori (*billete mordo bat eman bezaio*), eguberriak inguratzean, etxean gastu asko izaten da.
- NORA.—(*Kantatzen.*) Amar, ogei, ogeitamar... Eskerrikasko Torwaldo, onekin badet estuasunetik ateratzeko aiña.
- HELMER.—Bearko: eztago besterik.
- NORA.—Konponduko naiz oinbestekin. Baña aizu, atoz onera. Begira zenbat gauza erosi ditudan ta bai merke. Ara Ivar'entzat traje berria ta sablea. Bob'entzat zaldia ta tronpeta bat ta munekatxoa bere seaska ta guzti Emmy'entzat, merkenetik ori bai, segituan austen dulako. Ara emen berriz, neskamentzako mantalak eta oiala. Mariana gajoak geixeago merezi zuan baña...
- HELMER.—Ta pakete ortan zer dago?
- NORA.—(*Karraxi pitin bat egiñaz.*) Ez Torwaldo ez, ori gauera arte ez dezu ikusi bear.

HELMER.—Bueno, bueno. Ta zuk ere zabartxo orrek zer nai zenuke?

NORA.—Ba neretzat eztet bear ezerrez.

HELMER.—Orren benaz ba-diozu, siñistu egingo dizut. Baña esaidazu, zer gustatuko litzaizuke?... galestiago gabe...

EMMA.—Ba... ba... eztakit ba. Ontara ezkerero... aizu Torwaldo...

HELMER.—Zer?...

NORA.—(*Txaketaren botoiak beatzekin darabiltzkila baña arpegira begiratu gabe.*) Erregalo bat egitea erabaki ba-dezu...

HELMER.—Ezaidazu ba bein. Zer?

NORA.—(*Dana segiran.*) Dirua eman zenezaidakedala Torwaldo. Ezta bearrezko asko izatea're, esku artean dezuna, ta nik zer-bait erosiko nuke...

HELMER.—Baña Nora...

NORA.—Bai orixe. Emango didazu eh? Torwaldotxo mesedez eskatzen dizut. Zugaitzetik txintxilik jarriko det dirua, urrezko papel baten bilduta oso poliki...

HELMER.—Ze izena du beti alperrik gastatzen ari dan txoriak?

NORA.—Bai. Ba-dakit bai: zozonabarra. Baña egizu esaten dizudana, ta bitartean pentsatuko det ze erosi. Ez al zaizu ondo iruditzen?

HELMER.—(*Irriparrez.*) Nik emandako dirua ondo gastatzen ta fuldamentuzko zerbait erosten ba-zeneki, bai, baña uskeri batzuetan dirua ezkutatzen da ta, gero berriz ere nere patrikatik zer aterako.

NORA.—Oi gauzak esaten dituzu Torwaldo.

HELMER.—Egi uts-utsa. Noratxo neria (*besoarekin gerria inguratzuz*). Zozonabarra oso ederra da baña ainbeste diru bear du... Ezin liteke pentsa zenbat kostatzen zaion gizon bati etxean zozonabar bat eukitzea...

NORA.—Ori ere bai, nola esan zenezake ori? Nik aldetan guzia aorratzen det, au argia dan bezelaxe.

HELMER.—Oh... ortan ez dago zalantzik. Al dezun guzia bai, al ote dezu ordea batere?

NORA.—(*Alai aopean kantari ta irriparrez.*) Ba-zeneki zenbat gastu ditugun larraxori ta katagorri.

HELMER.—Besterik ez bezelakoa zera! Aitaren antzeko ura ere egiñal guzian ariko zan nundik eta nora pillatuko ta esku-tan zedukan ordukoxe izkututzen zitzaion. Beatz tartean ain-girak bezala iges egiten dizu ta nora joan zaizu eztakizula gelditzen zera. Bai, bai Nora; gauz oiek odolean daramazkizu, eztago dudarik. Baña ze egingo degu ba, olakoxia artu zindudan ta olakoxia bearko zaitut.

NORA.—Naiago nuke nik ere odolean gauz on asko aitarendandik ekarri ba-nitu.

HELMER.—Nik zeran bezelakoxea nai zaitut, larraxori maitea (*etxogin aldi baten ondoren*). Baño aizu. Gaur nabaitzen zaitut alako, zerbait... ala-olako aurpegia daukazu... um...

NORA.—Nik?

HELMER.—Bai, zuk. Begira zaidazu begietara. (*Begiratzen dio.*) Ez ote kaxkarin onek igesalditxoren bat urira egin?

NORA.—Ez, zergaitik diozu?

HELMER.—Ez ote da sudur ori goxotegiren batera sartu?

NORA.—Ezetz Torwaldo, ezetz.

HELMER.—Goxoak usnatu bederen egingo zituan?

NORA.—Ez da pentsatu ere.

HELMER.—Ez ote dituzu, bi edo iru almendra ortz-tartean ias-tatu.

NORA.—Ezetz ba, ezetz.

HELMER.—Ondo da, ondo da. Berriketari ari nintzan emakumea.

NORA.—(*Eskuiko maiera inguratuz.*) Ez da ametsetan ere, etzait burura etortzen atsegin etzaizunik egiten. Ortan ziur egon.

HELMER.—Bai emakumea bai, badakit. Ez al zenian ba agindu...? (*Norarengana inguratuz.*) Gorde itzazu, errege-erregali oiek gauean zuaitzetik txintxilik ikusiko dituguta.

NORA.—Rank sendagille jauna gonbidatu al dezu?

HELMER.—Ez baño ezta bearrik ere, ba-dakita. Alare etortzen danean esango diot. Ardo zar ederra enkargatua det. Nora, eztakizu zeñen pozik ta zaleturik nagoan gaurko gaba irixteko.

NORA.—Bai ni ere. Ta aurrak izango duten poza, Torwaldo.

HELMER.—Ah, zer poza ematen duan etorkizuna seguratua ta bear ainbat diru ba'daukagula jakiteak. Ez al da ala?

NORA.—Bai zoragarria da, ametsa dirudi.

HELMER.—Gogoratzen al zera azkenengo eguberritan nola genbiltzan? Iru aste aurretik asita gabero or sartzan ziñan gelan gauerdia edo gerogo arte eguberri-zugaitzerako loreak egin ta guri ustegabeko erregaliak prestatzen... aritzeko. Ze luze ta aspergarri ziran egun oiek.

NORA.—Nik ez nuan ba aspertzeko betarik izan.

HELMER.—(*Irriparrez.*) Alare, ez genduan ba azkenean gauz aundirik ikusi...

NORA.—Orra ba, oraindik ere lelo orrekin erneazten bear ari al dezu, xiri ta xiri. Nik al det errua, katuak sartu ta danak porrokatu ta txikitu ba zituan?

HELMER.—Ez Noratxo neria, ez. Borondate guziarekin jardun ziñan danok izan genezan ta alduana egiten duanari ezin geiago eskatu. Baña pozgarri da garai txar aiek joanak izatea.

NORA.—Bai orixe, oraindik ezin det sinistu, ametsa dirudi.

HELMER.—Aurten ez naiz asper-asper egingo bakarrik egoten ta zuk ere eztakazu begi eder ta esku-polit oiek penatu bearrik.

NORA.—(*Txaluak joaz.*) Ez orixe, ez al da ala Torwaldo? Au poza, Jainko maitea! (*Helmer'i besotik eltzen dio.*) Eguberri jaiak pasatakoan ze egin bear degun esango dizut orain (*deitu egiten dute*). Deika da bat edonbat (*butakak txukunduaz*). Zein ote dator? Ez genduan orain iñoren bearrik.

HELMER.—(*Despatxura sartzera dijoala.*) Nere galdez ba-da etzaite aztu gero iñorezentzat ez nagola.

II AGERRALDIA

Lengoak ta Elena

ELENA.—(*Sarrerako atetik.*) Etxekoandre, emakume bat, zu ikuzi nai zaituala.

NORA.—Sartzeko ba.

ELENA.—(*Helmer'i.*) Sendagille jauna etorri da.

HELMER.—Sartu al dezu nere lan-gelara?

ELENA.—Bai jauna. (*Helmer despatxura sartzen da. Neskameak Kristina para-arazten du, atea itxi ta bijoa.*)

III AGERRALDIA

Kristina ta Nora

KRISTINA.—(*Biajeko jantziz. Bildurtu xamar, zalantzan bezela.*)
Egun on Nora.

NORA.—Egun on. (*Zalantzan.*)

KRISTINA.—Ez al naun ezagutzen?

NORA.—Ez-pa... edo bai... ah, iñundikan ere ez aiz ba izango Kristina!

KRISTI.—Bai ber-bera.

NORA.—Ene! Kristina, ta ez iñuten ezagutzen. Izen ere zeñek esan... eztaukan lengo antzik.

KRISTI.—Ez den arritzekoa. Izan ere ba-ditun bederatz... amar urte...

NORA.—Alkar ikusi ez degula. Oinbeste bai eh? bai, bai izango ditun bai, Oh azkeneko zortzi urte ok, bai ederrak, zoragariak! ba-ekiñaken! Onerako etorrira beraz? Neguaren biotzean egin den bai, ba, baje luzea? Korajea bear din!

KRISTI.—Ikusten den ba. Gaur goizean iritxi den bapoz.

NORA.—Eguberri jaiak pasatzeko noski. Au poza. Ederki ibiliko gaitun! Baña, eraztan neska abrigo ori! Ezten noski, otzik eukiko eh? (*Kristina'ri abrigoa erazten laguntzen dio.*) Olanxe. Orain tximini-ondoan exeriko gaitun biok patxara ederrean. Edo... ez, jarri ari butaka ontan ta or egon oi naun ta. (*Eskuak eskuartean artuz.*) Orain bai ikusten diñat ire orduko arpegi atsegiña baña leenbizian... kolpetik..., ezin, Zurbillago, txuriago ote agonan iruditzen zaidan ta argalago ere bai.

KRISTI.—Asko zaartu naiz, asko.

NORA.—Ba pitiñ-bat, pitiñ bat bear bada baño asko, asko ez. (*Bat-batean ixiltzen da ta gero benaz ta serio.*) A...txorora nago. Ni emen ari naun berritsuketan ta zu... Nere biotzeko Kristiña, barkatu nazu.

KRISTI.—Zer esan nai den, Nora?

NORA.—(*Beatzetara begiratzuz ezin siñistuz bezela.*) Ea, alargundu al itzenan ba?

KRISTI.—Bai, orain iru urte.

NORA.—Bai, banatxeikiñan. Izparringietan irakurri niñan. Oh! Kristina benetan esaten diñat. Egun aietan beiñ baño geiagotan egon nitxonan karta mutur bat idazteketan baña egun batetik besterako uzten niñan ta gero ba-niñan beti zerbait.

KRISTI.—Ez naiz arritzen batere.

NORA.—Oso gaizki egin niñan ba. Biotzeko lagun gaxoa izaki ta. Ze estuasun ta naigabe ez ote ditun pasa! Gelditu al zain sikira zeekin bizirik!

KRISTI.—Ez.

NORA.—Semerik?

KRISTI.—Ezta.

- NORA.—Orduan ezer ez?
- KRISTI.—Ezer ez, ezta biotzean penik ere, ez beintzat biotza malkoz urtu-arazteko moduko saminik.
- NORA.—(*Ezin siñistu bezela begiratzten dio.*) Nola izan ziteken?
- KRISTI.—(*Irripar garratzez ta eskuarekin illeak atzeratuaz.*) Zorionez edo txarrez ori askotan gertatzen den, neska.
- NORA.—Bakar-bakarrrik munduan! Penagarria izan bear din ba orretzek ba! Nik iru ume ederrak zeuzkanat. Orain ezin erakutsi dizkiñat, inñudearekin atereak ditun da. Baño esanazu dana.
- KRISTI.—Ez, gero; lenengo esan izkidan ik...
- NORA.—Ez, ik itzegin bear den. Gaur ez diñat nerekoia izan nai, eztiñat igan bestetan pentsatu nai. Gauz bat bakarrik esango diñat segitun. Ba al dakin egun auetan aberastu gerala edo aberasteko bidean sartu?
- KRISTI.—Ezan ezan, nola, nola?
- NORA.—Pentsa zan. Bankuko direttore ta nagusi egin ditene senarra.
- KRISTI.—Ire senarra, ori den suertia!
- NORA.—Ba orixe. Izan ere, abogadu batek ain urri biltzen din dirua, batez ere arrazoirik ez duenari arrazoirik ez duala esaten ba-dio. Ta orixe egiten ziñan gure Torwaldok, ala bear ere din eta. Orain pentsa zan kontentu egongo ote geran! Urte berritan artzen din kargua ta ordutik jornal polita izango din... orain arte ez bezela biziko gaitun, nai bezela. Danean. Au poza ta atsegiña Kristina! Xiñistu zaidan ederra dala nai aña dirukin ta ardura gabe bizitzea; ez al den uste?
- KRISTI.—Bai noski, bear ainbat eukitzea ederra izango unaken.
- NORA.—Ez, bear ainbat bakarrik ez, ugari, ugari dirua. (*Irriparrez.*) Torwaldok oraindik ere ala egiten dutala uste din. Baño (*beatzakin amenazatur*) Nora ez den uste dezuten bezin kaxkarin ta txoroa. Egia esateko emen ez diñat izan ze gastatu aundirik. Bizitzeko biok lan bear izan diñagu.
- KRISTI.—Ik ere bai?

NORA.—Bai uskeri batzuk: eskulana, gantxillua, bordatzen ta abar (*doña aldatuz*). Ta gañera beste gauz bat ere bai. Badakin, Torwaldok ezkondu giñanean. Ministerioan len zuan lana utzi egin zuala, ez baizun espero igotzerik ta diru geiago irabazi bearrean unan. Lenengo urtean izugarrizko lana izan ziñan pentsatzen edozerri eltzen zionan ta goizetik gaberaño gelditu gabe aritzeunan. Lertu egin unan azkenerako ta ziaro gaixotu. Sendagilleak ego aldera joan zedilla agindu ziotenen.

KRISTI.—A, Italian pasa zenuten urte bete?

NORA.—Bai, ez unan ba errexa orduan etxetik ateratzen... Ibar jaio berria gañera, baño etzegonan beste erremediorik. Oh! Ibilli aldi zoragarria, izan ditekene ederrena, ta Torwaldori bizia salbatu zionan. Baña zenbat sos kosta zitzaigunan, Kristina.

KRISTI.—Bai pentsatzen diñat.

NORA.—Milla ta berreun ezkutu... lau milla zortzireun korona. Baden dirua eh!

KRISTI.—Bai neska ta ezten suerte makala bear danean izatea.

NORA.—Aitak eman zigunan.

KRISTI.—A bai, ta oker ez banago ill aurretixe.

NORA.—Bai Kristina, orduntxe ain juxtu, ta orra, ez nitxonan azken orduetan lagundu. Egun batetik bestara jaiotzeko netxeukenen Ibar ta Torwaldo gizagajoa ill zorian. Nere aita maitea! Ez niñan geiago ikusi. Ezkondu nitzan ezkerorixe diñat saminik garratzena.

KRISTI.—Bai, bazekiñat bai, asko maite uala. Orratx, Italiara joan ziñaten?

NORA.—Bai, dirua bageniñan ta sendagilleak, artaño beartu gintxiotenen... Andik illabetera irten gitxonan.

KRISTI.—Ta ire senarra, ziaro sendatu al unan?

NORA.—Bai neska, miraria zirudin.

KRISTI.—Ta... sendagille ori?

NORA.—Ze esan nai den?

KRISTI.—Nerekin batean, gizon bat etorri den, neskameak, sendagille jauna esan dizute.

NORA.—A bai, Rank jauna den ori. Ez den etortzen mediku bezela, lagun bezela baizik, egunean bein etortzen zaigun gutxi-naz. Ez, Torwaldo ez den gaixotu geroztik. Aurrak ere osasuntsuak dizkiñagu, ni ere ondo nabiltxen. (*Altxatzen da salto batean ta txaloka.*) Jainko maitea! Bai ederra dala, bizitzen ta pozik egotea. Ah baño neska, lotsa ematen zidan, nere kontutxuekin ari naun beti. (*Exertzen da alkitxo batean. Kristinaren ondoan aren belaunetara makurtuaz.*) Ez aiz aserretuko eh? Esaidan: ez al unan ire senarra maite? Orduan, zergatik ezkondu itzanan?

KRISTI.—Nere ama gaixo zegonan, iñortxoren laguntzarik eniñan, ta gañera gure bi anai txikiak nere kontu zeudenan. Ezkontza eskabideari uko egiteko enaukala eskubiderik pentsatu niñan.

NORA.—Bai, bai; ederki egin unan. Aberatsa unan beraz, ezkondu ziñatenean?

KRISTI.—Lasai ta errex bizi unan beintzat; baña aren aberastanuk etziñatenan oñarririk ta bera il zanean deabruak eraman zizkiñan ezertxore utzi gabe.

NORA.—Ta orduan?

KRISTI.—Lanean asi bear izan niñan, eskola batean maistra... ta zer ez. Azkeneko iru urte auek lanean gelditu eziñezko egun luze bat izan ditun neretzat. Orain danak bukatu dizkiñat. Nere ama gajoak ez din nere bearrik ill baita, anaiak ere ez, azi baitira ta bere buruaren jabe ditun.

NORA.—Lasaitasun ederra nabaituko den.

KRISTI.—Ez neska. Bizi modu ontan ezin diñat etsi. Iñori ezer egin bearrik ez! (*Ezin egonez altxatzen da.*) Zoko artan, ezin niñuan bizi, ezin niñan etsi. Onera etorri naun, eman errexago izango dalakoan zerbaitetan ari, pentsamentuak burutik kendu, ahaztu... Besterik ezpada lantoki bat billatuko banu, ofizina batean edo sartuko banintz...

NORA.—Asmo oiek al ditun? Lana ez baña deskantsua bear den ik. Obe bañuk artzera joan.

KRISTI.—(*Leiora inguratuz.*) Nik etzaukenat aitarik txangoa ordaintzeko.

NORA.—(*Altxatuz.*) Ba ez adi erresumindu.

KRISTI.—I aiz nerekin erresumindu bear ez denana. Nere egoe-rak duan gauzarik txarrena orixe den: minberatu ta erresu-mindu egiten dala bat... Etzaukanat iñortxo ere, arentzat la-nean jarduntzeko ta ala ere irabazi egin bear bizitzeko. Bizi egin bear! Orrek berekoi biurtzen din persona. Orra zer nai-den lentreago aberastu zaratela esan dianeanean neregatik poz-tu naun iregatik baño geiago.

NORA.—Nola ordea? A bai somatzen diñat! Torwaldon ori iretzako ere ondo datorrela pentsatuko unan.

KRISTI.—Bai, orixe bururatu zaidan.

NORA.—Izango den ta Kristina. Nik ekarriko dizkiñat urak erro-tara polliki, polliki. Somatuko diñat. Torwaldo'ri zer esan; iri laguntzeko amorratzen natxegon da.

KRISTI.—Ixtimatzen diñat biotz-biotzez Nora. Gañera ik egitea, beste zenbaitek egitea baño meritu geiago din. Ik ez baititun ezagutzen bizitzako estuasunak larrialdiak ta garraztasunak.

NORA.—Nik ez, eh? Ala uste alden.

KRISTI.—(*Irriparrez.*) Eskulanak, gantxillua ta olako uskeriak... umea aiz oraindik Nora.

NORA.—(*Buruari eragiñaz ta alde batetik bestera joanez.*) Etzan orren arinki ta txoro itzegin.

KRISTI.—Ze ba?

NORA.—Besteak bezelakoa aiz i ere, ez detala ezertarako balio uste dezute.

KRISTI.—Tira, tira.

NORA.—Ez dakitela bizimoduko berrik.

KRISTI.—Baña biotzeko Nora, ez aldizkidan ba aistian esan ire estuasunak...

NORA.—Ba, uskeri oiek... (*Ixillago itzegiñez.*) Ez diñet aundiena esan.

KRISTI.—Zer dion?

NORA.—Ire aunditasunaren gallurretik begiratzten didan Kristina ta ezuken ori egin bear. Arro abil amari, orrenbeste la-gundu dionelako.

KRISTI.—Nik etzionat iñori goitik bera begiratzten. Ori bai, pozik natxion amak azkeneko urteak lasai pasa zitzan egin nuana egin nualako.

NORA.—Ta arrotu egiten au, ire anaiagatik egin denanak.

KRISTI.—Arrazoiz gañera.

NORA.—Alaxe uste diñat. Baña gauza bat esan nai niñaken. Nik ere ba diñat zertaz arrotu eta pozik egon.

KRISTI.—Izango den. Sinisten diñat. Jakin al nezake zer dan.

NORA.—Itzegin zagun ixill ixillik Torwaldok ezer aditu ez dezan, Enikenan nai munduko urre guztia gaitik ere... Ez din iñortxok jakin bear Kristina ik besterik.

KRISTI.—Nigandik ez din iñortxok jakingo.

NORA.—Ator oneraxago. (*Inguratu araziz.*) Ba... Nik ere da diñat zertaz egon pozik edo arro. Nik salbatu nitxonen bizia Torwaldori.

KRISTI.—Bizia... salbatu? Nola?

NORA.—Esan diñat ba nola joan giñan ba Italiara. Ba Torwaldo gaur ezunaken bizirik egongo Italiara juan al izan ez balu.

KRISTI.—Bai ala den baño ta ire aitak eman zizuten bear ainbat diru.

NORA.—(*Irriparrez.*) Bai ori den Torwaldok uste duna, mundu guztiak ere bai baño...

KRISTI.—Ze baño?

NORA.—Aitak etzigunan eman zentimorik ere. Nik atera niñan dirua.

KRISTI.—Ik? Oinbeste diru?

NORA.—Milla ta berreun eskudo.

KRISTI.—Nundik edo nola? Loterian? Tokatu al zitzaifian?

NORA.—(*Arpegi mukerrez.*) Loteria? Eniñaken meritu izpirik izango.

KRISTI.—Orduan nundik atera unan ba?

NORA.—(*Irriparrez ta erdi kantari.*) Je... Ta ra ra ra ra.

KRISTI.—Gero ordaintzekotan emana ere ez unan ba errez.

NORA.—Zergaitik ez?

KRISTI.—Emazteak senarraren baimenik gabe ez dezakelako gero itzultzeko dirurik artu.

NORA.—(*Buruari eragiñez.*) Oh! Gauzak egiten dakian emakumea izan ezkerero... Moldatzen jakin ezkerero...

KRISTI.—Ezin diñat ba iñola sumatu, muña urtzen jardun da ere.

NORA.—Ez adi ortan alperrik nekatu. Ez diñat esan aurreratu zidatenik: beste era batera atera nezakean: (*Sofan esertzen da.*) Maitale batek eman balit? Zer?

KRISTI.—Txorua aiz neska.

NORA.—Aitortu zan jakiteko amorratzen agonala.

KRISTI.—Aizan, Nora maite orrek. Ez al unan arinki ta txoro, txoro jokatuko.

NORA.—(*Zutituz.*) Txorakeria al da senarrari bizia salbatzea.

KRISTI.—Txorakeria iruditzen zaidan aren ez jakiñean...

NORA.—Etziñan ezertxo ere jakin bear. Ori lenbiziko. Etziñan konturatu bear iltzeko arriskuan zegonik, aditzen al didan? Sendagilleak neri esan zidatenan ta ez ari arriskuan zegoala ta egoaldean denbora aldi bat egite ez bazun etzala bizirik aterako. Kezkatxoetan ibili bear al niñan? Atzerrian zear beste emakume asko bezela ibilli nai nuala esaten nion. Negarrak, zotiñak, loxintxak, txerak, zer ez nizkionan egiten. Alako batean bein gero ordaintzekotan dirua artu zezakela aditzera eman nitxionan. Orduan, Kristina, ia, ia, izutu unan. Txoratu egin al nintzan esan zidanan ta bere senar eginkizuna nere kutizirik ez egitea zala. Ba, ba, esan niñan nere baitan sendatuko diñat ba kosta ala kosta. Ta orduntxe burura etorri zitzaidanan dirua nola sortu?

KRISTI.—Senarrari ez al zionan ba esan ire aitak, dirurik etzizutela eman?

NORA.—Ez, neska. Egun gutxi barru il unan da. Nola ba-zifian asmoa aitari dana aitortu ta ez nezala salduta utzi eskatze-ko, baiño ain gaxo zegoan! Ez niñan premirik izan.

KRISTI.—Ta geroztik ez al dion ezer esan senarrari?

NORA.—Ze esan bear nitxoan, ezta buruan pasa ere olakorik. Gañera, gai ortan bera dan bezin estu ta txorrotxa izan da! Zalla izango unaken senarraren nagusitasunarentzat bizia neri zor ditala jakitea. Ezin orain bezin goxoak izan gure artu-emanak ta etxeko pakea.

KRISTI.—Ta ez al dion beñere esango?

NORA.—(*Pentsatuz ta irriparez.*) Bear ba... egunen batean... urte asko, asko pasata gero... orain bezin polita ez nago-nean... Etzan parrik egin! Alegia Torwaldok orain bezela neri begira, ni dantzan ikustearekin zorutzen ez danean, orduan bearba, ondo etorriko zaidan ni maita nazan arrazoi berri bat eta... ni zergatik maitatu izen dezan... (*Gelditu.*) Ba! egun ori ez den sekula iritxiko. Ta Kristina, ze iruditzen zain ba nere sekretua? Nik ere zeozertarako balio diñat. Buru auste ta lo... galtze pranko ekarri zidan arazo onek. Alajainkua! Izan ere ordaintzeko eguna kunplitzean alperrik ditun berriketak ta askotan larri ibiltzen naun, emen pitin bat ta andik igurtxi. Etxeko gastuetan ezin ba kendu Torwaldok eroso bizi bear din eta, aurrak ere ezin zarpa-zarrakin ibiliko itunen ba! gaxoak, nere aingerutxoak!

KRISTI.—Ortaz dana eure gastutarako unanetik?

NORA.—Jakina ba. Torwaldok nere gastutarako ematen dianetik erdia gastatzen diñat geienaz ere, beti merkenetik errosiaz. Eskerrak edozein jantzi ondo etortzen zaitela.

NORA.—...Torwaldo ezten konturatzen. Bañan batzutan, Kristina, latza den orixe. Ain atsegin zaigun apain apain ibiltzea. Ez al da ala?

KRISTI.—Oixe bai neska.

NORA.—Ba-diñat beste iturri bat ere. Joan dan neguan idazki batzuk artu nizkiñan makiñaz kopiatzeko. Atea itxi ta goizalderarte jarduten niñunan jo ta ke. Izugarri nekatzen niñunan ori bai, baiño atsegin zitzaidanan oso dirua irabazteko lanean jardutea. Ia gizon nintzala zirudianan!

KRISTI.—Zenbat ordaindu al izan den onela?

NORA.—Etzeziñat ba juxtu-juxtu esateko. Ari-matasa naastu esker ez errex askatzen... Al dedan guzia ordaindu diñat. Askotan gelditzen niñunan nora-ezean ta (*irriparez*) orduan bururatzen zitzaidanan agure-zaar aberats bat nitaz maitemindu zala... ta

KRISTI.—Ze agure zaar?

NORA.—Txorakeria... ta il egiten zala bere testamentuan auxe azaltzen argi ta garbi. Ditudan ontasun guztiak Helmer'en andre politarentzat ematen ditut ta eman dezaizkiotela bereala.

KRISTI.—Aizan Nora zein den agure ori?

NORA.—Neska, neska, ezten iñun olako agurerik. Ordaintzeko eguna gaiñean ta dirua nundik sortu enakinean neri bururatzten zitzaidala. Onezkero berdin den. Etzitzaidan batere ajolik ez agureagatik ta ez aren testamentuagatik... (*zutitzen da bizi*). Jainko maitea au poza ematen du pentsatze utsaz, lasai bizi, aurrekin jolasean ibilli, etxea txukun euki apain Torwaldori gustatzen zaion bezela. Gero udaberri... zerua urdiñurdiñ... txoriak kantari... Gero udara... berba txango luze bat egin, itsasoa ikusi berriz... oh au zoriona, au poza (*zintzarria entzuten da*).

KRISTI.—Ate-joka batenbat; Juan egingo al naun?

NORA.—Ez egon adi. Eztiñat iñor espero. Torwaldoren galdezka izango den batenbat...

IV AGERRALDIA

(Lengoak, Elena ta gero Krogstad)

ELENA.—Barkatu etxeko andre. Jaunenbat dago atean... abogaduarekin itzegin nai duala.

NORA.—Bankuko direktorearekin esan naiko dezu.

ELENA.—Bai andrea, orixe. Baño sendagille jauna ere or barruan da ta... enekian.

KROG.—(*Azaldu naiean.*) Ni naiz andrea. (*Elena izkutatzen da.*) (*Kristina aztoratzen da, zuritu, gorritu, moretu ta berdetu egiten da batera ta leyora begira gelditzen.*)

NORA.—(*Aurreratzen zaio ari, aztoratua aure ixil-xamar.*) Zu? Ze gertatzen da? Ze esan bear diozu nere senarrari?

KROG.—Bankuko asunto batzuetaz itzezin nai nioke. An ari naiz lanean, ta aidanean zure senarra izango degu nagusi...

NORA.—Bai ala da.

KROG.—Asunto gogaikarriak, andrea, besterik ez.

NORA.—Ortan egizu mesede bere lan gelara sartzea. (*Otz eta motz agurtzen die, antekamarako atea itxi ta tximinira inguratzten da.*)

V AGERRALDIA

Nora ta Kristina

KRISTI.—Zein den gizon ori Nora.

NORA.—Abogadu bat, Krogstad izena din.

KRISTI.—Uaxe den orduan...

NORA.—Ezagutzen al den ba?

KRISTI.—Aspaldi, luzaro izan unan gure etxearen arduradun.

NORA.—Uaxe den bai.

KRISTI.—Ziaro aldatua zegon.

NORA.—Ezkonduta oso gaizki bizitu zala uste diñat.

KRISTI.—Orain alargun den noski.

NORA.—Bai ta seme-alaba asko dizkin. Uf, kixkeltzen ari naun
(*estufa ixten du ta mezedora urrundu*).

KRISTI.—Guzitako negozioak omen zebizkin aidanean.

NORA.—Bai? ba-ziteken, etzekiñat. Utzi ditzagun negozio-kon-
tuak, neska; alde batera, gogaikarriak ditun...

VI AGERRALDIA

Lengoak eta Rank

KRISTI.—(*Helmer'en despatxutik irtenaz ta atea erdi-irikian uz-
ten duala.*)

RANK.—Ez, ez; ez dizut galerazi nai. Zurekin egongo naiz pitin
batean. (*Atea ixten du ta konturatzen da Kristina ere, an da-
gola.*) Ah, barkatu. Emen ere enbarazoan gaude ba.

NORA.—Ezta gutxigorik ere... (*batek bestea presentatuz.*) Rank
sendagille Jauna; Linde Jaunaren alarguna.

RANK.—Izen ori sarri aitatu oi da etxe ontan. Zu ziñan noski.
Sartzerakoan ezkerretan pasa detana.

KRISTI.—Bai ni mantxo igotzen naiz, nekatu egiten naiz ta.

RANK.—Ez al zabilta ondo?

KRISTI.—Nekatua arkitzen nagola, orixe.

RANK.—Besterik ez? Ortaz festarik-festa ibiliaz atsedean artzera
etorriko ziñan noski?

KRISTI.—Lan billa etorri nauzu.

RANK.—Len nekatua ta akitua zaudela ta lan billa al zatoz? Aze
erremedioa gaitz ori sendatzeko.

KRISTI.—Ez da ederra izango baña bizi egin bear da, Jauna.

RANK.—Bai ala diote danak: bizi egin bear dala.

NORA.—Zuk ere Jauna, ondotxo maite dezu bizia.

RANK.—Bai. Alaxe da. Errukarri bat naizen ere nere oñazeak al dedan guzia luzatzen saiatzen naiz gogor. Ta beste oinbeste egiten dute nere gaixoak ere. Baita sentimentuz, biotzez ta espirituz gaxo daudenak ere berdin egiten dute. Ortxe gelditu da oietako bat Helmer'en lan-gelan. Kurak egiten dabilen bat, gaixo klase oientzako ere bai baitira hospitalak.

KRISTI.—Ah! (*Arrituaz.*)

NORA.—Ze esan nai dezu?

RANK.—Krogstad legegizon orregatik ari nintzan. (*Kristinari.*) Zuk ez dezu ezagutzen baña. Orra ezurretaraño usteldua dago ta alare, munduari izugarrizko gora bera ba-lioke bezela, bizi egin bear duala zion era-batean.

NORA.—Ara? Zertaz ari zan ba Helmerekin.

RANK.—Justu-justu esateko ez dakit baño banku kontuak zituzten zerbait ere.

NORA.—Ara, enekian Krogstad jaunak bankuan zer ikusirik ba zuanik.

RANK.—Bai, bankuan lana eman diote zeozertan. (*Kristinari itzegiñaz.*) Eztakit au zuen artean ere izango diran olako gizonak baño eman ba dira batzuk, iñor gaiztotua ta okertua sentimentuz gaixotua billatzen ba-dute, puestorik onena berari emango diote zuzentzen edo sendatzen ote dan ta bitartean sanuak lanik gabe gelditzen dira.

KRISTI.—Izan ere gaixoak dira arretarik aundienaz zaindu bear diranak.

RANK.—(*Bizkarrari eregiñaz.*) Ederki diozu. Baña ortatik ara zer datorren: gizarte guzia gaixotegi biurtzen dala. (*Norak orain arte bere baitan zegin algara egiten du ta txaloka asi.*) Zeri par egiten diozu? Zuk ba ote dakizu gizartea zer dan ere?

NORA.—Ba, zein mintzatu da bururatu ezin ditoken zure gizarte orretaz? Beste zerbaitek ematen dit parragurea, ain da ederra... Esaidazu Jauna, bankuko langille guziak emendik aurrera nere senarraren mende egongo al dira?

RANK.—Orrek ematen al dizu parragurea?

NORA.—(*Irriparrez, ara ta onera dabilela.*) Pentsatzen jarri ta ere... guk... Torwaldok oinbeste gizon bere esku euki... Benetan polita da pozgarri, ezin leike sinistu... (*boltsillutik almendrak ateratzen ditu zorroan.*) Nai al dezu almendrak?

RANK.—Ara almendrak? Ori etxe ontan ez al da ba kontrabandua?

NORA.—Bai baño auek Kristinak ekarri dizkit.

KRISTI.—Nik?

NORA.—Ez adi ikaratu, neska. Ik zer ekiñan ba neri Torwaldok goxoak jatea galazten ditan ala ez! Ba! Beingoagatik... Ez dio ajolik izango eh sendagille jauna? Tori zazu zuk ere... (*bat abora ematen dio*). Ta ik ere bai. Kristina. Nik txiki-txiki bat jango det, bat bakarra, bi geienaz... (*ara ta onera dabilela*). Bai jauna oso pozik nago, zorioneko naiz. Gauzaxo bat nai nuke gogo biziz.

RANK.—Ea ba zer dan ori?

NORA.—Torwaldoren aurrean gauzaxo bat esateko orrenbesteko gogoia daukat.

RANK.—Ta zeñek galerazten dizu ba esatea?

NORA.—Enaiz ausartzen itsusia baita.

KRISTI.—Itsusia?

RANK.—Orratx obe izango dezu ez esan baña guri... zer da onenbesteañoko gogoarekin Torwaldoren aurrean esan nai dezuna?

NORA.—Sekulako gogoia daukat deadar eiteko. Tximistak, trumoiak, odeiak, erauntsia.

RANK.—Bai txorua zerala.

KRISTI.—Tira Nora.

NORA.—(*Almendrak izkutatuz.*) Ixo! (*Helmer «paleto» bat besoan ta sonbrerua eskuan duala despatxutik dator.*)

RANK.—Egizu deadar ori, emen da.

VII AGERRALDIA

Lengoak ta Helmer

NORA.—(*Helmer'ena inguratuz.*) Bialdu dezu orratik gizon ori?

HELMER.—Bai, oraintxe joan da.

NORA.—Zure baimenaz aurkeztuko dizut: Kristina orain kanpotik etorri da...

HELMER.—Kristina? Barkatuko didazu baño ez naiz ba gogorazten...

NORA.—Linde jaunaren andrea, gizona, Kristina Linde...

HELMER.—Ah! bai; bai, Umetako lagunak nere emaztea ta-biok ezta?

KRISTI.—Bai jauna, bai, antzina alkar ezagutu gendun.

NORA.—Ta orra, ni ikusteagatik egin du orren ibillaldi luzea, dauden egualdiekin.

HELMER.—Ez ta izango?

KRISTI.—Orregatik bakarrik ez...

NORA.—Kristina, ofizina kontuetan asko jakiña ta oso oitua da jakin dezazun ta gañera gizon jakintsu ta iaio baten eskuetan jartzeko asmotan dabil geixiago ikasi ote dezaken...

HELMER.—Ederki egingo dezu, andrea.

NORA.—Olaxe ba, izparringietan irakurri zuenean zu bankuko direttore egin ziñutela, onuntzan abitu zan... Aizu Torwaldo, neri gustua emateagatik egingo dezu zerbait Kristina artzèko ezta?

HELMER.—Eziñezko ezta. Alargun al zaude?

KRISTI.—Bai.

HELMER.—Ta ofizinan lanean aritzen oitua?

KRISTI.—Bai polliki...

HELMER.—Orduan ez da zaila izango zuretzat leku bat billatzen.

NORA.—(*Txalo-joka.*) Ikusten al-den?

HELMER.—Garai onean etorri zea andrea.

KRISTI.—Eztakit nola ixtimatu...

HELMER.—Ez dezagun olakorik aitatu (*abrigoa jantziz*). Gaurkoagako barkatu egin bearko didazu.

RANK.—Zaude. Ni ere ba-inoa. (*Larruzko bufanda artu ta tximian epeltzen du.*)

NORA.—Ez berandu arte egon, e Torwaldo?

HELMER.—Ordubete barru emen naiz.

NORA.—I ere ba al ua Kristina?

KRISTI.—(*Abrigoa jantziz.*) Ostatua billatu bear diñat.

HELMER.—Alkarrekin joan gindezke bide puxka batean.

NORA.—(*Jazten lagunduz.*) Ain extu ez bagendu! Lastima! Ezin ziteken ba iñola ere.

KRISTI.—Ze esaten ari aiz neska. Ikusi arte Nora ori ta eskarrikasko.

NORA.—Gero arte, gaur gabeen etorriko aiz noski? Ta zu ere bai sendagille jauna. Ezetz? Bai, bai. Ez asi emen aitzakitan... Jantzi arropa geixeago. (*Bijoaz izketan eskubiko atze aldetik.*) (*Aurren itz-otsa entzuten da eskalleretan.*)

NORA.—Ba-datoz, emen dira aurrak! (*bijoa bizkor-bizkor atea irikitzea ta Mariana aurrekin da.*)

VIII AGERRALDIA

Lengoak Mariana ta aurrak

NORA.—Atozte, atozte (*musuka artzen ditu*) nere zeru zatiak. Begiraien Kristina ez al ditun ba ederrak!

RANK.—Etzaitzte gelditu or aizetan.

HELMER.—Goazen, andre Linde, ama ez danak une ontan Norarekin egotea, ezin burutu lezake. (*Helmer, Rank ta Kris, bijoaz eskaleretan bera, Mariana ta aurrak barrura sartzen dira, Norak atea itxi ta gero.*)

IX AGERRALDIA

Nora, Mariana ta aurrak

NORA.—Arpegi alaiak dakarkizute, oiek dira muxu gorriak. Sa-garrak edo marrubiak dirudite. (*Aur geienak batera itzegi-ten diote agerraldiaren asieratik bukaera arte.*) Ondo ibilli al zerate ba. Ederki. Ara. Zuk txinrotik tira ta Emi ta Bob eraman al dituzu? Biyak bai? Indar asko daukazu e? Ivar. Ekatzu pittin bat Mariana (*artzen du neska txikina*) ai nere muñekatxoa! (*aberearekin dantzan*). Bai, bai amatxo Bobekin ere dantzatuko da bai. Ara. Elur pelotak egin dituzute e? Ni ere joango nintzan pozik zuekin. Ez, utzi zaidazu Mariana, erantziko ditut nik, utzi, utzi, utzi jolastu egiten naiz bitar-tean da. Zoaz sukaldera bitartean. Otz arpegia daukazu ta kafe bero-bero pixkat izango da zuretzat. (*Bijoa Mariana ez-kerreko atetik. Norak erazten ditu aurrak, abrigoak txanoak ta abrigoa eroritako tokian nunai sakabanatuak gelditzen dira. Bitartean umeak ixildu ere gabe ari dira izketan.*) Txakur-aundi batek segitu dizutela. Ezta izango, baño koskik egingo e? Zuek bezelako aur txikitxoei, txakurrak ez die koskik egiten! E Ivar, ez paketerik miatu e? Ez, ez gauza txarrak daude barruan! Zer, jolasean ibili nai dezutela! Zertan ibiliko gera ba! Buleketan, bai, buleketan bai, Bob gorde dedila lenbizi. Ni? ala gordeko naiz ba ni?

Nora eta aurrak jostaketan dabilta, parrez ta iskanbillan. Azkenik Nora maiaren azpian gordetzen da. Aurrak korrika etorri ta zoko miran arkitu ezinik. Ez dute ikusten baño nola parrari eutsi eziñik dagon aren par-soñua entzuten dute ta mai-azpia jasorik azkenean ikusten, zalaparta ta algarak.

Nora piko-txikoka irtetzen da, ikaratu arazi nairik be-zela. Berriz algara ta zalaparta. Bitartean atea jo dute baño iñork ez du kasorik egingo. Erdi-irikitzen da ta Krogstad azaltzen. Pittin bat itxoegiten du. Besteak jolasean segitzen dute.

Xgarren AGERRALDIA

Lengoak eta Krogstad

KROG.—Barkatu etxeko andrea.

NORA.—(*Karraxi bat egiten du ta erdi altxatuaz.*) Ze bear dezu emen?

KROG.—Atea erdi irikia zegon, ta... Ikusten denez aaztu egin zaio ixtea.

NORA.—(*Altxiaz.*) Nere senarra eztago etxean Krogstad jauna.

KROG.—Bai badakit.

NORA.—Orduan zer bear dezu?

KROG.—Zuri itzerdixobat esan.

NORA.—(*Aurreri alde batera.*) Zoazte. Ana Maria'rekin. Ez, ez, Jaun onek ez dio amatxori espik egingo. Joaten danean segituan jolastuko gera. (*Laguntzen die aurtxoei ezkerreko egon toki aldera eta atera.*)

XIgarren AGERRALDIA

NORA.—Nerekin itzegin nai al dezu.

KROG.—Bai orixe nai nuke.

NORA.—Gaur? Oraindik ez gaude illaren lenengo egunetan.

KROG.—Ez gaur gabon da, eta zure esku dago eguberri auek nola igaro.

NORA.—Zer esan nai zenduke.

KROG.—Utzi dezagun ori orain alde batera, beste zerbait dabilkit buruan. Bai aldu betaxo bat neri entzuteko?

NORA.—Bai... Bai... Eztakit ba...

KROG.—Ondo da.—Ni Olsen ostatuan exerita negoziarik, zure gizona pasatzen ikusi det.

NORA.—Ah! Bai!

KROG.—Andre batekin.

NORA.—Bueno ta... ta...

KROG.—Galderatxo bat egin al nezake? Andre ori Linde andrea zan noski.

NORA.—Bai.

KROG.—Kanpotik etorri berria al da?

NORA.—Bai gaur iritxi da ain txutxen.

KROG.—Zure laguna da noski?

NORA.—Bai baña eztakit ba oinbeste galderekin...

KROG.—Nik ere garai batean ezagutzen nun.

NORA.—Bai badakit.

KROG.—Ara, jakiñaren gañean zeunden. Pentsatzen nuen bai Ortan galdetu dezaizuke Linde'n andreak bankuan lana izango duan ala ez?

NORA.—Nolatan ausartu zera ori galdetzen Krogstad jauna? Zu nere senarraren morroi bat besterik etzera ta... Baña galdetu dezun ezkerro esango dizut. Linde'n andreak bankuan lana izango du ta gañera neri eskerrak Krogstad jauna. Orra ba, orain badakizu.

KROG.—Asmatu egin det berriro.

NORA.—(Batera ta bestera dijoan bitartean.) Senarra nere esanera jarri nezake ta, andre naizen aldetik zerbait esan badiot... Aizu Krogstad, batek iñoren mendeko danean begiratu bear luke iñori miñik eman gabe edo minberatu gabe...

KROG.—Ortan senarra zure esanera itzultzen da...

NORA.—Bai jauna.

KROG.—(*Esateko moduz aldatuz.*) Andrea, egingo al zenidake mesede zure senarrari nere alde itzegitea?

NORA.—Zer? Ze esanai dezu? Zein dabil zuri lantokia kentzeko asmoan?

KROG.—Ah! Alperrik da itxurak egitea. Zure lagunari etzaio atsegin nerekin batean lanean jardutea. Konprenditzen det ori ta orrelaxe nere lana galdu det.

NORA.—Aizu ematen dizut nere itza...

KROG.—Bai itz bitan. Oraindik garai da ta alegin guztia egin zazu, lantegitik bota ez nazan. Konseju orixe ematen dizut.

NORA.—Nik ez dezaket ezertxo ere egin Krogstad jauna.

KROG.—Ara, ba aixtian oso beste aldera mintzatu zera...

NORA.—Bañan zuk zer uste dezu, senarra nere naietara menderatua daukatala?

KROG.—Ezagutzen det zure senarra; alkarrekin, ikusten ibilli giñan ezker eta ez det uste bankuko direttore jauna senarra baño egoskorragua danik.

NORA.—Nere senarra'ren gaitik gaizki esatera ba zatoz... Kanpora.

KROG.—Andrea, bai kementsua.

NORA.—Ez det zure bildurrik. Urte berri auetan zure atzaparretatik askatuko naiz.

KROG.—(*Bere buruari eutsiz.*) Adi zazu au andrea. Bearrezko balitz nere lantoki apalari eusteko ill edo bizi jokatuko nuke.

NORA.—Bai ill edo biziko kontua baita.

KROG.—Ez da soldata gaitik bakarrik. Bada beste zerbait inportanteago. Zuk badakizu, jakiña, mundu guztiak ba daki ta nik orain dala urte mordo bat ala olako zerbait egin nuan.

NORA.—Bai zerbait entzuna badet.

KROG.—Etzan epailekura iritxi baño ate guziak itxiak gelditu zitzaizkidan. Orduan, zerbaiti eldu bear eta zuk dakizun negozio klase oietara sartu nitzan ta ausartzen naiz esaten, ez

naiz besteak baño gaiztoago. Orain negozio oiek utzi egin nai ditut. Nere semeak azitzen ari zaizkit eta aien aurrean izen ona ez nuke galdu nai. Bankuko empleoa zan ortarako lenengo malla, lenengo pausua; orain malla ori kendu egin nai didazute eta berriro ere lokatzetan lepaezurreraño sartu.

NORA.—Krogstad al ba-nu nik pozik lagunduko nizuke.

KROG.—Al ba-nu ez, nai ba-nu, ez dezu nai, ordea; alare nik dakit au nola beartu.

NORA.—Esan egingo al diozu nere senarrari dirua zor dizuala.

KROG.—Arraioa! ta esango banio?

NORA.—Billaukeri bat litzake (*erdi negarrez*) sekreto orixe da nere poza, nere arrokeria ta ark jakin... Zeñengandik eta zure bidez gañera. Naikoa litzake naigabe izugarriak ekartzeko etxera.

KROG.—Naigabeak bakarrik?

NORA.—(*Oldarki.*) Nai badezu egin zenezake; zerorri aterako zera galduan, orrela jakingo baidu nere senarrak ze gizon klase zeran (*beste gabe altxa*).

KROG.—Etxe barruko naigabeak bakarrik uste al dezu ortikan etorriko zaizkitzula?

NORA.—Nere gizonak jakiten badu bereala ordainduko du zorra ta zure atzaparretatik libre geldituko naiz.

KROG.—(*Norarengana pauso bat inguratu bedi.*) Aizu andrea; edo, zu etzera oroitzen edo negozio kontu oietan oso gutxi dakizu ta jakinaren gañean jarri egin bearko zaitut.

NORA.—Zer ba?

KROG.—Zuk senarra gaixo zegoanean milla eta berreun ezkuturen ezkutuko prestamua eskatu zeñidan.

NORA.—Ezpainun besterik ezagutzen.

KROG.—Eta nik dirua emango nizula agindu.

NORA.—Ta eman ere bai.

KROG.—Dirua ematerako kondiziuak jarri nizkizun bañan zuk etzenuan zeure senarren gaixotasuna beste ardurarik eta ain larri zebiltzan, diru ori eskuratu arte ez det uste asko begiratu zenienik kondizio aueri, orregatik etzera arrituko orain gogoratu arazten badizut. Ara: neronek idatzi nuan errezi-boa zuk izenpetu zenezan.

NORA.—Bai ta izenpetu nuan.

KROG.—Bai ta beeraxeago beste lerro batzuek erantsi nizkion. Lerro oietan jartzen du zure aitak erantzungo zuala diru ortaz ta errenkada aiek ark izenpetu bear zituan.

NORA.—Bear zituan ta egin zituan.

KROG.—Izenpetzeko eguna zure aitaren esku utzi nuan eta berak jarri bear zuan ze egunetan izenpetzen zuan, gogoratu al ziñan ortaz.

NORA.—Bai noski, ala zan.

KROG.—Gero errezebua zuri eman nizun aitari korreoz bialdu zenezaión, ezaltzan ala?

NORA.—Bai alaxe zan.

KROG.—Gauzak itxura dutenez. Bereala bialdu zenion aitari, andik bost edo sei egunera itzuli bai zeñidan errezebua aitaren firma ta guzti. Ta orduan jaso zenduan dirua.

NORA.—Bueno bai eta ez aldizut itzuli esan bezela?

KROG.—Gutxi gora bera bai baño. (*Leengo arira itzuliaz.*) Egun aiek zuretzako tristeak ziren noski andrea.

NORA.—Bai egia da ori.

KROG.—Zure aita, uste dedanez oso gaixo zegon.

NORA.—Il zorian.

KROG.—Egun gutxi barru il alzan?

NORA.—Bai jauna.

KROG.—Aizu andrea, gogoratze al zera oraindik ere zure aita ze egunetan il zan.

NORA.—Bai. Agorraren ogei ta beatzian.

- KROG.—Alaxe da jakin dedanez ta orregatik gauzatxo batek arri-
tzen nau. (*Papertxo bat patrikatik atereaz.*) Alegia zure aita
il eta andik iru egunera izenpetu zuala paper au. Nora, esan-
go al zenidake ori nola diteken. (*Nora ixillix jarri.*)
- KROG.—Begien bistan dago gañera «URRILLAREN» itza ez da-
gola zure aitak idatzia baizik eta ustez ezaguna detan beste
baten letra da. Artara ezkerorrek ez du garrantzi aundirik
zure aitari aaztu egingo zitzaion ze egunetan izenpetzen zuan
jartzea eta besteren batek iltzala jakin baño lenago jarriko
zituen itz oiek. Asuntoaren giltza, firma da. Benetan, zure
aitarena al da firma ori? Zure aitak berak jarri al zuan or
izena?
- NORA.—(*Pittin batean ixillik dago gero burua altxatzen du ta
burrukarako prest bezela begiratzen dio.*) Ez, etzuan ark
jarri. Nik idatzi nuen or aitaren izena.
- KROG.—Begira andrea. Oartzen al zera ze gora bera ekarri le-
zaizukuen aitorketa onek?
- NORA.—Zergatik! Egun gutxi barru or izango dezu dirua.
- KROG.—Barkatu zaidazu beste galderatxo bat. Zergatik etzenion
zure aitari erreziboa biali?
- NORA.—Ezin zitekkelako. Ain gaxo zegon gizajoa! Ta firma ori
eskatzeko esan egin bear nion zertako nuan. Ta tankera artan
zegon gizon ari... Nola aitortu nere senarraren bizia ari ba-
tean zegoala? Ezin zitekean.
- KROG.—Obe zan ortan ego alderako txango aldi ori ez egitea.
- NORA.—Ori eziñago. Biaji ortantxe zegon nere senarraren osa-
suna ta bizia ta ezin nezaken utzi.
- KROG.—Baña ez altzera konturatzen ze billaukeri egin zenduan
nerekin?
- NORA.—Ez nuan betarik ortan pentsatzeko, gañera bost ajola zi-
tzaidan neri nere senarraren bizia arriskuan zegola jakiñik
ere ain otz eta biotz gabe ikusten zenitudan ortaz.
- KROG.—Andrea ikusten denez etzera konturatzen zer ganantzi
duan zuk egin dezun orrek. Kontuan jausi zaitezen auxe esan-
go dizut. «Ni loipean sartu ta utzi naun txarkeria etzala ori
baño okerragoa.»

NORA.—Zuk egin zenduena, emaztearen bizia salbatzeko egin zenuala sinistarazi nai al didazu?

KROG.—Legeai etzaie ardura zergaitik egin degun gaiztakeria.

NORA.—Orduan legeak ez dira zuzenak.

KROG.—Zuzenak edo okerrak paper au agintariengana eramaten badet lege oien barruan epaituko zaituzte.

NORA.—Ez det uste. Alaba batek ez du eskubiderik il zorian dagon aita zaarrari buru austerik eta nai gabekorik emateko ta emazte batek ez al du eskubiderik bere senarraren bizia salbatzeko? Nik ez ditut legeak zeatz-meatz ezagutzen baña ziur nago nun edo an jarriko duala gauz ori estuasun ta egokiera batzutan libre dala. Ta... zuk, lege gizona zeran orrek ez al dakizu ortaz ezertxo. Ez derizkiot legegizon bezela oso iaioa zeranik Krogstad jauna.

KROG.—Ba liteke baño esku-artean darabiltzkgun autuetan oitua naizela aitortuko dezu; orain egin zazu naidezuna. Baña bigarren aldiz nik nozitzen badet zuk ere nerekin batera nozitu bearko dezu.

(Agurtzen du ta badijoa.)

XIIgarren AGERRALDIA

NORA.—*(Pittin batean pentsakor gero buruari eragiten dio.)* Ba! Bildurtu egin nai nindun baña ez naiz tuntuna. *(Aurtxoan jantziak biltzen asten da ta geroxeago gelditu.)* Ala ere ezin liteke! Maite sumindua...

AURRAK.—*(Ezkerreko atean.)* Ama joan al da jaun ori?

NORA.—Bai, bai, badakit baño etzaiozute iñori aitatu jaun ori emen izan danik eh! Entzun! Ezta aitatxori ere.

AURRAK.—Ez ama, orain jostatu nai al dezu gurekin.

NORA.—Ez orain ez.

AURRAK.—Ah! agindu zeniguzun ama.

NORA.—Ezin dut ba, zoazte ederrok lan asko daukat. (*Maitasunez ateraño laguntzen die ta ixten du atea.*)

XIIIgarren AGERRALDIA

(Nora ta gero Elena)

NORA.—(*Silloiean exertzen da, bordatzeko zapi bat artzen du ta pixkabatean jardun gero kendu, uzten du, jaikitzen da ta sarrerako ateruntz dijoa.*) Elena, ekarri ezazu zugaitz ori (*inguratzan da ezkerreko maira ta kajoi bat irikitzen du, berekiko*). Ez! Ezin liteke iñola ere!

MIRABEA.—(*Eguarri zugaitzakin.*) Nun jarri bear da etxeko andrea?

NORA.—Ortxen erdi erdian.

MIRABE.—Besterik ezer bear al du.

NORA.—Ez, eskerrik asko. Ba ditut emen bear ditudanak. (*Ba dijoa mirabe zugaitza utzi ondoren ta Nora arbola apaintzen asten da.*) Emen argiak bear dira. Emen berriz loreak jarriko ditut! Dollorra! Billauna!... berriketak eh... Ez du ezertxo ere esan nai. Polita jarri beardegu eguarri zugaitza... Nik zuk nai dezun guztia nai det Torwaldo... Dantzatuko naiz, zuri atsegin emateagatik kantatuko dut. (*Helmer, paper pilla bat galtzarbean duala sartzen da.*)

XIVgarren AGERRALDIA

Nora ta Helmer

NORA.—Ara! Emen al zera.

HELMER.—Bai iñor etorri al da.

NORA.—Onera ez.

HELMER.—Arritzekoa da ba. Krogstad etxetik ateratzen ikusi dut.

NORA.—A, bai, bai, Krogstad egon da istanpatean.

HELMER.—Baietz igarri zertara etorri dan. Bere alde itzegin dizaidazula zuri eskatzea etorri al da?

NORA.—Bai.

HELMER.—Ta zeuri jaio ba litzazu bezela egiteko esango zizun gañera: bera etorri zaizunik neri esan gabe?

NORA.—Bai Torwaldo baño...

HELMER.—Nora, Nora zer egin dezu? Ori dan bezelako gizon batekin izketan jarriko ziñan ba ta baietz agindu egin diozu gañera. Ta okerrena gero neri gezurra esan!

NORA.—Gezurra?

HELMER.—Eztidazu ba esan eztala iñor etorri? (*Beatzakin amenazatuaz.*) Eztu berriz orrelakorik egingo nere larratxori kantariak... eh? Txoriak mokoan garbi euki bear du txorrotxio alaiak ateratzeko. (*Gerritik eltzendio.*) Ez al da ala? Bai, banekian bai nik (*uzten dio*). Bueno gau ontan ezta itz ere geiago! (*Tximiniaren aurrean exertzen da.*) Bai ederki egoten dala emen! (*Paperari begira. Nora berriz zuatza apaintzen kera pizka bat.*)

NORA.—Torwaldo. Torwaldo!!!

HELMER.—Zer?

NORA.—Ezti Stemberg'en etxera dantza-aldira joateko pozez zoratzen nago.

HELMER.—Ta ni berriz zu nola azalduko ote zeran jakiteko irrikitzen!

NORA.—Ba aspertu naiz oraintxe.

HELMER.—Zertan?

NORA.—Ez det billatzen gustoko soñekorik. Danak txatxu ta itxusi iruditzen zaizkit.

HELMER.—Ederki gaude! Ori da ateraldia! Nora!

NORA.—(*Butakaren atze-aldetik ukalondoak ezartzen dizkiola.*) Presa al dezu Torwaldo?

HELMER.—Ba...

NORA.—Ze paper dituzu oiek?

HELMER.—Bankuko gauzak.

NORA.—Ah...

HELMER.—Kargua utzi ta ateratzen diran direktoreak nai ditudan aldaketa guziak egiteko eskubidea eman didate, bai personetan ta bai gauzetan ta eguberri aste ontan orixe prestatzen ari bear det, urte berritarako dana erabakia euki-nai nuke ta.

NORA.—Ordun orregatik Krogstad gixagajoa...

HELMER.— Jum...!

NORA.—*(Eskuarekin ileak igurtziaz.)* Orren lanperatua ez ba-zeunde, mesede bat eskatuko nizuke.

HELMER.—Ea, ba, zer litzake?

NORA.—Iñor baño gusto geiago dezu, ta dantza ortara nai nuke ba apaiñ joan... Torwaldo, ez al zenidake zuk aukeratuko soñekoa?

HELMER.—Ara, ara gure kaska-gogorra nola bigundu dan.

NORA.—Bai Torwaldo zu gabe ezin det ezer erabaki.

HELMER.—Bueno, bueno, ikusiko det, asmatuko det zerbait.

NORA.—A, bai ona zerala! *(zugaitzera itzultzen da) (ixil-unea).*
Aizu ta oker aundia al da Krogstadek egin duana?

HELMER.—Lapurretak egin ditu. Ba al dakizu ori zer dan?

NORA.—Bear-ba mixeri gogorrak beartuko zuan ortara.

HELMER.—Bai askotan geiegi pentsatu gabe egiten dira gauzak ta ez det nik oinbestez gañera beingoagatik bakarrik gizona gaitzetsiko.

NORA.—Ez, ezta Torwaldo?

HELMER.—Bat baño geiago zintzotzen dira baldin ta bere okerra aitortu ta zigorra betetzen ba-dute.

NORA.—Zigorra?

HELMER.—Baño Krogstadek ez du bide ori artu. Maltzurkeriz ta azpikeriz estali nai izan du egindako okerra ta orretzek galdu du.

NORA.—Uste al dezu...

HELMER.—Orrelako persona batek. Arra barruan darabilki ta noiz nai gezurra esan oi du itzetik ortzera, baita etxean bere amazteari edo semeari ere. Ta ori seme-alabentzat izugarria da.

NORA.—Zergatik?

HELMER.—Gezur giro ortan etxeko guziak kutsatzen diralako. Seme-alabak, arnasa artzen duten bakoitzean, irentsitzen dituzte gaiztakeri-aziak.

NORA.—(*Inguratzen zaio.*) Egia ote da ori.

HELMER.—Ez da ba izango, maite. Nere abogadutzan ikusi det milla bider. Ia gaizto guziak ama gezurti utsa izan zuten.

NORA.—Zergatik diozu ama?

HELMER.—Geienean amagatik izan oi dalako, askotan aitak ere berdin-berdin egiten dute baño. Ori abogadu guziak ba-dakite ongi asko. Ta alare Krogstadek urtetan gezurra ta saltsa dariola ibiliz bere seme-alabak kutsatu egin ditu, orregatik ez det uste gizon ori zintzotu leikenik. (*Eskuak luzatzen dizkio.*) Ta orrexegatik agindu bear dit nere larratxoriak ez dula txintik aterako aren alde. Agindu zaidazu. Ekatzu eskua. Olaxe. Egiña dago. Ara esaten dizut: nai ta ere ezin al izango litzake oiekin lan egin olako personak gonbitalarria ematen didate ta.

NORA.—(*Eskuak bereizten ditu ta zugaitzaren beste aldetik jartzen da.*) Bero dago emen edo ke giroa... Ta ni ba'nago ba, oinbeste lan egiteko euki-ta.

HELMER.—(*Altxa ta paperak bilduz.*) Paper ontako batzuk ikusi bear ditut bazkal aurretik. Gero ea zure soñekoaz gogoratzen naizen. Zugaitz ortan ere zerbait txintxilikatu bearko det urrezko paperean bilduta. (*Eskuarekin ileak igurtziz.*) Nere larratxori polit ori! (*lan-gelan sartzen da ta atea ixten du.*)

XVgarren AGERRALDIA

Nora ta Mariana

NORA.—(*Kera pitiñ baten ondoren ixil-mixilka.*) Ez, ez. Ez ta ori
ola! Ezin diteke. Ezta inola ere!

MARIA.—(*Ezkerraldean.*) Aurrak mundu guzitik onera etorri nai
dute.

NORA.—Ez, ez, ez. Etzaiezu utzi etortzen. Zoaz kanpora beraiekin.

MARIA.—Bai, ondo da etxekoandre. (*Bijoa.*)

NORA.—(*Izututa, zurituta.*) Nere aurrak kutsatu! Seme alabak
pozoitu! (*Altxatzen du burua.*) Ez da egia!, gezurra da ori!
Ezin diteke egia izan!

Zapia

BIGARREN EKITALDIA

Lengo irudi-toki bera. Atzean pianoaren ondoan, eguberri zugaitza, jostallu ta apainduri guziak kendua. Sofaren gainean Nora'ren sonbrero, guante ta abrigoa.

I AGERRALDIA

Nora, egon-eziñik, larri, bebil orruntz eta onuntz. Geldi bedi **sofaren** ondoan, ar beza abrigoa, pentsatzen bego ta utzi berriz.

NORA.—Ba-dator bat edo bat... (*Ate ondoraño joanta zelatatuz.*) Ez, eztator iñor... Ez da gaurko, nola ba gaur eguberri eguna da ta... ezta biarko ere... Bear ba... (*atea iriki ta kanporuntz begira*). Ez buzoiean ere eztago ezere... Txorakeriak... Etxean benetako amenazoa. Ezin diteke olakorik gerta. Iru aurren ama izaki ta... (*Mariana sartzen da ezkerretik kartoizko kaja aundi batekin.*)

II AGERRALDIA

MARIANA.—Billatu det orratik azkenean soñekoaren kaja.

NORA.—Ondo da. Utzi zazu or maiaren gainean.

MARIA.—(*Uzten du.*) Dagoen bezela bear ba etzaizu ondo geldituko.

NORA.—Ah amar-milla puska egingo nuke gustora txintxilatatu ta kito.

- MARIA.—Ez orixe, errex konpondu ta eratu diteke, pazientzi pixkat bear.
- NORA.—Bai Linde'ren Andrearena joango naiz laguntzera etorri dakidan.
- MARIA.—Antxe gajoak! Eguberritako-erregalien jolasean dabil-tza, bañan...
- NORA.—Askotan aitatzen al naute?
- MARIA.—Ain ama zulo dira...
- NORA.—Bai Mariana, beti gonatar-tean nituan baña aurrera ezin oinbeste denboran egongo naiz berakin.
- MARIA.—Aurra danera jartzen dira.
- NORA.—Zuk ala uste al dezu? Iduritzen al zaizu aztuko nindu-tekela joango banitz betiko...
- MARIA.—Jainko maitea, etzazu esan betiko!
- NORA.—Aizu, Mariana, beti gauz bat galdetuko nizukenean na-bil... Zuk nolatan utzi zendun zure alabatxoa arrotzen es-kuetan?
- MARIA.—Ze erre-meio! Noratxo au azi bear nuan da.
- NORA.—Bai baño nolatan artu zendun erabaki ori?
- MARIA.—Ain zan kolokazio ona! Etzan suerte makala neri ger-tatu zitzaidana gertatutako neska batentzat. Billau arek ez baitzuan nerekin ezer jakin nai...
- NORA.—Seguru asko zure alabak aaztuko zinduan!
- MARIA.—Bai zea, lenengo jaunartzea egin zuanean idatzi zian ta gero berriz ezkondu zanean ere bai.
- NORA.—(*Lepotik eltzen diola.*) Ai Mariana maitea! Zu izan ziñan netzat ama aur nintzanean.
- MARIA.—Noratxo gaixoak ez baitzun ni beste amarik.
- NORA.—Ta nere aurra ere amarik gabe gelditu ba-lira, ba-dakit bai nik berriz zu... Ba berriketak. Esateatik esan egiten dira gauz auek! (*Kaja irikitzen du.*) Tira zoaz zeure lanetara nik... Ikusiko dezu biar zeñen ederra azalduko naizan.

MARIA.—Dantzari guzietan ez da izango zu baño politagorik. Ez orixe (*bijoa ezkerreko atetik*).

NORA.—(*Kaja iriki ta itxi ta utzi.*) Etxetik aterako nintzake ba. Ba-neki ziur eztala iñor etorriko... Bitartean etxean ez dala ezer gertatuko ba neki... Txorakeriak! Ezta iñor etorriko... Uxa pentsamentu txarrak! Beso-erdi auexek orraztu bear ditut ta esku-larruak apaindu... Uxa burutapen oiek!... bat, bi, iru, lau (*karraxi egiten du.*) A ba-dator... (*Atera joan edo ez joan zalantzan Kristina sartzen da, antekambaran sonbro-roa ta abrigoa utzi ditularik.*)

III AGERRALDIA

NORA.—Ah. I al itzenan Kristina? Etzetorren noski beste iñor irekin? Garai onean ator neska!

KRISTI.—Nere galdezka joan aizenala ezan zidaten!

NORA.—Bai ire ostatu paretik pasa bear niñan ta pittin bat lagunduko ote ianen joan naun. Exeri gaitean ta esango diñat zer dan. Biar dantza-billera den gure gañeko bizitzan Stenberg konsularen etxean. Ta Torwaldok, Napolesko arrantza-le-andre jantzi nadilla ta Caprin ikasi nuan tarantela dantza dezadala.

KRISTI.—Hola, hola. Ez zabiltz txikiri-txakarretan e?

NORA.—Bai Torwaldok ala nai din. Emen zegon soñekoa. Torwaldok egin arazi zidanen, baña ain autsia ta ondatua zegon etzekiñat...

KRISTI.—(*Soñekoa ikus-miratu ta gero.*) Bai neska laxter konponduko diñagu. Edergallu batzuk askatuak iru edo lau lekutan besterik etzeukan. Aguro, jostorratza ta aria. Ah. Emen ba-zegon danetik.

NORA.—Bai ona aizenala.

- KRISTI.—(*Josten ari dan bitartean.*) Biar ortaz arrantzale-jantziarekin. Etorriko naun ni ere, ixtanpatean lenik ikusi bear auna. Atzo gauekoagatik eskerrak ematea aaztuta nengoan...
- NORA.—(*Altxa ta ixkin batetik besteraño joanaz.*) Ez diñat uste, emen oi dan bezin ondo egon giñanik. Pittin bat lentxego etorri ba-intzenan... Kristina. Torwaldok ba-din etxea atsegin egiteko artea.
- KRISTI.—Baita ik ere... ezagun den bai aitaren alaba aizenala. Aizan ta... Rank sendagille ori atzo bezin eroria al dago?
- NORA.—Ez, atzo iñoiz baño eroriagoa zegonan. Gizajoak bizkar ezurrean zeukan izugarrizko gaitza. Bere aita, emagalduekin ibiltzen zan nazkagarri bat izan bear ziñan... orregatik semea txiki-txikitatik erdi gaixo beti.
- KRISTI.—(*Josteari utziz.*) Baño neska, zeñek esan dizkin gauz oiek danak?
- NORA.—Iru seme-alaba izan ditunerako bati neska, sasi-mediku diran atso asko etortzen zaizkion bixitara ta gauza asko jakiten ditun...
- KRISTI.—(*Josten asten da berriro ta berriro utzi.*) Rank jaun ori egunero etortzen al da?
- NORA.—Bai egunik uts egin gabe. Gure lagunik onena bera den. Etxekotzako zeukanagu.
- KRISTI.—Ta egia esate al du? Alegia esan nai niken: txurikerian aritzea gustatzen al zaio?
- NORA.—Ez ta gutxigorik ere. Zergatik galdetzen diran?
- KRISTI.—Atzo emen alkar-topo egin gendunen ta ni zein nitzan esan nionean, nere izena sarritan entzun omen zuala esan ziñan. Gero berriz ire senarrak nere aitamenik sekulan egin zionik ez unan gogoratzen. Nere berri nolatan daki orduan Rank jaunak ire senarrak ezpadu.
- NORA.—Arrazoi da Kristina. Torwaldok izugarri maite natxion ta beraz bakarrik izan nadilla nai din, esan dugun bezela. Aurren berri artan zeluak artzen zizkianan lendikan maite nindun personetaz itzegiten nionean ta jakiña, utzi egin nitxionan aren aurrean aitazeari, bañan Rank jaunarekin askotan mintzatzen naun aietaz. Entretenigarri zaizkion.

KRISTI.—Entzuidan ondo, Nora. Gauza askotan oraindikan ume bat aiz i. Ni aldebatetik ik baño urte batzuk geixeago ta bestetik askoz geiago ikusia natxegon ta kontsejutxo bat eman bear diñat Rank dalako jaun orri buruz. Onek ontan bukatu bear din.

NORA.—Zerk bukatu?

KRISTI.—Gauza askok. Atzo esanian nola ametsetan ikusten unan maitale aberats bat ta dirua artzen ziñala...

NORA.—Bai baño ik badakin eztala olako maitalerik... zoritxarez. Zer geiago?

KRISTI.—Rank ori aberatsa al da?

NORA.—Bai dirua ba din.

KRISTI.—Ta familikorik?

NORA.—Ez da iñortxore. Baño ze...?

KRISTI.—Ta egunero etortzen al zain onera?

NORA.—Baietz ba.

KRISTI.—Errespetuko gizona ba-da itxura oitan nola ibili leike, egunero igana etortzen.

NORA.—Neska eztiñat konprenditzen zipitzik ere.

KRISTI.—Etzan diximulatu Nora. Uste al den ez naizela konturatzan zeñi eskatu izkionan milla ta berreun ezkutuak?

NORA.—Txoratu egin al aiz? Benetan ori pentsatzen denala? Nolatan eskatu nitxionan ba egunero sudurraren puntan daukaten lagun bati? Ta gero ze arpegi jarri...

KRISTI.—Ordun benetan ori eztala?

NORA.—Ezetz ba ezetz. Ezta sekula-santan buruan pasa ere etzaidan egin olako pentsamenturik; gañera garai artan naitare etzidanan emango. Artean etziñan orrek dirurik: geroztik jaso dizkin ondareak.

KRISTI.—Obe ere baden iretzako, Nora.

NORA.—Ez, neska, etzizaidan bururatuko medikuari eskatzerik... ezta... alare ziur nion eskatuko ba-nio...

KRISTI.—Baña ez den olakorik egingo e?

NORA.—Ez neska, eztiñak uste premiarik izango dedanik ere, baña ziur-ziur nion nik itz-erdi bat esango ba-nio...

KRISTI.—Ire senarraren ixillean...?

NORA.—Egoera ontatik ala atera bear diñat, sartu ere ala egin nitxionan da. Baña au bai bukatu bear duala.

KRISTI.—Esaten niñan nik atzo.

NORA.—(*Alde betetik-bestera parrez.*) Gizon batek arazo auek emakume batek baño obeto erabaki ta aurrera ateratzen dizkiñ.

KRISTI.—Gizon ori senarra baldin bada bai.

NORA.—Txorakeriak! (*geldituz*). Bana ordaintzen danean, erreziboa itzuliko zidanen ezta?

KRISTI.—Jakiña ba.

NORA.—Ta paper iguiñgarri ua milla puska egin ta erre ta kis-kali nezaken ezta?

KRISTI.—(*Begira-begira jartzen zaio, josteari utzi ta poliki-poliki altxatzen da.*) Aizan Nora, ik zerbait gordetze'idan.

NORA.—Arpegian antzeman al dian?

KRISTI.—Atzo goizetik onera zerbait pasa zain. Zer da?

NORA.—(*Arengana jiratuz.*) Kristina (*entzun-keñua*). Ixo. Torwaldo or zetorren. Joan adi aurren gelara, Torwaldok ezin baitu iñor josten ikusi. Esaion Marianari laguntzeko.

KRISTI.—(*Soñekoak bilduz.*) Bueno baña ezdiñat etxe ontatik aldegingo aik eta dan-dana esate-ianan arte. (*Bijoa ezkerretik ta bitartean betor Helmer antekamarako atetik.*)

IV AGERRALDIA

Helmer eta Nora

NORA.—(*Helmer'i bidera irtenaz.*) Aspalditxoan zure zai negon Torwaldo biotzekoa!

HELMER.—Jostuna al zan?

- NORA.—Ez Kristina biarko soñekoa konpontzen ari zait... ikusiko dezu: aoa bete agiñekin utziko ditut danak.
- HELMER.—Bai gauz ederra bururatu zitzaidan.
- NORA.—Zoragarria. Baña nik ere badet meritua, zuri atsegin ematen saiatzeagatik e?
- HELMER.—(*Kokotza igurtziaz.*) Meritua? Zure senarrari atsegin emateagatik meritua? Tira, tira, etzendun ori esan naiko. Bañoa etzaitut geiago entretenitu nai, soñekoa prestatu bearko dezu ta...
- NORA.—Ta zu, lanera al zoaz?
- HELMER.—Bai (*paperak erakusten dizkio*). Ara, Bankuan izandu naiz. (*Despatxura sartzen asten da.*)
- NORA.—Torwaldo.
- HELMER.—(*Geldituaz.*) Zer?
- NORA.—Zure katagorriak arren ta arren gauzatxo bat eskatuko ba-lizu...
- HELMER.—Zer?
- NORA.—Egingo al zenduke?
- HELMER.—Lenbizi zer den jakin bear det beintzat.
- NORA.—Zuk amore eman nai ba-zendu ta egin zure katagorria saltoka ta brinkoka ibiliko litzake.
- HELMER.—Esan ba zer dan.
- NORA.—Larratxoriak txorrotxiorik politenak aterako lituke.
- HELMER.—Larratxoriak eztaki besterik egiten.
- NORA.—Dantzatuko nintzake illargitan zure entretenigarri.
- HELMER.—Nora... Ez ta ba izango gaur goizean aitatu diazun ura?
- NORA.—Bai Torwaldo... Egidazu mesede orixe.
- HELMER.—Ta oraindik ere ba-dezu korajea ori aitatzeko?
- NORA.—Bai, bai, emaidazu amore, Krogstad'ek bankuan jarraitzea nai det.

HELMER.—Begira, Nora, Linder'en andrea jarri det ain juxtu leku ortan.

NORA.—Estimatzen dizut baño beste bat bota zazu Krogstad bota bearrean.

HELMER.—Setatsua ere markakoa zera. Atzo goizean batere pentsatu gabe agindu zeniola ta nai zenduke...

NORA.—Ezta orregatik Torwaldo. Zuregatik da. Esan izandu didazu bein baño geiagotan gizon orrek periodikorik txarrengotan idatzi duela ta... kalte izugarria egin dezaikezu! Bildurra ematen dit.

HELMER.—A bai, badakit zer gertatzen zaizun, garai bateko gauzetaz oroitzen zera ta ikaratua.

NORA.—Ze adierazi nai dezu?

HELMER.—Alegia zure aitari pasea gogoratzen zaizula.

NORA.—Orixe ba. Oroitu zaitte zenbat paper zikindu zuten gure aitaren kontra persona billau aiek ta zenbat gezur erantsi zizkioten. Gero puestoa galdu bearrean izango zan azkenean, nagusiak zu ez-ba-zinduten bialdu, egia zer zan jakitera ta zuk ain bigun artu ez ba zendu.

HELMER.—Baño Nora: zure aita ta ni ez gera zorro bateko iriñak. Arek etzuan beti garbi jokatu ta nik bai ta baita jokatuko gañera.

NORA.—Bai baña... nork daki zer asma ez lezaken mingaiñ gaiztoak? Ain ederki bizi giñezke pake-pakean poz-pozik zu, arrak eta ni gure kabiyan! Orregatik oinbeste bider arren ta arren ari natzaizu.

HELMER.—Ba ain zuzen zuk eskatzen didazulako ez nezake egin! Bankoan ba-dakite danak kanpora dijoala ta orain jakingo ba-luteke direttore berriari bere emazteak asmoa aldatu-arazi diola...

NORA.—Zer?

HELMER.—Ez lioke ajolik alare, jakiña, zu zeurearekin atera ezker. Uste al dezu mendeko guzien aurrean parragarri galditu nai detala...? emaztearen mende nagola ta emen zuk galtzak jazten dituzula aditzera emanek? Pentsa dezakezu ez litzakela au azkenekoa izango, laster lirake bi baño geiago zure bitartez nigandik au edo ura irixteko ate-joka ta xi-

rikaka. Gañera bada beste arrazoi bat ere Krogstad'ek lanik egin ez dezan bankuan ni direttore naizen bitartean...

NORA.—Ze arrazoi?

HELMER.—Bere gaiztakeriak gora-bera... nik artara ezker ez ikusia edo ez jakiña egin nezake.

NORA.—Bai, ezta? Torwaldo?

HELMER.—Baitikbat langille artetsua dala jakin detan ezker... baño... aspalditik ezagutzen degu alkar. Gaztean txoro-txoro egin eta gero geure bizitzan ainbeste enbarazo egiten diguten adiskide oietako bat da. Alkarri ika itzegiten diogu, orra. Ta gizon orrek ez daki inoren aurrean diximulatzen ere alderantziz ba-dirudi ordun areago aritzen dela ta etzait ixiltzen i ta ti. Gogaikarria da benetan ta bankuan ezin burutu det orrekin.

NORA.—Torwaldo zuk ez dezu pentsatu ezan didazuna.

HELMER.—Ze ba?

NORA.—Zikoitzkeri bat litzakelako ori.

HELMER.—Zikoitzkeria? Zikoitza naizela uste al dezu?

NORA.—Ez-pa, Torwaldo maitea, ta orregatixe.

HELMER.—Berdin dio. Zuk nik egiña zikoitzkeria diozu, beraz zikoitza naizela. Zikoitza, e? Ori ere aditu bear gendun! (*Deituaz.*) Elena!

NORA.—Zertara zoaz?

HELMER.—Erabaki bat artzera. (*Paperen artean bat billatuz.*)

V AGERRALDIA

Lengoak eta Elena

HELMER.—Tori eskutitz au. Oraintze bertan billa zazu mutil bat ta eraman dezala! segituan! zuzenbidea jarria dago. Tori dirua ere.

ELENA.—Ondo da Jauna. (*Bijoa eskutitzarekin.*)

VI AGERRALDIA

Nora ta Helmer

HELMER.—(*Paperak bilduz.*) Orra ba andre setatsua.

NORA.—(*Erdizotinka.*) Zer dihoa sobre ortan?

HELMER.—Krogstad botatzeko agindua.

NORA.—Arzazu berriro Torwaldo! Oraindik garaia da. Etzazula bialdu! Egizu nigatik... zugatik ta aurrengatik: Entzuidazu Torwaldo!... Egidazu mesede orixe! Eztakizu gizon onek zenbateraño zoritxar ekarri lezaizuken.

HELMER.—Beranduegi da.

NORA.—Bai beranduegi da.

HELMER.—Barkatzen dizut Nora, zure larrialdi au neretzat iraiñ bat besterik ez dan arren. Bai iraiñ ta destaña egiten didazu orrela larritzearekin. Ez al da iraiña neretzat, zuk legegizon txatxu orren bengantzaren bildur izan nitekela uste izatea? Baña dana dala barkatzen dizut, asko maite nauzula adierazten du ta. (*Besoetan artzen du.*) Bear-bearrezko da nere biotzeko Nora. Nai duana egin dezala. Une larrietan nik artzen ditut erabakiak ta datorrena betor eratzunkizun guzien jabe egiten naiz.

NORA.—Zer esan nai dezu?

HELMER.—Erantzunkizun guziak nere gain artzen ditudala.

NORA.—(*Irmo eta gogor.*) Ez, ori ez dezu egundo egingo.

HELMER.—Bueno, ondo da. Bien artean ba, Nora senar-emazteak geranez. Ala izan bear du. (*Lastanduaz.*) Orain konforme al zaude? Tira, tira, ez eidazu begiratu usakume izutuak bezela. Zure usteak ta bururakizunak dira oiek! Utzi buruauste oiek ta ekiñaldi bat egizu dantzan biarko trebetu zaitezten. Ni ere lan-gelan sartuko naiz, atea itxiko det eta ez det andik ezer entzungo. Atera dezakezu nai aña zarata! Rank datorenean esaiozu nun naizen. (*Buruarekin agur sinua egiten dio ta paperak bilduz despatxuan sartzen da ta atea ixten du.*)

VII AGERRALDIA

Nora Rank ta gero Elena

NORA.—(*Arrunt izutua ta penatua, bego geldi-geldi ta bere-kixa ixil-xamar ala dio.*) Kapaz da ua egiteko. Kosta-ala-kosta egingo du. Ez, beñere ez! Edozer ori baño len!... Korajetu nadin... Aitzakiren bat! (*atea jotzen dute.*) Rank sendagille jauna izango da! Edozer ori baño len... edozer gauza! (*Kopeta eskuarekin igurtzen du, ta bere burua alegiñean lasaituta atea irikitxera dioa. Zirristatik Rank ikusten da abrigoa zintzilik uzten. Illunabarra da.*) Arratsalde on sendagille jauna. Atea jotzeko tankeran antzeman diot zu zerala. Etzaito orain Torwaldorengana joan lanean ari baita.

RANK.—Ta zu?

NORA.—(*Medikua sartu eta berak atea itxi bitartean.*) Nik badakizu zurekin egoteko beti izaten detala tarte pixka bat...

RANK.—Eskerrikasko. Al detan denbora guzia aprobetxatuko det.

NORA.—Ze alditan denbora guzia?

RANK.—Bai, izutu egiten al zera?

NORA.—Esaera arrigarria da. Zerbait pasako al da ba?

RANK.—Bai aspalditxotik igerria neukana, baña ez nuan uste aïn aguro izango zanik.

NORA.—(*Larri besotik eltzen dio.*) Ze pasatzen da? Ze esan dizute? Asi ta buka guzi-guzia esan bear didazu...

RANK.—(*Tximini ondoan exertzen da.*) Aldaparen barreneraño eratxi naiz ta ontara ezkerro ez dago ezer egiterik...

NORA.—(*Arnasa artuz, lasaiago.*) Zeure buruagatik ari al zera?

RANK.—Noski, zeñengatik ba? Zertako nere buruari iruzur egin? Nere gaixo guzietan errukarriena ni naiz. Egun auetan nere osasunari edo gaixotasunari alde guzietatik ondo begiratu diot ta nereak egin du! Illabete bat baño lenago, bear ba, auts biurtua nengoke...

NORA.—Gizona, gizona, etzazula olakorik esan. Itxusiegia da ori aitatzeko ere.

RANK.—Izan ere gertatu bear zaidana da zearo itxusia eta ezin inola apaindu ta politu. Ta okerreña aurretik etorriko diran oñazeak. Gauzatxo bat bakarrik daukat ikusteko ta orixe egitean jakingo det gutxi gora bera noiz izango dan azkenaren asera. Gauz bat esan bear dizut. Helmer izakeraz minberatia da ta gaitz egiten diote itsusikeriak. Ez det nere oe-buruan ikusi nai.

NORA.—Baño jauna...

RANK.—Ez det nai ta kitto. Ez aitzakiarik sumatzen asi. Nere etxeke atea itxiko diot. Ondamendia gañean detala ziur jakin ordukoxe bialduko dizut nere tarjeta gurutze beltz batekin markatua ta ortatik antzemango diozu nere bukaera asia dala.

NORA.—Ez, e. Gaur aldrebekeri geiegi esaten ari zera. Ta nik umore oneko egotea neukan premiarekin...

RANK.—Nola ordea, eriotza begien aurrean detalarik (*geldiunez*). Ta besterengatik nozitu bear! Ori al da zuzentasuna? Etxe guzitan izaten da alde batera edo bestera gañerakoengatik nozitzen duenen bat...

NORA.—(*Beatzakin belarriak itxiz.*) Ixo! Ixo! Pozik gaude, pozik gaude.

RANK.—Bai pentsatzen jarri ezkerro parregarria da bai. Nere bizkar-ezurak sufritu bear gajoak aita (teniente) gaztea zenean alaiki pestarik-pesta ibili zalako.

NORA.—(*Ezkerraldean beladorearen inguruan.*) Esparragoak eta pastelak geitxo gustatzen zizaizkion ezta?

RANK.—Baita gezurak ere.

NORA.—A, bai gezurak asmatzea ta neska gazteak?

RANK.—Orixe ba, neska-gazteak ziriak nori sartu izateko.

NORA.—Baita ardo gorria ta txanpaña... Lastima da orren gauz onak izaki ta bizkar ezurrari gaitz-egitea.

RANK.—Bai, batez-ere, sekula gauz on oiekin gozatu ez duan bizkar ezur gajoak nozitu bear duanean...

NORA.— Bai orixe da okerreña!

RANK.—(*Norari begira-begira.*) Hum...!

NORA.—(*Itxoin aldi txiki baten ondoren.*) Zeri par egiten diozu?

RANK.—Parra, zuk egin dezute ta parra?

NORA.—Ez jauna, ez, zu izan zera par egin dezuna

RANK.—(*Altxatuz.*) Uste nuen baño adar-jotzaleago zera.

NORA.—Ezta ori. Gaur txorakeria besterik ez detala esaten baizik.

RANK.—Ezagun da bai.

NORA.—(*Medikuaren sorbalda gañean eskua jarrita.*) Medikumaitea ez dezute il bear da Torwaldo ta biok emen bakarrik utzi!

RANK.—Ba, ez bear orregatik belaxe kontsolatuko zerate. Ain erraz aaztutzen dira illak!

NORA.—(*Larritasunez begiratzen dualarik.*) Ala uste al dezute?

RANK.—Adiskide berriak egiten dira ta gero...

NORA.—Adiskide berriak egin?

RANK.—Bai Helmer'ek eta zuk alaxe egingo dezute ni izkutatu ordukoxe. Zu asi zerala derizkiot. Ze egin bear zuan bart gauean emen Linde Andreak?

NORA.—Ah... Ez al dizkiozu Kristina gajoari zeluak artuko!

RANK.—Bai. Uaxe izango da nere ondorengo etxe ontan. Ni il-tzen naizenean andre ori...

NORA.—Ixo. Etzazula ain ozenki itzezin emen dago ta.

RANK.—Gaur ere bai? Ikusten dezute.

NORA.—Nere soñekoa antolatzerantz etorri da. Jainko maitea, bai ulerkaitza ta gogorra zaudela gaur. Orain txintxo izan bear dezute e? Ikusiko'zu biar zeñen ederki dantzatuko naizen ta pentsa zenezake zuregatik egiten detala... bueno ta Torwaldorengatik ere bai, Jakiña! (*ateratzen du zenbait gauz kajatik*). Exeri zaitetz gauz batzuk erakutsi dezaizkizudan!

RANK.—(*Exeritzen da.*) Ze erakutsi bear didazute?

NORA.—Eztaukazu begiratu besterik... Ikusi!

RANK.—Udazko galtzerdiak.

NORA.—Aragi-kolorezkoak. Ez al dira politak? Orain illuntxo dago baño biar... Ez, ez, zuk ez dezu ikusiko zankoak besterik. Alare txiripaz zeozer geiago ikusiko ba-zendu.

RANK.—Hum...!

NORA.—Zergatik jartzen dezu duda-arpegi ori? Ez ote didate ba ondo emango?

RANK.—Nik zer dakit ba?

NORA.—(*Ixtanpatean begira dagokio.*) Jun zaite pikutara! Gizona bai gaiztoa! (*galtzerdiekin joaz belarri bat estutzen dio*). Ala zaude orain (*ta kajan sartzen ditu*).

RANK.—Ze gauz arrigarri ikusi bear ditugu ba.

NORA.—Orain batez. Eztezu ezer ikusiko txintxoia izan etzeralako (*kaja miatzen du kantari*).

RANK.—(*Itxoin aldi txiki baten ondorean.*) Emen ola zurekin goxo goxo nagoenean ezin det asmatu... Ez det sumatzen ze izango nintzan gaur sekula etxe ontara etorri ez banintz.

NORA.—(*Irriparrez.*) Bai, egia esateko bapo zabiltz emen.

RANK.—(*Ixillago eta aurrera zuzen zuzen begira.*) Ta au dana utzi egin bear...

NORA.—Txorakeriak! Ze utzi bearko dezu ba.

RANK.—(*Len bezela.*) Ta ezin utzi eztigarri bat era... Geienaz ere laister uxatuko dan saminaldiren bat... lenengo datorrenak beteko duan utsune txiki bat.

NORA.—Ta nik eskatuko ba nizu...? Ze...?

RANK.—Eskatuko ba zeniake... zer?

NORA.—Maite nauzula señale bat.

RANK.—Bai, zer?

NORA.—Alegia mesede izugarri bat.

RANK.—Emango ote didazu ba iñoiz poz ori?

NORA.—Bai, baña zuk etzenduke asmatuko zer den.

RANK.—Ia ba esaidazu.

NORA.—Ez, ez, ezin det esan! izugarria da... kontseju bat, lagun-tza bat, mesede bat, oiek danak batera...

RANK.—Orduan da obe. Ezin det igarri ze izan diteken baña, osan zazu ba bein. Ez al daukazu nigan konpiantzarik?

NORA.—Inorgan baño geiago. Badakit zu zerala nere lagunik one-na ta leialena, ta onegatik dana kontatzera noakizu. Ba, jau-na, gauz bat gerta ez dedin laguntza bear dut. Zuk bada-kizu zenbat maite naun Torwaldok, ixtanpatean zalantzan egon gabe emango luke nigatik bizia.

RANK.—(*Norarengana makurtuaz.*) Nora... arek bakarrik uste al dezu?

NORA.—(*Atzealderatuz.*)

RANK.—Zer? Ark bakarrik uste al dezu? Zuregatik pozik eman-go lukela bizia?

NORA.—(*Itunki.*) Baña benetan?

RANK.—Ziñ egin det ni il baño lenago jakingo dezula. Egokiera oberik ez nezake topa. Bai, Nora, nik ere bai! Esan zenezai-dake uste oso osoarekin.

NORA.—(*Lasai lasai altxatuaz.*) Utzi zaidazu pakean.

RANK.—(*Pasatzen uzten dio baña altxa gabe.*) Nora!

NORA.—(*Sarrerako atean.*) Elena ekarri zazu argia. (*Tximini al-dera joanez.*) Oh, Jauna gaizki egin dezu.

RANK.—Gaizki egin al det biotzaren barren barrendik zu mai-tatzea?

NORA.—Ez, baña aitortzea bai. Naikoa zan...

RANK.—Ze esan nai dezu? Ba zenekiala? (*Neskamea sartzen da krisallua eskuan duala mai gañean utzita bijoa.*) Nora... Andrea... Ba al zenekin galdetzen dizut.

NORA.—Ba al dakit neronek ere? Ezin esan dezaitezut. Baña nolatan egin dezu baldarkeri ori? Ain ondo ari giñan...

RANK.—Dana dala, orain badakizu ziur gorputz ta anima zuk nai dezunerako prest naukazula. Itzegin nai al dezu orain?

NORA.—(*Begira begiratzuz.*) Aitortu didazunaren ondorenean?

RANK.—Mesedes esaidazu zer dan.

NORA.—Kito, gure artu emanak bukatu dira. Eztezu ezer jakingo.

RANK.—Bai, bai, esaidazu. Ez nazazula orrela zigortu. Al deda-neraño laguntzen utzi idazu.

NORA.—Orain gañera esanak-esanda gero, ezin erregalirik egin didazu. Gañera ez det iñoren BEARRIK; KUTIZI BATZUK BESTERIK etzan, bixtakoa da. (*Mezedoran exertzen da, irri-parrez begirutzen dio.*) Bene-benetan gaizto-pikaroa zera Rank. Ez al dizu lotsik ematen orain arpegia pixtuta alkarrren aspajoak ikusten dizkiogunean?

RANK.—Egia esatekotan ez. Bañan aldegin bear det... beti-betiko?

NORA.—Ez gizona. Ezta pentsature. Orain arte bezelaxe etorriko zera, jakiña, Torwaldok zurekin egon gabe ezin etsi duala ba-dakizuta.

RANK.—Bai baña zuk?

NORA.—Nik? Nik ain begi-onez ikusten det dana zu emen zaudenean...

RANK.—Orretzek, orretzek utsegin-arazi dit len ere. Umea bai konprendi-gaitza zerala! Helmer'ekin bezin gustora ta atsegiñez zeundela nerekin iduritzen baitzizaidan askotan.

NORA.—Ta egia da. Pertsona batzuek maitatuak baitira ta beste batzuek atsegiñak...

RANK.—Ala da bai.

NORA.—Jaiotetxen bizi nintzanean iñor baño geiago aita maite nuan jakiña, baña nere atsegiñik aundiena ixilka neskameen gelara jeiki ta aiekin egotea izaten zen, ez baitziraten beñere erritik ematen ta gañera ain kontu politak batek bes-teari kontaktzen zizkioten...

RANK.—A ederki da. Ordun neskameen ordezeko nauzu ni.

NORA.—(*Biziki jaikiaz ta arengana joanaz.*) Ez gizona, ez det orrelakorik esan nai izandu. Bañan kontu egin dezakezu orain Torwaldorekin len aitarekin gertatzen zitzaidana pasatzen zaitela.

- ELENA.—(*Antekamaratik irtenez.*) Etxekoandre! (*Belarrira itzegiten dio ta tarjeta bat ematen.*)
- NORA.—(*Tarjetari begiraturuz.*) A! (*Patrikan gordetzen du.*)
- RANK.—Gauza txarren bat?
- NORA.—Ez, ez. Zera... nere soñeko berria.
- RANK.—Ara! Or eztago ba?
- NORA.—Bai, ori bai, baña au beste bat da. Nik neronek egiñarazi det... Torwaldok ezer eztaki...
- RANK.—A! Ori zan ordun zure sekretua?
- NORA.—Bai, orixe. Jun zaite azkar Torwaldorengana ta eutsiozu au.
- RANK.—Lasai egon zindezke, eztit aldegingo. (*Helmer'en langelara joaten da.*)
- NORA.—(*Neskameari.*) Ta sukaldean al dago zai?
- HELMER.—Bai andrea. Mirabeen eskalleratik igo da ta.
- NORA.—Ez al diozu esan bisita batekin nagoela?
- ELENA.—Bai, baña alperrik.
- NORA.—Ez al zun joan nai?
- ELENA.—Ez; etxekoandrearekin itz egin gabe ez dijoala iñolaz ere esan du.
- NORA.—Ondo da. Datorrela ba. Baña, ixil ixilik eta zaratarik atera gabe, ta etzaiozu iñori esan, Elena, nagusiarentzat us-tekabea baita.
- ELENA.—Bai, bai, oartzen naiz...
- NORA.—Izugarrizko trumoaia lertzera dijoa. Eman degu. Ez, ez, eztu orrelakorik gertatu bear! (*Giltzez ixten du Helmer'en despatxuko atea.*) (*Ondoren neskamea ta Krogstad.*) (*Au biajero trajeaz, bota gogorak eta larruzko txamarra ditularik.*)

VIII AGERRALDIA

Nora eta Krogstad

NORA.—(*Krogstad'engana inguratuz.*) Aopean itzezin nere senarra or dago ta.

KROG.—Ondo dago.

NORA.—Zer nai dezu?

KROG.—Zuri gauz bat esan.

NORA.—Esan ba aguro zer den.

KROG.—Ba dakizu noski lantokitik bota nautela.

NORA.—Ezin galerazi izandu det. Il edo bizi jardun naiz zure alde, baña nere alegin guziak alperrik izan dira.

KROG.—Orren gutxi maite al zaitu zure senarrak? Zer gerta lekioken jakin ta alare ausartzen da...

NORA.—Baña, uste ote dezakezu badakiala?

KROG.—Egia esan bear badet, ez. Ori jakitea nere Torwaldo gizaioak ez baitu oinbeste koraje.

NORA.—Krogstad Jauna nere senarraz errespetoz mintza zaitela eskatzen dizut.

KROG.—Zor zaion ainbat errespetoz itzegingo det, baña zu arazoak ixillean gordetzen ta estaltzen ainbeste saiutzen zeran ezkeru egin zendun artan zer gora bera dijoakizun atzo baño jakiñaren gañeagoan egongo zerala uste det.

NORA.—Zuk baño obeto gauzak adiraziko dizkidatenak ba ditut.

KROG.—Ala ba... izan ere nik bezelako legegizon txatxu batek...

NORA.—Zer nai dezu?

KROG.—Ezer ez. Zu zer moduz zauden jakin, andrea. Egun guztia zukan pentsatzen pasa det. Naiz ta legegizontxo bat izaki, naiz ta zuek alamoduzkotzat euki, nik ere biotza ba det ordea.

NORA.—Erakutsi zaidazu ba. Oroi zaitte nere aurretaz.

KROG.—Zuk gogoan izan al dituzu nereak? Baña, ez dio ardura aundirik. Auxe bakarrik esan nai nizun: etzaitzela geiegi izutu ta larritu, ba oraingoz etzaitut auzitegira eramango.

NORA.—Ez, ezta? Ba nun esperantza.

KROG.—Arazo au, onez onean ba lagun bezela buka genezake, gu irurok ez beste iñortxok ezer jakin gabe.

NORA.—Nere senarrak eztu sekula ezer jakin bear.

KROG.—Nola galerazi zenezake? Oraindik zor dezuna ordaintzeko aiña diru ba al daukazu ba?

NORA.—Oraintxe ta emen bertan ez.

KROG.—Egun gutxi barru eskuratzeko biderik topatu al dezu?

NORA.—Ez, erabili nezaken biderik ez.

KROG.—Gaiñera elizuke ezertarako balioko, ezpaitizut itzuliko papera munduko diru guziagatik ere...

NORA.—Jakin al nezake paper onekin zer egin nai dezun?

KROG.—Jaso egin nai det, besterik ez, nere mende euki, bañan ez du beste iñork ezer jakingo. Ba dakizu ba baldin ta etsipenez asmo txarren bat izango ba zenu...

NORA.—Bai, izandu det ba...

KROG.—Danak utzita, iges egitea pentsatu ba-zenu...

NORA.—Pentsatu det, bai.

KROG.—Edo oraindik okerrago diteken zerbait.


NORA.—Bañan nola?


KROG.—Utzi itzazu asmo txar oiek.

NORA.—Baña nola dakizu zuk asmo oiek ditutala.

KROG.—Ia danok izan oi ditugu lenbizitik. Nik ere izan nituan.

(Badarraioke)





PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

**BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País)**

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 »
Número suelto	400 »

**MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales
«Aranzadi»)**

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de
Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN